“Azken arau-aldaketa: 2015/04/01”

# Azaroaren 9ko 1994/7. Foru-araua, balio erantsiaren gaineko zergari buruzkoa (BAO Abenduaren 14koa)

Bizkaiko Batzar Nagusiek, 1994ko azaroaren 9ko Osoko Bilkuran, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 7/94 Foru Araua onetsi dute, eta nik aldarrikatu egin dut eta argitaratu dadila agindu dut. Horren berri eman dut, foru arau hori aplikatu behar zaien herritar guztiek, norbanako nahiz agintari, hura bete eta betearazi dezaten.

Bilbon, 1994ko azaroaren 14an.

Diputatu Nagusia,

JOSE ALBERTO PRADERA JAUREGI

**AZAROAREN 9KO 1994/7. FORU-ARAUA, BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGARI BURUZKOA**

## HITZAURREA

Abenduaren 28ko 37/1992 Legeak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko araupeketa berria ezarri zuen 1993ko urtarrilaren lehenaz geroko eraginez, elkarteko zerga-aldetiko armonizazio-prozesuari egokitua.

Geroago, eta 37/1992 Legeak Zerga itundu baten funtsezko aldaketa egiten duela kontutan izanik, Lege honi egokitu zitzaion Euskal Herriko Autonomi Elkartearen eta Estatuaren arteko indarreko Ekonomi Itunea. Egokitzapen hau abenduaren 13ko 11/1993 Legearen bitartez egin zen.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren esparruan, eta 1993ko urtarrilaren lehenaz gero, urtarrilaren 12ko 1/1993 Arauematezko Foru Dekretuak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 16ko 8/1986 Foru Araua indargabetu eta araubide orokorreko lurraldean Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruz ezarri zedin arautegiaren aplikazioa ezarri zuen Lurralde Historiko honetan, bertako eskudun Erakundeek berarizko araupeketarik egin ez zezaten bitartean.

Une honetan, bidezko irizten zaio araupeketa hori egiteari, horixe dela Foru Arau honen xedea.

## ATARIKO TITULUA
## IZAERA ETA APLIKAZIO-EREMUA

### 1. artikulua. Zergaren izaera.

Balio Erantsiaren gaineko Zerga zeharkako tributua da; tributu hau kontsumoaren gainekoa da eta, honako Foru Arau honetan aurrikusirik dauden eran eta baldintzapean, ondoko eragiketok kargatzen ditu:

a) Enpresari edo profesionariek burutzen dituzten ondasun-emateak eta zerbitzugintzak.

b) Elkartebarneko ondasun-eskuraketak.

c) Ondasun-inportazioak

**2. artikulua. Arau aplikagarriak.**

Bat. Indarrean dagoen Ekonomi Itunearen 27.2 artikuluan xedatzen denaren esparruan, Zerga hau Foru Arau honetan eta bere garapenerako xedapenetan ezarritakoaren arabera eskatuko da.

Bi. Zerga hau aplikatzean, kontutan edukiko da Espainiako Estatuak izenpetu eta berretsi edo atxeki dakien nazioarteko Itunben eta Hitzarmenetan xedatutakoa.

**2.bis. artikulua. Zergaren ordainarazpena eta zerga-egoitza.**

Bat. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ordainarazpena foru-aldundi honek egingo du honako arau hauen arabera:

1.a. Aurreko urteko eragiketen zenbateko osoa 7 milioi eurotik gorakoa izan ez duten eta zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan daukaten subjektu pasiboek Bizkaiko Foru Aldundiari soil-soilik ordainduko diote Zerga, eragiketak egiten diren lekua edozein dela ere.

2.a. Aurreko urteko eragiketen zenbateko osoa 7 milioi eurotik gorakoa izan denean eta eragiketak Bizkaian baino ez badituzte egin, subjektu pasiboek Bizkaiko Foru Aldundiari soil-soilik ordainduko diote Zerga, zerga-egoitza non dagoen aintzat hartu gabe.

3.a. Subjektu pasiboak eragiketak Bizkaian eta beste lurralderen batean edo batzuetan egin baditu eta aurreko urteko eragiketen zenbatekoa 7 milioi eurotik gorakoa izan bada, Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako eragiketen zenbatekoaren heinean ordainduko diote Zerga Bizkaiko Foru Aldundiari; eragiketen zenbateko hori artikulu honetan ezartzen diren lotura-puntuen arabera zehaztuko da eta zerga-egoitza non dagoen aintzat hartu gabe

Bi. Eragiketen zenbateko osoa honako hau izango da: ondasunak ematerakoan eta zerbitzuak egiterakoan subjektu pasiboak lortu dituen kontraprestazioen zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta baliokidetasun-errekargua alde batera utzita, halakorik badago.

Jardueran hasi berriak direnen kasuan, 7 milioi euroko kopurua zenbatzeko, egutegiko lehenengo urtean egindako eragiketen zenbatekoa hartuko da kontuan.

Jardueran emandako lehenengo urtea ez baldin bada egutegiko urtebete, kopuru hori zenbatzeko, jardueraren hasieratik egindako eragiketatik abiatuko da urte osokoa kalkulatzeko

Hiru. Subjektu pasiboak lurralde batean diharduela ulertuko da, hurrengo 4. atalean ezartzen diren loturaguneen arabera, bertan ondasun-emateak edo zerbitzugintzak egiten dituenean.

Lau.

1. Zerga honen ondorioetarako, eragiketak Bizkaian egintzat joko dira ondoko erregelen arabera:

   1.a. Ondasun-emateak.

      A) Gauzazko ondasun higigarrien emateak Bizkaiko Lurralde Historikotik jartzen direnean eskuratzailearen esku.

         Ondasunak eskuratzailearen esku jartzeko garraiatu behar izanez gero, bidalketa edo garraioa hasterakoan ondasunak Bizkaian badaude. Erregela honek honako salbuespenok ditu:

         a) Ondasun-ematea egiten duenak transformaturiko ondasunak badira, baldin eta haien azken transformazio-prozesua Bizkaian egin bada.

b) Emateak Bizkaitik kanpo industri elementuen instalazioa badakar, prestaketa- eta fabrikazio-lanak lurralde horretan egin badira eta instalazio edo muntaketaren kostua kontraprestazioaren %15etik gorakoa ez bada.

Horrekin jarraituz, industri elementuen instalazioa berekin dakarren emateak ez dira Bizkaian egintzat joko, gertakuntza- eta fabrikazio-lanak lurralde horretan egin badira eta instalazio edo muntaketaren kostua kontraprestazioaren %15etik gorakoa ez bada.

c) Ondasunen igorpena eta garraioa Erkidegoko estatu batean hasten bada eta urruneko salmentei buruzko araudiaren betekizunak betetzen badira, ondasunaren garraio Bizkaian bukatzen denean.

B) Argindar-ekoizleek egindako ondasun-emateak, horren sorkuntza-zentruak Bizkaiko Lurralde Historikoan badaude.

C) Ondasun higiezinen emateak, emandako Bizkaian badaude.

2.a. Zerbitzugintza.

A) Zerbitzugintza Bizkaitik egiten bada.

B) Aurreko letran xedatutakotik salbuetsita daude ondasun higiezinekin zerikusi zuzena duen zerbitzugintzak, ondasunak Bizkaian kokaturik badaude, Bizkaian egintzat joko baitira.

C) Halaber, aurreko letretan xedatutakotik salbuetsita daude aseguru eta birkapitalizazioko eragiketak; horietarako irailaren 16ko Aseguru Sarien gaineko Zergari buruzko 2/1997 Foru Dekretu Arauemailearen 5. artikuluan ageri diren arauak aplikatuko dira.

3.a. Aurreko 1 eta 2. erregeletan xedatutakoa gora-behera, Zerga ordainarazteko eskuduna izango da Bizkaiko Foru Aldundia subjektu pasiboaren zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan dagoenean, honako eragiketa hauetan:

A) Nekazaritza, basogintza, abeltzaintza edo arrantzako ustiategiek eta arrainuntzi-jabeek beren laborantza, ustiapen edo harrapaketetatik zuzenean etorri eta transformazio-prozesurik jasan gabe egiten dituzten produktu naturalen emateak.

B) Garraio-zerbitzuak (etxe-aldaketa, atoi eta garabi zerbitzuak barne), eta energia elektrikoa edo hidrokarburo likido nahiz gaseosoak hodi bidez garraiatzen eta banatzen dituzten enpresek egindakoak.

C) Garraiobideen errentamenduak.

2. Hori dela eta, Bizkaiko Lurralde Historikoak hauek hartzen ditu: lurzorua, zorupea, aire eremua eta alboko urak, jurisdikziopeko urak barne.

Bost. Artikulu honetako eragiketak egiten ez dituzten erakundeek Bizkaiko Foru Aldundiari ordainduko diote zerga, zerga-egoitza lurralde horretan baldin badituzte.

Sei. Erkidego barruan ondasunen joan-etorriarekin lotutako eragiketei dagokien zergaren ordainarazpena aurreko 1. idatz-zatian zehaztu den bezala egingo da, hurrengo 7. eta 8. idatz-zatietan zehaztutakoa izan ezik.

Zazpi. Norbanakoek edo eragiketak Balio Erantsiaren gaineko Zergatik guztiz salbuetsita edo lotu gabe dituzten pertsonek edo erakundeek elkarte barnean eskurakatzen dituzten garraiobide berrien ziozko ordainarazpena Bizkaiko Foru Aldundiak egingo du, garraiobide horiek Bizkaiko Lurralde Historikoan matrikulatzen direnean behin-betiko.

Zortzi. Zerga ordainarazteko eskuduna izango da Bizkaiko Foru Aldundia subjektu pasiboaren zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan dagoenean, honako kasu hauetan:

a) Aukeragatik edo zergaren araudian ezarritako zenbateko-muga gainditu izanagatik zergapean dauden elkarte barneko ondasun-eskuraketak, zergagatiko kopurua osorik edo partzialki kentzeko eskubidea sortzen ez duten eragiketak soil-soilik egiten dituzten subjektu pasiboek edo enpresari edo profesional ez diharduten pertsona juridikoek egiten dituztenean.

b) Araubide erraztuan, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian eta baliokidetasun-errekarguaren araubidean erkidegoaren barnean egiten diren ondasun-eskuraketak.

Bederatzi.

1. Pertsona fisikoek ohiko egoitza Bizkaian dutela ulertzeko, hurrenez hurren ondoko arau hauek aplikatuko dira:

   1.a. Pertsona Fisikoen gaineko Zergaren Zergaldiko egun gehienak Euskal Herrian emanik, Bizkaiko lurralde historikoan Euskal Herriko beste bi lurralde historikoetako bakoitzean baino egun gehiago eman duenean.

   Egonaldia zenbatekoa den konputatzeko, aldi baterako ausentziak konputatuko dira.

   Bestelakorik frogatzen ez bada, pertsona fisikoa Bizkaian bizi dela joko da pertsona horren ohiko etxebizitza lurralde honetan dagoenean.

   2.a. Interesen gune nagusia Bizkaian duenean. Hala gertatzen dela ulertuko da baldin eta pertsona fisiko batek, Pertsona Fisikoen gaineko Zerga honen zerga-oinarriaren zatirik handiena Euskal Herrian eskuraturik, Bizkaian lortzen badu beste bi lurralde historikoetan lortutako zerga-oinarriaren zatirik handiena. Bi ondorio horietarako, higikorren kapitaletik eratorritako ondare errentak eta irabaziak ez dira aintzat hartzen, ezta zerga gardentasuneko araubidean egotzitako oinarriak ere, profesionala izan ezik.

   3.a. Pertsona fisikoek Bizkaia izan behar dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondoreetarako aitortutako beren azken egoitzaren lurraldea.

   Bigarren araua aplikatuko da baldin eta, lehenengoan xedatutakoari jarraiki ezinezkoa gertatu bada zergadunaren ohiko egoitza ezein lurraldetan –komun edo foralean– zehaztea. Hirugarren araua inguruabar bera gertatzen denean aplikatuko da, lehenengo eta bigarren arauetan ezarri dena aplikatu ondoren.

2. Espainiako lurraldean egoitza duten pertsona fisikoak, lurralde horretan egutegiko urtean 183 egun baino gehiago igarotzen ez dituztenak, Euskal Herriko egoiliartzat hartuko dira, baldin eta bertan egiten badituzte beren enpresa edo lanbide jarduera gehienak edo bertan badaude beraien ekonomi interes gehienak.

   Aurreko lerroaldean jasotakoaren arabera pertsona fisikoen ohiko egoitza Euskal Herrian dagoenean, pertsona fisiko horiek Bizkaiko biztanletzat joko dira beren enpresa edo lanbide jardueraren edo interes ekonomikoen gune nagusia lurralde horretan kokatzen bada.

3. Pertsona fisiko bat Espainiako lurraldeko egoiliarra dela uste bada, beraren ezkontidearen, legez bereizita ez badago, eta beraren mendeko seme-alaba adingabeen ohiko egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan izateagatik, beraren ohiko egoitza Bizkaian dagoela ulertuko da. Uste horren aurkako froga aurkez daiteke.

4. Pertsona juridikoen zerga-egoitza Bizkaian dagoela ulertuko da, baldin eta sozietate-egoitza lurralde horretan badago eta administrazio-kudeaketa osoa eta negozioen zuzendaritza lurralde horretan zentralizaturik badaude. Osterantzean, zerga-egoitza kudeaketa edo zuzendaritza hori egiten den lekua izango da.

   Zerga-egoitza zehazterik ez dagoenean, aurreko irizpideen arabera, pertsona juridikoek zerga-egoitza Bizkaian dutela ulertuko da, ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Herrian izanda, baldin eta ibilgetuaren baliorik handiagoa Bizkaian badu, beste bi lurralde historikoetariko edozeinetan baino.

5. Elkarte zibil eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek zerga-egoitza Bizkaian dutela ulertuko da, haien kudeaketa eta zuzendaritza lurralde horretan egiten bada. Lehen aipatutako irizpidea (zuzendaritza eta kudeaketa) aplikatuz elkarte zibilen eta nortasun juridikorik gabeko erakundeen zerga-egoitza zehazterik ez dagoenean, Bizkaian dutela ulertuko da, ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Herrian izanda, baldin eta Biz-kaian beste bi lurralde historikoetariko edozeinetan baino ibilgetuaren baliorik handiagoa badu.

6. Establezimendu iraunkorren zerga-egoitza izango da, euren administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza burutzen direneko lurraldea.

   Zerga-egoitza zehazterik ez dagoenean, aurreko irizpidearen arabera, establezimendu iraunkorrek zerga-egoitza Bizkaian dutela ulertuko da, ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Herrian izanda, baldin eta Bizkaian beste bi lurralde historikoetariko edozeinetan baino ibilgetuaren baliorik handiagoa badu.

**3. artikulua. Lurraldetasuna.**

Bat. Zerga hau aplikatuko den gune-eremua Espainiako lurraldea da, zein hurrengo ataleko aurrikuspenen arabera zehaztuko baita; aipatu lurraldean jarraian adierazita daudenak sarturik daude: ondoko uharteak, urtarrilaren 4eko 10/1977 Legearen 3. artikuluan zehaztutako lurralde-itsasoa, hamabi itsas miliatako mugaraino, eta aipatu eremuari dagokion aire-gunea.

Bi. Foru Arau honek ondoreak izan ditzan:

1. "Estatu kidea", "estatu kide baten lurraldea" edo "herrialdearen barnealdea" dira Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuan estatu kide bakoitzarentzat definitutako aplikazio- eremua, salbuespen hauekin:

   a) Aduana Batasunean bildurik ez dauden lurraldeei dagokienez: Alemaniako Errepublika Federalean, Helgoland uhartea eta Büsingen lurraldea; Espainiako Erresuman, Ceuta eta Melilla, eta Italiako Errepublikan, Livigno, Campione d'Italia eta Lugano lakuko ur nazionalak.

   b) Negozio-bolumenaren gaineko zergen harmonizaziotik kanpo dauden lurraldeei dagokienez: Espainiako Erresuman, Kanariak; Frantziako Errepublikan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuko 349. artikuluan eta 355. artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren Frantziako lurraldeak; Heleniar Errepublikan, Athos mendia; Erresuma Batuan, Kanaleko uharteak, eta Finlandiako Errepublikan, Aland uharteak.

2. "Europar Batasuna" eta "Europar Batasunaren lurraldea" dira aurreko zenbakiaren arabera estatu kide bakoitzarentzat "herrialdearen barnealdea" osatzen duten lurralde guztien multzoa.

3. "Gainontzeko lurraldea", "gainontzeko herria", "beste lurralde bat", "beste herrialde bat" eta "beste herri bat" dira aurreko 1. zenbakiaren arabera "herrialdearen barnealde" gisa definitutakoak ez diren beste lurralde guztiak.

Hiru. Zerga honi dagokionez, Monakoko Printzerriarekin, Man uhartearekin eta Erresuma Batuak bere subiranotasunpean dituen Akrotiri eta Dhekelia eremuekin egiten diren eragiketek Frantziarekin, Erresuma Batuarekin eta Ziprerekin egiten direnen izaera bera izango dute, hurrenez hurren.

# LEHEN TITULUA
# ZERGA EGITATEAREN MUGAKETA

## LEHEN KAPITULUA
## ONDASUN-EMATEAK ETA ZERBITZUGINTZAK

### 4. artikulua. Zerga egitatea.

Bat. Zergari loturik egongo dira enpresariek edo profesionariek, euren enpresa- edo lanbide-jardueran aritzean, kostu bidez eta ohizko zein lantzean behingo izaeraz zergaren gune-eremuan burutzen dituzten ondasun-emateak eta zerbitzugintzak, baita burutzen dituzten entitateen euren bazkide, elkartu, kide edo partaideentzakoak izanik ere.

Bi. Enpresa edo lanbide jarduera batean aritzean burututakotzat joko dira ondokoak:

a) Enpresaburu edo profesional diren merkataritzako sozietateek egiten dituzten ondasun emateak eta zerbitzugintzak.

b) Subjektu pasiboen enpresa edo lanbide ondarea osatzen duten ondasun edo eskubideak, osorik zein zatika, gainontzekoei eskualdatu edo haien erabilera lagatzea, Zergapekoak izatea zehazten duten jardueretan aritzeari uztean egiten diren ondasun emate eta lagapenak barne.

c) Jabetzaren erregistratzaileek hipoteka barrutietako likidazio bulegoetako likidatzaile titular gisa egiten dituzten zerbitzuak.

Hiru. Zergari loturik egotea ez da enpresa- edo lanbide-jardueran edo eragiketa konkretu bakoitzean lortu nahi diren helburu edo emaitzen araberakoa.

Lau. Zerga honen pean dauden operazioak ez dira egongo Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergako «kostubidezko ondare-eskualdaketak» kontzeptuaren pean.

Aurreko lerrokadan xedatutakotik salbuetsi egiten dira ondasun higiezinen entregak eta errentamenduak, bai eta ondasun horiek gozatzeko eskubide errealak eratzea edo eskualdatzea ere, zergatik salbuetsita daudenean, salbu eta subjektu pasiboak uko egiten badio salbuespenari 20.bi artikuluan jasotako kasuetan eta baldintzekin.

### 5. artikulua. Enpresari edo profesionari kontzeptua.

Bat. Foru arau honetan xedatutakoak ondoreak izan ditzan, enpresaburu edo profesionaltzat hartuko dira:

a) Artikulu honetako hurrengo atalean zehaztuko diren enpresa edo lanbide jardueretan ari diren pertsona edo erakundeak.

   Hala ere, ez dira enpresaburu edo profesionaltzat joko ondasun emateak edo zerbitzugintzak dohainik soilik burutzen dituztenak, hurrengo puntuan ezarrita dagoenaren kalterik gabe.

b) Merkataritzako sozietateak, besterik frogatu ezean.

c) Etengabeko dirusarrerak lortu xedez, gauzazko zein gauzazkoez besteko ondasuna ustiatzea dakarren edo dakarten ondasun emate edo zerbitzugintza bat edo gehiago burutzen dutenak.

   Ondasun errentariak, bereziki, horrelakotzat hartuko dira.

d) Lurrak urbanizatu edo, beti ere edozein tituluren ordez saldu, esleitu edo lagatzeko, eraikinak sustatu, eraiki edo birgaitzen dituztenak, honetan lantzean behin ihardun arren.

e) Foru arau honetako 25. artikuluko lehenengo eta bigarren idatz-zatietan xedatutakoa dela bide Zergatik salbuetsita dauden garraiobide berriak lantzean behin ematen dituztenak.

   Puntu honetan aipaturiko enpresaburu edo profesionalak, berton bildurik dauden garraiobideak emateen ondoreetarako soilik hartuko dira horrelakotzat.

Bi. Enpresa edo lanbide jarduerak dira ekoizpen-faktore materialak edo ekoizpeneko giza baliabideak norberaren kontura antolatzea dakartenak, helburua ondasunak edo zerbitzuak ekoiztean edo banatzea esku hartzea dela.

Bereziki, halakotzat joko dira erauzpeneko jarduerak, fabrikaziokoak, merkataritzakoak eta zerbitzugintzak (artisautza barne), nekazaritzakoak, basogintzakoak, abeltzaintzakoak, arrantzakoak, eraikintzakoak, meatzaritzakoak, eta lanbide liberal eta artistikoak.

Zerga honen ondoreetarako, enpresa edo lanbide jarduerak ondasunak edo zerbitzuak jardueretan erabiltzeko eskuratzen diren unean hasitzat joko dira, are aurreko idatz-zatiko b), c) eta d) letretan aipatutako kasuetan ere. Ondasunak eta zerbitzuak eskuratzen dituztenak une horretatik bertatik enpresari edo profesional izango dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondoreetarako.

Hiru. Enpresa- edo lanbide-jarduerak burutzen ari direlako ustezkotasuna edukiko da ondoko kasuetan:

a) Merkataritzako Kodearen 3. artikuluak aipatzen dituen balizkoetan.

b) Honako Foru Arau honetako 4. artikuluan zehazturik dauden eragiketak burutzeko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga ordainarazten denean.

Lau. Foru arau honetako 69, 70 eta 72. artikuluetan xedatutakoaren ondoreetarako ez beste ezertarako, ondokoak enpresaburutzat edo profesionaltzat hartuko dira egiten zaizkien zerbitzu guztietan (eta hala ari dela pentsatuko da):

1.a. Aldi berean enpresa edo lanbide jarduerak eta foru arau honetako 4. artikuluko lehenengo idatz-zatian ezarritakoaren arabera Zergaren kargapean ez dauden jarduerak egiten dituztenak.

2.a. Enpresaburu edo profesional gisa aritzen ez diren pertsona juridikoak, baldin eta Espainiako Administrazioak identifikazio zenbaki bat eman badie Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondoreetarako.

### 6. artikulua. Eraikuntzen kontzeptua.

Bat. Zerga honek ondoreak izan ditzan, eraikuntzatzat lurzoruari edo beste higiezin batzuei era iraunkorrean atxikirik dauden eraikintza-lanak hartuko dira, gainazalean zein zorupean eginak, baldin eta autonomiaz eta lokabe erabil badaitezke.

Bi. Ondoan adieraziko diren eraikintza-lanak, bereziki, eraikuntzatzat hartuko dira, baldin eta higiezin bati, gaiari kalterik egin gabe, ez eta objektua narriatu gabe bertatik ezin bereizi ahal izateko moduan, era iraunkorrean atxikirik badaude:

a) Eraikinak, honelakotzat joko dela etxebizitza legez erabiltzeko edo iharduera ekonomiko bati ekiteko egindako eraikuntza iraunkor, bereizi eta lokabe oro.

b) Industri instalazio ez-bizigarriak, hala nola, eustarri, tanke edo zamaketa-guneak.

c) Hidrokarburoen bila miaketak egiteko eta haiek ustiatzeko plataformak.

d) Portu, aireportu eta azokak.

e) Solas- eta kirol-instalazioak, beste eraikuntza batzuen osagarriak ez direnean.

f) Bide, nabigazio-kanal, trenbide, errepide, autoestrata eta lurrezko zein ibaizko gainontzeko komunikazio-bideak, bai eta hauetako zubi edo bidezubi eta tunelak ere.

g) Kablezko garraio-instalazio iraunkorrak.

Hiru. Ez dira eraikuntzatzat hartuko:

a) Lurrak urbanizatzeko lanak eta, bereziki, ur-hornikuntza eta hustuketakoak, elektraenergiaren hornidurakoak, eta gas banaketako sare, telefono-instalazio, sarbide, kale eta espaloietakoak.

b) Nekazaritzako ustiategien eraikuntza osagarriak, baldin eta finkaren izaera eta helburuarekiko loturarik badute, ustiategiaren titularrak, honen senideek edo beronekin lan egiten dutenek bertan egoitza eduki arren.

c) Erabilera eta apainketako objektuak, hala nola, makina, tresna eta lanabesak, eta Kode Zibilaren 334. artikuluko 4. eta 5. zenbakiek aipatzen dituzten gainontzeko erabileragatiko higiezinak.

d) Meatze, harrobi edo sarrategi eta petrolio- edo gas-putzuak edo naturazko ekoizkinak ateratzeko beste toki batzuk.

**7. artikulua. Zergari loturik ez dauden eragiketak.**

Ez dira Zergari loturik egongo:

1. Subjektu pasibo baten enpresa- edo lanbide-ondareko elementu gorpuzdunek eta, hala badagokio, ondasun gorpuzgabeek osatutako multzoa eskualdatzea, baldin eta elementuok unitate ekonomiko autonomoa osatzen badute edo osa badezakete eskualdatzailearentzat eta unitate horrek enpresa- edo lanbide-jarduera batean baliabide propioekin aritzeko aukera ematen badu , edozein dela ere beste tributu batzuetan eskualdaketa horri aplikatu beharreko araubide fiskala eta foru arau honetako 4. artikuluko Lau zenbakian xedatutakoarekin bat etorriz dagokiona. Eskualdaketa hauek, ordea, zergari lotuta egongo dira, ez baitzaie aplikatuko aurreko paragrafoan ezarritakoa:

    a) Ondasunen edo eskubideen lagapen hutsa.

    b) Enpresaburu edo profesional izaera foru arau honetako 5. artikuluko Bat zenbakiko c) letran xedatutakoagatik baino ez dutenek egiten dituzten eskualdaketak, baldin eta xedea ondasunak lagatzea baizik ez bada.

    c) Enpresaburu edo profesional izaera foru arau honetako 5. artikuluko Bat zenbakiko d) letran aipatutako eragiketak noizean behin egiteagatik baino ez dutenek egiten dituzten eskualdaketak.

    Zenbaki honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ez da kontuan hartuko eskuratzaileak egiten duen eskuratutako elementuak atxikita egon diren jarduera bera edo besteren bat den, baldin eta eskuratzaileak berak egiaztatzen badu elementuok enpresa- edo lanbide-jarduera bat egiteko erabiliko dituela.

Zenbaki honetan xedatutakoari dagokionez, ondasun-eskubideon eskualdaketa ondasunen edo eskubideen lagapen hustzat hartuko da baldin eta haiekin batera ez bada eskualdatzen ekoizpenerako giza baliabideen eta baliabide materialen antolamenduegitura bat —edo baliabide bi horietako batena— egitura horrek unitate ekonomiko autonomoa eratzen duela pentsaraz dezakeena.

Eskualdatutako ondasunak eta eskubideak, denak zein batzuk, desafektatu egiten badira zenbaki honetan ezartzen denaren arabera eragiketak zergari lotuta ez egotea dakarten enpresa- edo lanbide- jardueretatik, desafektazioa zergapetuta egongo da foru arau honetan kasu bakoitzerako ezarritakoa eran. Zenbaki honetan ezarritakoaren arabera zergari lotuta ez dauden eskualdaketetan sartutako ondasunak eta eskubideak eskuratzen dituztenak eskualdatzailearen lekuan subrogatuko dira, ondasun eta eskubide horiei dagokienez, foru arau honetako 20. artikuluko Bat zenbakiko 22. azpizenbakian eta 92-114. artikuluetan ezarritako arauak aplikatzeko.

2. Enpresa- edo lanbide-jarduerak sustatu xedez egiten diren merkataritza-balio nabarmen gabeko merkataritzako gai-laginen dohaineko emateak.

   Foru Arau honen ondoreetarako, merkataritzako gai-lagintzat ondokoak hartuko dira: aurkezteko era edo kopurua dela eta, sustapen-helburuetarako baizik ezin erabil daitezkeen merkataritzako gai kategoria baten ordezkari diren gaiak.

3. Enpresa- edo lanbide-jarduerak sustatzeko egiten diren dohaineko frogapen-zerbitzugintzak.

4. Publizitaterako inprimaki edo objektuak kontraprestaziorik gabe ematea.

   Publizitate-inprimakiek ikusteko lekuan erakutsi beharko dute ondasunak ekoitzi edo merkaturatzen dituen edo zerbitzu jakin batzuk eskaintzen dituen enpresaburuaren edo profesionalaren izena.

   Foru arau honen ondorioetarako, berezko merkataritza-baliorik ez duten objektuak publizitate-objektutzat joko dira, baldin eta, era ezabaezinean jasota badute publizitateari buruzko aipamena.

   Zenbaki honetan xedatutakoaren salbuespen gisa, publizitateobjektuen emateak zergapetuta egongo dira hartzaile berari urte naturalean egindako horniduren kostu osoa 200 eurotik gorakoa denean, salbu eta hornidurok beste subjektu pasibo batzuei ematen bazaizkie, dohain birbana ditzaten.

5. Administrazio- edo lanbide-harremanetatiko menpekotasun-erregimenean dauden pertsona fisikoek burutzen dituzten zerbitzugintzak; lanbide-harremanetan izaera berezikoak ere sarturik daude.

6. Lan elkartuko kooperatibetako bazkideek kooperatibarentzat burutzen dituzten zerbitzugintzak eta lan bazkideek gainontzeko kooperatibentzat burutzen dituztenak.

7. Foru Arau honetako 9. artikuluaren 1. zenbakian eta 12. artikuluaren 1. eta 2. zenbakietan aurrikusita dauden eragiketak, baldin eta subjektu pasiboari, aipatu eragiketetako objektuak izan diren ondasunen edo beron osagaien erosketa edo inportazioa dela eta, benetan jasaten duen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren guztirako edo zati baten kenkaria egiteko eskubidea iratxiki ez bazaio.

   Halaber, Foru Arau honetako 12. artikuluaren 3. zenbakian aipaturik dauden eragiketak ere ez dira izango Zergapekoak, subjektu pasiboak gainontzekoengandik jasotzen duen zerbitzu bera ematea besterik egiten ez duenean, aipatu zerbitzua jasotzean benetan jasaten duen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren guztirako edo zati baten kenkaria egiteko eskubidea iratxiki ez bazaio.

8. Administrazio publikoek zuzenean egindako ondasun- eta zerbitzu-emateak, kontraprestaziorik gabe edo tributu-izaerako kontraprestazioaren bidez egindakoak badira. Aurrekoari dagokionez, hauek joko dira administrazio publikotzat:

a) Estatuko Administrazio Orokorra, autonomia-erkidegoetako administrazioak eta toki-administrazioa osatzen duten erakundeak.

b) Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileak eta zerbitzu erkideak.

c) Erakunde autonomoak, unibertsitate publikoak eta Estatuko agentziak.

d) Nortasun juridiko propioa duen zuzenbide publikoko edozein erakunde, aurrekoen mendekoa izanik eta independentzia funtzionala edo legeak aitortutako autonomia berezia izanda, sektore edo jarduera jakin baten kanpoko erregulazioa edo kontrola egiteko eginkizunak badagozkio.

Ez dira administrazio publikotzat joko Estatuaren enpresa-erakunde publikoak eta autonomia-erkidegoen zein toki-erakundeen mende dauden haien mendeko pareko erakundeak.

2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 4. artikuluko 1. zenbakiko n) letran eta 24. artikuluko 6. zenbakian ezarritakoaren arabera kudeatzeko gomendioa egiten duen administrazio publikoaren berezko bitarteko edo zerbitzu tekniko izaera duten sektore publikoko ente, organismo eta erakundeek edo hain menpeko botere adjudikatzaileek kudeatzeko gomendioak direla bide ematen dituzten zerbitzuak ez dira zergapetuta egongo.

Halaber, ez dira zergapetuta egongo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 3. artikuluko 1. zenbakian aipatzen denaren arabera sektore publikoak diren ente, organismo eta erakundeek gainetik dituzten administrazio publikoen alde edo administrazio horietako baten erabat mendekoa den beste baten alde emandako zerbitzuak, administrazio publiko horiek zerbitzu haien erabateko titulartasuna dutenean.

Edonola ere, zergapetuta egongo dira sektore publikoko administrazioek, enteek, organismoek eta erakundeek ondoren aipatzen diren jardueren barruan egiten dituzten ondasun- eta zerbitzu- emateak:

a') Telekomunikazioak.

b') Ura, gasa, beroa, hotza, energia elektrikoa eta gainerako energia-modalitateak banatzea.

c') Pertsonak eta ondasunak garraiatzea.

d') Portu eta aireportuetako zerbitzuak ematea eta tren-azpiegiturak ustiatzea; ondorio horietarako, hurrengo 9. azpizenbakiaren arabera zergapetuta dauden emakidak eta baimenak ere hemen sartzen dira.

e') Produktuak lortzea, fabrikatzea edo transformatzea gero eskualdatzeko.

f') Nekazaritza eta abeltzaintzako produktuen gainean esku hartzea, produktuon merkatua arautzeko egiten denean.

g') Merkataritzako azoka eta erakusketak ustiatzea.

h') Biltegiratzea eta gordailatzea.

i') Publizitateko merkataritza-bulegoetako jarduerak.

j') Enpresetako kantinak eta jantokia, ekonomatuak, kooperatibak eta antzeko establezimenduak ustiatzea.

k') Bidaia-agentzietako jarduerak.

l') Irrati- eta telebista-erakunde publikoen merkataritzako jarduerak, haien instalazioen erabilera lagatzeari lotutakoak barne. Ondorio horietarako, merkataritzako jardueratzat hartuko dira publizitatearen arloko diru-sarrerak sortzen dituztenak edo sortu ahal dituztenak, sarrera horiek sektore publikotik ez datozenean.

m') Hiltegiko jarduerak.

9. Administrazio emakidak eta baimenak, hauek izan ezik:

a) Xedetzat portuko jabari publikoa erabiltzeko eskubidearen lagapena dutenak.

b) Xedetzat aireportuetako ondasun eta higiezinen lagapena duenak.

c) Trenbideetako azpiegiturak erabiltzeko eskubidearen lagapena dutenak.

d) Portuetako merkataritza edo industria jardueren garapenerako eta jendaurreko zerbitzuak emateko baimenak.

10. Arau juridiko edo talde hitzarmenak direla bide, subjektu pasiboarentzat derrigorrezkoak diren honako Foru Arau honetako 12. artikuluaren 3. zenbakiak aipatzen dituen dohaineko zerbitzugintzak, frankizia erregimenean emandako telegrafo- eta telefono-zerbitzuenak barne.

11. Ureztatzaile-erkidegoek uren ordenamendu eta aprobetxamendurako burutzen dituzten eragiketak.

12. Kontraprestazio edo ordainketa bidez egiten diren diru-emateak.

**8. artikulua. Ondasun-ematearen kontzeptua.**

Bat. Ondasun-ematetzat gauzazko ondasunen gaineko baliatze-ahalaren eskualdaketa hartuko da, baita aipatu ondasunen titulu ordezkatzaileen lagapenaren bidez burutzen bada ere.

Honen ondoreetarako, gauzazko ondasun izatea edukiko dute gasak, beroak, hotzak, elektraenergiak eta gainontzeko energia motek.

Bi. Ondokoak ere ondasun-ematetzat hartuko dira

1. Eraikuntza bat egiteko edo birgaitzeko obra-burutzapenak —eraikuntzaren kontzeptua foru arau honetako 6. artikuluaren arabera ulertuta—, baldin eta obra egiten duen enpresaburuak erabiltzen diren materialen zati bat jartzen badu eta haien kostua zergaoinarriaren % 40tik gorakoa bada.

2. Batetik, zergaren subjektu pasiboek beren enpresaedo lanbide-ondarearen elementuekin sozietateei edo ondasun-erkidegoei edo beste edozein motatako entitateei egiten dizkieten diruzkoak ez diren ekarpenak, eta, bestetik, halako entitateak osorik edo zati batean likidatu edo deseginez gero gertatzen diren izaera bereko adjudikazioak, betiere Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren «egintza juridiko dokumentatuak» eta «sozietate-eragiketak» kontzeptuen arau erregulatzaileen arabera dagokion tributazioaren kalterik gabe.

   Ondasun-ematetzat joko da, bereziki, ondasun-erkidegoek lurrak edo erkidegoek eurek sustatutako higiezinak adjudikatzea haien erkideei, erkide bakoitzak duen partaidetzaren heinean.

3. Arau bat edo administrazioko edo jurisdikzioko ebazpen bat dela bide burutzen diren ondasun-aldaketak, derrigorrezko desjabetzapena barne.

4. Jabari-erreserbari buruzko ituna edo baldintza etengarria duten salmentako kontratuak direla bide burutzen diren ondasun-lagapenak.

5. Errentamendu-salmentako kontratuak eta berdinetsitakoak direla bide burutzen diren ondasun-lagapenak.

   Zerga honek ondoreak izan ditzan, errentamendu/salmentako kontratuak eta erosteko aukeradun errentamenduko kontratuak berdinetsiko dira, errentariak aipatu aukera erabiltzea bere gain hartzen duenez gero, eta, orohar, baita bi alderdiak lotzen dituen jabetzaren transferentzia-klausula duten ondasun-erentamendukoak ere.

6. Salmentako komisioa edo erosketako komisioa duten kontratuak direla bide, komisio-emaile eta bere izenean diharduen komisiodunaren artean burutzen diren ondasun-eskualdaketak.

7. Informatikako ekoizkin normalizatuen hornidura, zeinahi euskarri materialetan.

   Ondore hauetarako, informatikako ekoizkin normalizatutzat hartuko dira zeinahi kontsumitzailek erabiltzeko funtsezko aldaketarik behar ez dutenak.

8. Baloreen eskualdaketak, baldin eta haien edukitzak, izatez edo eskubidez, higiezin oso baten edo haren zati baten jabetza, erabilera edo gozamena esleitzea ziurtatzen badu, foru arau honetako 20. artikuluko Bat zenbakiko 18. azpizenbakiko k) letran ezarritako kasuetan.

**9. artikulua. Ondasun-emateei berdinetsitako eragiketak.**

Kostu bidezko ondasun-emateak eta ondoko eragiketa hauek berdinetsirik daude:

1. Norbere ondasun-kontsumoa.

   Zerga honek ondoreak izan ditzan, kontraprestaziorik gabe burutzen diren ondoko eragiketak hartuko dira norbere ondasun-kontsumotzat:

   a) Subjektu pasiboak bere ondare pertsonalarentzat edo bere kontsumorako burutzen duen bere enpresa- edo lanbide-ondareko gauzazko ondasunen transferentzia.

   b) Subjektu pasiboaren enpresa- edo lanbide-ondarea osatzen duten gauzazko ondasunen gaineko baliatze-ahalaren eskualdaketa.

   c) Arlo bateko gauzazko ondasunak sektore bati loturik egotetik haien enpresa- edo lanbide- jardueratik ezberdindutako beste sektore bati lotzeko aldaketa burutzea.

      Letrako autokontsumoa ezin aplikatu izango da jarraiko kasuetan:

      - Indarreko arautegian zerbait aldatu eta ondorioz jarduera ekonomiko bat nahitaez aurrekoa ez beste arlo batera pasatzen denean.

      - Jarduera ekonomiko bati aplikatu beharreko zerga-ordainketako araubidea araubide orokorretik araubide berezi erraztura, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubidera, baliokidetasun errekarguaren araubidera, edo inbertsio-urrearekin egiten diren eragiketen araubidera aldatzen bada, are aukera-eskubide bat baliatzen denean ere.

      Aurreko paragrafoko bi puntuetan xedatutakoak ez du eraginik izango jarraikoetan:

Foru arau honetako 101, 105, 106, 107, 109, 110, 112 eta 113. artikuluetan ezarritako kenkarien erregularizazioak.

Foru arau honetako 99. artikuluko bigarren idatz-zatian aplikatutako kenkariak eskuratutako ondasun eta zerbitzuen xedearen arabera zuzentzeari dagokionez ezarri dena aplikatuz, haiek aurreikusia ez beste xede baterako erabiltzen direnean, baldin eta enpresa edo lanbide jardueran ezertarako erabili ez diren inbertsio-ondasunak ez beste ondasun edo zerbitzuak eskuratu edo inportatzeko jasan edo ordaindutako kuotak izan badira haiek erabili behar ziren jarduera ekonomikoari ekin baino lehen, nahiz eta beste arlo batekoak izan.

Foru arau honetako 134 bis eta 155. artikuluetan hurrenez hurren nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide bereziko edo baliokidetasun errekarguaren araubide bereziko jarduerei ekin edo uzteko balizkoez ezarritakoa.

Foru arau honetan xedatutakoak ondoreak izan ditzan, ondokoak enpresa- edo lanbide-jardueratik ezberdindutako sektoretzat hartuko dira:

a') Burutzen diren jarduera ekonomikoak eta kenkari araubide aplikagarriak desberdinak dituztenak.

Jarduera ekonomiko desberdintzat hartuko dira Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalean talde desberdinak esleiturik dauzkatenak.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gora-behera, jarduera baten jarduera osagarria ez da desberdintzat hartuko aurreko urtean beraren eragiketa-kopurua bestearena baino %15 handiagoa izan ez denean eta, gainera, hura egiten laguntzen duenean. Aurreko urtean jarduera osagarririk egin ez bada, aipatu portzentajeari dagokion betekizuna subjektu pasiboaren arrazoizko aurrikuspenen arabera aplikatuko da aribideko urtean; nolanahi ere, benetako portzentajeak muga hori gainditzen badu, erregularizatu egingo da.

Jarduera osagarriek, hauek menpeko diren jardueren erregimen bera edukiko dute.

Honako a') letran aipaturik dauden kenkari-araubideak ezberdintzat hartuko dira baldin eta nagusiez beste jardueran edo jardueretan aplikagarri liratekeen kenkari-portzentajeek, foru arau honetako 104. artikuluan xedatutakoaren arabera zehazturik, jarduera nagusiari dagokion kenkariarekiko %50eko aldea edo handiagoa badute.

Jarduera nagusia eta beraren jarduera osagarriak eta kenkari-portzentajea harenarekiko %50eko aldea baino handiagoa ez duten jarduera ekonomiko ezberdinduak sektore ezberdindu bakarra izango dira.

Jarduera nagusiaren kenkariarekiko %50eko aldea baino handiagoa duten beste jarduerak sektore nagusitik ezberdindurik dagoen sektorea izango dira.

Honako a') puntu honetan xedatutakoak ondareak izan ditzan, nagusitzat aurreko urtean eragiketa-kopururik handiena burutzen den jarduera hartuko da.

b') Araubide berezi erraztuari, nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide bereziari, urrez egiten diren inbertsio-eragiketen araubide bereziari edo baliokidetasun-errekarguaren araubide bereziari helduriko jarduerak.

c') Kreditu-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzko 2014ko ekainaren 26ko 10/2014 Legeko hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren finantza-errentamenduko eragiketak.

d') Kredituak lagatzeko eragiketak edo mailegu eragiketak, "factoring" kontratua dela bide egiten direnak izan ezik.

d) Subjektu pasiboaren enpresa- edo lanbide-jarduera burutzean inbertsio-ondasun legez erabiltzeko ekoitzi, eraiki, atera, transformatu, erosi edo inportatzen diren ondasunak lotzea edo, hala denean, haien menpekotasunaren aldaketa.

   Baldin eta subjektu pasiboari izaera bereko ondasunak gainontzekoei erostean jasango lituzkeen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak oso-osoan kentzeko eskubidea iratxikitzen bazaio, puntu honetan xedatu dena ez da aplikagarria izango.

   Ez da iratxikitzat joko izaera bereko ondasunak erostean subjektu pasiboek jasango lituzketen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak oso-osoan kentzeko eskubidea, baldin eta, ihardunean hasi ondoren eta kenkariak araupetzeko aldian, ukituriko ondasunek ondoko helburuetariko bat badute:

   a') Foru Arau honetako 95. eta 96. artikuluetan ezarrita dagoena dela bide, kenkariak egiteko eskubidea mugatu edo baztertzen dutenak.

   b') Kenkariak egiteko eskubiderik ez dakarten eragiketetan erabiltzea.

   c') Kenkariak egiteko eskubidea dakarten eragiketetan soilki erabiltzea, lain orokorreko araua aplikagarri izanik.

   d') Kenkariak egiteko eskubiderik ez dakarren Zergatik salbuetsitako ematea burutzea.

2. ...

3. Subjektu pasibo batek bere enpresako gauzazko ondasun bat beste estatu kide bati transferitzea, ondasuna enpresak aipatu estatuan dituen premiei lotzeko.

   Zenbaki honetan xedatutakotik salbuetsita egongo dira ondoko eragiketak burutzeko egiten diren ondasun-transferentziak:

   a) Subjektu pasiboak egiten dituen ondasun-emateak, baldin eta emateok, Foru Arau honen 68. artikuluaren 2. atalaren 2., 3. eta 4. zenbakietan bildurik dauden irizpideak aplikatuz, salmenta edo garraioaren jomuga den estatu kidearen barnean burututzat hartuko balira.

   b) Honako Foru Arau honen 68. artikuluaren 2. atalaren 4. zenbakian aipaturik dauden subjektu pasiboak egiten dituen ondasun-emateak.

   c) Subjektu pasiboak herriaren barnealdean honako Foru Arau honetako 21. artikuluan edo 25.ean aurrikusita dauden baldintzen arabera burutzen dituen ondasun-emateak.

   d) Subjektu pasiboarentzako obra-burutzapena, obra burutzen duen enpresariak ondasun horiek ondasunon espedizio edo garraioaren jomuga den estatu kidean erabiltzen dituenean, baldin eta, Foru Arau honetako 21 eta 25. artikuluek ohartarazten dituzten irizpideei atxikiz, fabrikaturiko edo muntaturiko obra emate salbuetsiaren gai badira.

   e) Subjektu pasiboarentzako zerbitzugintza, ondasunen espedizio edo garraioaren jomuga den estatu kidean ondasunoi buruzko peritu-txostenak edo lanak helburu dituenean, baldin eta ondasunok, aipatu zerbitzuak egindakoan, Zergaren aplikazio-lurraldera subjektu pasiboari birbidaltzen bazaizkio.

   f) Aipatu ondasunak Espainian ezarrita dagoen subjektu pasiboak burutzen dituen zerbitzugintzak gauzatzeko aldi batean erabiltzea, ondasun horien salmenta edo garraioaren jomuga den estatu kidean.

   g) Aipatu ondasunak aldi baterako, hogeita lau hilabetetakoa baino luzeagoa ezin izan daitekeen aldi baterako, beste estatu kide baten lurraldean erabiltzea, zeinen barnealdean gainontzeko herri batetik aldi baterako erabiltzeko ondasun bera

inportatzeak inportazio-eskubideen salbuespen osoa duen aldi baterako inportazio-erregimenaren onura hartuko bailuke.

h) Gasa ematea Batasuneko lurralde-eremuko gas naturala banatzeko sare baten bitartez, edo hari konektatutako sare baten bitartez, elektrizitatea ematea, eta beroa edo hotza ematea berokuntza edo hozketa sareen bitartez, baldin eta emateok foru arau honetako 68. artikuluko zazpigarren zenbakian ezarritako irizpideen arabera Batasuneko kide den beste estatu batean gertatutzat joko balira.

Aurreko a) - h) bitarteko letretan aipatutako bazterketek ez dute izango ondorerik ezarritako betekizunetako bat betetzen ez bada.

**10. artikulua. Transformakuntza kontzeptua.**

Salvo lo dispuesto especialmente en otros preceptos de esta Norma Foral, se considerará transformación cualquier alteración de los bienes que determine la modificación de los fines específicos para los cuales eran utilizables.

**11. artikulua. Zerbitzugintza kontzeptua.**

Bat. Balio Erantsiaren gaineko Zergak ondoreak izan ditzan, zerbitzugintzatzat hartuko da, honako Foru Arau honen arabera, ondasun- emate, Elkartebarneko eskuraketa, edo inportaziotzat hartzen ez den aipatu tributuari loturiko eragiketa oro.

Bi. Bereziki, zerbitzugintzatzat hartuko dira:

1. Lanbide, arte edo ogibide batean lokabe ihardutea.

2. Ondasun, industria edo negozio, merkataritzako enpresa edo establezimenduen errentamenduak, erosteko aukera eduki zein ez eduki.

3. Ondasunen erabileraren edo luperketaren lagapena.

4. Egile-eskubideen, lizentzien, patenteen, fabrika eta merkataritzako marken eta jabetza intelektual eta industri jabetzako gainontzeko eskubideen lagapen eta emakidak.

5. Agentziako edo salmenta esklusiboko kontratuetan hizpatutako edo lurralde-gune mugatuetako ondasun-banaketako hitzarmenetatik datozen egiteko nahiz ez egiteko betebeharrak eta abstentzioak.

6. Foru Arau honetako 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, ondasun-ematetzat ezin har daitezkeen lan-burutzapenak.

7. Negozio-lokalen intsuldaketak.

8. Garraioak.

9. Ostalaritza-, jatetxe- edo kanpaketa-zerbitzuak eta tokian bertan berehala kontsumitzeko edari edo jangaiak.

10. Aseguru-, berraseguru- eta kapitalizazio-eragiketak.

11. Ospitalizazio-prestazioak.

12. Dirutan egiten diren maileguak eta kredituak.

13. Kirol- edo jolas-instalazioak erabiltzeko eskubidea.

14. Azoka eta erakusketen ustiapena.

15. Bitartekaritzako eragiketak, eta agentzia edo komisiokoak agente edo komisiodunak inoren izenean diharduenean. Bere izenean ari denean, eta zerbitzugintza bat bitarteko bada, hari dagozkion zerbitzuak berak emantzat hartuko dira.

16. Informatikako ekoizkin zehatzen hornidura, ondasun-ematea ez denean, euskarria ematea zerbitzugintzaren osagarritzat jotzen dela.

    Zehazki, zerbitzugintzatzat hartuko da bezeroaren aginduen arabera sortutako informatikako ekoizkina hornitzea, bai eta bezeroak erabiltzeko funtsezko aldaketak egin behar zaizkion informatikako ekoizkina hornitzea ere.

### 12. artikulua. Zerbitzugintzei berdinetsitako eragiketak.

Kostu bidezko zerbitzugintzari berdinetsitako eragiketatzat joko dira norbere zerbitzuen kontsumoak. Zerga honek ondoreak izan ditzan, norbere zerbitzuen kontsumotzat hartuko dira kontraprestaziorik gabe burutzen diren ondoko eragiketak:

1. Subjektu pasiboak enpresa- edo lanbide-ondarearen ondasun eta eskubideak bere ondare pertsonalerako egiten dituen transferentzietarik honako Foru Arau honen 9. artikuluaren 1. zenbakian bildurik ez daudenak.

2. Subjektu pasiboak bere enpresa- edo lanbide-ondarea osatzen duten ondasunak, guztiak zein zati bat, bere erabilera pertsonalerako edo, orohar, bere enpresa- edo lanbide-jarduerez kanpoko helburuetarako aplikatzea.

3. Artikulu honetako aurreko zenbakietan aipatu ez diren subjektu pasiboak dohainik burutzen dituen gainontzeko zerbitzugintzak, baldin eta beraien xedea enpresa edo lanbide jarduerez kanpokoa bada.

## II. KAPITULUA
## ELKARTEBARNEKO ONDASUN-ESKURAKETAK

### 13. artikulua. Zerga egitatea.

Zerga aplikatzen den gune-eremuan burutzen diren ondoko eragiketak egongo dira Zergaren menpe:

1. Enpresariek, profesionariek edo pertsona juridiko gisa ez dihardu ten pertsona juridikoek kostu bidez burutzen dituzten elkartebarneko ondasun-eskuraketak, eskualdatzailea enpresari edo profesionaria denean.

   Ez dira elkartebarneko ondasun-eskuraketa hauetan bilduko honako hauek:

   a) Ondasunen bidalketa edo garraioa abiatzen den Estatu kidean Zergaren frankizia erregimenaren onura hartzen duen enpresari edo profesionari batek entregaturiko ondasunen eskuraketak.

   b) Ondasun erabili, arte-objektu, antzinateko eta bilduma-objektuen erregimen berezirako ezarritako arauei atxekiz, ondasunen bidalketa edo garraioa abiatzen den Estatu kidean ematearen zerga-ordainketaren gai izan diren ondasun-eskuraketak.

   c) Foru Arau honetako 68. artikuluaren bigarren ataleko 2. zenbakian adierazten diren instalatu edo montatu beharreko ondasunen emateei dagozkien ondasun-eskuraketak.

   d) Foru Arau honetako 68. artikuluko hirugarren atalean biltzen diren atzerrira-salmentei dagozkien ondasun-eskuraketak.

   e) Foru Arau honetako 68. artikuluko bostgarren atalean aipa-tzen diren Zerga Berezien gai diren ondasun-emateei dagozkien ondasun-eskuraketak.

f) Bidalketaren edo garraioaren jatorria den Estatuan, Foru Arau honetako 22. artikuluko lehen ataletik hamaikagarrenerako ezarritako irizpideak aplikatuz, Zergatik salbuetsita egondako emateei dagozkien elkartebarneko ondasun-eskuraketak.

g) Batasuneko lurralde-eremuko gas naturala banatzeko sare baten bitartez edo hari konektatutako sare baten bitartez egiten diren gas-emateei zein elektrizitate-emateei edo berokuntza- edo hozketa- sareen bitartez egiten diren bero- edo hotz-emateei dagozkien ondasun-eskuraketak, baldin eta honako foru arau honen 68. artikuluko zazpigarren zenbakian ezarritakoaren arabera Zergaren aplikazio-eremuan egintzat jotzen badira.

2. Elkartebarneko garraiobide berrien eskuraketak, baldin eta Foru Arau honen 14. artikuluaren 1. eta 2. ataletan aurrikusita dagoen loturarik eza aplika dezaketen pertsonek kostu bidez burutzen badituzte, bai eta enpresari edo profesionari izatea ez duen beste edozein pertsonak burutzen dituenak, eskualdatzailearen izatea edozein dela ere.

   Ondore hauetarako, ondokoak hartuko dira garraiobidetzat:

   a) 48 zm3-tik gorako motorea duten edo 7,2 kW-ko potentzia gainditzen duten lurgaineko ibilgailuak.

   b) Gehienezko eslora 7,5 metrotakoa baino handiagoa duten untziak, honako Foru Arau honen 22. artikuluaren 1. atalaren salbuespenak ukiturikoak ezik.

   c) Abiadan guztira 1.550 kilotako pisua gainditzen duten aireun-tziak, honako Foru Arau honen 22. artikuluaren 4. atalaren salbuespenak ukiturikoak ezik.

   Aipatu garraiobideak berritzat hartuko dira haiei dagokienez ondoren adieraziko diren baldintzetariko edozein gertatzen denean:

   a) Haien ematea zerbitzuan lehenengoz hasten diren egunetik zenbatu beharreko lehen hiru hilabeteak baino lehen buru-tzea edo, motorez eragindako lurgaineko ibilgailuak direnean, aipatu egunaren ondorengo sei hilabeteak baino lehen.

   b) Lurgaineko ibilgailuek bidean 6.000 kilometro baino gehiago, untziek itsasoan 100 ordu baino gehiago eta aireuntziek airean 40 ordu baino gehiago eginak ez izatea.

**14. artikulua. Zergaren menpeko ez diren eskuraketak.**

Bat. Ez dira Zergaren menpeko izango ondoko pertsona edo entitateek burutzen dituzten Elkartebarneko ondasun-eskuraketak, ondorengo atalean xedatuta dauden mugak izango direla:

1. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen bereziari helduta dauden subjektu pasiboak, aipatu erregimenaren menpean dagoen jarduera burutzea helburua duten ondasunei dagokienez.

2. Zergaren guztirako edo zati bateko kenkariak egiteko eskubidea ez dakarten eragiketak besterik burutzen ez dituzten subjektu pasiboak.

3. Enpresari edo profesionari gisa ez diharduten pertsona juridikoak.

Bi. Aurreko atalean xedaturik dagoen Zergarekiko loturarik eza ondoko balizkoan soilik aplikatuko zaie adierazitako pertsonek burutzen dituzten Elkartebarneko ondasun-eskuraketei, gainontzeko estatu kideetatiko ondasunen eskuraketen guztirako zenbatekoa, aipatu estatuetan sortutako Zerga kenduta, egutegiko aurreko urtean 10.000 euroko kopurura heltzen ez denean.

Zergarekiko loturarik eza aipatu zenbatekora iritsi arte aplikatuko da aribideko egutegiko urtean.

Honako atal honetan aipaturik dagoen muga aplikatzean, aintzakotzat eduki behar da eskuratzen diren ondasunei buruzko kontraprestazioaren zenbatekoa ezin izango dela zatikatu, ondore hauetarako.

Atal honetan adierazita dagoen muga kalkulatzeko, honako Foru Arau honen 68. artikuluaren 3. atalean aipatzen den ondasun-emateen kontraprestazioaren zenbatekoa konputatuko da, aipatu manuan bildurik dauden arauak aplikatuz, Zergaren aplikazio-lurraldetik kanpo burututzat hartzen direnean.

Hiru. Honako artikulu honetan xedaturik dagoena ez da aplikagarria izango zerga berezien objektu diren garraiobide berri eta ondasunen eskuraketei dagokienez; aipatu zergen zenbatekoa ez da konputatuko aurreko atalean adierazitako mugan.

Lau. Lehen atalean xedatutakoa gora-behera, bertan deskribaturik dauden eragiketak Zergari loturik egongo dira haiek burutzen dituzten pertsonek hari loturik egotea aukeratzen dutenean, arau bidez ezartzen den eran.

Aukerak bi urtetako gutxienezko aldia iraungo du.

**15. artikulua. Elkartebarneko ondasun-eskuraketaren kontzeptua.**

Bat. Elkartebarneko ondasun-eskuraketatzat hartuko da eskuratzailearentzat Zergaren aplikazio-lurraldera beste estatu kide batetik eskualdatzaileak, eskuratzaileak berak edo gainontzekoren batek aurreko biotariko edozeinen izenean saldu edo garraiatzen dituen gauzazko ondasun higigarrien gaineko baliatze-ahala lortzea.

Bi. Enpresari edo profesionari gisa ez dihardduen pertsona juridiko batek eskuratzen dituen ondasunak pertsona horrek gainontzeko lurralde batetik garraiatu eta beste estatu kide batean inportatzen baditu, aipatu ondasunak inportazioa egiten den estatu kidetik saldu edo garraiatutzat hartuko dira.

**16. artikulua. Elkartebarneko ondasun-eskuraketei berdinetsirik dauden eragiketak.**

Elkartebarneko kostu bidezko ondasun-eskuraketak eta ondoko eragiketak berdinetsirik daude:

1. ...

2. Zergaren aplikazio-lurraldean burutzen diren enpresari edo profesionari baten jarduerei lotzea enpresari horrek, edo besteren batek beronen kontura, beste estatu kide batetik saldu edo garraiatzen duen ondasuna, estatu kide horretan aipatu ondasuna enpresari horrek estatu kide honetako bere enpresa- edo lanbide-jardueran aritzean ekoitzi, atera, transformatu, eskuratu edo inportaturik dagoelarik.

   Zenbaki honetan xedatutakotik salbuetsirik daude honako Foru Arau honen 9. artikuluaren 3. zenbakian bildurik dauden irizpideen arabera ondasun-eskualdaketaren kontzeptutik baztertu diren eragiketak.

3. Ipar Atlantikoko Tratatuaren Erakundeko Estatu baten indarrek Zergaren aplikazio-lurraldean, euren erabilerarako edo lagun duten elementu zibilarenerako, indar horiek edo elementu zibilak Elkarteko Zergaren tributu-ordainketaren baldintza arruntetan eskuratuak ez diren ondasunei emandako eratxikipena, ondasun horien inportazioak Foru Arau honetako 62. artikuluan ezarritako Zerga-salbuespenaren gai izaterik ez duenean.

4. Enpresari edo profesionari batek herriaren barnealdean eginez gero, honako Foru Arau honen 8. artikuluan xedatutakoa dela bide, ondasun-ematetzat joko litzatekeen eragiketa baten ondoriozko edozein eskuraketa.

## III. KAPITULUA
## ONDASUN-INPORTAZIOAK

### 17. artikulua. Zerga egitatea.

Zergari loturik egongo dira ondasun-inportazioak, direnak direla hauen xedea eta inportatzailearen izatea.

### 18. artikulua. Ondasun-inportazioaren kontzeptua.

Bat. Ondasun-inportaziotzat hartuko dira:

1. Erabilera askea ez duen ondasuna sartzea herriaren barnealdera, baldin eta Europako Ekonomi Elkartearen eraketa-itunbenaren 9. eta 10. artikuluetan aurrikusirik dauden baldintzak betetzen ez baditu edo, Europako Ikatz-Altzairuen Elkarte eraketa-itunbearen aplikazio-eremuan bildurik badago.

2. Beste lurralde batetik aurreko zenbakian aipatzen diren ondasunez besteko ondasun bat herriaren barnealdera sartzea.

Bi. Bat zenbakian xedatutakoa gorabehera, han aipaturik dauden ondasunetariko bat, zerga aplikatu behar den lurraldearen barnealdean sartzen denetik, foru arau honetako 23. artikuluan aipatutako aldeetan kokatzen bada edo 24. artikuluan aipatutako araubideei lotzen bazaie —aduanaz bestelako gordailu-araubideari izan ezik—, ondasun horren inportazioa gertatuko da edo ondasuna alde horietatik irteten denean edo zergaren aplikazio-lurraldean utzi egiten dituenean adierazitako araubide horiek.

Zenbaki honetan xedatutakoa kasu hauetan baino ez da aplikatuko: kasu bakoitzean aplikatzekoa den legeria betez, ondasunak adierazitako aldeetan kokatzen direnean edo adierazitako araubideei lotzen zaizkienean bete egiten bada kasu bakoitzean aplikatu beharrekoa den legeria. Legeria hori ez betetzeak zehaztuko du zerga-egitatea: ondasun-inportazioa.

Hala ere, ez da inportaziotzat joko 23. artikuluan aipatzen diren aldeetatik irtetea edo 24. artikuluan jasotako araubideak uztea, baldin eta eragiketa horrek foru arau honetako 21., 22. edo 25. artikuluetan ezarritako salbuespenak aplikatu ahal zaizkion ondasunemate bat eragiten badu.

### 19. artikulua. Ondasun-inportazioei berdinetsitako eragiketak.

Ondasun-inportazioak eta ondokoak berdinetsitzat hartuko dira:

1. Zergaren salbuespenaren onura hartzen duten untziak nazioarteko itsas nabigazioari lotzeko beharkizun zehaztaileak ez betetzea, honako Foru Arau honen 22. artikuluaren 1. atalaren 1. zenbakian, 26. artikuluaren 1. atalean eta 27. artikuluaren 2. zenbakian aipaturik dauden kasuetan.

2. Emate, Elkartebarneko eskuraketa edo inportazioa zerga honen salbuespenaren onura hartzen duten untziak salbamendu, itsas urgazpen edo itsasertzeko arrantzarekiko esklusiboki ez lotzea.

3. Merkataritzako jarduerak egiten dituzten konpainiak funtsean nazioarteko aire-nabigazioan aritzea zehazten duten beharkizunak ez betetzea, emate, Elkartebarneko eskuraketa edo inportazioak Zergaren salbuespenaren onura 22. artikuluaren 4. atalak, 26.aren 1. atalak eta 27.aren 3. zenbakiak aipatzen dituzten kasuetan hartzen duten aireuntziei dagokienez.

4. Zergaren aplikazio-lurraldean burutzen diren ondasun-eskuraketak, baldin eta haien aurretiazko emate, Elkartebarneko eskuraketa edo inportazioak honako zerga honen salbuespenaren onura hartzen badute, honako Foru Arau honen 22. artikuluaren 8. eta 9.

ataletan, 26. artikuluan, aurrekoarekiko loturari dagokionez, eta 60. eta 61. artikuluetan xedatuta dagoena dela bide.

Hala ere, aurreko lerroaldean xedatu dena ez da aplikagarria izango eskuratzaileak aipatu ondasunak Elkartetik kanpora berehala eta behin betiko saldu edo garraiatzen dituenean.

5. Ondasunak foru arau honetako 23. artikuluan aipatzen diren aldeetatik irtetea edo 24. artikuluan jasota dauden araubideak uztea, baldin eta ondasunak alde horietan sartzeko edo araubide horiei lotzeko haiekin egin den Batasunaren barruko ematea edo eskuraketa zerga honetatik salbuetsi bada, artikulu horietan eta 26. artikuluko Bat zenbakian xedaturik dagoena dela bide, edo ondasunok artikulu horien arabera zergatik salbuetsita dauden emate edo zerbitzu-emateen xede izan badira.

   Aurreko paragrafoan ezarritakoaren salbuespen gisa, ez dira inportazioei berdinetsitako eragiketak izango honako ondasun hauek foru arau honetako 23. artikuluan aipatzen diren aldeetatik irtetea edo 24. artikuluan jasota dauden araubideak uztea: eztainua (NC 8001 kodea), kobrea (NC 7402, 7403, 7405 eta 7408 kodeak), zinka (NC 7901 kodea), nikela (NC 7502 kodea), aluminioa (NC 7601 kodea), beruna (NC 7801 kodea), indioa (NC ex 811291 eta 3x 811299 kodeak), zilarra (NC 7106 kodea) eta platinoa, paladioa eta rodioa (NC 71101100, 71102100, 71103100 kodeak). Kasu horietan, alde horietatik irteteak edo araubideok uzteak zergaren likidazioa foru arau honen eranskineko seigarren atalean ezarritakoaren arabera egitea ekarriko du.

   Hala ere, ez da inportazioei berdinetsitako eragiketatzat joko 23. artikuluan aipatzen diren aldeetatik irtetea edo 24. artikuluan jasotako araubideak uztea, baldin eta eragiketa horrek foru arau honetako 21., 22. edo 25. artikuluetan ezarritako salbuespenak aplikatu ahal zaizkion ondasun-emate bat eragiten badu.

# II. TITULUA
# SALBUESPENAK

## LEHEN KAPITULUA
## ONDASUN-EMATEAK ETA ZERBITZUGINTZAK

### 20. artikulua. Barne eragiketetako salbuespenak.

Bat. Zerga honetatik ondoko eragiketak salbuetsiko dira:

1. Posta zerbitzu unibertsaleko zerbitzugintzak eta haien osagarri diren ondasun emateak, osorik edo partzialki emateko konpromisoa hartu duten operadoreek eginez gero.

   Salbuespen hau ez zaie aplikatuko banaka negoziatzen diren zerbitzuei.

2. Zuzenbide publikoko entitateek edo eskuetsitako edo jakinarazitako prezio erregimeneko entitate edo establezimenduek burutzen dituzten ospitalizazioko edo sanitate urgazpeneko zerbitzugintzak, bai eta hauekiko lotura zuzena dutenak ere.

   Ospitalizazioko eta sanitate urgazpeneko zerbitzugintzei zuzen lotutzat hartuko dira klinika, sanitate laborategi eta ospitalizazioko eta sanitate urgazpeneko gainontzeko establezimenduek burutzen dituzten elikadura, ostatu, kirurgia eta medikamenduen eta sanitateko materialen hornidurako zerbitzugintzak eta antzeko beste batzuk.

   Ondoko eragiketak salbuespenaz ate daude:

   a) Zenbaki honen lehen lerroaldean aipatu diren establezimenduetatik kanpo kontsumitzeko diren medikamenduak ematea.

b) Ospitalizazioko eta sanitate urgazpeneko zerbitzuen destinatariez eta berauenn lagunez beste pertsona batzuentzat burutzen diren elikadura eta ostatuko zerbitzugintzak.

c) Albaiterigintza.

d) Honako zenbaki honek aipatu dituen entitateek burutzen dituzten ondasun-errentamenduak.

3. Medikuntza edo sanitateko profesionariek pertsona fisikoentzat burutzen duten urgazpena, dena dela emandako zerbitzuen pertsona destinataria.

   Zerga honek ondoreak izan ditzan, medikuntza edo sanitateko profesionari izatea edukiko dute ordenamendu juridikoan halakotzat hartuta daudenak eta zentro ofizialetan diplomaturik edo Administrazioak onarturik dauden psikologo, logopeda eta optikoak.

   Salbuespenean bildurik dago eritasunen diagnostiko, aurrearreta eta tratamenduari buruzko medikuntza, kirurgia eta sanitateko urgazpena, analisi klinikoak eta miaketa erradiologikoak barne.

4. Medikuntzako edo ikerkuntzako xedeetarako edota xede bereko prozesamendurako burutzen diren odol, odol-plasma eta giza gorputzeko beste jariakin, ehun eta beste osagai batzuen emateak.

5. Estomatologo, odontologo, mekanikari-haginlari eta hagin-protesien egileek, nork bere lanbidearen eremuan, burutzen dituzten zerbitzugintzak, bai eta berauek burutzen dituzten hagin-protesi eta masaila-ortopedien emate, konponketa eta ezarketak ere, dena dela aipatu eragiketa horien kargudun pertsona.

6. Zergari loturik ez dagoen jarduera bat egiten duten pertsonek edo hartatik salbuetsirik dagoen baina kenkarirako eskubidea ematen ez duen jarduera bat egiten duten pertsonek soilik eraturiko batasunek, elkarteek edo erakunde autonomoek —ekonomia-intereseko taldeek barne—, beren kideei zuzenean ematen dizkieten zerbitzuak, honako baldintza hauek betetzen direnean:

   a) Zerbitzu horiek aipatutako jardueran soilik eta era zuzenean erabil daitezela, eta jarduera egiteko beharrezkoak izan daitezela.

   b) Kideek ez dezatela egin batera egiten dituzten gastuetarik dagokien zatia itzultzea besterik.

   Salbuespena berdin aplikatuko da aurreko b) letra betetzen bada, baina kenkariaren hainbanatzea ez bada % 10 baino handiagoa eta zerbitzua ez bada soilik eta era zuzenean kenkarirako eskubidea ematen duten jardueretan erabiltzen.

   Salbuespena ez dagokio merkataritzako sozietateek ematen dituzten zerbitzuei.

7. Gizarte Segurantzak, bere helburu zehatzak betetzeko, zuzenean edo bere entitate kudeatzaile edo laguntzaileen bidez burutzen dituen ondasun-emate eta zerbitzugintzak.

   Salbuespen hau halako eragiketak burutzen dituztenek ondasunen eskuratzaileen edo zerbitzuen destinatarien Gizarte Segurantzaren kotizazioez beste inolako kontraprestaziorik jasotzen ez badute soilik aplikatu ahal izango da.

   Salbuespena ez da hedatzen Gizarte Segurantzaren konturako medikamenduen edo sanitate materialen emateetara.

8. Zuzenbide publikoko entitateek edo gizarte izaerako entitate edo establezimendu pribatuek burutu eta ondoren adieraziko diren gizarte urgazpeneko zerbitzugintzak:

   a) Haur eta gazteen babesa. Haur eta gazteen babeserako jardueratzat hartuko dira haur eta gazteen errehabilitazioa eta heziketa, bularreko haurren urgazpena, haurrentzako zaintza eta urgazpena, haur eta gazteentzako ikastaro, txango, kanpamendu edo bidaiak egitea eta hogeita bost urtez azpiko pertsonentzat egiten diren antzeko beste jarduera batzuk.

   b) Nagusien urgazpena.

   c) Minusbaliotasunen bat duten pertsonentzako hezkuntza berezia eta urgazpena.

   d) Gutxiengo etnikoen urgazpena.

   e) Errefuxiatu eta asilatuen urgazpena.

   f) Iragaitzazko bidarien urgazpena.

   g) Hainbanatu gabeko familia-kargak dituzten pertsonen urgazpena.

   h) Erkidego eta familiarentzako gizarte-ekintza.

   i) Espetxeratu-ohien urgazpena.

   j) Delinkuentziaren aurrearreta eta delitugileen birgizarteratzea.

   k) Alkoholiko eta toxikomanoen urgazpena.

   l) Garapenerako lankidetza.

   Salbuespenean bildurik daude aipatu establezimendu edo entitateek, nork bere baliabideekin edo besterenekin, elikadura eta ostatu zerbitzuak edo aurrekoen osagarri diren garraio-zerbitzuak ematea.

9. Haurren eta gazteen hezkuntza; haurren zaintza eta babesa, ikastetxeetan eskola-orduen artean eskola-jantokian edo umeak zaintzeko geletan —eskolako ordutegitik kanpo— umeak zaintzea barne; eskolako, unibertsitateko eta graduatu-osteko irakaskuntza; hizkuntzen irakaskuntza eta lanbide-heziketa eta birziklapena, baldin eta horiek guztiak egiten dituztenak zuzenbide publikoko erakundeak edo jarduerok egiteko baimena duten erakunde pribatuak badira.

   Salbuespena aurreko paragrafoan aipatutako zerbitzuekin zuzenean lotutako ondasun- eta zerbitzu-emateei ere aplikatuko zaie, baldin eta emateok zerbitzu horiek egiten dituzten irakas- edo hezkuntza- enpresek eurek eginak badira, baliabide propioak zein kanpoko baliabideak erabiliz.

   Salbuespenak ez ditu honako eragiketak hartuko:

   a) Kirola egiteari lotutako zerbitzuak, ikastetxeak ez diren enpresek emandakoak.

      Letra honetan inoiz ez dira sartuko ikastetxeei lotutako gurasoelkarteek ematen dituzten zerbitzuak.

   b) Ostatu emateko eta elikatzeko eragiketak, ikasle-egoitza nagusiek eta txikiek zein ikasleen egoitzek egindakoak.

   c) Ibilgailuen gidarien eskolek egiten dituzten eragiketak, hala lehorreko ibilgailuak gidatzeko A eta B baimenei lotutakoak, nola kirolerako edo jolaserako itsasontziak

edo aireontziak gidatzeko beharrezko diren tituluei, lizentziei edo baimenei lotutakoak.

d) Kostu bidez egindako ondasun-emateak.

10. Pertsona fisikoek hezkuntza sistemako edozein maila eta graduren barnean bildurik dauden ikasgaiei buruz ematen dituzten klase partikularrak.

    Ez dira partikularrean emandako klasetzat joko, horiek burutzeko, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren enpresa- edo arte-jardueren tarifetan alta eman beharra dutenak.

11. Zuzentzako Ministraritzako erregistro egokian izena emanda duten erlijio-entitateek, beren xedeak betez, burutzen dituzten pertsonal- lagapenak, ondoko iharduerak egitea helburu dutela:

    a) Ospitalizazioa, sanitate-urgazpena eta bi hauekin zuzenean erla- zionaturik dauden gainontzekoak.

    b) Atal honen 8. zenbakian bildurik dauden gizarte-urgazpenekoak.

    c) Lanbide- heziketa, irakaskuntza, prestakuntza eta birziklapena.

12. Soilik helburu politiko, sindikal, erlijioso, patriotiko, filantropiko edo zibikoak dituzten irabazteko asmorik gabeko erakundeek, izaera hori legez aitortuta badute, beren kideentzat zuzenean burutzen dituzten zerbitzuak eta zerbitzuon osagarri diren ondasunemateak, baldin eta halako eragiketak erakundearen helburu zehatzak lortzeko egiten badituzte eta onuradunek erakundeoi ematen dizkieten kontraprestazio bakarrak estatutuetan ezarrita dauden kotizazioak badira.

    Aurreko lerroaldean sartutzat hartuko dira profesionalen elkargoak, ganbera ofizialak, enpresaburuen elkarteak eta zenbaki honetan aipatzen diren organismo edo entitateak biltzen dituzten federazioak.

    Salbuespen hau aplikatuko da baldin eta aplikazio horrek ezin badu distortsiorik sortu lehian.

13. Kirola edo hezkuntza fisikoa egiten duten pertsonei egindako zerbitzuak, zerbitzu hori eman duen pertsona edo erakundea edozein izanik ere, baina beti ere zerbitzu horiek kirolaren edo hezkuntza fisikoa egitearekin zuzen-zuzenean zerikusia dutenean eta hauetariko erakunde edo pertsona batek emandakoak direnean:

    a) Zuzenbide publikoko erakundeek.

    b) Kirol federazioek.

    c) Espainiako Batzorde Olinpikoak.

    d) Espainiako Batzorde Paraolimpikoak.

    e) Gizarte izaerako kirol erakunde edo establezimendu pribatuek.

    Salbuespena ez zaie ezarriko kirol ikuskizunei.

14. Zuzenbide publikoko entitateek edo gizarte izaeradun kultur establezimendu pribatuek burutzen dituzten zerbitzugintzak; zerbitzugintzok ondoren zerrendatuko ditugu:

    a) Liburutegi, artxibategi eta dokumentazio-zentroei berezko zaizkienak.

b) Museo, arte areto, pinakoteka, monumentu, toki historiko, lorategi botaniko, parke zoologiko, parke natural eta antzeko ezaugarriak dituzten gune natural babestuetarako bisitaldiak.

c) Antzerki, musika, koreografia, ikusentzunezko eta zinema emanaldiak.

d) Erakusketa eta antzeko agerraldien antolaketa.

15. Eri edo zaurituak beren beregi egokiturik dauden anbulantzia edo ibilgailuetan garraiatzea.

16. Aseguru, berraseguru eta kapitalizazio eragiketak.

    Aldi berean, tartekaritza zerbitzuak, eta horien barruan sartzen dira arestian aipatu diren eragiketa horietan esku hartzeko bezeroak lortzeko tartekaritza zerbitzuak, zerbitzu horiek egiten dituena enpresarioa edo profesionala izatea gorabehera.

    Aseguru eragiketen barruan aurreikuspen modalitateak sartzen dira.

17. Espainian legezko diren posta-zigilu eta efektu tinbredunen emateak, baldin zenbatekoa haien azaleko balioa baino handiagoa ez bada.

    Salbuespena ez da hedatzen gainontzekoen izenean eta kontura ematen diren aipatu ondasunen luzapen-zerbitzuetara.

18. Ondoko finantza-eragiketak:

    a) Eskudirutako gordailuak, era guztietakoak, kontu korronteko eta aurrezki kontuetako gordailuak barne, eta berauekin erlazionaturik dauden gainontzeko eragiketak, gordailuzainak gordailugilearentzat ematen dituen kobrantza edo ordainketa-zerbitzuak barne.

       Salbuespena ez da hedatzen kreditu, ganbio-letra, ordainagiri eta beste agiri batzuen kobrantzak kudeatzeko zerbitzuetara. Salbuespena ez da hedatzen "factoring" motako kontratua dela bide lagatzaileari egiten zaizkion zerbitzuetara ere (fondoak aurreratzeko zerbitzuetara bai, hala ere).

       Txekeak edo taloiak kontuan ordaintzeko eragiketak ez dira hartuko kobrantza kudeatzeko eragiketatzat.

    b) Eskudirutako gordailuen eskualdaketa, baita gordailu-ziurtagiri edo antzeko zeregina betetzen duten tituluen bidez buruturik ere.

    c) Dirutako kreditu eta maileguak ematea, dena dela hauek bideratzeko erabiltzen den modua, baita finantza-efektu edo beste izaera bateko tituluen bidez izanik ere..

    d) Mailegu edo kredituak osorik edo zatika ematen dituztenek haiei buruz burutzen dituzten gainontzeko eragiketak, kudeaketa barne.

       Salbuespena ez da hedatzen gainontzeko mailegu-emaileei adierazitako maileguetan ematen zaizkien zerbitzuetara.

       Finantza-trukaketako eragiketak salbuetsirik daude, beti ere.

    e) Mailegu edo kredituen eskualdaketa.

    f) Fidantza, abal, gaude eta gainontzeko ondasun-berme edo berme pertsonalak ematea, bai eta jaulkipen, abisu, baiezpen eta agiridun kredituei buruzko gainontzeko eragiketak ere.

Salbuespena mailegu edo kredituen bermeen kudeaketara hedatzen da, baldin eta mailegu edo kreditu bermatuak edo bermeak berak eman zituztenek burutzen badituzte, baina ez gainontzekoek burutzen badituzte.

g) Bermeen eskualdaketa.

h) Transferentzia, igorpen, txeke, librantza, ordainduko, ganbio-letra, ordainketa- edo kreditu- txartel eta beste ordainketa-agindu mota batzuei dagozkien eragiketak.

Salbuespena ondoko eragiketetara ere hedatzen da:

a') Txeke eta taloien bankuen arteko konpentsazioa.

b') Onarpena eta onarpenaren kudeaketa.

c') Protestoa edo ordezko aitorpena eta protestoaren kudeaketa.

Salbuespenean ez dago bildurik ganbio-letren edo kobrantza-kudeaketan jasotzen diren gainontzeko agirien kobrantza-zerbitzua. Salbuespena ez da hedatzen "factoring" motako kontratua dela bide lagatzaileari egiten zaizkion zerbitzuetara ere (fondoak aurreratzeko zerbitzuetara bai, hala ere).

i) Aurreko puntuan aipatu diren efektu eta ordainketa-aginduen eskualdaketa, deskontatzen diren efektuen eskualdaketa barne.

Salbuespenean ez dago bildurik kobrantzako komisioagatiko efektu-lagapena. Salbuespena ez da hedatzen "factoring" motako kontratua dela bide lagatzaileari egiten zaizkion zerbitzuetara ere (fondoak aurreratzeko zerbitzuetara bai, hala ere).

j) Gaitzat legezko ordainbide diren dibisa, banku bilete eta monetak (bildumako moneta eta bileteak, eta urre, zilar eta platinozko atalak ezik) dituzten erosketa, salmenta edo trukeko eragiketak eta antzeko zerbitzuak.

Aurreko lerroaldean xedatutakoak ondoreak izan ditzan, bildumakotzat hartuko dira legezko ordainbide gisa duten funtziorako erabili ohi ez diren moneta eta bileteak edo numismatikari dagokionez interesa dutenak.

Salbuespen hau ez zaie aplikatuko foru arau honen 140. artikuluko 2. zenbakian ezarritakoaren arabera inbertsio-urretzat hartzen diren urrezko txanponei.

k) Zerbitzuak eta operazioak, gordailua eta kudeaketa izan ezik, akzioekin, sozietateetako partizipazioekin, obligazioekin eta zenbaki honetako aurreko letretan aipatu ez diren gainerako baloreekin lotutakoak, honako hauek izan ezik:

a') Merkantziak ordezkatzen dituztenak.

b') Haien jabe izanez gero, izatez edo eskubidez higiezin osoaren edo zati baten jabetza, erabilera edo gozamen esklusiboa ziurtatzen dutenak, baldin eta sozietateetako partizipazio edo akzio ez badira.

c') Bigarren mailako merkatu ofizial batean onartu ez diren baloreak, bigarren mailako merkatuan egindakoak, baldin eta baloreeskualdaketa horien bidez balore horiek ordezkatzen dituzten erakundeen jabetzako higiezinen eskualdaketari dagokion zerga ordaintzea saihestu nahi izan bada, Balore Merkatuaren Legeko 108. artikuluan aipatutako eran.

l) Aurreko puntuan aipatu diren baloreen eskualdaketa eta berari datxezkion zerbitzuak, jaulkipen edo amortizazioagatikoak barne, salbuespen berak daudela.

m) Zenbaki honen aurreko puntuetan deskribitu diren eragiketa salbuetsietan eta enpresa- edo lanbide-jarduerak egitean burutzen ez diren izaera bereko eragiketetan bitartekari izatea.

Salbuespena gordailuak, dirutako maileguak edo baloreak merkaturatzeko edo eskualdatzeko bitartekaritza-zerbitzuetara hedatzen da, zein haien entitate jaulkitzailearen, titularren edo beste bitarteko batzuen kontura burutzen baitira, aipatu eragiketen aseguraketa tartean deneko kasuak barne.

n) Inbertsio kolektiboko erakundeen, administrazio erregistro berezietan erregistratutako eta baimendutako sozietate kudeatzaileek kudeatutako kapital arriskuko erakundeen, pentsio fondoen, hipoteka merkatuaren araupeketako fondoen, aktibo titulazioko fondoen eta jubilazio kolektiboen, nork bere legeria zehatzaren arabera eraturik, fondoen kudeaketa eta gordailua.

ñ) ...

19. Estatuko Loteria eta Apustuen Enpresa Entitate Publikoak, Espainiako Itsuen Erakundeak eta autonomia-erkidegoko organismo eskudunek antolatzen dituzten loteria, apustu eta jokoak, bai eta jokoaren eta ausazko konbinaketen gaineko zerga-egitateak diren jarduerak.

Salbuespena ez da hedatzen goiko lerrokadan adierazitako jardueren kudeaketa-zerbitzuetara eta haien jarduera osagarrietara, baldin eta zerbitzu eta jarduera horiek jokoaren gaineko zergetan zerga-egitateak ez badira, bingoaren kudeaketa-zerbitzuetara izan ezik.

20. Nekazaritzako ustiategia burutzeko ezinbestekoak diren landalurren eta eraikigarri ez diren gainontzeko lurren emateak, beraietan iltzaturik dagoen edozein izaeratako eraikuntzak barne, bai eta esklusiboki parke eta lorategi publiko izateko edo erabilera publikodun bideak egiteko diren lurren emateak ere.

Ondore hauetarako, eraikigarritzat hartuko dira Lurzoruaren Erregimen eta Hiri Antolamenduari buruzko Legeak eta hirigintzako gainontzeko arauek orube kalifikatzen dituzten lurrak, bai eta administrazio-lizentzia egokiaren bidez eskuesten direlako eraikigai diren gainontzeko lurrak ere.

Salbuespena ez da hedatzen ondoko lurren emateetara, eraikigarri izaterik eduki ez arren:

a) Lur urbanizatuen edo urbanizatzen ari diren lurren emateetara, baldin eta urbanizazioaren sustatzaileak burutzen baditu, esklusiboki parke eta lorategi publiko edo erabilera publikoko bideak egiteko diren lurren emateetara ezik.

b) Eraikitzen ari diren eraikinak edo bururik dauden eraikinak iltzaturik dauden lurren emateetara, lurrak hauekin batera eskualdatzen direnean eta eraikinon emateak Zergari loturik eta hartatik salbuetsi gabe daudenean. Hala ere, salbuetsirik egongo dira lurrak ustiatzeko ezinbestekoak diren nekazaritzako eraikuntzak iltzaturik dauden lur ez-eraikigarrien emateak, bai eta eraikuntza gerarazi, aurrizko edo lurreratuak dauden izaera bereko lurren emateak ere.

21. ...

22.

A) Eraikuntzen bigarren emateak eta ondorengoak, eraikuntzak kokatuta dauden lurrenak barne, baldin eta haiek eraikitzeko edo birgaitzeko lanak amaitu ondoren gauzatzen badira.

Foru arau honetan xedatutakoaren ondoreetarako, sustatzaileak gauzatzen duena lehen ematetzat joko da, baldin eta emate horren xede den eraikinaren eraikuntza edo birgaitzea amaituta badago. Hala ere, sustatzaileak egindako ematea ez da lehen ematetzat hartuko, baldin eta emate hori egiten bada higiezinaren jabeak edo higiezinaren gaineko gozamen- edo luperketa-eskubide errealen titularrek edo erosteko aukerarik gabeko errentamendu-kontratuen titularrek higiezin hori bi urte edo gehiagoko epean etengabe erabili ondoren, aipaturiko epe horretan eraikuntza erabili duen pertsona eskuratzailea bera denean izan ezik. Horri dagokionez, ez dira zenbatuko eraikuntzak eskuratzen dituztenek eraikuntzok erabiltzen igarotako aldiak, baldin eta eskualdaketak egiteko egindako eragiketak suntsiarazten badira.

Eraikuntzen urbanizazio-lan osagarriak egiteko lurrak ere eraikuntzok kokatuta dauden lurren barnean sartuko dira. Hala ere, familia bakarreko etxebizitzak direnean, urbanizatutako lur osagarriek ezin izango dute 5.000 metro koadroko azalera baino handiagoa izan.

Foru arau honetako 7. artikuluko 1. zenbakian ezarrita dagoena dela bide zergari loturik ez dauden eskualdaketak ez dira lehen ematetzat hartuko honako zenbaki honetan xedatutakoaren ondoreetarako.

Zenbaki honetan jasotzen den salbuespena ez da aplikatuko kasu hauetan:

a) Errentamendu-kontratu bati datxekion erosteko aukera erabiltzean finantza-errentamenduko eragiketetan jardun ohi duten enpresek egiten dituzten eraikuntza-emateetan. Horretarako, berdintzat joko dira erosteko aukera errentatzailearen aurrean erabiltzeko konpromisoa, batetik, eta erosteko aukera erabiltzea, bestetik.

   Aurreko lerroaldean aipatzen diren finantza-errentamenduko kontratuek hamar urteko iraupena izan behar dute, gutxienez.

b) Eraikuntza bat eskuratzaileak birgaitzeko egiten diren eraikuntza- emateetan, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzak betetzen badira.

c) Hirigintzako sustapen berri bati ekin aurretik eraisten diren eraikuntzen emateetan.

B) Foru arau honen ondoreetarako, ondoko betekizunak betetzen dituztenak obrak hartuko dira birdoikuntzako obrak:

1. Obren xede nagusia eraikin bat birdoitzea izan behar da; hau betetzat jotzeko birdoikuntza proiektuaren guztirako kostuaren %50 egitura-elementuak, fatxadak edo estalkiak sendotzeko edo tratatzeko obrek eta birdoikuntzakoen antzeko obrek edo haiekin lotutakoek eragin behar dute.

2. Proiektuko obren guztirako kostua ondoko bi zenbateko baten %25 baino gehiago izan behar da: eraikinaren eskuraketaprezioa, eskuraketa obrak hasi aurreko bi urteetan egin bada; gainerako kasuetan, obrei ekitean eraikinak edo haren zatiak merkatuan eduki duen balioa. Horren ondoreetarako, eskuraketa-preziotik edo eraikinak merkatuan duen baliotik lurzoruari dagokion zati proportzionala kenduko da.

   Ondokoak dira birdoikuntzakoen antzeko obrak:

   a) Eraikinaren egitura egokitzeko egiten direnak, hau da, eraikinaren segurtasuna, egonkortasuna eta erresistentzia mekanikoa finkatzeko egiten direnak.

   b) Zimenduak sendotzeko edo egokitzeko egiten direnak, eta pilareak eta forjatuak tratatzeko egiten direnak.

c) Eraikitako azalera sestra gainean eta sestrapean handitzeko egiten direnak.

d) Fatxadak eta barruko patioak berreraikitzeko egiten direnak.

e) Igogailuak instalatzeko obrak, are oztopo arkitektonikoak ezabatzeko, ezinduen onurarako, egiten direnak ere.

Ondoren azalduko diren obrak birdoikuntzakoekin lotutzat joko dira, baldin eta beraien guztirako kostua egitura elementuak, fatxadak edo estalkiak sendotzeko edo tratatzeko obrek eta, eginez gero, antzekotzat jotako obrek eragindako kostua baino gutxiago bada, haiekin ezinbestean lotuta badaude eta beraien xedea ez bada eraikina akabatzea edo apaintzea, ez fatxada mantentzea ez pintatzea.

a) Igeltsaritza, iturgintza eta arozkintzako obrak.

b) Itxiturak, instalazio elektrikoak, uraren instalazioa, girotze instalazioa eta suteen aurkako babesa hobetzeko egiten diren obrak.

c) Birdoikuntza energetikorako obrak.

Ondokoak dira birdoikuntza energetikorako obrak: eraikinen portaera energetikoa egiten direnak, hau da, eskari energetikoa murrizteko, berokuntzako sistema eta instalazioen errendimendua hobetzeko edo energia-iturri berriztagarridun ekipoak sartzeko egiten direnak.

23. Honako Foru Arau honen 11. artikuluan xedaturik dagoenaren arabera, zerbitzutzat hartzen diren errentamenduak, eta eduki eta luperketako ondasun-eskubideak eratu eta eskualdatzea, baldin eta eskubideok gaitzat ondoko ondasunak badituzte:

a) Lurrak, landa-finka bat ustiatzeko erabiltzen diren nekazaritzako eraikuntza higiezinak barne.

Salbuetsirik daude lurraren ustiapenarekiko lokabe den abeltzaintzan erabiltzen diren eraikuntza higiezinak, baldin eta beroriek jarduerei lotuta badaude.

b) Lurrekin batera errentatzen diren eta etxebizitza soilik izatea xede duten eraikuntzak edo berauen zatiak, garajeak eta etxebizitzen osagarrizko eraskinak eta altzariak barne.

Salbuespenaz ate daude:

a') Ibilgailuen estazionamendurako lurren errentamendua.

b') Ondasunak, merkataritzako gaiak edo ekoizkinak gordailatu edo biltegiratzeko, edo enpresa-jarduera baten elementuak instalatzeko lurren errentamendua.

c') Erakusketa edo publizitaterako lurren errentamenduak.

d') Lur edo etxebizitzak erosteko aukera duten errentamenduak, baldin eta lur edo etxebizitza horien ematea Zergari loturik eta hartatik salbuetsi ez badago.

e') Apartamentu edo etxebizitza jantzien errentamenduak, errentaria ostalaritzaren berezko zerbitzu osagarrietariko bat ematera behartuz gero, hala nola, jatetxe, garbiketa, arroparen ikuzketa edo antzeko zerbitzu batzuk.

f') Azpierrentan emateko diren eraikinen edo berauen zati baten errentamenduak.

g') Hiri Errentamenduei buruzko Legean xedaturik dagoenaren arabera etxebizitza gisa berdinetsirik dauden eraikinen edo berauen zati baten errentamendua.

h') Aurreko a'), b'), c') eta f') puntuetan aipatu diren ondasunen gaineko eduki edo luperketako ondasun-eskubideen eraketa edo eskualdaketa.

i') Azalerako ondasun-eskubideen eraketa edo eskualdaketa.

24. Eskualdatzaileak artikulu honetan ezarritakoaren arabera Zergaren menpean ez dauden eragiketak burutzeko erabilitako ondasun-emateak, baldin eta subjektu pasiboari ez bazaio eratxikia ondasunak edo berauen osagaiak erosi, lotu edo inportatzean jasandako Zergaren kenkari osoa edo partziala burutzeko eskubidea.

Aurreko ahapaldian xedatutakoaren ondorioetarako, kontutan hartuko da sublektu pasiboari ez zaiola eratxikia kentzeko eskubiderik sortzen ez duten salbuespenezko eragiketak egitean bakarrik eskuratutako ondasun edo zerbitzuak erabiliak dituenean jasandako kuotak partzialki kentzeko eskubidea, nahiz eta lain-araua aplikatzekoa izan.

Zenbaki honetan xedatutakoa ez da aplikatuko:

a) Erregularizatzeko epealdian zehar egiten diren inbertsioko ondasun-emateetarako.

b) Aurreko 20. eta 22. azpizenbakietan ezarritako salbuespenak dagozkionea.

25. Honako Foru Arau honen 95. eta 96. artikuluetan xedatuta dagoena dela bide, eskuraketa, lotze edo inportazioa burutzean eskuratzailearentzako kenkariak egiteko eskubidea oso-osoan baztertzea eragiten duten ondasunen emateak.

26. Artista plastikoek, idazleek, egunkari eta aldizkarietako literatura-, irudi- eta argazki-kolaboratzaileek, musikagileek, antzerki lan eta argumentuzkoen egileek, ikusentzunezko lanen moldaketa, gidoia eta elkarrizketen egileek, itzultzaileek eta moldatzaileek ematen dituzten profesionari-zerbitzuak, kontraprestazio gisa egile-eskubideak dituztenak barne.

27. …

28. Alderdi politikoek ematen dituzten ondasunak eta egiten dituzten zerbitzuak, baldin eta ondasun eta zerbitzuok alderdion helburu zehatza bete ahal izateko finantza-laguntza lortzearren eta alderdion onurarako bakarrik antolatu diren agerraldien ondorioz eman eta egiten badira.

Bi. Subjektu pasiboak uko egin ahal izango die aurreko zenbakiko 20., 21. eta 22. azpizenbakiei lotutako salbuespenei; uko egin ahalko die erregelamenduz ezarritako eran eta baldintzetan, baldin eta eskuratzailea bere enpresa- edo lanbide- jardueren barruan jarduten duen subjektu pasiboa bada eta eskuraketa egitean jasandako zerga osorik edo zati bat kentzeko eskubidea esleitzen bazaio, edo, aurrekoa betetzen ez denean, eskuratutako ondasunak, osorik edo partez, aurrez ikusten den erabileraren arabera, kenkaria egiteko eskubidea sortzen duten eragiketak egiteko erabiliko badira.

Hiru. Artikulu honetan xedatutakoari dagokionez, honako baldintza hauek betetzen dituztenak hartuko dira gizarte izaeradun entitate edo establezimendutzat:

1.a. Ez dute irabazi asmorik izan behar eta lortzen diren mozkinak izaera bereko jarduera salbuetsiak egiteko erabili behar dira.

2.a. Lehendakari, patronatuko kide edo legezko ordezkari karguek dohainekoak izan behar dute eta ez dute eduki behar interesik ustiaketaren emaitza ekonomikoetan, ez berek berez, ez eta tartean jarritako pertsona baten bidez ere.

3.a. Entitate edo establezimenduetako bazkide, erkide edo partaideek eta haien ezkontide edo odol-ahaideek —bigarren gradura arteko odol-ahaideak barne— ezin izango dute ez eragiketa salbuetsien hartzaile nagusiak izan, ez baldintza berezirik eduki zerbitzu-prestazioetan.

Baldintza hau ez da aplikatuko artikulu honen bat atalaren 8. eta 13. zenbakietan aipaturik dauden zerbitzu-prestazioak direnean.

Aurreko baldintzak betetzen dituzten erakundeek gizarte izaeradun entitate edo establezimendu izaera aitortzea eska diezaiokete Zerga Administrazioari, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintza, zehaztapen eta betekizunekin. Aitorpen hori loteslea izango da Administrazioarentzat, baina, eraginkorra izateko, beren horretan mantendu behar dira foru arau honetan xedatutakoaren arabera salbuespenerako oinarri diren baldintza eta betekizunak.

Aurreko baldintzak betetzen dituzten gizarte izaerako erakundeek edo establezimenduek emandako zerbitzuei dagozkien salbuespenak berdin aplikatuko dira, nahiz eta aurreko lerroaldean aipatzen den izaera aitortu ez, baldin eta kasu bakoitzean aplikatu beharreko baldintzak betetzen badira.

**21. artikulua. Ondasun-esportazioetako salbuespenak.**

Arau bidez ezartzen diren baldintza eta beharkizunak edukirik, zerga honetatik salbuetsirik egongo dira ondoko eragiketak:

1. Eskualdatzaileak, edo beronen izenean eta kontura dihardun gainontzeko batek, Elkartetik kanpora saldu edo garraiatzen dituen ondasunen emateak

2. Eskuratzaileak, baldin eta Zergaren aplikazio-lurraldean establezimendurik ez badauka, edo beronen izenean eta kontura dihardun gainontzeko batek hartatik kanpora saldu edo garraiatzen dituen ondasunen emateak.

   Aurreko lerroaldean xedatutakotik salbuetsirik daude kirol- edo jolas-untzi, turismo motako hegazkinak edo erabilera pribatuko edozein garraiobide ekipatu edo hornitzeko ondasunak.

   Halaber, zerga honetatik salbuetsirik daude:

   A) Bidaiariei egindako ondasun-emateak, ondoko beharkizunak betez gero:

      a) Salbuespena eskuraketetan jasaten den Zerga berreskuratuz gauzatuko da.

         Aurreko lerroaldean aipaturiko berreskurapena, zergak barne 90,15 eurotik gorako zenbatekoa duen faktura batean dokumentaturiko ondasun-emateei dagokienez soilik aplikatuko da.

      b) Bidaiariek ohizko egoitza Elkartetik ate eduki dezatela.

      c) Eskuratzen diren ondasunak benetan Elkarteko lurraldetik irten daitezela.

      d) Eskuratzen diren ondasunen multzoa merkataritzako salmenta ez dadila izan.

      Foru Arau honek ondoreak izan ditzan, bidaiariek daramatzaten ondasunak merkataritzako salmenta ez direla ondoko kasuan ulertuko da: bidaiarien erabilera pertsonalerako edo berauen ahaideen erabilerarako edo opari gisa eskaintzeko lantzean behin eskuratzen diren ondasunak izaki, duten izaera eta kopuruagatik merkataritzako jarduera bateko gaiak direlako ustea ezin eduki daitekeenean.

   B) Aduanazko kontrolaren pean, portu eta aireportuetan dauden zergarik gabeko dendetan burutzen diren ondasun-emateak, eskuratzaileak gainontzeko lurraldeetarantz berehalaxe irteten diren pertsonak direnean, bai eta gainontzeko lurraldeetan dauden

portu edo aireportuak jomuga dituzten nabigazioak egiten dituzten untzi eta aireuntzietan burutzen direnak ere.

3. Eskuratu edo inportatzen diren ondasun higiezinetan lanak egitean dautzan zerbitzugintzak, baldin eta ondasunok zerga honen aplikazio-lurraldean aipatu lanen gai izan ondoren lanok egiten dituenak, Zergaren aplikazio-lurraldean ezarrita ez dagoen lanen destinatariak, edota aurreko bion edozeinen izenean eta kontura dihardaen beste pertsona batek Elkartetik kanpora saldu edo garraiatzeko eskuratu edo inportatzen badira.

   Salbuespena ez da hedatzen kirol- edo jolas-untzien, turismoko hegazkinen edo igaro erregimenean edo aldi baterako inportazio erregimenean sartzen den erabilera pribatuko beste edozein motatako garraiobideren konponketa- edo mantenimendu-lanetara.

4. Erakunde aitortuei egindako ondasun-emateak, baldin eta erakundeok autonomia-erkidegotik kanpora esportatzen badituzte ondasun horiek, beren jarduera humanitarioak, karitatezko jarduerak edo hezkuntza-jarduerak egitean; dena dela, aurretik aitortu behar zaie salbuespenerako eskubidea.

   Nolanahi ere, aurreko lerroaldean aipatutako ondasunak ematen dituena erakunde publiko edo gizarte-izaerako establezimendu pribatu bat bada, jasandakotik guztiz deduzitu gabeko zerga itzultzea eska daiteke, baldin eta emateak egin eta hiru hilabeteko epearen barruan justifikatzen bada zenbateko hori.

5. Foru Arau honen 20. artikuluaren arabera salbuespena dutenez beste zerbitzugintzak, garraio eta eragiketa osagarrienak barne, Elkartearen lurraldetik kanporako ondasun-esportazioekiko erlazio zuzena edukiz gero.

   Aipatu esportazioei zuzen lotutzat hartuko dira ondoko baldintzak betetzen dituzten zerbitzuak:

   a) Esportazioak burutzen dituztenei, ondasunen hartzaileei edo haien aduana-ordezkariei ematen zaizkien zerbitzuak izatea.

   b) Zerbitzuak ondasunak Elkartearen lurraldetik kanpoko toki batera edo portu-, aireportu- edo muga-gune batera, berehala aipatu lurraldetik luzatzeko, zuzenean saltzen direnean hasiz buru daitezela.

   Aurreko b) puntuan aipaturiko baldintza ez da eskatuko zamaren garraio, enbalaje eta atonketako eta merkataritzako gaien eskuratzaileen konturako arakaketa-zerbitzuei dagokienez, ez eta bidalketa burutzeko aurretiaz ezinbestean egin behar diren antzeko beste batzuei dagokienez ere.

6. Gainontzekoen izenean eta kontura diharduten bitartekoek burutzen dituzten zerbitzugintzak, honako artikulu honetan deskribatu diren eragiketa salbuetsietan esku hartzen dutenean.

**22. artikulua. Esportazioei berdinetsiriko eragiketetako salbuespenak.**

Zerga honetatik salbuetsirik daude, arau bidez ezartzen diren baldintza eta beharkizunak betez gero, ondoko eragiketak:

Bat. Ondoren adieraziko diren ontzien emateak, eraikuntzak, transformazioak, konponketak, mantentze-lanak, pleitamendua, oso edo partziala, eta errentamendua:

1.a. Itsaso zabalean nabigatzeko gai diren ontziak, baldin eta merkataritzako gaien edo bidaiarien garraio-jarduera ordainduak -turismo-zirkuituak barne- edo industri jarduerak egiteko edo arrantzan jarduteko nazioarteko itsas nabigazioari lotzen bazaizkio.

Salbuespena ez zaie inoiz ere aplikatuko kirol- edo jolas-jarduerak edo, oro har, erabilera pribatuko jarduerak egitea helburu duten ontziei

2.a. Salbamenduari, itsasoko laguntzari edo itsasbazterreko arrantzari bakarrik loturik dauden ontziak.

Ontzi bati aurreko lerroaldean adierazi diren xedeetatik jaregiteak gutxienez urtebeteko epearen barruan izango ditu ondoreak, ondoren ontzia ematen denean izan ezik

3.a. Gerraontziak.

Honako atal honetan deskribaturik dagoen salbuespena gerta dadin, aipatu ondasunen eskuratzailea edo zerbitzuen hartzailea jarduera horiek egiten dituen konpainia bera izan behar da eta ontziak jarduera horiek egiteko erabili behar ditu, edo, hala denean, eskuratzaile edo hartzailea ontziak defentsako xedez darabiltzan erakunde publikoa izan behar da.

Foru arau honi dagokionez, honako hauek hartuko dira aintzat:

Lehenengo.Nazioarteko itsas nabigaziotzat itsasoko uretan burutzen dena hartuko da, honako balizko hauek betez:

a) Nabigazioa zerga aplikatzen den gune-eremuan kokaturiko portu batetik abiatu eta aipatu gune-eremuaz kanpoko beste portu batean bukatzea, edota eskala egitea.

b) Nabigazioa zerga aplikatzen den gune-eremuaz kanpo kokaturiko portu batetik abiatu eta aipatu gune-eremuaren barruan zein eremuaz kanpo kokaturiko beste portu batean bukatzea, edota eskala egitea.

c) Nabigazioa eskalarik egin gabe, edozein portutatik abiatu eta edozein portutan bukatzea, baldin eta zerga honen aplikazioaren gune-eremuko lurraldeko urez kanpo berrogeita zortzi ordu baino gehiago igarotzen badira.

Letra honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko pertsonen edo merkataritzako gaien garraio-jarduera ordainduak egiten dituzten ontziei.

Nazioarteko itsas nabigazioaren kontzeptu honetan ez daude bilduta janaritu, konponketak egin edo antzeko zerbitzuak burutzeko egiten diren eskala teknikoak.

Bigarren. Ontzi bat nazioarteko itsas nabigazioari lotuta dago baldin eta nabigazio horretako singladuretan egindako ibilbideak jarraian adierazten diren epeetan zehar egindako ibilbide osoaren 100eko 50 baino gehiago badira. Epeok honako hauek dira:

a) Konponketa- edo mantentze-lanak egin baino lehenagoko egutegiko urtea, hurrengo letran xedatutakoa izan ezik.

b) Ontzia eman, eraiki, transformatu, Batasun barruan eskuratu, inportatu, osorik edo zati batean pleitatu edo errentan hartzen denean edo aurreko 2. zenbakian aipatutako xedeetatik jaregiten denean, epea izango da eragiketok burutzen diren egutegiko urtea, eragiketak urte horretako lehenengo sei hilekoaren ostean gertatzen ez badira behintzat. Izan ere, horrelakorik gertatuz gero, kontuan hartu beharreko epeak egutegiko urte hori eta hurrengoa hartuko ditu barnean.

Irizpide hori aurreko letran aipatutako eragiketei begira ere aplikatuko da, eragiketok letra honetan aipatutakoen ostean burutuz gero.

Letra honetan xedatutakoari doakionez, ontzi baten eraikuntza bukatuko da ontzi hori dagokion itsas erregistroan behin betiko matrikulatzen den unean.

Baldin eta b) letra honetan aipatutako epeak igarotzen badira eta ontziak ez baditu betetzen ontzi hori nazioarteko itsas nabigazioari lotzeko beharrezkoak diren beharkizunak, ontziaren zerga-egoera erregularizatu egingo da atal honetako eragiketei begira, 19. artikuluaren 1. zenbakian xedatutakoarekin bat etorririk.

Bi. Aurreko ataleko salbuespenek ukitzen dituzten untziei erasten zaizkien edo haien bornuan dauden gaien emate, errentamendu, konponketa eta mantenimendua, arrantzako tresnena barne, baldin eta eragiketok aipatu onura fiskalak aplikagarri diren aldietan burutzen badira.

Salbuespena gerta dadin, ondoko beharkizunak bete behar dira:

1. Aipatu eragiketen destinatari zuzena untziaren ustiapenaren titularra izan dadila edo, hala denean, untziaren jabea.

2. Aipatu diren gaiak untzi horien ustiapenean soilik erabil daitezela edo, hala denean, horretan erabiltzeko destina daitezela.

3. Salbuespenek ukitzen dituzten eragiketak aipatu untziak itsas erregistro egokian behin betiko matrikulatu ondoren buru daitezela.

Hiru. Ondoren adieraziko diren untzientzako hornidura-gaien emateak, aipatu untzien ustiapenaren titularrek eskuratzen dituztenean:

1. Aurreko 1. atalaren 1. eta 2. zenbakietako salbuespenek aipatu dituzten untziak, baldin eta onura fiskalok aplikagarri diren aldietan burutzen badira.

   Hala ere, itsasertzeko arrantzari loturik dauden untziak direnean, salbuespena ez da hedatzen bornuko horniduren emateetara.

2. Nazioarteko itsas nabigazioa egiten duten gudauntziak, 1. atalean deskribatu denaren arabera.

Lau. Ondoko aireuntzi hauen emate, transformakuntza, konponketa, mentenimendu, guztirako pleitamendu edo errentamendua:

1. Funtsean merkataritzako gaien edo bidaiarien garraio-jarduera ordainduak egiteko nazioarteko aire nabigazioan aritzen diren konpainiek esklusiboki darabiltzatenak.

2. Entitate publikoek beren eginkizun publikoak betetzean darabiltzatenak.

   Salbuespena gerta dadin aipatu ondasunen eskuratzaileak edo zerbitzuen destinatariak, lehengo jarduerok egiten dituen konpainia bera izaki, jarduerak egitean aireuntziak erabili behar ditu edo, hala denean, eskuratzaile edo destinataria eginkizun publikoetarako aireuntziak darabiltzan entitate publikoa bera izan beharko du.

   Foru Arau honek ondoreak izan ditzan:

   Lehenengo. Nazioarteko aire nabigaziotzat ondoko balizkoak betez burutzen dena hartuko da:

   a) Zerga aplikatzen den gune-eremuan kokaturiko aireportu batetik abiatu eta aipatu gune-eremuaz kanpoko beste aireportu batean bukatzea, edota eskala egitea.

   b) Zerga aplikatzen den gune-eremuaz kanpo kokaturiko aireportu batetik abiatu eta aipatu gune-eremuaren barruan zein eremuaz kanpo kokaturiko beste aireportu batean bukatzea, edota eskala egitea.

   Nazioarteko aire nabigazioaren kontzeptu honetan ez daude bilduta janaritu, konponketak egin edo antzeko zerbitzuak burutzeko egiten diren eskala teknikoak.

   Bigarren. Konpainia bat nazioarteko aire-nabigazioari funtsean lotuta dago, nabigazio horri badagokio epealdi batzuetan zehar konpainiak horrek erabilitako

aireuntzi guztiek egindako hegaldietan ibilitako bide osoaren 100eko 50. Epealdi horiek honakook dira:

a) Konpontzeko edo artatzeko jarduerak egin aurre-aurretiko egutegiko urtea, hurrengo letran xedatutakoa izan ezik.

b) Aireuntzia eman, eraiki, transformatu, erkidego barruan erosi, inportatu, osorik pleitatu edo errentan hartzeko epealdia, eragiketok burutzen diren egutegiko urtea, urte horretako lehenengo sei hilekoaren ostean gertatzen ez badira. Horrelakorik gertatuz gero, kontutan hartu beharreko epealdiak egutegiko urte hori eta hurrengoa hartuko ditu barnean.

Irizpide hori aplikatuko da aurreko letran aipatutako eragiketei begira ere, horiek letra honetan aipatutakoen ostean burutuz gero.

Baldin eta b) letra honetan aipatutako epealdiak igarotzen badira eta konpainiak ez baditu betetzen nazioarteko aire-nabigazioarekiko loturarako beharrezko diren beharkizunak, beraren zerga-egoera erregularizatuko da, atal honetako eragiketei begirakoa, 19. artikuluaren 3. zenbakian xedatutakoarekin bat etorririk.

Bost. Aurreko ataleko salbuespenek ukitzen dituzten aireuntziei erasten zaizkien edo haien bornuan dauden gaien emateak, errentamenduak, konponketak eta mantenimendua.

Salbuespena gerta dadin, ondoko beharkizunak bete behar dira:

1. Aipatu eragiketen destinatari zuzena eragiketok gaitzat duten aireuntziaren ustiapenaren titularra izan dadila.

2. Aipatu diren gaiak aireuntzi horien ustiapenean erabil daitezela edo, hala denean, horretan erabiltzeko destina daitezela.

3. Salbuespenek ukitzen dituzten eragiketak aireuntzi horiek arau bidez xedatuko den matrikula-erregistro egokian matrikulatu eta gero egin daitezela.

Sei. Laugarren atalean ezarritako salbuespenek aipatzen dituzten aireuntzientzako hornidura-gaien emateak, aipatu aireuntzien ustiapenaren konpainia edo entitate publiko titularrek eskuratzen dituztenean.

Zazpi. Aurreko 1. eta 4. ataletan ezarri diren salbuespenak dagozkien untzi eta aireuntzien beharrizan zuzenei, eta untzi eta aireuntzion zamaren beharrizanei erantzuteko burutzen diren zerbitzugintzak, artikulu honen aurreko ataletan azaldutakoez bestelakoak direnean.

Zortzi. Harreman diplomatiko eta kontsularren markoan burutzen diren ondasun-emate eta zerbitzugintak, arau bidez zehazten diren kasuetan eta beharkizunak betez.

Bederatzi. Espainiak aintzatetsitako nazioarteko erakundeentzako eta erakunde horietan estatutu diplomatikoarekin lanean ari diren pertsonentzako ondasun emateak eta zerbitzugintzak, erakundeok sortu dituzten nazioarteko itunetan edo kasu bakoitzean aplikatu beharreko egoitza akordioetan ezartzen diren mugekin eta baldintzekin.

Hain zuzen ere, idatz-zati honetan sartuko dira Europar Batasunarentzako, Energia Atomikoaren Europako Erkidegoarentzako, Europako Banku Zentralarentzako, Europako Inbertsio Bankuarentzako ondasun emateak eta zerbitzugintzak, eta Europako erkidegoen pribilejioei eta inmunitateei buruzko 1965eko apirilaren 8ko Protokoloa aplikatzen zaien Europako erkidegoetako erakundeentzakoak, Protokoloan eta hura aplikatzeko akordioetan eta egoitza akordioetan ezarritako mugen barruan eta bertako baldintzak beteta egiten direnak, baldin eta lehian distortsiorik sortzen ez bada.

Hamar. Ipar Atlantikoko Tratatuaren Erakundearen gainontzeko estatu kideen indar armatuentzat burutzen diren ondasun-emate eta zerbitzugintzak, aipatu tratatuko estatu kideen arteko hitzarmenean haien indar armatuen estatutuari buruz ezarrita dagoenaren arabera.

Hamaika. Jomuga beste estatu kide bat edukirik, Ipar Atlantikoko Tratatuaren Erakundearen estatu horretaz beste edozein estatu kideren indar armatuentzat burutzen diren ondasun-emate eta zerbitzugintzak, aipatu tratatuko estatu kideen arteko hitzarmenean haien indar armatuen estatutuari buruz ezarrita dagoenaren arabera.

Hamabi. Espainiako Bankuarentzako urre-emateak.

Hamairu. Zergaren gune-eremutik kanpo kokaturik dagoen portu edo aireportu batetik abiatu edo bertan jomuga duten bidaiari eta berauen fardelen itsas zein aire garraioak.

Hamalau. Azoreak edo Madeira irla jomuga duten edo aipatu irlotatik abiatzen diren Elkartebarneko ondasun-garraioko zerbitzugintzak; Elkartebarneko ondasun-garraioa Foru Arau honen 72. artikuluaren bigarren atalean definiturik dago.

Hamabost. Besteren izenean eta kontura diharduten bitartekariek burututako zerbitzu-prestazioak, artikulu honen arabera, zerga honetatik salbuetsita dauden eragiketetan parte hartzen dutenean.

Hamasei. ...

Hamazazpi. ...

**23. artikulua. Alde eta gordailu zabal, eta beste gordailu batzuei buruzko salbuespenak.**

Bat. Arau bidez ezartzen diren baldintza eta beharkizunak betez gero, ondoko eragiketak salbuetsirik egongo dira:

1. Alde franko edo gordailu frankoan sartzeko diren ondasun-emateak, baita aduanaraino eraman eta, hala denean, aldi baterako gordailuan utzitako ondasunenak ere.

2. Plataformak eraiki, konpondu, mantendu, aldatu edo hornitzeko edo kontinenteari lotzeko zulaketa edo ustiaketa plataformei gehitzeko asmoz, jurisdikziopeko uretara eramaten diren ondasunak ematea.

   Salbuespena aurreko atalak aipatutako plataformak hornitzeko ondasunak emateko prozesuetara hedatuko da.

3. Aurreko 1. eta 2. zenbakietan deskribaturik dauden ondasun-emateei eta atal honetan aipatzen diren lekuetan sartzeko diren ondasunen inportazioei zuzen loturik dauden zerbitzugintzak.

4. Aurreko 1. eta 2. zenbakietan adierazi diren tokietan burutzen diren ondasun-emateak, adierazi diren egoera haiek dirauten bitartean, bai eta toki horietan burutzen diren zerbitzugintzak ere.

Bi. Artikulu honetan aipatu diren alde franko, gordailu franko eta aldi baterako gordailu tokiak aduanei buruzko legerian horrelakotzat jotzen direnak izango dira. Merkataritzako gaiak alde eta gordailu frankoetan sartu eta edukitzea, baita gaiok aldi baterako gordailuetan uztea ere, aipatu legeriak ezarritako arau eta beharkizunei lotuko zaizkie.

Hiru. Artikulu honetan ezarrita dauden salbuespenek baldintza bat dute beti: aipatzen dituzten ondasunak ez daitezela ez erabil ez kontsumi adierazi diren guneetan.

Ondore hauetarako, ez dira aipatu guneetan erabilitzat joko gune horietan burutzen diren transformakuntzako prozesu hasiei erasteko sartzen diren ondasunak, aduanako

transformakuntzako edo etendura sistemaren burutze aktiboko aduanazko erregimenen edo burutze aktiboko erregimen fiskalaren itzalpean.

Lau. 1. atala dela bide salbuetsirik dauden zerbitzugintzek ez dituzte beren barnean biltzen honako Foru Arau honen 20. artikuluak salbuetsi dituenak.

**24. artikulua. Aduanazko erregimen eta erregimen fiskalei buruzko salbuespenak.**

Bat. Arau bidez ezartzen diren baldintza eta beharkizunak betez gero, ondoko eragiketak Zergatik salbuetsirik egongo dira:

1. Ondoren adieraziko diren ondasunen emateak:

   a) Burutze aktiboko aduanazko erregimen eta erregimen fiskalaren eta aduanako transformakuntzako erregimenaren itzalpean, bai eta aipatu erregimenei loturik daudenen (burutze aktiboko aurretiazko esportazioaren modalitatea izan ezik) erregimenarenean ere, burutzen diren prozesuetan erabiltzeko direnak.

   b) Inportazio edo kanpoko igarobideko eskubideen salbuespen osoko aldi baterako inportazioaren erregimenari loturik daudenak.

   c) 18. artikuluaren 1. atalaren 2. zenbakian bildurik daudenak, baldin eta aldi baterako inportazioaren erregimen fiskalaren edo Elkartebarneko barne igarobideko prozeduraren itzalpean badaude.

   d) Aduanazko gordailu-erregimenari lotzeko direnak eta aipatu erregimenari loturik daudenak.

   e) Aduanazko erregimenaz eta honi loturikoez beste gordailu-erregimen bati lotzeko direnak.

2. Aurreko zenbakian deskribatu diren ondasun-emateei zuzen loturik dauden zerbitzugintzak.

3. Ondoko eragiketa eta ondasunekiko zuzeneko harremanak dauzkaten zerbitzugintzak:

   a) Kanpoko igarobidearen erregimenari lotzen zaizkion ondasunekiko.

   b) 18. artikuluaren 1. atalaren 2. zenbakian bildurik dauden ondasunen inportazioekiko, baldin eta aldi baterako inportazioaren erregimen fiskalaren edo Elkartebarneko barne igarobidearen itzalpean jartzen badira.

   c) Burutze aktiboaren aduanazko erregimen eta erregimen fiskalari eta aduanako transformakuntzako erregimenari lotzen zaizkion ondasunen inportazioekiko.

   d) Aduanazko gordailuaren erregimenari lotzen zaizkion ondasunen inportazioekiko.

   e) Salbuespen osoko aldi baterako inportazioaren erregimenari lotzen zaizkion ondasunen inportazioekiko.

   f) Aduanaz bestelako gordailu-araubide bati lotzen zaizkion ondasunen inportazioekin zuzeneko harremana dutenak, baldin eta inportazioak salbuetsita badaude foru arau honetako 65. artikuluaren arabera.

   g) Aurreko a), b), c), d) eta f) puntuetan deskribatu diren erregimenei lotzen zaizkion ondasunekiko.

Bi. Aurreko atalean aipatu diren erregimenak aduanazko legerian definiturik daudenak dira, eta hari loturik egotea eta hartan irautea legeria horretan ezarrita dauden arau eta beharkizunei lotuko zaizkie.

Burutze aktiboaren erregimen fiskala, izen bereko aduanazko erregimenean baztertzen diren ondasunentzat baimenduko da, gainontzekoan ondasunok aipatu den aduanazko erregimena araupetzen duten arau beraiei loturik daudela.

Aldi baterako inportazioaren erregimen fiskala Foru Arau honetako 3. artikuluaren 2. atalaren 1. zenbakiaren b) puntuan bildurik dauden lurraldetiko ondasunentzat baimenduko da, baldin eta ondasun horien inportazioak inportazio-eskubideen salbuespen osoa badauka, edo ondasunak gainontzeko herrietatikoak izanez gero edukiko balu.

Honako Foru Arau honek ondoreak izan ditzan, aduanazkoaz beste gordailu-erregimena Foru Arauaren eraskinean definiturik dagoena izango da.

Hiru. 1. atalean deskribatu diren salbuespenak, aipatzen dituzten ondasunek adierazi diren erregimenei loturik dirauten bitartean aplikatuko dira.

Lau. 1. atala aplikatuz gero salbuetsirik dauden zerbitzugintzetan ez daude bildurik Foru Arau honen 20. artikulua dela bide salbuespena daukatenak.

**25. artikulua. Beste estatu kide batentzako ondasun-emateetako salbuespenak.**

Zergatik salbuetsirik daude ondoko eragiketak:

Bat. Foru Arau honen 8. artikuluan definiturik dauden ondasun-emateak, baldin eta saltzaileak, eskuratzaileak edo gainontzeko batek aurreko bietariko edozeinen izenean eta kontura beste Estatu kide baten lurralderako bidali edo garraiatzen baditu eta eskuratzailea ondokoetarikoa bada:

a) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondoreetarako Espainiaz beste Estatu kide batean identifikaturik dagoen enpresari edo profesionaria.

b) Enpresari edo profesionari gisa ez diharduela, Zergaren ondoreetarako Espainiaz beste Estatu kide batean identifikaturik dagoen pertsona juridikoa.

Atal honetan deskribaturik dagoen salbuespena ez zaie aplikatuko, Foru Arau honen 14. artikuluaren 1. eta 2. ataletan bildutako irizpideak direla bide, jomuga den Estatu kidean elkartebarneko ondasun-eskuraketak zergaren menpe ez dituzten pertsonentzako ondasun-emateei.

Ez zaie, halaber, salbuespen hau aplikatuko, Foru Arau honetako IX. Tituluko IV. Kapituluan araupetzen den ondasun erabili, arte-objektu, antzinateko eta bilduma-objektuen araubide bereziari heldutako ondasun-emateei.

Bi. Garraiobide berrien emateak, 1. atalean adierazita dauden baldintzetan burutzen direnean eta jomugako eskuratzaileak aurreko ataleko azkenurren lerroaldean bildurik dauden pertsonak edo enpresaria edo profesionaria ez den beste edozein pertsona direnean.

Hiru. Foru Arau honen 9. artikuluaren 3. zenbakian bildurik dauden ondasun-emateak, baldin eta, destinataria beste enpresari edo profesionari bat izanez gero, ondasun-emateoi 1. ataleko salbuespena aplikatu ahal bazaie.

Lau. ...

## II. KAPITULUA
## ELKARTEBARNEKO ONDASUN-ESKURAKETAK

**26. artikulua. Elkartebarneko ondasun-eskuraketetako salbuespenak.**

Zergatik salbuetsirik daude:

Bat. Zergaren aplikazio-lurraldean, Foru Arau honen 7., 20., 22., 23. eta 24. artikuluetan xedaturik dagoena dela bide, beti zergarekiko menpekotasunik gabe edo hartatik salbuetsirik eman daitezkeen Elkartebarneko ondasun-eskuraketak.

Bi. Titulu honen III. kapitulua dela bide, beti ere Zergatik salbuetsirik inporta daitezkeen Elkartebarneko ondasun-eskuraketak.

Hiru. Ondoko eskakizunak betetzen dituzten elkartebarneko ondasun-eskuraketak:

1. Honako baldintzok betetzen dituen enpresari edo profesionari batek burutuak izatea:

   a) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako, Zergaren aplikazio-lurraldean egoitzarik ez izan eta identifikaturik ez egotea, eta

   b) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako, Elkarteko beste Estatu kide batean identifikaturik egotea.

2. Eskuratzaileak berak gero, Zergaren aplikazio-Lurraldean, eskuratutako ondasunen ematea egiteko izatea.

3. Eskuratutako ondasunak, eskuratzailea Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako identifikaturik dagoeneko Estatuaz besteko Estatu kide batetik zuzenean bidaliak edo garraiatuak izatea, ondorengo ematea egin behar zaion pertsonari zuzenduak.

4. Ondorengo ematearen jasotzailea, Lege honen 14. artikuluan ezarritako loturarik ezaren eraginik izan ez eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako espainiar Administrazioak emandako identifikazio zenbakia duen enpresari edo profesionaria edo horrelakotzat ez diharduen pertsona juridiko bat izatea.

Lau. Batasunaren barruko ondasunen eskuraketak, baldin eta foru arau honetako 119 edo 119 bis artikuluan xedatutakoaren arabera eskuratzaileak badauka haiengatik sortutako zerga zor guztia itzultzeko eskubidea.

Bost. ...

## III. KAPITULUA
## ONDASUN-INPORTAZIOAK

### 27. artikulua. Barnealdeko ematea Zergarekiko menpekotasunetik ate duten ondasunen inportazioa.

Zergaren menpekotasunetik ate daude ondoko ondasunak gai dituzten inportazioak:

1. Odola, odol-plasma eta giza gorputzaren gainontzeko jariakin, ehun eta osagaiak, medikuntza edo ikerkuntzako xedez edo xede berauetarako prozesatzeko inportatzen direnean.

2. Honako Foru Arau honen 22. artikuluaren 1. eta 2. ataletan ezarririk dauden salbuespenek aipatzen dituzten untziak eta hauei erasteko diren gaiak.

3. Honako Foru Arau honen 22. artikuluaren 4. eta 5. ataletan ezarrita dauden salbuespenek aipatzen dituzten aireuntziak eta hauei erasteko diren gaiak.

4. Zerga aplikatzen den gune-eremuan sartu eta aipatu lurralde-eremuan kokaturiko portura edo portuetara heldu bitartean eta berauetan xedeak betetzeko behar bezainbateko epean dauden bitartean, honako Foru Arau honen 22. artikuluaren 3. atalean ezarrita dauden hornidura-emateen salbuespenak dagozkien untzietan kontsumitu eta berauen bornuan dauden hornidura-ekoizkinak, aipatu manuan aurrikusita dauden mugekin.

5. Zerga aplikatzen den gune-eremuan sartu eta aipatu lurralde-eremuan kokaturiko aireportura edo aireportuetara heldu bitartean eta berauetan xedeak betetzeko behar bezainbateko epean dauden bitartean, honako Foru Arau honen 22. artikuluaren 6. atalean ezarrita dauden hornidura-emateen salbuespenak dagozkien aireuntzietan kontsumitu eta berauen bornuan dauden hornidura-ekoizkinak, aipatu atalean ezarrita dauden baldintzak betez gero.

6. Foru Arau honen 22. artikuluaren 3. eta 6. ataletan ezarrita dauden salbuespenek ukitzen dituzten untzi eta aireuntzien ustiapenaren enpresa titularrek inportatzen dituzten hornidura-ekoizkinak, baldin eta aipatu manuetan ezarrita dauden mugak betetzen badituzte eta untzi eta aireuntzi horietan erabiltzeko xedea baizik ez badute.

7. Legezko ordainbide diren dibisak, bankuko billeteak eta txanponak, ondokoak izan ezik: bildumetako txanponak eta billeteak, eta urrezko, zilarrezko eta platinozko piezak.

8. Balore-tituluak.

9. ...

10. Espainiako Bankuak zuzenean inportatzen duen urrea.

11. Honako Foru Arau honen 23. artikuluaren 1. atalaren 2. zenbakian plataformetarako direnak, baldin eta manu horretan aipatzen diren xede beretarako badira.

12. Beste estatu kide bat jomuga edukirik saldu edo garraiatzen diren ondasunak, baldin eta inportatzaileak edo beraren zerga ordezkariak ondoren burutzen duen ondasun horien ematea Zergaren kargapean ez badago foru arau honetako 25. artikuluan xedatu denaren arabera.

    Zenbaki honetako salbuespena aplikatzeko ezinbestekoa da arauz ezartzen diren betekizunak betetzea.

**28. artikulua. Ohizko egoitzaren lekualdaketarengatiko ondasun pertsonalen inportazioa.**

Bat. Zergatik salbuetsirik daude ohizko egoitza Espainiako erresumaz beste lurralde batetik lekualdatzen duten pertsona fisikoen ondasunen inportazioak.

Bi. Salbuespena ondoko beharkizunak bete beharrak baldintzaturik dago:

1. Interasatuek ohizko egoitza gutxienez lekualdaketa aurreko jarraiko hamabi hilabetez Elkarteaz kanpo eduki izana.

2. Inportatzen diren ondasunak egoitza berrian aurrekoan zituzten erabilera edo xede beretarako erabiltzea.

3. Ondasun horiek jatorrizko herriko tributu-baldintza normaletan eskuratu edo inportatzea eta aipatu herritik irtetean sorrarazten diren kuoten ezein salbuespen edo berreskurapenen onura ez hartu izana.

   Beharkizun hau betetzat joko da ondasunak erregimen diplomatiko edo kontsularrean xedaturik dauden salbuespenen itzalpean eskuratu edo inportatzen direnean, edota egoitza jatorrizko estatuan duten nazioarteko organismoetako kideentzat direnean, aipatu organismoak sortu dituzten nazioarteko hitzarmenek edo egoitzari buruzko erabakiek ezarrita dauzkaten muga eta baldintzekin.

4. Inportagai diren ondasunak interasatuaren edukitzan egon izana edo, ondasun ez-suntsigarriak badira, hark bere egoitza zaharrean berau utzi aurreko sei hilabetetako gutxienezko aldian erabili izana.

Dena den, errepidean ibiltzeko ibilgailu motore mekanikodunak, hauen atoiak, kanping-eko karabanak, etxebizitza garraiagarriak, jolasuntziak eta turismo motako hegazkinak direnean, baldin eta aurreko 3. zenbakiaren bigarren lerroaldean aipaturik dauden salbuespenen eskuratu edo inportatzen badira, aurreko lerroaldean deskibaturik dagoen erabileraldiak hamabi hilabete baino luzeagoa izan beharko du.

Ez da eskatu zenbaki honetan ezarri diren epeak bete daitezen aduanazko legeriak hala jokatzea onartzen duen salbuespenezko kasuetan, inportazio-eskubideen ondoreetarako.

5. Ondasunen inportazioa egoitza Zerga aplikatzen den lurraldera lekualdatzen den egunetik zenbatzen hasi eta hamabi hilabetetako gehienezko epean burutzea.

   Hala ere, ondasun pertsonalak lekualdaketa egin baino lehen inportatu ahal izango dira, baldin eta aurretiaz interasatuak bere egoitza berria inportazioa burutu eta hurrengo sei hilabeteak igaro aurretik ezartzeko konpromezua hartzen badu; konpromezu hau betearazteko bermea eskatu ahal izango da.

   Aurreko lerroaldean adierazitakoa gertatzen bada, aurreko zenbakian ezarri diren epeak inportazioa burutzen den egunaren arabera kalkulatuko dira.

6. Salbuespenarekin inportatzen diren ondasunak inportatu eta ondorengo hamabi hilabeteetako epean ez eskualdatu, lagatu edo errentatzea, bidezko arrazoirik egon ezean.

   Beharkizun hau betetzen ez bada, Zerga ez-betetzea gertatzen den egunari dagokionez ordainarazi beharko da.

Hiru. Salbuespenaz ate daude ondoko ondasunak:

1. Aduana arantzelaren NC 22.03 eta 22.08 bitarteko kodeetan bildurik dauden ekoizkin alkoholdunak.

2. Tabakoa, langabea zein landua.

   Dena den, 2. zenbaki honetan eta aurreko 1. zenbakian bildurik dauden ondasunak Foru Arau honen 35. artikuluan araupeturik dagoen bidaiarien erregimenean frankiziaz baimenduriko dirukopuruen mugetara iritsi arteko salbuespenaz inportatu ahal izango dira.

3. Industri izaerako garraiobideak.

4. Inportatzaileak bere lanbide edo ogibidean iharduteko darabiltzan tresna eramankorrez lanbide erabilerako beste materialak.

5. Merkataritza- edo lanbide-xedeetarako erabiltzen diren erabilera mistoko ibilgailuak.

### 29. artikulua. Ondasun pertsonalen kontzeptua.

Foru Arau honek ondoreak izan ditzan, ondasun pertsonaltzat hartuko dira interesatuaren edo berarekin bizi diren pertsonen erabilerarako izan ohi direnak edo berauen etxeko beharrizanetarako direnak, baldin eta ondasunak, izaera eta kopuruagatik, enpresa- edo lanbide-jardueraren bati loturik daudelako ustezkotasunik eduki ezin bada.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa gora-behera, ondasun pertsonalak dira, halaber, inportatzaileak bere lanbide edo ogibidean iharduteko behar dituen tresna eramankorrak.

**30. artikulua. Bigarren mailako etxebizitza jazteko xedea duten ondasun pertsonalen inportazioa.**

Bat. Zergatik salbuetsita daude partikularrek inportatzailearen bigarren mailako etxebizitza bat jazteko burutzen dituzten ondasun personalen inportazioak.

Bi. La exención establecida en el apartado anterior quedará condicionada a la concurrencia de los siguientes requisitos:

1. Foru Arau honen 28. artikuluaren 2. atalaren 2., 3., 4. eta 6. zenbakietan ezarrita daudenak, aplika daitezkeen heinean.

2. Inportatzailea bigarren mailako etxebizitzaren jabea edo, hala denean, errentaria izan dadila hamabi hilabetetako gutxienezko epealdian.

3. Inportatzen diren ondasunak bigarren mailako etxebizitzaren ohizko altzariei edo ostilamenduari dagozkionak izan daitezela.

**31. artikulua. Ondasun pertsonalen ezkontzagatiko inportazioak.**

Bat. Ez dira Zergapekoak izango, ezkontza dela eta, ohizko egoitza Zerga aplikatzen den lurraldeko gainontzeko herrietatik lekualdatzen duten pertsonek burutzen dituzten ostilamendu- eta altzari-ondasunen inportazioak.

Bi. Salbuespena gerta dadin, ondoko beharkizunak bete behar dira:

1. Foru Arau honen 28. artikuluaren 2. atalaren 1., 3. eta 6. zenbakietan ezarrita daudenak.

2. Interesatuak ezkontzaren froga eta, hala denean, hura burutzeko kudeaketa ofizialak hasi direlako froga eman dezala.

3. Inportazioa ezkontza burutu aurreko bi hilabeteak eta burutu ondorengo lau hilabateak bitarteko aldian egin dadila.

Inportazioa ezkontza burutu aurretik gauzatzen denean Administrazioak behar adinako bermea eskatu ahal izango du.

Hiru. Salbuespena, ezkontza dela eta, ematen diren oparietara ere hedatzen da, opariok ohizko egoitza Elkartetik kanpo duten pertsonek eman eta aurreko 1. atalean aipaturiko pertsonek jasotzen dituztenean, baldin eta opari gisa ematen den objektu bakoitzaren ale-balioak 200 euroko balioa gainditzen ez badu.

Lau. Artikulu honetan xedatutakoa ezin aplikatu ahal izan zaie errepidean ibiltzeko ibilgailu motoredunei, hauen atoiei, kanping-eko karabanei, etxebizitza garraiagarriei, jolasuntziei eta turismo motako hegazkinei, Foru Arau honen 28. artikuluan xedaturik dagoenaren kalterik gabe.

Bost. Halaber, ez dira Zergatik salbuetsirik egongo Foru Arau honen 28. artikuluaren 3. atalaren 1. eta 2. zenbakietan bildurik dauden ekoizkinak, aipatu manuan jarrita dauden salbuespenekin.

Sei. Ezkontza burutzeko adierazten den egunetik zenbatzen hasi eta lau hilabetetara ezkontza-frogagiririk ezak Zergaren ordainarazpena eragingo luke, inportazio burutzen den egunetik.

**32. artikulua. Ondasun pertsonalen jaraunspenagatiko inportazioak.**

Bat. Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira "mortis causa" eskuratzen diren ondasun pertsonalen inportazioak, Zerga aplikatzen den lurraldean ohizko egoitza duten pertsona fisikoek burutzen dituztenean.

Bi. Salbuespena interesatuak eskuratzen diren ondasunen edukitza lortu eta bi urtetako epean inportatzen dituen ondasunei dagokienez baizik ez da aplikatuko, Administrazioak aintzat hartzen dituen aparteko kariak izan ezik.

Hiru. Aurreko ataletan xedatu dena Zerga aplikatzen den lurraldean egoitza duten irabazi asmorik gabeko entitateek "mortis causa" eskuratzen dituzten ondasun pertsonalen inportazioei ere aplikatuko zaie.

Lau. Salbuespenetik ate daude ondoko ondasunak:

1. Aduana arantzelaren NC 22.03 eta 22.08 bitarteko kodeetan bildurik dauden ekoizkin alkoholdunak.

2. Tabakoa, langabea zein landua.

3. Industri izaerako garraiobideak.

4. Hilaren lanbidean iharduteko beharrezko diren tresna eramankorrez lanbide erabilerako beste materialak.

5. Lehengaien eta ekoizkin burutu edo erdiburutuen izakinak.

6. Familiako hornidura arruntari dagozkion kopuruak gainditzen dituzten azienda biziaren eta nekazaritzako ekoizkinen izakinak.

**33. artikulua. Ikasleek burutzen dituzten ondasun higigarrien inportazioak.**

Bat. Zergatik salbuetsirik egongo dira ikasle-gela baten ohizko ekipamendua diren ostilamendu, ikasketako material eta gainontzeko ondasun higigarri erabilien inportazioak, baldin eta ondasunok zerga honen aplikazio-lurraldean ikasketak burutzeko aldi baterako bizi izango diren pertsonenak badira eta ikasketak iraun bitartean haien erabilera pertsonalerako erabiltzen badira.

Salbuespen hau aplikatzeko:

a) Ikasletzat ondokoa hartuko da: Zerga aplikatzen den lurraldean establezimendua daukan ikastetxe batean bertako ikastaroetara dedikazio osoz joateko arau bidez inskribiturik dagoen pertsona oro.

b) Ostilamendutzat ondokoa: erabilera pertsonaleko edo etxeko arropa, baita berria izanik ere.

c) Ikasketako materialtzat ondokoa: ikasleek beren ikasketak burutzeko erabili ohi dituzten gai eta tresnak.

Bi. Salbuespena eskola-urtean behin emango da soilik.

**34. artikulua. Balio gutxiko ondasunen inportazioak.**

Zergatik salbuetsita daude guztirako balioa 22 eurotik gorakoa ez duten ondasunen inportazioak.

Jarraikoak aurreko paragrafoan xedatutakotik at daude:

1.a. Aduanako arantzelaren NC 22.03 eta 22.08 kodeen bitartean bildurik dauden ekoizkin alkoholdunak.

2.a. Lurrinak eta koloniak.

3.a. Tabakoa, langabea zein landua.

### 35. artikulua. Bidaiarien erregimeneko ondasunen inportazioak.

Bat. Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita dauden beste herrialde batzuetatik datozen bidaiarien bagaje pertsonaleko ondasunen inportazioak, ondoko muga eta betekizun hauekin:

1.a. Inportazioa ezin da izan merkataritzakoa, 21. artikuluko 2. zenbakiko A) letrako d) letran ezarritakoaren arabera.

2.a. Inportatzen diren ondasunen guztirako balioa ezin da izan 300 euro baino gehiago, pertsonako. Hala ere, bidaiariak Zergaren aplikazio lurraldera itsasoz edo hegazkinez heltzen badira, gehieneko zenbatekoa 430 euro izango da.

Bidaiaria hamabost urtetik beherakoa izanez gero, salbuetsitako gehieneko zenbatekoa 150 euro izango da. Ondasunen guztirako balioa handiagoa izanez gero, gehieneko zenbatekoa soilik utziko da Zergatik salbu, eta bereiz inportatuz gero salbuespena aplikatu ahal zaien ondasunei dagokienez soilik.

Aurrean ezarritako salbuespen mugak aplikatzean ez da konputatuko aldi baterako inportatzen diren ondasunen balioa, ez aldi baterako esportazioaren ondoren berrinportatzen diren ondasunena, ez eta bidaiariek erabili ohi dituzten sendagaiena ere.

Bi. Salbuespen honen ondoreetarako, bidaiarien bagaje pertsonaltzat hartuko dira heltzean aduanan aurkezten dituzten fardelak, bai eta geroago aurkezten dituztenak ere, baldin eta frogatzen badute irtetean enpresa arduradunak bidaiari baten bagaje gisa erregistratu dituela.

Erregaiak ez dira bagaje pertsonalekotzat hartuko, kopuru hauek gainditüz gero:

a) Garraiobide motordunen biltegi arrunten edukiera.

b) Erregai biltegi eramangarrien edukiera, 10 litroko mugarekin.

Hiru. Lehenengo idatz-zatian ezarritakoa eragotzi gabe, ondoren azalduko diren ondasunen inportazioak Zergatik salbu daude:

a) Tabako gaiak:

- zigarretak: 200;
- zigarro txikiak (bakoitzak 3 gramo gehienez): 100;
- puruak: 50;
- erreteko tabakoa: 250 gramo.

Bidaiari bakoitzaren kasuan, frankizia tabako gaien zeinahi konbinaziori aplika dakioke, baina beti ere baimendutako frankiziatik erabilitako ehunekoa %100 baino gehiago ez bada.

b) Alkoholak eta edari alkoholdunak:

- alkohol bolumena %22tik gorakoa duten edari destilatu eta espiritutsuak; alkohol etilikoa, desnaturalizatuta ez dagoena, %80ko alkohol bolumena edo handiagoa duena: litro bat, guztira;

- alkohol bolumena %22koa edo txikiagoa duten edari destilatuak eta espiritutsuak, ardoz edo alkoholez egindako aperitiboak, tafia, sakea edo antzeko edariak; ardo apardunak eta ardo oparoak: 2 litro, guztira;

- beste ardo batzuk: 4 litro, guztira;

- garagardoa: 16 litro, guztira.

Bidaiari bakoitzaren kasuan, frankizia alkohol eta edari alkoholdunen zeinahi konbinaziori aplika dakioke, baina beti ere baimendutako frankiziatik erabilitako ehunekoa %100 baino gehiago ez bada.

Ondasun hauen balioa ez da konputatuko aurreko lehenengo idatz-zatian adierazitako guztirako mugak aplikatzean.

Hamazazpi urtetik beherako bidaiariei ez zaizkie aplikatuko idatz-zati honetan ezarritako salbuespenak.

Lau. Bidaiaria herrialde batetik heltzen bada beste herrialde batera joateko eta frogatzen badu ondasunak Batasuneko beste estatu bateko ohiko zerga karga aplikatuta eskuratu dituela, ondasunen inportazioa, bidaiarien araubidean egindakoa, salbuetsita egongo da, eta ez dira aplikatuko aurreko lehen eta hirugarren idatz-zatietan ezarritako guztirako balioaren eta kopuruaren mugak. Honen ondoreetarako, Zergaren aplikazio lurraldearen gainetik hegaz dabiltzan bidaiariak ez dira hartuko iraganbidekotzat, hegazkinak lur hartzen ez badu.

Bost. Zergaren kargatik salbuesteko artikulu honetan ezarri diren mugak ehuneko hamarrera txikituko dira ondasunak nazioarteko trafikoan ari diren garraiobideetako langileek inportatzen dituztenean beren lanbide jardueretan egin beharreko joan-etorrietan.

**36. artikulua. Bidalketa txikien inportazioak.**

Bat. Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira gainontzeko herrietatik datozen bidalketa txikien inportazioak, baldin eta merkataritzako salmenta izan ez, eta partikular batek Zerga aplikatzen den lurraldean dagoen beste partikular batentzat bidaltzen dituenean..

Bi. Ondore hauetarako, merkataritza-izaerarik gabeko bidalketa txikitzat hartuko dira ondoko beharkizunak betetzen dituztenak:

1. Lantzean behin inportatuak izatea.

2. Gaitzat destinatariaren edo beronen senitartekoen erabilera pertsonaleko ondasunak soilik eduki ditzatela eta ondasunok, berauen izaera edo kopuruagatik, enpresari- edo lanbide-jarduera bati lotu dakizkiolako ustezkotasunik ez dadila izan.

3. Bidaltzaileak dohainik bidal ditzala.

4. Inportatzen diren ondasunen balio osoak ez dezala 45 euroko kontrabalioa gaindi.

Hiru. Salbuespena ondorengo zerrendan ageri diren ondasunei ere aplikatuko zaie, berauekin batera adierazita dauden kopuruetara iritsi arte:

a) Tabakogaiak:

- zigarrotxoak 50 ale edo

- purotxoak (aleko gehienez 3 gr dituzten zigarroak) 25 ale edo

- puroak 10 ale edo

- erretzeko tabakoa 50 gramo

b) Alkoholak eta edari alkoholdunak:

- bolumenaren ehuneko hogeita bia baino alkohol gehiago duten edari destilatuak eta izpiritutsuak; alkohol etilikoa, ez-desnaturaldua, bolumenaren ehuneko laurogeia edo gehiago duena Botila standard bat (litro bat gehienez) edo

- bolumenaren ehuneko hogeita bia edo gutxiagoko alkohol kopurua duten edari destilatuak eta izpiritutsuak, ardo edo alkoholez egindako gezigarriak, tafia, sake edo antzeko edariak; ardo apartsu edo gozoak Botila standard bat (litro bat gehienez) edo

- beste ardo mota batzuk 2 litro guztira

c) Lurrinak 50 gr eta

- apainmahaiko urak litro laurdena edo 8 ontza

d) Kafea 500 gr edo

- kafearen aterakin eta esentziak 200 gr

e) Tea 100 gr edo

- Tearen aterakin eta esentziak 40 gr. Atal honetan bildurik dauden ondasunen kopuruek adierazitako horiek gaindituko balituzte, salbuespenaren onuratik ate geratuko lirateke.

**37. artikulua. Jardueraren egoitzaren lekualdaketagatiko ondasun-inportazioak.**

Bat. Ekoizpen- edo zerbitzu-enpresa baten enpresa- edo lanbide-jarduerari loturik dauden inbertsio-ondasunen inportazioak Zergatik salbuetsirik egongo dira, baldin eta enpresa horrek gainontzeko herri batean duen enpresa-jarduera utzi eta Zerga aplikatzen den lurraldean antzeko jarduera egiteari ekiten badio.

Salbuespena ez da hedatzen gainontzeko herri batean finkaturik dauden enpresen ondasunetara, baldin eta enpresa hauek Zergaren aplikazio-lurraldera aurretiaz lurralde horretan egon den enpresa batekiko bategitea dela eta, edo horietariko enpresa batek irentsi izanagatik, lekualdatzen badira, jarduera berriari ekin gabe.

Jarduera transferitzen duen enpresak jatorrizko tokian abeltzaintzazko jardueraren bat egingo balu, salbuespena aipatu ustiapenean erabiltzen den abere biziei ere aplikatuko litzaieke.

Honako salbuespen honetatik bazterturik daude ondoko ondasunak:

a) Ekoizpen edo zerbitzuko tresna izaera ez duten garraiobideak.

b) Giza kontsumorako edo animalien elikadurarako mota guztietako hornidurak.

c) Erregaiak.

d) Lehengai eta ekoizkin amaitu edo erdiamaituen izakinak.

e) Abere-tratularien edukitzan dauden abereak.

Bi. Aurreko lerroaldean ezarririk dagoen salbuespena gerta dadin, ondoko beharkizun hauek bete behar dira:

a) Inportatzen diren ondasunak enpresak nondikako tokian jarduera utzi aurreko hamabi hilabetetako gutxienezko aldian erabili izana.

b) Zerga aplikatzen den lurraldean ondasunek erabilera berak izan ditzatela.

c) Ondasunen inportazioa nondikako tokian jarduera utzi eta ondorengo hamabi hilabeteetan buru dadila.

d) Inportatzen diren ondasunak ez daitezela izan funtsean honako Foru Arau honen 20. artikuluan ezarrita dagoena dela bide Zergapeko ez diren eragiketak egitean datzan jarduerak egiteko.

e) Ondasunak enpresaren izaera eta garrantziarentzat egokiak izan daitezela.

f) Zerga aplikatzen den lurraldera jarduera transferitzen duen enpresak Zergaren subjektu pasibo gisa alta adierazpena aurkez dezala, ondasunen inportazioa burutu aurretik.

**38. artikulua. Gainontzeko herrietan dauden lurretan nekazaritza edo abeltzaintzako ekoizleek lortzen dituzten ondasunak.**

Bat. Ez dira Zergapekoak izango zerga hau aplikatzen den lurraldearen ondoko gainontzeko herri baten lurretatiko nekazaritza, abeltzaintza, baratzantza edo oihanlangintzako ekoizkinen inportazioak, baldin eta ustiapenaren egoitza herri haren ondo-ondoko aipatu lurraldean duen ekoizleek lortzen badituzte.

Bi. Artikulu honetan aurrikusita dagoen salbuespena gerta dadin, ondoko beharkizunak bete behar dira:

1. Abeltzaintzako ekoizkinek Elkartearen tributu-ordainketako baldintza orokorren arabera hazi, eskuratu edo inportatzen diren abereetatikoak izan behar dute.

2. Jatorri garbiko zaldi-behorrek ezin eduki izango dute sei hilabete baino gehiago, eta gainontzeko herri batean jaioak izan beharko dute, Zergaren aplikazio-lurraldean ernaldu ondoren erditzeko aldi baterako esportatzen den behorrak erditurik.

3. Ondasunak ekoizleak edo honen izenean eta kontura dihardduen pertsonak inportatu beharko ditu.

**39. artikulua. Haziak, ongarriak eta lurra, eta landareen tratamendurako gaiak.**

Bat. Zergatik salbuetsirik egongo dira, elkarrekikotasuna egotekotan, gainontzeko herri baten ondo-ondoan dauden lurrak ustiatzeko diren hazi, ongarri eta lurra, eta landareen tratamendurako ekoizkinak, baldin eta lur horiek ustiatzen dituzten nekazaritzako ekoizleek aipatu gainontzeko herri horretan badute ustiapenaren egoitza, Zerga aplikatzen den lurraldearen ondo-ondoan.

Bi. Salbuespena gerta dadin, ondoko beharkizunak bete behar dira:

1. Ekoizkinok xede dituzten lurrak ustiatzeko beharrezko diren ekoizkin horien kopuruak baino handiagoak ez daitezela inporta.

2. Inportazioa ekoizleak edo honen izenean eta kontura dihardduen pertsonak egin dezala.

**40. artikulua. Ikerkuntzarako diren laborategiko animalien eta substantzia biologiko eta kimikoen inportazioa.**

Zergatik salbuetsirik egongo dira gainontzeko herrietatik laborategietan erabiltzeko beren beregi prestaturik dauden animalien eta substantzia biologiko eta kimikoen burutzen diren dohainezko inportazioak, baldin eta batzuk zein besteak funtsezko helburu zientzia-irakaskuntza edo ikerkuntza duten establezimendu publikoek, edo hauen menpeko zerbitzuek, inportatzen

badituzte, edota, baimena jaso ondoren, funtsean jarduera beretan ari diren establezimendu pribatuek inportatzen badituzte ere.

Artikulu honetan ezarri den salbuespena aduanazko legerian finkaturik dauden muga eta baldintza berekin emango da.

### 41. artikulua. Giza jatorriko substantzia terapeutikoen eta odol-talde eta giza ehunak zehazteko erreaktibarien inportazioak.

Bat. Honako Foru Arau honen 27. artikuluaren 1. zenbakian xedatu denaren kalterik gabe, Zergatik salbuetsirik egongo dira giza jatorriko substantzia terapeutikoen eta odol-taldeak eta giza ehunak zehazteko erreaktibarien inportazioak.

Salbuespena ekoizkin horiek garraiatzeko ezinbesteko diren enbalaketa berezietara ere hedatzen da, bai eta haiek artatu eta erabiltzeko behar diren disolbagarri eta osagarrietara ere.

Bi. Ondore hauetarako:

Giza jatorriko substantzia terapeutikotzat hartuko dira giza odola eta honen eratorkinak, hala nola, giza odol osoa, giza plasma lehortua, giza albumina, eta giza plasma-proteina, inmoglobulina eta giza fibrinogenoko soluzio iraunkorrak.

Odol-taldeak zehazteko erreaktibaritzat hartuko dira giza, landare- edo bestelako jatorriko odol-taldeak zehazteko eta odol-bateraezintasunak sumatzeko erreaktibari guztiak.

Giza ehun-taldeak zehazteko erreaktibaritzat hartuko dira giza, animalia-, landare- edo bestelako jatorriko giza ehun-taldeak zehazteko erreaktibari guztiak.

Hiru. Salbuespen hau gerta dadin, ondoko beharkizunak bete behar dira:

1. Administrazioaren eskuespena duten organismo eta laborategientzat izan daitezela, haietan medikuntza- edo zientzia-xedeetarako soilik erabiliak izan daitezen.

2. Inportatzen diren ondasunak identifikazio-txartel berezia dutela aurkez daitezela.

3. Inportatzen diren ondasunen izaera eta xedea inportazioa burutzen denean froga dadila, nondikako herriko organismo eskudunak saltzen duen ziurtagiri baten bidez.

### 42. artikulua. Medikamenduen kalitatea kontrolatzeko erreferentzia-substantzien inportazioa.

Zergatik salbuetsirik egongo dira medikamenduak fabrikatzeko erabiltzen diren gaien kalitatea kontrolatzeko Osasunerako Mundu-Erakundearen eskuespena duten erreferentzia-substantzien laginak, baldin eta bidalketak salbuespenak dituztela jasotzeko eskuespena duten entitateek inportatzen badituzte.

### 43. artikulua. Nazioarteko kirol-lehiaketetan erabiltzen diren farmazi gaiak.

Zergatik salbuetsirik egongo dira nazioarteko kirol-lehiaketetako partaide diren pertsona edo animalien erabilerarako farmazi gaien inportazioak, aipatu partaideek zerga honen aplikazio-lurraldean dauden bitartean dituzten premientzako kopuru egokiak inportatuz gero.

### 44. artikulua. Karitate edo filantropiazko organismoentzako ondasunen inportazioak.

Bat. Zergatik salbuetsirik egongo dira, baldin entitate publikoek edo organismo pribatu eskuetsiek burutzen badituzte, karitate edo filantropiazko izaerako ondoko ondasunen inportazioak:

1. Pertsona behartsuei dohain banatzeko dohain eskuratzen diren lehen beharrizaneko ondasunak.

Honek ondoreak izan ditzan, lehen beharrizaneko ondasuntzat hartuko dira pertsonen berehalako beharrizanak asetzeko ezinbestekoak direnak, hala nola, elikagaiak, medikamenduak eta oheko eta kaleko arropak.

2. Merkataritzako jardueragai ez diren edozein motatako ondasunak, baldin eta Elkartetik kanpo finkaturik dauden pertsona edo entitateek pertsona behartsuentzako ongintzako lantzean behingo agerraldietan antolatzen diren fondo-bilketetarako dohain bidaltzen badituzte.

3. Merkataritzako jardueragai ez diren ekipamendu eta bulegoko materialak, baldin eta Elkartetik kanpo finkaturik dauden pertsona edo entitateek dohain bidaltzen badituzte aipatu organismoek lortu nahi dituzten karitate eta filantropiazko helburuen funtzionamenduaren eta burutzapenaren beharrizanak asetzeko.

Bi. Salbuespen honetatik ate daude:

a) Aduanazko arantzelaren NC 22.03 eta 22.08 kodeen bitartean bildurik dauden ekoizkin alkoholdunak.

b) Tabakoa, langabea zein landua.

c) Kafea eta tea.

d) Anbulantziez beste ibilgailu motoredunak.

Hiru. Aurreko 1. atalean aipatu diren ondasunak ezin erabili, mailegatu, errentatu edo lagatu izango dira, ez kostu bidez ez dohainik, aipatu atalaren 1. eta 2. zenbakietan aurrikusita daudenez beste xede batzuetarako, eragiketa horiek aurretiaz Administrazioari jakinarazi ezean.

Aurreko lerroaldean ezarri dena beteko ez balitz edo artikulu honetan aipatzen diren organismoek salbuespena aplikatzea bidezkotzen duten beharkizunak betetzeari utziko baliote, Zerga inguruabarrok gertatzen diren egunetik ordaintzea eskatuko litzateke.

Dena den, aipatu ondasunak mailegugai, errentagai edo lagagai izango dira, salbuespena galdu gabe, eragiketok honako artikulu honetan aurrikusita dauden beharkizunak betetzen dituzten beste organismo batzuentzat burutzen direnean.

**45. artikulua. Pertsona minusbaliodunen onurarako inportatzen diren ondasunak.**

Bat. Zergatik salbuetsirik egongo dira minusbalio fisiko zein mentala duten pertsonen hezkuntza, enplegu edo gizarte sustapenerako beren beregi pentsaturiko ondasunen jarduera nagusia honelako pertsonen hezkuntza edo urgazpena duten erakunde edo organismo eskuetsiek burutzen dituzten inportazioak, baldin eta ondasunok dohainik eta merkataritzako xederik gabe bidaltzen bazaizkie aipatu erakunde eta organismoei.

Salbuespena ondasun horien ordezkai, elementu edo osagarrien inportazioetara eta haien mantenimendu, kontrol, kalibrazio edo konponketan erabiltzen diren erreminta edo tresnen inportazioetara hedatuko da, ondasunekin batera inportatzen direnean edota haiei dagozkiela identifikatzen denean.

Bi. Entitate edo establezimendu onuradunek salbuespena dutela inportatzen diren ondasunak irabazi asmorik gabe mailegatu, alokatu edo lagatu ahal izango dizkiete aurreko lerroaldean aipatu diren pertsonei, salbuespenaren onuraren kalterik gabe.

Hiru. Aurreko lerroaldean aurrikusi denaren kalterik gabe, artikulu honetan araupetu diren salbuespenei, eta beronetan deskribatu diren xedeei dagokienez, honako Foru Arau honen 44. artikuluaren 3. atalean xedaturik dagoena aplikatuko da.

### 46. artikulua. Hondamendien biktimentzako ondasunen inportazioak.

Bat. Zergatik salbuetsirik egongo dira karitate edo filantropiazko izaerako entitate publikoek edo organismo pribatu eskuetsiek burutzen dituzten edozein motatako ondasunen inportazioak, ondoko xedeak izanez gero:

1. Zerga aplikatzen den lurraldea ukitzen duten hondamendien biktimentzat dohainik banatzea.

2. Aipatu honadamendien biktimei dohainik lagatzea, ondasunen jabetza organismo horiek matenduz.

Bi. Halaber, Zergatik salbuetsirik egongo dira sorospen-unitateek aipatu pertsonak sorosteko esku hartzen duten aldietan dituzten beharrizanak asetzeko burutzen dituzten ondasun-inportazioak.

Hiru. Honako artikulu honetan ezarri den salbuespenetik bazterturik daude hondamendia gertatzen den aldeak berreraikitzeko edozein motatako materialak.

Lau. Artikulu honetan ageri den salbuespena Europako Elkarteen batzordeak aurretiaz eskuetsi izanak baldintzaturik egongo da. Hala ere, eskuespen hori eman bitartean inportazioa Zergaren ordainketa behin-behinean etenez burutu ahal izango da, inportatzaileak behar adinako bermea ematen badu.

Bost. Artikulu honetan araupeturik dauden salbuespenetan, eta hauek baldintzatzen dituzten xedeei dagokienez, Foru Arau honen 44. artikuluaren 3. atalean xedaturik dagoena aplikatuko da.

### 47. artikulua. Nazioarteko zenbait harremanen markoan burutzen diren ondasun-inportazioak.

Zergatik salbuetsirik egongo dira, merkataritza-izaerarik ez badute, ondoko ondasunen inportazioak:

1. Gainontzeko herri bateko agintariek zerga hau aplikatzen den lurraldean ohizko egoitza duten pertsonei ematen dizkieten kondekorazioak.

2. Zerga aplikatzen den lurraldean ohizko egoitza duten pertsonei gainontzeko herri batean pertsona horiek arte, zientzia, kirol edo zerbitzu publikoetan burutzen duten jardueraren omenez edo gertakari konkretu bat dela eta, beraien merituak aintzatetsiz ematen zaizkien kopa, domina eta funtsean izaera sinbolikoa duten antzeko objektuak, baldin eta interesatuek berek inportatzen badituzte.

3. Kari berengatik Zerga aplikatzen den lurraldearen barruan emateko, gainontzeko herri bateko agintariek edo herri horretan finkaturik dauden pertsonek eskaintzen dituzten aurreko zenbakiko ondasunak.

4. Zerga aplikatzen den lurraldean nazioarteko kongresu, negozio-bilera edo antzeko agerraldiak egiten direnean, ohizko egoitza zerga hau aplikatzen den lurraldetik kanpo duten pertsonei dohainik banatzeko diren donari, trofeo, izaera sinbolikoko eta balio gutxiko oroigarriak.

5. Opari gisako eta lantzean behingo ondasun hauek:

   a) Zergaren gune-eremuan ohizko egoitza edukirik, gainontzeko herri batera bisitaldi ofiziala egitera joan eta, han bisitaldi hori dela eta, herri horretako agintariek halako opariak ematen dizkieten pertsonek inportatzen dituztenak.

   b) Zerga aplikatzen den lurraldera lurralde honetako agintarientzako opari gisa emateko bisitaldi ofiziala egiten duten pertsonek inportatzen dituztenak.

c) Zerga aplikatzen den lurraldean denon intereseko jarduerak egiten dituzten agintari, korporazio publiko edo elkartzeei opari gisa gainontzeko herri bateko izaera bereko agintari, korporazio edo elkartzeek adiskidetasun edo gogo onaren froga modura bidaltzen dizkietenak.

Zenbaki honetan aipatu diren kasu guztietan salbuespenetik bazterturik daude ekoizkin alkoholdunak eta tabakoa, langabea zein landua.

Zenbaki honetan xedatu dena bidaiari-erregimenari buruzko xedapenen kalterik gabe aplikatuko da.

6. Espainiako errege-erreginei dohaintzan ematen zaizkien ondasunak.

7. Atzerriko estatuburuek, hauen ordezkariek edo berauen antzeko onurabideak dituztenek Zerga aplikatzen den lurraldean ofizialki dauden bitartean erabili edo kontsumitzekotzat jo ohi daitezkeen ondasunak, elkarrekikotasuna egotekotan.

**48. artikulua. Merkataritzako sustapenerako diren ondasunen inportazioak.**

Bat. Zergatik salbuetsirik egongo dira ondoko ondasunen inportazioak:

1. Merkataritzako balio nabarmenik ez duten merkataritzako gaien laginak.

   Zenbaki honetako salbuespena ondoko 4. zenbakiaren a) puntuan xedaturik dagoenaren kalterik gabe aplikatuko da.

2. Publizitateko inprimakiak, hala nola, ondoren adieraziko direnei buruzko katalogoak, prezio-zerrendak, erabilera-jarraipideak edo merkataritzako liburuskak:

   a) Elkartearen lurraldean establezimendurik ez duten enpresari edo profesionariek saldu edo errentatzeko diren merkataritzako gaiei buruzkoak.

   b) Gainontzeko herri batean finkaturik dauden pertsonek ematen dituzten garraio, merkataritza-aseguru edo banka arloetako zerbitzugintzei buruzkoak.

   Zenbaki honetako salbuespena gerta dadin, ondoko beharkizunak bete behar dira:

   a) Inprimakiek agerian eduki beharko dute merkataritzako gaiak ekoitzi, saldu edo alokatzen dituen edo inprimakietan aipaturik dauden zerbitzugintzak eskaintzen dituen enpresari edo profesionariaren izena.

   b) Bidalketa bakoitzean agiri bakoitzaren ale bat baino ezin daiteke egon edo, ale bat baino gehiago bildurik badago, guztirako pisu gordina ezin izan daiteke kilo batekoa baino handiagoa.

   c) Inprimakiak ez dira bidaltzaile berak destinatari berarentzat bildurik egiten dituen bidalketetan erabili beharko.

3. Merkataritzako barne-barneko baliorik ez edukirik, hornitzaileek beren bezeroei dohainik bidaltzen dizkieten publizitateko gaiak, baldin publizitatekoaz beste xede ekonomikorik ez badute.

4. Ondoko zerrendan ageri diren ondasunak, zein erakusketa edo antzeko agerpenetakoak baitira:

   a) Merkataritzako gaien lagin txiki ordezkatzaileak.

      Salbuespena gerta dadin, ondoko zerrendako beharkizunak bete behar dira:

a') Halakotzat dohainik inporta daitezela edo agerpenean lor daitezela mordoka inportatzen diren merkataritzako gaiak erabiliz.

b') Agerpen edo erakusketan jendeari dohainik bana dakizkiola, erabili edo kontsumituak izan daitezen.

c') Aleko balio gutxiko publizitate izaerako lagin legez identifikagarriak izan daitezela.

d') Ez daitezela merkaturagai izan eta, hala denean, merkatuan eskaintzen den gai bereko kopururik txikiena baino merkataritzako gai kopuru txikiagoa duten ontzietan aurkez daitezela.

e') Aurreko puntuan adierazi den eran atondurik ez dauden elikadurako ekoizkin eta edariei dagokienez, agerpenean bertan berehala kontsumi daitezela.

f') Haien balio osoa eta kopurua bat etor daitezela erakusketa edo agerpenaren izaerarekin, bisitarien kopuruarekin eta erakuslearen partaidetzaren garrantziarekin.

b) Frogapenak egiteko edo erakusketa edo agerpenetan aurkezten diren makina edo gailuen funtzionamendua ahalbideratzeko soilik erabiltzeko direnak.

Salbuespena gerta dadin, ondoko beharkizunak bete behar dira:

a') Inportatzen diren ondasunak agerpen edo erakusketak dirauen bitartean kontsumi edo deusez daitezela.

b') Haien balio osoa eta kopurua erakusketa edo agerpenaren izaera, bisitarien kopuru eta erakuslearen partaidetzaren garrantziaren heinekoa izan dadila.

c) Erakuslearen pabiloiak eraiki, instalatu edo apaintzeko erabili eta horretarako erabilitakoan deuseztatzen diren balio gutxiko materialak, hala nola, bernizak, paper pintatuak edo antzekoak.

d) Erakusketa edo agerpenaren gai diren ondasunei buruzko publizitatea egiteko solik diren inprimaki, katalogo, prospektu, prezio-zerrenda, kartel, egutegi, bornatu gabeko argazkiak edo antzekoak.

Salbuespena gerta dadin, ondoko beharkizunak bete behar dira:

a') Inportatzen diren ondasunak erakusketa edo agerpena egiten den tokian jendeari dohainik banatzeko soilik izan daitezela.

b') Haien balio osoa eta kopurua erakusketa edo agerpenaren izaeragatik, bisitarien kopuru eta erakuslearen partaidetzaren garrantziaren heinekoak izan daitezela.

Bi. Aurreko atalaren 4. zenbakian ezarrita dauden salbuespenak ez zaizkie aplikatuko ez edari alkoholdunei, ez tabakoari (langabe zein landua), ezta erregaiei ere.

Hiru. Honako Foru Arau honetan xedaturik dagoenak ondoreak izan ditzan, erakusketa edo antzeko agerpentzat hartuko dira merkataritza, industria, nekazaritza edo eskulangintzako erakusketa, azoka, areto, edo antzeko gertakariak, hots, filantropia, zientzia, teknika, eskulangintza, arte, hezkuntza, kultura, kirol edo erlijiozko xedez, edo jarduera sindikal eta turistikoen edo herrien arteko harremanen garapena hobetzeko, antolatzen direnak. Halaber, kontzeptu honetan bildurik daude nazioarteko erakunde edo taldeen ordezkarien bilerak eta izaera ofizial edo oroitzarreko zeremoniak.

Ez dira honelakotzat hartuko merkataritzako gaiak saltzeko erabiltzen diren biltegi edo lokaletan izaera pribatuz antolatzen direnak.

**49. artikulua. Azterketa, analisi edo entseiuak egiteko diren ondasunen inportazioak.**

Bat. Zergatik salbuetsirik egongo dira osakera, kalitatea edo beste ezaugarri tekniko batzuk zehazteko azterketa, analisi edo entseiuak egiteko diren ondasunen inportazioak, ondasunoi buruz industria edo merkataritzako informazioak lortu edo ikerkuntzak burutu xedez egiten direnean.

Salbuespenetik bazterturik daude berez merkataritzako sustapen-eragiketak diren azterketa, analisi edo entseiuetan erabiltzen diren ondasunak..

Bi. Salbuespena, adierazi diren helburuak burutzeko aipatu ondasunen beharrezko den kopurura baino ez da helduko, eta gerta dadin beharrezkoa izango da ondasunak guztiz kontsumi edo deusez daitezen ikerkuntzako eragiketak egitean.

Hala ere, salbuespena eragiketa horietatik sor daitezkeen gainontzeko ekoizkinetara hedatuko da, baldin eta, Administrazioak eskuespena emanik, deuseztatu, merkataritza-baliorik gabeko ondasun bihurtu, estatuarentzat gasturik gabe utzi edo gainontzeko herri batera esportatzen badira. Aipatu eskuespenik ezean, ekoizkin horiek Zergapekoak izango dira dauden estatuan, azterketa, analisi edo entseiuko eragiketak burutzen diren egunetik hasita.

Ondore hauetarako, gainontzeko ekoizkintzat hartuko dira azterketa, analisi edo entseiuen ondoriozko ekoizkinak, edo eragiketa horietarako inportatu ondoren benetan erabiltzen ez diren merkataritzako gaiak.

**50. artikulua. Jabetza industrial zein intelektualaren babesaren arloko organismo eskudunentzako ondasunen inportazioak.**

Zergatik salbuetsirik egongo dira marka, modelu edo diseinuen inportazioak, bai eta jabetza industrial zein intelektualaren gaineko eskubideen eskabideari buruzko organismo eskudunentzako espedienteenak ere.

**51. artikulua. Agiri turistikoen inportazioak.**

Zergatik salbuetsirik egongo dira ondoko agiri turistikoen inportazioak:

1. Elkartetik kanpoko tokietarako bidaiei buruzko propaganda egiteko dohainik banatzeko direnak, batez ere bidaiak kultura-, turismo-, kirol-, erlijio- edo lanbide-izaerako bilera edo agerpenetan parte hartzeko direnean, baldin eta agiriek duten publizitatearen ehuneko hogeita bosta baino gehiago ez bada merkataritzako publizitate pribatua eta izaera orokorreko propaganda egitea xede dutela agerikoa bada.

2. Elkartetik kanpo ustiatzen diren atzerriko hoteletako zerrenda edo urtekariak eta garraio-zerbitzuen gidak, baldin eta, turismoko organismo ofizialek edo hauen babespean argitaratuak izanik, dohainik banatzeko xedea badute eta duten merkataritzako publizitate pribatua ehuneko hogeita bosta baino ez bada.

3. Turismoko organismo ofizial nazionalen ordezkari kreditatuei edo organismo berauek izeneztatzen dituzten korrespontsalei bidaltzen zaien material teknikoa, baldin eta materialok urtekari, telefono edo telexeko abonatu-zerrenda, hotel-zerrenda, azoka-katalogo, merkataritza-balio nabaririk gabeko artisaulan-lagin, edo museo, unibertsitate, urbero eta antzeko beste erakundeei buruzko informazio gisa banatzeko ez badira.

**52. artikulua. Bestelako agirien inportazioa.**

Zergatik salbuetsirik egongo dira ondoko ondasunak inportatzea:

1. Entitate publikoei dohainik bidaltzen zaizkien agiriak.

2. Gainontzeko herrietako gobernuek eta nazioarteko organismo ofizialek, dohainik bana daitezen, egiten dituzten agerkariak.

3. Zerga aplikatzen den lurraldetik kanpoko organismoek deitzen dituzten hauteskundeetako hauteskunde-txartela.

4. Espainiako erresumako epaitegi, auzitegi edo beste auzialdi ofizial batzuetan froga modura erabiltzeko edo antzeko xedeek dituzten objektuak.

5. Zerbitzu publiko edo banketxeen arteko ohizko informazio-elkartrukeetan saltzen diren sinadura-aitortzeak eta honi loturiko zirkular inprimatuak.

6. Espainiako Bankuarentzako inprimaki ofizialak.

7. Atzerriko sozietateek jaulkitzen dituzten tituluen ukandun edo harpidedunentzako txosten, jardueraren memoria, informazio-ohar, prospektu, harpidetza-boletin eta gainontzeko agiriak.

8. Informazioa eskualdatzeko, destinatariei dohainik bidaltzen zaizkien fitxa zulatu, soinu-erregistro, mikrofilm eta beste euskarri batzuk.

9. Bilera, hitzaldi edo nazioarteko kongresuetan erabiltzeko diren espediente, artxibategi, formulario eta gainontzeko agiriak, bai eta aipatu agerpenetako akta eta laburpenak.

10. Eskariak lortu edo burutzeko, edo Zerga aplikatzen den lurraldean antolatzen den lehiaketan parte hartzeko inportatzen diren plano, marrazki tekniko, kopia, deskripzio eta antzeko beste agiri batzuk.

11. Zerga aplikatzen den lurraldean Elkartetik kanpo finkaturik dauden erakundeek antolatzen dituzten azterketetan erabiltzeko diren agiriak.

12. Nazioarteko hitzarmenak aplikatuz, ibilgailu edo merkataritzako gaien nazioarteko trafikoan agiri ofizial gisa erabiltzeko diren formularioak.

13. Elkartetik kanpo finkaturik dauden garraio- edo hotel-enpresek Zerga aplikatzen den lurraldean establezimendua daukaten bidai agentzientzat saltzen dituzten formulario, etiketa, garraio-titulu eta antzeko agiriak.

14. Merkataritza edo bulegoko formulario eta garraio-titulu, untzirapen-agiri, garraio-gutun eta gainontzeko agiri erabiliak.

15. Agintari nazionalen zein nazioartekoen inprimaki ofizialak eta nazioarteko ereduei loturik dauden inprimakiak, baldin eta Elkartetik kanpo finkaturik dauden elkarteek berei dagozkien Zergaren aplikazio-lurraldean establezimendua duten elkarteentzat bidaltzen badituzte, banatuak izan daitezen.

16. Prentsa-agentzia edo egunkari eta aldizkarien argitarazleei bidaltzen zaizkien argazki, diapositiba eta argazkientzako klitxeak, are argizki-oinak ere.

17. Esportazio-herriaren eta herri honetan finkaturik dauden nazioarteko organismo, entitate publiko, zuzenbide publikoko organismoen agintaritza publikoaren ohizko adierazbide diren agerkari ofizialak, bai eta Espainiak, hauteskundeak direla eta, ofizialki halakotzat aintzatesten dituen erakunde politiko ofizialek banatzen dituzten inprimakiak, baldin eta aipatu agerkari eta inprimakiak esportazio-herrian Balio Erantsiaren gaineko Zergak edo antzeko tributu batek kargaturik egon badira eta esportazioagatiko zergarinketagai izan ez badira.

**53. artikulua. Nazio Batuen Erakundeak ekoizten dituen ikusentzunezko gaiak.**

Salbuetsirik egongo dira Nazio Batuen Erakundeak edo beronen organismo espezializaturen batek ekoizten dituen hezkuntza, zientzia edo kultura izaerako ikusentzunezko gaiak, zein ondoan ageriko diren:

NC Kodea Merkataritzako gaiaren izendura

- 3704 00
    - Argazkilaritzako plakak, pelikulak, papera, kartoia eta ehungintzazkoak, inpresionaturik baina errebelatu gabe:
        - hed 3704 00 10
            - Plaka eta pelikulak
            - Hezkuntza, zientzia edo kulturazko filme positiboak.
- hed 3705
    - Argazkilaritzako plaka eta pelikulak, inpresionatu eta errebelaturik,
        - hezkuntza, zientzia edo kulturazkoak ezik.
- 3706
    - Filme inpresionatu eta errebelatuak, soinu-erregistroarekin zein erregistrorik gabe, edo soinu-erregistro hutsarekin:
        - 3706 10
            - 35 mm edo gehiagoko zabalera dutenak:
            - Gainontzekoak:
        - hed 3706 10 99
            - Positiboak diren gainontzekoak:
            - Inportatzen direnean gaurkotasuna duten gertakariak jaso eta gehienez ere gai bakoitzeko bi kopia eginez berregiteko inportatzen diren gaurkotasunezko pelikulak.
            - Gaurkotasunezko pelikulei laguntzeko burutzen diren artxiboko pelikulak (soinua eduki zein ez eduki).
            - Haurrentzat eta gazteentzat bereziki egokiak diren jolaspelikulak.
            - Hezkuntza, zientzia edo kulturazko gainontzekoak.
- 3706 90
    - Gainontzekoak:
    - Gainontzekoak:
    - Positiboak diren gainontzekoak:

- hed 3706 90 51 hed 3706 90 91 hed 3706 90 99
    - Inportatzen direnean gaurkotasuna duten gertakariak jasotzen dituzten eta gehienez ere gai bakoitzeko bi kopia eginez berregiteko inportatzen diren gaurkotasunezko pelikulak.
    - Gaurkotasunezko pelikulei laguntzeko burutzen diren artxiboko pelikulak (soinua eduki zein ez eduki).
    - Haurrentzat eta gazteentzat bereziki egokiak diren jolaspelikulak.
    - Hezkuntza, zientzia edo kulturazko gainontzekoak.

- 4911
  - Gainontzeko inprimakiak, irarki, grabatu eta argazkiak barne:
  - Gainontzekoak:
    - 4911 99
      - Gainontzekoak:
        - hed 4911 99 90
          - Gainontzekoak:
          - Ordenagailu bidezko informazio- eta dokumentazio-zerbitzuek erabiltzen dituzten hezkuntza, zientzia edo kulturazko mikrotxartelak edo beste euskarri batzuk.
          - Erakusketa eta irakaskuntzarako baino ez diren hormairudiak.

- hed 8524
  - Soinua grabatzeko edo grabaketa analogikoak egiteko disko, zinta eta gainontzeko euskarriak, diskoak fabrikatzeko gargara eta molde galbanikoak barne, 37. artikuluko ekoizkinak izan ezik:
    - hezkuntza, zientzia edo kulturazkoak.

- hed 9023 00
  - Beste erabilerarik eduki ezin dezaketen frogapenak (irakaskuntzan edo erakusketetan esaterako) egiteko proiektatzen diren tresna, gailu eta modeluak:
    - Frogapenak egiteko eta irakaskuntzarako soilik diren hezkuntza, zientzia eta kultura izaerako modelu, maketa eta hormairudiak.
    - Molekulen egiturak edo matematikazko formulak bezalako kontzeptu abstraktuak irudikatzeko maketa edo modeluak.

- Bestelakoak Laser bidez proiektatzeko hologramak.
  - Multimedia jokoak.
  - Programatutako irakaskuntzako materiala, talde erako materiala barne, berari dagokion material inprimatuarekin.

**54. artikulua. Bilduma- edo arte-objektuen inportazioak.**

Zergatik salbuetsirik egongo dira hezkuntza, zientzia edo kulturazko bilduma- edo arte-objektuak, baldin eta objektuok berauek salbuespenez jasotzeko eskuespena duten museo, arte-areto eta beste establezimendu batzuek saldu eta inportatzeko ez badira.

Salbuespena gerta dadin, objektuak dohainik inportatu beharko dira edo, kostu bidez inportatzekotan, enpresari edo profesionari gisa ez dihardUen pertsona edo entitate batek eman beharko ditu.

**55. artikulua. Merkataritzako gaiak atondu eta babesteko materialen inportazioak.**

Zergatik salbuetsirik egongo dira merkataritzako gaiak garraiatzen diren bitartean atondu edo babesteko, are berotik ere, erabiltzen diren materialen inportazioak, baldin eta, aipatu materialei dagokienez, ondoko beharkizunak betetzen badira:

a) Normalean, ez daitezela izan berrerabilgai.

b) Haien kontraprestazioa Zergaren oinarriaren barnean bildurik egon dadila, haiei dagozkien merkataritzako gaien inportazioetan.

**56. artikulua. Animalien bidatzako atondura edo elikadurarako ondasunen inportazioak.**

Zergatik salbuetsirik egongo dira inportatzen diren animalien bidatzako atondura edo elikadurarako ondasunen inportazioak, baldin eta aipatu ondasunak garraioak irauten duen bitartean erabiltzen badira edo animaliei ematen bazaizkie.

**57. artikulua. Erregai eta labangaiak.**

Bat. Zergatik salbuetsirik egongo dira zerga hau aplikatzen den lurraldean sartzen diren industri eta turismo motako ibilgailu automobilen eta erabilera bereziko edukinontzien depositUetako erregai eta labangaien inportazioak, ondoko beharkizunak betez gero:

1. Industri ibilgailu automobilen eta erabilera bereziko edukinontzien deposItu normaletan bildurik dagoen erregaia berrehun litrotako muga duen kopurura arte baino ezin izango da inportatu, salbuespenaren onura duela.

   Gainontzeko ibilgailuei dagokienez, deposItu normaletan dagoen erregai kopurua mugarik gabe inportatu ahal izango da, salbuespenaren onura duela.

2. Turismo motako ibilgailuen depositu eramankorretan dagoen erregai kopurua hamar litrotako muga gainditu gabe soilik inportatu ahal izango da.

3. Ibilgailuen barruan dagoen labaingaiaren kopurua ibilgailuok kasuan kasuko bidartean beren funtzionamendurako dituzten beharrizanei dagokiena izango da.

Bi. Artikulu honek ondoreak izan ditzan:

1. Industri ibilgailu automobiltzat ondokoa hartuko da: dituen ezaugarriengatik eta ekipamenduarengatik pertsonak (bederatzi pertsona baino gehiago, gidaria barne) edo merkataritzako gaiak garraiatzeko, ordainketarekin zein ordainketarik gabe, bai eta garraioaz beste industri erabilera batzuetarako ere, gai den eta horretarako egindako errepidean ibiltzeko gauza den ibilgailu motoredun oro.

2. Turismo motako ibilgailu automobiltzat: industri ibilgailu automobilaren kontzeptuan bildurik egon ez baina errepidean ibiltzeko gauza den ibilgailu motoredun oro.

3. Erabilera bereziko edukinontzitzat: hozteko, oxigenatzeko, isolamendu termikoko eta antzeko beste sistema batzuetara beren beregi moldaturiko eragingailuak dauzkan edukinontzi oro.

4. Depositu normaltzat ondokoa: egileak saldokako ibilgailu guztiei edo mota bereko edukinontzi guztiei modu iraunkorrean erasten dizkien depposituak, gasarenak barne, baldin eta depposituoz baliatzeak erregaia ibilgailuaren trakzioan zuzen erabiltzea, edota, hala denean, ibilgailuak edo erabilera bereziko edukinontziek dituzten hozteko sistema edo beste ezein sistemaren funtzionamendua ahalbideratzen badu.

Hiru. Salbuespena dutela onartzen diren erregaiak ezin erabili izango dira inportatzen direnez beste ibilgailu batzuetan, ez berauetatik atera, ez biltegiratu, aipatu ibilgailuei beharrezko konponketa bat egiten zaienean izan ezik, ez eta ezin izango dira izan salbuespenaren onuradunak burutzen duen kostubidezko edo dohainezko lagapen baten gaia ere.

Hala ez denean, arestian aipatu diren erabilera irregularren gai diren kopuruak Zergapekoak izango dira.

## 58. artikulua. Hilkutxa, eta hilerriko material eta objektuen inportazioak.

Bat. Zergatik salbuetsirik egongo dira gorpuak edo hauen errautsak dauzkaten hilkutxa eta errautsontzien inportazioak, bai eta Zerga aplikatzen den lurraldean egiten diren hiletetara datozen gainontzeko herri bateko egoiliarrek dakartzaten lore, koroa eta apaindurako gainontzeko objektuak, edo hauek lurralde honetan kokaturik dauden hilobiak apaintzeko darabiltzatenak, baldin eta objektuon kopuruak merkataritzako jarduera bati ez badagozkio..

Bi. Halaber, Zerga aplikatzen den lurraldean ehortzirik dauden gainontzeko herri bateko gerra-biktimen hilerri, hilobi eta monumentu oroigarriak eraiki, artatu edo apaintzeko diren edozein izaeratako ondasunen inportazioak ere salbuetsirik egongo dira, baldin eta aipatu inportazioak behar bezala eskuespena duten erakundeek burutzen badituzte.

## 59. artikulua. Arrantza-ekoizkinen inportazioak.

Zergatik salbuetsirik egongo dira, itsas aduanak erabiliz burutzen diren arrantza-ekoizkinen inportazioak, ondoko beharkizunak betetzen direnean:

1. Arranuntzien armadoreek berek buru ditzatela, edo beste norbaitek haien izenean eta kontura, eta ekoizkinak zuzen-zuzenean haien arrantzuetakoak izan daitezela.

2. Ekoizkinak harrapatzen diren egoera berean, edo merkaturatu asmoz babesteko egiten zaizkien eragiketak, hala nola, garbiketa, zatiketa, sailkaketa eta enbalaketa, hozketa, izozketa edo gatz-ematea, burutu ondoren dauden egoeran inporta daitezela.

3. Aipatu ekoizkinak ez daitezela izan inportatu aurreko emate baten gaiak.

## 60. artikulua. Erregimen diplomatiko edo kontsularreko ondasunen inportazioak.

Zergatik salbuetsirik egongo dira erregimen diplomatiko edo kontsularreko ondasunen inportazioak, inportazio-eskubideen salbuespenaren onura dutenean.

## 61. artikulua. Nazioarteko organismoentzako ondasunen inportazioak.

Zergaren kargatik salbuetsita daude Espainiak aintzatetsitako nazioarteko erakundeentzako eta erakunde horietan estatutu diplomatikoarekin lanean ari diren pertsonentzako ondasunen emateak eta zerbitzugintzak, erakundeok sortu dituzten nazioarteko itunetan edo kasu bakoitzean aplikatu beharreko egoitza akordioetan ezartzen diren mugekin eta baldintzekin.

Hain zuzen ere, Zergaren kargatik salbuetsita daude Europar Batasunarentzako, Energia Atomikoaren Europako Erkidegoarentzako, Europako Banku Zentralarentzako, Europako Inbertsio Bankuarentzako ondasunen emateak eta zerbitzugintzak, eta Europako erkidegoen pribilejioei eta inmunitateei buruzko 1965eko apirilaren 8ko Protokoloa aplikatzen zaien Europako erkidegoetako erakundeentzakoak, Protokoloan eta hura aplikatzeko akordioetan eta egoitza akordioetan ezarritako mugen barruan eta bertako baldintzak beteta egiten direnak, baldin eta salbuespenak lehian distortsiorik sortzen ez badu.

## 62. artikulua. NATOrentzako ondasunen inportazioak.

Zergatik salbuetsirik egongo dira Ipar Atlantikoko Tratatuaren Erakundearen gainontzeko estatu kideen indar armatuek burutzen dituzten ondasun-inportazioak, aipatu tratatuko estatu kideen arteko hitzarmenean indar armatuen estatutuari buruz ezarrita dagoenaren arabera.

## 63. artikulua. Ondasun-berrinportazioak.

Zergatik salbuetsirik egongo dira, aurretiaz esportatu direnean, zeuden egoera berean berrinportatzen diren ondasunen inportazioak, baldin eta esportatzen dituenak burutzen baditu eta inportatzaileek, halaber, inportazio-eskubideen onura hartzen badute.

## 64. artikulua. Inportazioei loturiko zerbitzugintzak.

Zergatik salbuetsirik egongo dira foru arau honen 20. artikuluan salbuetsitzat hartu direnez beste zerbitzugintzak, baldin eta zerbitzugintza hauen kontraprestazioa beraiei dagozkien ondasun-inportazioen zerga-oinarriaren barnean bildurik badago, foru arau honen 83. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera.

## 65. artikulua. Aduanazkoez beste gordailu-erregimen bati lotzen zaizkion ondasunen inportazioak.

Zergatik salbuetsita egongo dira, arau bidez zehazten diren baldintza eta beharkizunak betez gero, aduanazkoez beste gordailu-erregimen bati lotzen zaizkion ondasunen inportazioak, aipatu egoeran iraun bitartean, baita aipatu inportazio horiei zuzenean lotzen zaizkien zerbitzugintzak ere.

## 66. artikulua. Ondasunen inportazioen salbuespenak zerga birritan ordaintzea ekiditeko.

Ondoko eragiketak Zergatik salbuetsita daude:

1. Ondasunen inportazioak, baldin eta Zergaren aplikaziolurraldean emantzat jotzen badira Foru Arauko 68. artikuluko bigarren idatz-zatiko zenbakian ezarritakoaren arabera.

2. Ondasunen aldi baterako inportazioak, inportazio-eskubideen salbuespen partziala dutela, baldin eta jabeak Zergaren kargapeko eta hartatik salbuetsi gabeko zerbitzuak (foru arau honetako 69. artikuluko bigarren idatz-zatiko j) letran aipatutakoak) eginez lagatzen badítu.

3. Gasa inportatzea Batasuneko lurralde-eremuko gas naturala banatzeko sare baten bitartez, edo hari konektatutako sare baten bitartez, elektrizitatea ematea, eta beroa edo hotza ematea berokuntza edo hozketa sareen bitartez, ondasunen emateak non gertatzen diren gorabehera.

   Zenbaki honetako salbuespena ondokoei ere aplikatuko zaie: gas naturalaren inportazioak, itsasontzien bidez egiten direnak, itsas garraioaren ondoren banaketa sare batera edo gasodi sare batera bideratzen denean.

## 67. artikulua. Honako kapitulu honetan aurrikusten diren salbuespenei aplikagarri zaizkien arau orokorrak.

Inportatzaileak aurreko artikuluetan ezarri diren beharkizunak betetzen dituela benetakotzeko adina frogagiri aurkeztu beharko du.

# III. TITULUA
# ZERGA EGITATEAREN BURUTZAPEN-LEKUA

## LEHENENGO KAPITULUA
## ONDASUN-EMATEAK ETA ZERBITZUGINTZAK

### 68. artikulua. Ondasun-emateen burutzapen-lekua.

Ondasun-emateen burutzapen-lekua ondoko erregela hauen arabera zehaztuko da:

Bat. Salgai edo garraiagai ez diren ondasunen emateak Zergaren aplikazio-lurraldean burututzat ulertuko dira, ondasunak eskuratzailearen esku aipatu lurraldean jartzen direnean.

Bi. Zergaren aplikazio-lurraldean burututzat ulertuko dira baita ere ondokoak:

1. Eskuratzailearen esku jartzeko saldu edo garraiatu behar diren gauzazko ondasun higigarrien emateak, salmenta edo garraioa aipatu lurraldean hasten denean, artikulu honen laugarren atalean xedatzen denaren kalterik gabe.

   Aurreko atalean xedatutakoa gora-behera, inportatzeko diren ondasunen saltzea edo garraioaren hasiera lekua gainontzeko beste herri batean dagoenean, inportatzaileak egiten dituen horien emateak eta, hala denean, jarraikako eskuratzaileek egiten dituztenak, Zergaren aplikazio-gunean burututzat joko dira.

2. Inoren esku jarri aurretik instalatu edo muntatu behar diren ondasunen emateak, instalazioa lurralde horretan burutzen bada, eta, betiere, instalazio edo muntaketa horrek emandako ondasunak ibilgetzea eragiten badu.

3. Aipatu lurraldean errotzen diren ondasun higiezinen emateak.

4. Elkartearen barruan egindako garraio-zati batean zehar, untzi, hegazkin edo tren baten barruan bidaiariei egiten zaizkien ondasun-emateak, baldin eta garraioaren abiapuntua Zergaren gune-eremuan eta jomuga Elkarteko beste puntu batean badago.

   Joan-etorrizko garraioa denean, itzulbidea bestelako garraiotzat joko da.

   Zenbaki honen ondorioetarako:

   a) Elkartearen barruan egindako garraio-zatitzat joko da, gainontzeko lurraldeetan eskalarik egin gabe, Elkartean dauden abiapuntutik jomugara doan garraio-zatia.

   b) Abiapuntutzat joko da, Elkartearen barruan bidaiariak hartzeko aurrikisutako lehenengo lekua, are Elkartetik kanpoko azken eskalaren ondoren.

   c) Jomugatzat joko da, Elkartean, bertan ere hartutako bidaiariak uzteko aurrikusitako azken lekua, are gainontzeko lurraldeetan eskala egin baino lehen

Hiru. Ondasun-emateak Zerga aplikatzen den lurraldean burututzat joko dira, baldin eta haiek, beren bidalketa edo garraioa beste estatu kide batetik abiatuz, jomuga aipatu lurraldea badute eta ondoko beharkizunak betetzen badira:

1. Ondasunen bidalketa edo garraioa saltzaileak berak edo inork honen kontura burutzea.

2. Aipatu emateen destinatariak elkartebarneko ondasunen eskuraketak, Foru Arau honen 14. artikuluan xedatzen dena dela bide, Zergari lotuta ez dituzten pertsonak edo subjektu pasiboa ez den beste edozein pertsona izatea.

3. Ematen diren ondasunak ondoren adierazten direnez bestelakoak izatea:

a) Foru Arau honen 13. artikuluaren 2. zenbakian definiturik dauden garraiobide berriak.

b) Artikulu honen bigarren atalaren 2. zenbakian aipatzen diren muntaia egiteko edo instalatzeko ondasunak.

c) Ondasun erabili, arte-objektu, antzinateko eta bilduma-objektuen erregimen bereziaren arabera, ondasunen bidalketa edo garraioa abiatzen den Estatu kidean ematearen zerga-ordainketaren gai izan diren ondasunak.

4. Enpresari edo profesionariak, Zergaren aplikazio-lurraldea jomuga izanik, beste estatu kide batetik, aurreko zenbakietako beharkizunak betez, egiten dituen emateen guztirako zenbatekoak, Zerga bazterturik, egutegiko aurreko urtean 35.000 euroko kopurua gainditu izana.

Atal honetan aurrikusirik dagoena, beti ere, aribideko urtean burutzen diren emateei aplikatuko zaie, behin aurreko lerroaldean aipatzen den zenbatezko muga gaindituz gero.

Halaber, Zergaren aplikazio-lurraldean burututzat hartuko dira atal honetan aipaturik dauden baldintzetan burutzen diren emateak, adierazi den zenbatezko muga gainditzen ez duten arren, baldin eta enpresariek tributu-ordainketa ondasunaren bidalketa edo garraioa hasten den estatuan egitea erabakitzen badute.

Zenbaki honetan aipatzen duen muga aplikatzean, ondasun-emateen kontraprestazioaren zenbatekoa ondore hauetarako zatiezina dela ulertuko da.

Lau. Ondasun-emateak ez dira Zergaren aplikazio-lurraldean burututzat joko, baldin eta haiek, beren salmenta edo garraioa aipatu lurraldetik abiatuz, jomuga beste estatu kide bat badute, aurreko ataleko 1, 2 eta 3. zenbakietan aipatu diren beharkizunak betetzen direnean eta hauen guztirako zenbatekoak, Zerga bazterturik, egutegiko aurreko urtean zehar ondoreotarako aipatu estatuan finkatzen diren mugak gainditzen dituenean.

Atal honetan aurrikusirik dagoena, beti ere, aribideko urtean burutzen diren emateei aplikatuko zaie, horien zenbatekoak jomuga diren kasuan kasuko estatu kideek ezartzen duten zenbatezko muga gainditzen dutenetik bertatik.

Enpresariek aplikatu ahal izango dute atal honetan xedatzen dena, arau bidez finkatzen den eran, baldin eta horiek beste estatu kide batzuetara egiten dituzten salmentak finkatutako mugez hara ez badaude.

Aukera hori egitekotan, gutxienez egutegiko bi urtetan erabili beharko da.

Aurreko lerroaldeetan xedatutakoa gora-behera, aipatu ondasun-emateak ez dira, behin ere, Zergaren aplikazio-lurraldean burututzat joko ondasunok Zerga Berezien gai direnean.

Bost. Zerga bereziren baten mendeko diren ondasun-emateak, hirugarren ataleko 1 eta 2. zenbakietan deskribatzen diren baldintzetan suertatuz gero, Zergaren aplikazio-lurraldean burututzat ulertuko dira beti, salmenta edo garraioaren jomuga aipatu lurraldearen barruan badago.

Aurreko ataleko ondasun-emateen zenbatekoa ez da konputatuko aurreko hiru eta laugarren ataletan aurrikusi diren mugak zehazteko.

Sei. Artikulu honen hiru eta laugarren ataletan aipatzen diren emateetako ondasunak gainontzeko herri batean saltzen edo handik garraiatzen badira eta saltzaileak azken destinoa ez den beste estatu kide batetik inportatzen baditu, orduan, inportatu den estatu kidean saldu edo handik garraiatu direla ulertuko da.

Zazpi. Gasa ematea Batasuneko lurralde-eremuko gas naturala banatzeko sare baten bitartez, edo hari konektatutako sare baten bitartez, elektrizitatea ematea, eta beroa edo hotza ematea berokuntza edo hozketa sareen bitartez Batasuneko lurralde-eremuan gertatutzat joko dira kasu hauetan

1.a. Hartzailea enpresaburua edo profesionala da eta gasa edo elektrizitatea beste bati saldu dio, eta bere jarduera ekonomikoaren egoitza lurralde horretan dago, edo establezimendu iraunkorra du bertan edo, bestela, bere etxebizitza, eta gasa edo elektrizitatea egoitzarako, establezimendurako edo etxebizitzarako da.

Honen ondoreetarako, enpresaburua edo profesionala gasa, elektrizitatea, beroa edo hotza birsaltzen diharduela pentsatuko da baldin eta erosten duen gehiena besteri saltzen badie eta berak oso gutxi kontsumitzen badu.

2.a. Beste zeinahi kasu, baldin eta eskuratzaileak ondasunak Zergaren aplikazio-eremuan erabiltzen edo kontsumitzen baditu. Honen ondoreetarako, ondasuna Zergaren aplikaziolurraldean erabili edo kontsumitutzat joko da bertan badago neurgailua.

Eskuratzaileak ez baditu kontsumitzen ondasun guztiak, kontsumitu gabe geratzen direnak Zergaren aplikazio-lurraldean erabili edo kontsumitutzat joko dira eskuratzaileak lurralde horretan badu bere jardueraren egoitza edo bertan badu establezimendu iraunkorra edo bere etxebizitza, eta, gainera, gasa edo elektrizitatea egoitzarako, establezimendurako edo etxebizitzarako izan bada.

**69. artikulua. Zerbitzugintza gertatu den tokia. Arau orokorrak.**

Bat. Zerbitzuak Zergaren aplikazio-lurraldean egintzat joko dira ondoko kasuetan, artikulu honetako hurrengo idatz-zatian eta foru arau honetako 70. eta 72. artikuluetan ezarritakoa eragotzi gabe:

1. Hartzailea enpresaburua edo profesionala da eta hala badihardu, bere jarduera ekonomikoaren egoitza aplikazio-lurraldean dauka, edo bertan dauka establezimendu iraunkorra edo bere ohiko etxebizitza, eta zerbitzuen hartzailea egoitza, establezimendu iraunkorra edo ohiko etxebizitza da (ez da kontuan hartzen zerbitzugilea nongo egoiliarra den, ez nondik egiten dituen zerbitzuak).

2. Hartzailea ez da enpresaburua ez hala diharduen profesionala, baldin eta zerbitzuak enpresaburu edo profesional batek egiten baditu eta beraren jarduera ekonomikoaren egoitza edo zerbitzuak egiteko erabili duen establezimendu iraunkorra edo ohiko etxebizitza Zergaren aplikazio-lurraldean badago.

Bi. Artikulu honetako Bat zenbakiko 2. azpizenbakiak xedatutakoak salbuespen hau dauka: ondoren zerrendatzen diren zerbitzuak ez dira hartuko zergaren aplikazio-lurraldean egindakotzat, baldin eta hartzailea ez bada enpresaburua edo profesionala, baina hala badihardu, eta egoitza edo ohiko etxebizitza Europar Batasunetik kanpo badauka (horretan ez dira sartzen Kanariar Uharteak, Ceuta eta Melilla). Hauek dira zerbitzuok:

a) Egile-eskubideen, patenteen, lizentzien, fabrika-marka edo merkataritzako marken eta jabetza intelektual edo industrialaren gainerako eskubide guztien eta antzeko eskubideen lagapenak eta emakidak.

b) Merkataritzako funtsen, salmenta- edo erosketa-esklusiben edo lanbide-jarduera batean aritzeko eskubidearen lagapena edo emakida.

c) Publizitatearen arlokoak.

d) Aholkularitzakoak, auditoriakoak, ingeniaritzakoak, azterlan- bulegoenak, abokatuenak, aholkularienak, kontabilitateko edo zergen arloko adituenak eta antzekoak, foru arau honetako 70. artikuluko Bat zenbakiko 1. azpizenbakian adierazitakoak izan ezik.

e) Datuen tratamendua egitea eta informazioa hornitzea, merkataritzako prozedurak eta esperientziak barne.

f) Itzulpengintzakoak, testuak zuzentzekoak eta testuak konposatzekoak, baita interpreteek emandakoak ere.

g) Aseguru-, berraseguru- eta kapitalizazio-zerbitzuak, foru arau honetako 20. artikuluko Bat zenbakiko 16. eta 18. azpizenbakietan, hurrenez hurren, aipatutako finantza-zerbitzuak, salbuetsita ez daudenak barne, segurtasun-kutxen alogera izan ezik.

h) Langileak lagatzea.

i) Filmak bikoiztea.

j) Ondasun higigarri gorpuzdunen errentamenduak, garraiobideenak eta edukiontzienak salbu.

k) Sarbidea hornitzea Europar Batasunaren lurraldean gas naturala banatzeko dauden sareetara edo haietako bati konektatutako sare batera, elektrizitatea banatzeko sarera edo berokuntza- edo hozkuntza-sare batera, eta produktu horiek sare horien bitartez garraiatzea edo banatzea, bai eta letra honetan sartutako zerbitzuei zuzenean lotutako zerbitzuak egitea ere.

l) Zenbaki honetako zerbitzuetako bat, osorik zein partzialki, ez emateko betebeharrak.

Hiru. Foru arau honen ondoreetarako, ondokoak finkatu dira:

1. Jarduera ekonomikoaren egoitza: enpresaburu edo profesionalek beren enpresa edo lanbide jarduera eta beraren kudeaketa zentralizatzen dituzten tokia.

2. Establezimendu iraunkorra: enpresaburu edo profesionalek jarduera ekonomikoak egiteko erabiltzen duten negozio leku finkoa.

   Bereziki, halakotzak hartuko dira:

   a) Zuzendaritzaren egoitza, sukurtsal, bulego, lantegi, tailer, instalakuntza, denda, eta, oro har, subjektu pasiboaren izenean eta kontura kontratuak egiteko eskuespena daukan agentzia edo ordezkaritza oro.

   b) Meategi, harrobi edo sarrategiak, petrolio edo gas putzu eta lehengaiak ateratzeko beste leku batzuk.

   c) Eraikuntza edo muntaketa obrak, 12 hilabete baino gehiago luzatzen badira.

   d) Nekazaritzako, basogintzako edo abeltzaintzako ustiategiak.

   e) Enpresaburu edo profesional batek bere merkataritzako gaiak biltzeko eta gero emateko modu iraunkorrean ustiatzen dituen instalakuntzak.

   f) Ondasunak erosteko edo zerbitzuak eskuratzeko zentroak.

   g) Errentamendua edo beste edozein titulu dela bide, ustiatzen diren ondasun higiezinak.

3. Telekomunikazio zerbitzuak: hari, irrati, bide optiko nahiz bestelako edozein bide elektromagnetikoren bidez seinale, testu, irudi eta hots edo edozein eratako informazioa transmititu, bidali edo jaso, transmititu, bidali edo jasotzeko bideak erabiltzeko eskubideen lagapena edo emakida eta, aldi berean, sare informatikoetara sartzeko hornikuntza barne, xedetzat duten zerbitzuak joko dira telekomunikazio zerbitzutzat.

4. Baliabide elektronikoez egiten diren zerbitzuak: zerbait prozesamenduko ekipoak erabiliz bidaltzea kablearen, irrati-uhinen, sistema optikoren baten edo bestelako bitarteko elektronikoren baten bidez, trinkotze numerikoa eta datu-biltegiratzea barne; hona zerbitzu horietako batzuk:

   a) Leku informatikoen horniketa eta ostatua.

   b) Programen eta ekipamenduen urruneko mantenua.

   c) Programen eta haien eguneraketen horniketa.

   d) Irudien, testuen, informazioaren horniketa eta datu-baseak eskuragarri jartzea.

   e) Musikaz, pelikulaz, jolasaz, baita zorizko edo dirua jokatzekoez, eta emanaldi eta adierazpen politiko, kultural, artistiko, zientifikoez edota kirolezko edota aisiazkoez hornitzea.

   f) Urruneko irakaskuntza ematea.

   Ondore hauetarako, zerbitzugilea eta zerbitzuen hartzailea posta elektronikoaren bidez harremanetan egoteak ez du berez ekarriko zerbitzua bide elektronikoaz baliatuz egintzat hartu beharra.

5. Irrati- eta telebista-zerbitzuak: entzunezko edo ikus-entzunezko edukiak hornitzen dituzten zerbitzuak, adibidez, komunikazio- zerbitzuen emaile batek, bere argitalpen-erantzukizunpean jardunda, komunikazio-sareen bidez publikoari eskaintzen dizkion irrati edo telebistako programak, aldi berean entzun edo ikusteko ematen direnak, programazio baten barruan.

**70. artikulua. Zerbitzugintza burutzen den tokia. Arau bereziak.**

Bat. Zergaren aplikazio-lurraldean burututzat joko dira ondoko zerbitzu hauek:

1. Aipatu lurraldean finkaturik dauden ondasun higiezinei zuzenean lotzen zaizkienak.

   a) Besteak beste, hauexek hartuko dira ondasun higiezinei zuzenean lotutzat:

   a) Edozein tituluren bidez egiten diren ondasunon errentamendu edo lagapenak, altzariz jantzitako etxebizitzenak barne.

   b) Higiezin-eraikintzen prestaketari, koordinazioari eta burutzapenari dagozkien zerbitzuak.

   c) Aipatu eraikintzei dagozkien zerbitzu teknikoak, arkitektoek, aparejadoreek eta ingeniariek egiten dituztenak barne.

   d) Ondasun higiezinak kudeatzeko zerbitzuak eta higiezinekin egiten diren eragiketak.

   e) Ondasun higiezinak zaintzeko edo segurtatzeko zerbitzuak.

   f) Segurtasun kutxen alogera.

   g) Bidesaridun bideak erabiltzea.

   h) Ostalaritzako establezimenduetan, kanpamenduetan eta bainuetxeetan ostatu ematea.

2. Ondoren azalduko diren garraio zerbitzuak, Zergaren aplikazio- lurraldean dagoen ibilbide-tarteari dagokionez, foru arau honetako 3. artikuluan zehaztu den bezala:

a) Bidaiarien garraio zerbitzuak, hartzailea gorabehera.

b) Foru arau honetako 72. artikuluan adierazitakoak ez beste ondasun batzuk garraiatzeko zerbitzuak, hartzailea ez bada ez enpresaburua ez profesionala (hala diharduena).

3. Kulturaren, artearen, kirolaren, zientziaren, hezkuntzaren eta aisialdiaren arloko zerbitzuak eta adurrezko jokoen eta antzekoen ingurukoak (azokak eta erakusketak, esaterako), are haien antolaketa zerbitzuak eta zerbitzu osagarri guztiak, Zergaren aplikazio- lurraldean egiten direnean, hartzailea gorabehera.

4. Baliabide elektronikoen bitartez egiten direnak, hartzailea ez bada enpresaburua edo profesionala, baina hala badihardu, betiere hartzailearen egoitza edo ohiko etxebizitza zergaren aplikazio- lurraldean badago.

5.

A) Jatetxe- eta catering-zerbitzuak, kasu hauetan:

a) Batasunaren barruan bidaiariak garraiatzen ari diren ontzi, hegazkin eta trenetan ematen direnak, bidaia hasi den tokia Zergaren aplikazio-lurraldean egonez gero. Joan-etorriko bidaietan bi garraio gertatzen dira, bata joanekoa eta bestea itzulerakoa.

b) Gainerako jatetxe- eta catering-zerbitzuak, Zergaren aplikazio- lurraldean emanez gero.

B) Zenbaki honetako A) idatz-zatiko a) letran ezarritakoaren ondoreetarako kontzeptu hauek zehaztu dira:

a) Bidaiarien garraioaren Batasunaren barruko ibilbide-tartea: Bidaiarien garraioaren ibilbideko tarte bat, Batasuneko bi punturen artean dagoena eta beste herrialde edo lurralde batean eskala egin ondoren zeharkatzen dena.

b) Garraio zerbitzuaren abiagunea: Batasunean bidaiariak hartzeko ezarritako lehen tokia, aurretik bertatik kanpo beste eskala bat egon arren.

c) Zerbitzua amaitzen den gunea: Batasunean bidaiariak uzteko ezarritako azken tokia, beste herrialde edo lurralde batean beste eskala bat egon arren.

6. Besteren izenean eta kontura egiten diren bitartekaritza zerbitzuak, hartzailea ez bada ez enpresaburua ez profesionala (hala diharduena) eta bitartekaritzan kudeatzen diren eragiketak Zergaren aplikazio-lurraldean egintzat jo behar badira foru arau honetan ezarritakoaren arabera.

7. Ondoren azalduko diren zerbitzuak, Zergaren aplikaziolurraldean eginez gero eta hartzailea ez bada ez enpresaburua ez hala diharduen profesionala:

a) Garraioaren osagarri diren zerbitzuak: zama-lanak, garraioaldaketa, eskuztatzea eta antzekoak.

b) Ondasun higigarri eta gorpuzkorretan egiten diren lanak eta obrak, eta ondasun horiei buruzko peritu-txostenak, balorazioak eta irizpenak.

8. Telekomunikazio-, irrati- eta telebista-zerbitzuak, hartzailea ez bada enpresaburua edo profesionala, baina hala badihardu, betiere hartzailearen egoitza edo ohiko etxebizitza zergaren aplikazio- lurraldean badago.

9.

A) Garraiobideak errentatzeko zerbitzuak, kasu hauetan:

a) Garraiobideak epe laburrerako errentatzeko zerbitzuak, hartzaileak Zergaren aplikazio-lurraldean jasotzen baditu.

b) Epe luzerako errentamenduak, baldin eta hartzailea ez bada ez enpresaburua ez profesionala (hala diharduena) eta egoitza edo ohiko etxebizitza aplikazio-lurraldean badauka.

Hala ere, ez enpresaburua ez profesionala (hala diharduena) ez den pertsonari epe luzerako errentatutakoa aisiarako ontzia bada, zerbitzua Zergaren aplikazio-lurraldean egintzat hartuko da hartzaileak ontzia bertan jasotzen badu eta zerbitzua enpresaburu edo profesional batek egiten badu bere jarduera ekonomikoaren egoitzatik edo aplikazio-lurraldean daukan establezimendu batetik.

B) Zenbaki honetan xedatutakoaren ondoreetarako hauxe izango da epe laburra: garraiobide bat gehienez hogeita hamar egun edukitzea edo erabiltzea etengabean (ontzien kasuan, laurogeita hamar egun gehienez).

Bi. Halaber, ondoren adieraziko diren zerbitzuak zergaren aplikazio-lurraldean emandakotzat joko dira, baldin eta, haiei aplikatu beharreko kokapen-erregelen arabera, ez badira jotzen Europar Batasunean egindakotzat, baina benetako erabilera eta ustiapena lurralde horretan egiten badira:

1.a. Foru arau honetako 69. artikuluko Bi zenbakian aipatutakoak, baldin eta hartzailea enpresaburua edo profesionala bada eta hala badihardu.

2.a. Besteren izenean eta kontura egiten diren bitartekaritzazerbitzuak, hartzailea enpresaburua edo profesionala bada eta hala badihardu.

3.a. Garraiobideen errentamendua.

4.a. Baliabide telematikoz emandakoak, telekomunikazio-, irrati- eta telebista-zerbitzuak.

## II. KAPITULUA
## ELKARTEBARNEKO ERAGIKETAK

### 71. artikulua. Elkartebarneko ondasun-eskuraketak burutzen diren tokia.

Bat. Elkartebarneko ondasun-eskuraketak Zergaren aplikazio- lurraldean burututzat joko dira, baldin eta eskuratzailearentzako salmenta edo garraioaren jomuga lurralde horretan bertan badago.

Bi. Zergaren aplikazio-lurraldean burututzat joko dira honako Foru Arau honen 13. artikuluaren 1. zenbakian aipatu diren Elkartebarneko eskuraketak ere, eskuratzaileak saltzaileari identifikazio zenbakiaren berri ematen dionean, Espainiako Administrazioak iratxikitzen duen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondoreetarako, salmenta edo garraioaren jomuga dagoen estatu kidean kargatu ez badira.

### 72. artikulua. Non egiten diren Batasunaren barruko ondasun garraioak, hartzailea ez denean ez enpresaburua ez profesionala (hala diharduena).

Bat. Batasunaren barruko ondasun garraioak, hartzailea ez bada ez enpresaburua ez profesionala (hala diharduena), Zergaren aplikazio-lurraldean egintzat joko dira garraioa bertatik abiatzen denean.

Bi. Foru arau honetan xedatutakoaren ondoreetarako, kontzeptu hauek finkatu dira:

a) Batasunaren barruko ondasun garraioa: Ondasun batzuk garraiatzea Batasuneko estatu batetik beste batera.

b) Garraio zerbitzuaren abiagunea: ondasunen garraioa abiatzen den lekua, ondasunok dauden tokira iristeko egindako bidaiak kontuan hartu gabe.

c) Zerbitzua amaitzen den gunea: ondasunen garraioa amaitzen den tokia.

**73. artikulua. Elkartebarneko ondasun-garraioaren zerbitzu osagarriak burutzen diren tokia.**

...

**74. artikulua. Elkartebarneko ondasun-garraioetako eta garraioon zerbitzu osagarrietako bitartekaritza zerbitzuak burutzen diren tokia.**

...

# IV. TITULUA
# ZERGAREN SORTZAPENA

## LEHENENGO KAPITULUA
## ONDASUN-EMATEAK ETA ZERBITZUGINTZAK

### 75. artikulua. Zergaren sortzapena.

Bat. Zerga ondoko kasuetan sortzen da:

1.a. Ondasun-emateetan, eskuratzailearen esku jartzen direnean edo aplika dakiekeen legeriaren arabera gertatzen direnean.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa gorabehera, jabari-erreserbako ituna edo beste edozein etendura-baldintza duen salmenta kontratua, errentamendu eta ondasun-salmentako kontratua edo bi alderdiak lotarazten dituen jabetza-transferentziaren klausuladun kontratua dela bide egindako ondasun-emateetan, Zerga ondasunak eskuratzailearen esku uzten direnean sortuko da.

2.a. Zerbitzuak ematean, kargapeko eragiketak eman, burutu edo gauzatzen direnean.

Hala ere, zerbitzu baten hartzailea Zergaren subjektu pasiboa bada foru arau honetako 84. artikuluko lehenengo idatz-zatiko 2. eta 3. zenbakietan ezarritakoaren arabera, zerbitzua urtebete baino aldi luzeagoan egin bada etengabe eta aldi horretan ordainketa aurreraturik eragin ez badu, zerbitzugintzaren gaineko karga abenduaren 31n sortuko da urtero, eta sortu ere eragiketa hasi denetik edo aurreko sortzapenetik egun horretara arteko aldiaren proportzioan, harik eta zerbitzugintza amaitu arte.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoak badauka salbuespen bat: material ekarpenak behar dituzten lan-burutzapenetan, ondasunak lanaren jabearen esku jartzen diren unean sortuko da.

2.a bis. Administrazio publikoei obrak egiten zaizkienean, materialak ekarriz zein ekarri gabe, obrak jasotzen direnean sortuko da zerga, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 235. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

3.a. Salmenta-komisioko kontratua dela bide komisio-emailearen eta komisiodunaren artean egiten diren ondasun-eskualdeketetan, azkenak bere izenean diharduela, Zerga komisiodunak ondasunak ematen dituenean sortuko da.

Alderdi batek besteari diru kopuru zehatz batean zenbatetsiriko ondasun higikorrak ematen dizkion kontratua dela bide egiten diren ondasun-emateetan, jasotzailea epe baten barruan ondasunok saltzera eta saltzen diren ondasun zenbatetsien balioa eta

saltzen ez diren gainontzekoak itzultzera beharturik dagoela, Zerga saltzen diren ondasunei dagozkien emateen sortzapena jasotzaileak eskuratzailearen esku uzten dituen unean sortuko da.

4.a. Salmenta-komisioko kontratua dela bide komisio-emailearen eta komisiodunaren artean egiten diren ondasun-eskualdeketetan, lehenak bere izenean diharduela, Zerga komisio-emaileari ondasunak ematen zaizkionean sortuko da.

5.a. Autokontsumoetan, Zerga kargatzen diren eragiketak gauzatzen direnean sortuko da.

Hala ere, foru arau honetako 9. artikuluko 1. idatz-zatiko d) puntuko hirugarren paragrafoan aipatutako kasuetan, Zerga honela sortuko da:

a) Kenkariak egiteko eskubidea mugatzea edo baztertzea dakarten inguruabarrak gertatzen direnean.

b) Zergapeko ondasunak kenkariak egiteko eskubiderik sortzen ez duten eragiketetarako erabiltzen diren urteko azken egunean.

c) Lain orokorreko araua aplikagarri den urteko azken egunean.

d) Salbuetsirik dagoen ematearen sortzapena gertatzen denean.

6.a. ....

7.a. Errentamenduetan, horniketetan eta, oro har, segidako edo jarraipenezko traktuko eragiketetan, hartukizun bakoitzaren prezioaren zatia eska daitekeen unean.

Hala ere, preziorik itundu ez bada edo, itundu arren, ez bada zehaztu noiz eska daitekeen, edo prezio hori eskatzeko epea urte naturala baino luzeagoa bada, urte guztietako abenduaren 31n gertatuko da zergaren sortzapena, eragiketa hasi zenetik edo aurreko sortzapenetik egun horretara arte igarotako denboraren proportzioan.

Horniketa horiek foru arau honen 25. artikuluko bat eta hiru ataletan jasotzen diren bezalako ondasun-emateak badira eta, gainera, preziorik itundu ez bada edo, itundu arren, ez bada zehaztu noiz eska daitekeen, edo prezio hori eskatzeko epea urte naturala baino luzeagoa bada, hil bakoitzeko azken egunean gertatuko da zergaren sortzapena, eragiketa hasi zenetik edo aurreko sortzapenetik egun horretara arte igarotako denboraren proportzioan.

Aurreko paragrafoetan xedatutakotik salbuetsita daude aurreko 1. zenbakiaren bigarren lerroaldean aipatutako eragiketak.

8.a. Foru arau honen 25. artikuluan jasotzen direnak bezalako ondasun-emateetan, aurreko zenbakiko zehaztutakoak bezalakoak ez badira, ondasunak eskuratzaileari helarazteko bidalketa edo garraioa hasten den hilaren hurrengo hileko 15ean gertatuko da zergaren sortzapena.

Nolanahi ere, egun hori baino lehen faktura egin bada eragiketa horiek direla eta, faktura egiten den egun berean gertatuko da zergaren sortzapena.

Bi. Aurreko atalean xedatutakoa gora-behera, zerga egitatea gauzatu baino lehenagoko ordainketa aurreratuak sortzen dituzten eragiketa kargagarrietan, benetan hartzen den zenbatekoengatiko prezioaren guztizko edo zatikako kobrantzaren unean izango du Zergak sortzapena.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa ez da Foru Arau honen 25. artikuluan adierazten diren ondasun-emateekin aplikagarri izango.

## II. KAPITULUA
## ELKARTEBARNEKO ONDASUN-ESKURAKETAK

### 76. artikulua. Zergaren sortzapena.

Elkartebarneko ondasun-eskuraketetan, antzeko ondasunak emantzat jotzen diren unean izango du Zergak sortzapena, honako Foru Arau honen 75. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa gora-behera, elkartebarneko ondasun-eskuraketetan ez da 75. artikuluaren bigarren atala, hots, eskuraketa horiek egin baino lehenagoko ordainketa aurreratuak sortzen dituzten eragiketen sortzapenari buruzkoa, aplikagarri izango.

...

## III. KAPITULUA
## INPORTAZIOAK

### 77. artikulua. Zergaren sortzapena.

Bat. Ondasunen inportazioetan, aduanazko legeriarekin bat, Zergaren sortzapena inportazioari buruzko eskubideen sortzapena gertatzen den unean gauzatuko da, inportaziook aipatu inportazioari buruzko eskubideei lotuta egon ala ez.

Hala ere, aduanazkoaz beste gordailu-erregimena utziko balitz, sortzapena erregimen hori uzten den unean gauzatuko litzateke.

Bi. Foru Arau honen 19. artikuluan zehaztutako inportazioei berdinetsiriko eragiketetan, sortzapena bertan adierazten diren inguruabarrak gertatzen diren unean gauzatuko da.

# V. TITULUA
# ZERGA-OINARRIA

## LEHENENGO KAPITULUA
## ONDASUN-EMATEAK ETA ZERBITZUGINTZAK

### 78. artikulua. Zerga-oinarria. Arau orokorra.

Bat. Zergaren zerga-oinarria hari lotzen zaion destinatari edo gainontzekoengandiko eragiketen kontraprestazioaren guztirako zenbatekoak osatuko du.

Bi. Bereziki, ondoko hauek sartzen dira kontraprestazio kontzeptuan:

1. Komisio eta garraio gastuak, aseguruak, prestazio aurreratuengatiko sariak, ordainketa geroratuetako korrituak eta ematea burutzen edo prestazio nagusitik edota haren osagarrietatik eratortzen den zerbitzua egiten duenarentzako benetako beste edozein kreditu.

   Aurreko lerroaldean zehaztutakoa gora-behera, ez da kontraprestazioan sartuko prezioa ordaintzeko gerokotzearengatiko korrituak, gerokotze hori ondasun-ematearen edo zerbitzugintzaren osteko epealdiari badagokio.

   Aurreko lerroaldean xehaztutako ondoreetarako, hurrengooi baino ez zaie korritu izaera aitortuko: Foru Arau honen 20. artikuluaren bat atalaren 18. zenbakiaren c) letran zehaztutakoaren arabera zergatik salbuetsita egon daitezen prezio-ordainketaren geroratze edo berandutzezko finantza-eragiketak, subjektu pasiboak emandako fakturan aparte erasotzen denean.

   Inoiz ere ez da korritutzat joko antzerako eragiketetarako merkatuan ezarri ohi denetik gorako kontraprestazio-atalik.

2. Zergapeko eragiketen prezioari zuzenean loturiko dirulaguntzak.

   Zergapeko eragiketen prezioari zuzenean loturikotzat joko dira ematen diren unitateen kopuruaren edo egindako zerbitzuaren bolu-menaren arabera ezartzen diren dirulaguntzak; eragiketa egin baino lehen ezarri behar dira.

3. Eragiketa kargatuen gaineko era guztietako tributu eta kargak, Balio Erantsiaren gaineko Zerga bera izan ezik.

   Zenbaki honetan xedatu denak eragiketa kargatuen gai diren ondasunei buruz eska daitezkeen zerga bereziak barne bilduko ditu, garraiobide zehatz batzuen gaineko zerga berezia ezik.

4. Zuzenbidearen arabera prestazioa ematera behartuta dagoenak atxekitzen dituen hartukizunak, baldin eta Zergari lotzen zaizkion eragiketak suntsiarazten badira.

5. Eragiketaren destinatariei kargatzen zaien ontzi eta enbalaketen zenbatekoa, itzulgaiak ere barne, aipatu zenbatekoa jasotzen den kontzeptua edozein dela ere.

6. Zorren guztirako edo zatikako kontraprestazio gisa Zergari loturik dauden eragiketen destinatariak bereganatzen dituen zor horien zenbatekoa.

Hiru. Ondoko hauek ez dira zerga-oinarrian sartuko:

1. Izaeraz eta funtzioz Zergari lotzen zaizkion ondasun-emateen edo zerbitzugintzen kontraprestazio edo konpentsazio ez diren eta aurreko atalean biltzen direnez beste kalteordainak direla bide jasotzen diren dirukopuruak.

2. Zuzenbidean onartu ohi den edozein bidez frogatu eta eragiketa burutu aurretik edo aldi berean eta haren arabera ematen diren deskontu eta hobariak.

   Aurreko lerroaldean xedatutakoa ez da aplikagarria izango prezio gutxipenak beste eragiketa batzuen ordainketak direnean.

3. Bezeroaren izenean eta kontura ordaintzen diren dirukopuruak, haren berariazko agindua dela bide. Subjektu pasiboak gastu horien benetako zenbatekoa frogatu beharko du eta ezin izango dio gastuok inoizka karga zitzakeen Zergaren kenkaria egiteari ekin.

4. Eragiketen prezioari lotuta ez dauden diru-laguntzak; ez dira halakotzat joko hirugarren batek eragiketa horien ordain gisa ordaindutako zenbatekoak.

Lau. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kargapeko eragiketak kargatzen dituzten kuotek fakturan beren beregi jasanarazten ez direnean, kontraprestazioan kuota horiek sartu ez direla ulertuko da.

Jarraikoak aurreko paragrafoan xedatutakotik at daude:

1.a. Zerga berariaz jasanaraztea nahitaezkoa ez deneko kasuak.

2.a. Artikulu honetako bigarren idatz-zatiko 5. zenbakian aipatutako balizkoak.

**79. artikulua. Zerga-oinarria. Arau bereziak.**

Bat. Kontraprestazioa diruzkoa ez den eragiketetan, alderdien artean adosten den zenbatekoa —dirutan adierazita— joko da zerga-oinarritzat.

Kontrakoa egiaztatzen ez bada, zerga-oinarria bat etorriko da hurrengo Hiru eta Lau zenbakietan ezarritako erregelak aplikatuta ateratzen diren zenbatekoekin.

Hala ere, kontraprestazioaren zati bat diruzkoa bada, hau izango da zerga-oinarria: kontraprestazioaren diruzkoa ez den zatia delaeta alderdiek adostutako zenbatekoari (dirutan adierazia) kontraprestazioaren diruzko zatiaren zenbatekoa gehituta ateratzen dena, baldin eta emaitza hori handiagoa bada aurreko paragrafoetan xedatutakoa aplikatuz zehaztu dena baino.

Bi. Eragiketa berean eta prezio bakarrez zenbait ondasun-emate edo zerbitzu mota egiten direnean, enpresa-ondare bat oso-osoan edo haren zati bat eskualdatzeko balizkoak ere barne, bakoitzari dagokion zerga-oinarria ematen diren ondasun edo egiten diren zerbitzuen merkatuko balioaren heinean ezarriko da.

Aurreko lerroaldean xedatu dena ez da aplikatuko aipatu ondasun edo zerbitzuak Zergari lotzen zaion prestazio nagusiaren prestazio osagarrien gaia ez direnean.

Hiru. Foru Arau honen 9. artikuluaren 1. eta 3. zenbakietan biltzen diren autokontsumo eta ondasun transferentzia balizkoetan, zerga-oinarria ezartzeko ondoko arau hauek izango dira aplikagarri:

1. Ondasunak eskuratu diren egoera berean emango balira subjektu pasiboak edo beste batek haren kontura fabrikazio, gertaketa edo transformakuntzarik egin gabe, zerga-oinarria ondasunok eskuratuko liratekeen eragiketan finkatzen dena litzateke.

   Baldin eta inportatzen diren ondasunak balira, zerga-oinarria haien inportazioan zerga likidatzeko nagusitzen dena izango litzateke.

2. Ematen diren ondasunekin eskualdatzaileak edo beste batek haren kontura fabrikazio, gertaketa edo transformakuntza prozesuak burutuko balitu, zerga-oinarria aipatu ondasunak lortzeko subjektu pasiboak erabiltzen dituen ondasun eta zerbitzuen kostua litzateke, xede bererako egiten diren pertsonalaren gastuak barne.

3. Hala ere, ematen diren ondasunen balioak erabilera, narriadura, zaharkidura, baliogaltze, birbaloraketa edo beste kariren batez aldakuntzak izango balitu, ondasunek ematea burutzen den unean duten balioa joko litzateke zerga-oinarritzat.

Lau. Zerbitzuen autokontsumo kasuetan, zerbitzugintzaren kostua hartuko da zerga-oinarritzat, hala denean, lagatzen diren ondasunen amortizazioa barne.

Bost. Eragiketa batean parte hartzen duten alderdien artean lotura badago, zerga oinarria merkatuko balio arrunta izango da.

Lotura Zuzenbidean onartutako edozein bidez frogatu ahal izango da. Ondoko kasuotan lotura dagoela ulertuko da:

a) Eragiketan parte hartzen duen alderdietako bat Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboa edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergaduna denean, kasuan kasuko zergari buruzko arautegia aplikatuta.

b) Subjektu pasiboek eragiketak egiten dituztenean eurekin lanbide edo administrazio harremanez lotutako pertsonekin.

c) Subjektu pasiboaren eta beraren ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen (maiatzaren 7ko 2/2003 Legearekin bat etorriz eratutako izatezko bikotea) edo hirugarren gradura arteko odolahaideen artean burutzen diren eragiketetan.

d) mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauko 4. artikuluan aipatutako irabazteko asmorik gabeko erakundeen eta ondokoen arteko eragiketetan: erakundearen sortzaileak, elkartuak, nagusiak, estatutu-ordezkariak, gobernu organoetako kideak, hauen ezkontide edo izatezko bikotekideak (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean ezarritakoaren arabera eratutako bikoteak) edo hirugarren mailara arteko ahaideak, are izatezko bikotearen eraketaren ondoriozkoak ere.

e) Enpresaburu edo profesional den erakunde baten eta beraren bazkide, elkartu, kide edo partaideen arteko eragiketetan.

Balorazio-erregela hau aplikatzeko ezinbestekoa da betekizun hauek betetzea:

a) Eragiketaren destinatarioak ezin du eduki hari dagokion zerga karga osorik kentzeko eskubidea, eta itundutako kontraprestazioa lehia askean izango litzatekeena baino gutxiago izan behar da.

b) Ondasun ematea edo zerbitzugintza egiten duen enpresaburuak edo profesionalak bere kenkariak lainaren erregela aplikatuz zehazten baditu eta eragiketak ez badu sortzen kenkaria aplikatzeko eskubidea, itundutako kontraprestazioa merkatu balio arrunta baino gutxiago izan behar da.

c) Ondasun ematea edo zerbitzugintza egiten duen enpresaburuak edo profesionalak bere kenkariak lainaren erregela aplikatuz zehazten baditu eta eragiketak kenkaria aplikatzeko eskubidea sortzen badu, itundutako kontraprestazioa merkatu balio arrunta baino gehiago izan behar da.

Foru arau honen ondoreetarako, hauxe da merkatuko balio arrunta: ondasun ematea edo zerbitzugintza egiten den une berean destinatario batek, merkaturatze fase berean eta lehia askearekin, Zerga aplikatzen den lurraldean hornitzaile independente bati ordaindu beharko liokeen kopurua. Pareko ondasun emate edo zerbitzugintzarik egon ezean, hauxe izango da merkatuko balioa:

a) Ondasun emateetan, ondasun horien edo antzekoen eskuraketa prezioa (edo gehiago) edo, erosketa preziorik izan ezean, haien kostu prezioa, ematen direnean zehaztua.

b) Zerbitzugintzetan, enpresaburu edo profesionalari zerbitzugintzak eragindako kostu guztien zenbatekoa.

Aurreko bi letren ondoreetarako, Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 16. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, bidezko denean.

Sei. Salmenta-komisioko kontratuak direla bide, komisio-emaileak komisiodunarentzat burutzen dituen ondasun-eskualdaketetan, komisiodunak bere izenean diharduenean, zerga-oinarria azken honek hitzartzen duen kontraprestazioa izango da, komisioaren zenbatekoa kenduta.

Zazpi. Erosketa-komisioko kontratuak direla bide, komisiodunak komisio-emailearentzat burutzen dituen ondasun-eskualdaketetan, lehenengoak bere izenean diharduenean, zerga-oinarria azken honek hitzartzen duen kontraprestazioa izango da, komisioaren zenbatekoa gehituta.

Zortzi. Gainontzeko baten kontura burutzen diren zerbitzugintzetan, zerbitzua egiten duenak bere izenean diharduenean, komisio-emailearen eta komisiodunaren artean burutzen den eragiketa azken honek kontzertatzen duen kontraprestazioa izango da, komisioaren zenbatekoa kenduta.

Bederatzi. Gainontzekoen kontura egiten diren zerbitzu-eskuraketetan, zerbitzuak eskuratzen dituenak bere izenean diharduenean, komisiodunaren eta komisio-emailearen artean burutzen den eragiketa lehenengoak hitzartzen duen kontraprestazioa izango da, komisioaren zenbatekoa gehituta.

Hamar. Inbertsio-urrea xede edo emaitza ez duten ondasun-emateetan edo zerbitzugintzetan eragiketaren jasotzaileak ekarritako urrea erabiltzen bada eta haren eskuraketa salbuetsita egon bada foru arau honetako 140 bis artikuluko lehen idatz-zatiko 1. zenbakikoan ezarritakoa aplikatuz, edo Batasuneko kide den beste estatu batean haren baliokide den xedapenean ezarritakoa aplikatuz, zerga-oinarria kalkulatzeko kontraprestazioaren guztirako zenbatekoari urrearen merkatu-balioa, Zerga sortzen den egunean zehaztua, gehitu behar zaio.

Hamaika. Kontraprestazioa Espainiakoez beste moneta edo dibisa batean ezarrita duten eragiketetan, sortzapena gauzatzen den unean indarrean dagoen saltzaile-trukaneurria aplikatuko da, zein Espainiako Bankuak ezarriko baitu.

Hamabi. Aurreko ataletan aipatzen diren eragiketen zerga-oinarrian, bidezko denean, sartu edo kendu beharko dira, hurrenez hurren, aurreko artikuluaren bi eta hiru ataletan adierazten diren gastu edo osagaiak.

**80. artikulua. Zerga-oinarriaren aldarazpena.**

Bat. Aurreko 78. eta 79. artikuluetan xedatutakoaren arabera zehaztutako zerga-oinarria zenbateko batzuetan txikituko da. Zenbateko horiek honakook dira:

1.a. Berriro erabili ahal diren eta itzuliak izan diren ontzi eta enbalaketen zenbatekoa.

2.a. Eragiketa egin eta gero emandako deskontu eta hobariak, behar bezala justifikatuak badira.

Bi. Ebazpen tinkoz, judiziozkoaz edo administraziozkoaz edo Zuzenbidearen arabera erabat edo partzialki ondoriorik gabe geratzen badira zergapeko eragiketak edo prezioa eragiketa egin eta gero aldatzen bada, zerga-oinarria beharrezko zenbatekoan aldaraziko da.

Hiru. Zerga-oinarria murriztu egin ahal izango da baldin eta zergapeko eragiketen hartzaileak ez baditu jasanarazitako kuotak ordaindu, betiere, eragiketa sortu ondoren, konkurtso-adierazpenaren autoa ematen bada. Aldaketa ezin izango da egin Konkurtsoari buruzko 2003ko uztailaren 9ko 22/2003 Legeko 21. artikuluko 1. zenbakiko 5. azpizenbakian adierazitako gehieneko epea amaitzen denetik zenbatutako bi hilabeteko epea igaro ondoren.

Konkurtsoari buruzko Legeko 176. artikuluko 1. zenbakiko 1., 4. eta 5. azpizenbakietan adierazitako arrazoiengatik konkurtsoa amaitzea erabakitzen bada (orduan baino ez), zerga-oinarria aldatu duen hartzekodunak berriro ere aldatu beharko du, gorantz; horretarako, erregelamenduz ezarritako epean, zuzentzeko faktura bat eman beharko du, eta, bertan, dagokion kuota jasanarazi beharko da.

Lau. Zerga-oinarria modu proportzionalean txikitu ahal izango da zergapeko eragiketengatik jasanarazitako kuotei dagozkien kredituak erabat edo partzialki kobraezinak badira. Ondore horietarako:

A) Kreditu bat honako baldintza hauek betetzen dituenean hartuko da erabat edo partzialki kobraezintzat:

1. Jasanarazitako zergaren sortzapenetik urtebete pasatzen bada zerga horri dagokion kreditu osoa edo haren zati bat kobratzea lortu gabe.

   Hala ere, eperako edo prezio geroratuko eragiketetan, urtebete pasatu behar da ordaindu gabeko kopuruaren epea edo epeak amaitu direnetik murrizketa proportzionala aplikatu ahal izateko zergaoinarriari. Horretarako, eragiketa bat eperako edo prezio geroratuko eragiketatzat joko da, baldin eta itundu bada eragiketa horren kontraprestazioa elkarren segidako ordainketetan edo ordainketa bakarrean ordaindu behar dela, betiere urtebete baino gehiago igarotzen bada jasanarazitako zergaren sortzapenetik azken ordainketaren edo ordainketa bakarraren muga-egunera bitartean.

   Baldin eta zerga-oinarria murriztu nahi zaion kreditu-eskubidearen titularra enpresaburua edo profesionala bada eta hark aurreko urte naturalean izandako eragiketen bolumena —foru arau honetako 121. artikuluan xedatu den bezala kalkulatuta— ez bada handiagoa izan 6.010.121,04 euro baino, lehen baldintza honetan kontuan hartu beharreko epea sei hilabete edo urtebete izan daiteke.

Kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatu behar zaien eragiketen kasuan, foru arau honetako 163 terdecies artikuluan aipatzen den abenduaren 31ko muga-eguna aplikatzearen ondorioz ateratzen den zergaren sortzapen-datan joko da betetzat baldintza hau.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, eperako edo prezio geroratuko eragiketak direnean, 1. arau honetan aipatzen den sei hilabeteko edo urtebeteko epea dagokion epea edo epeak amaitzen diren egunetik eragiketaren sortzapen-data bitartean igaro beharko da.

2. Inguruabar hori jasota geratu bada zerga honetarako eskatutako erregistro-liburuetan.

3. Eragiketaren hartzaileak enpresaburu edo profesional gisa jarduten badu edo, bestela, haren zerga-oinarria, Balio Erantsiaren gaineko Zerga sartu gabe, 300 euro baino gehiago bada.

4. Subjektu pasiboak, erreklamazio judizial baten bidez edo notario-errekerimendu baten bidez, ordain dezala eskatu badio zordunari, kreditua herri-erakunde batek bermatuta egon arren.

Aurreko 1. baldintzan aipatzen diren eperako eragiketak direnean, zerga-oinarria ordaindu gabeko epeari edo epeei dagokien proportzioan txikitu ahal izateko nahikoa izango da zordunari eskatzea epe horietako bat ordain dezala, hari egindako erreklamazio judizial baten bidez edo notario-errekerimendu baten bidez.

Erakunde publiko batek zor dituen kredituak badira, aurreko 4. baldintzan aipatutako erreklamazio judiziala edo notario-errekerimendua barik ziurtagiri bat behar da, erakunde publiko zorduneko organo eskudunak emandakoa, erakunde horretako kontuhartzailearen edo diruzainaren txostenarekin bat, non jasotzen den erakundeak onartu egiten duela berak duen betebeharra eta non adierazten duen zein den betebehar horren zenbatekoa.

B) Aldaketa egin behar da, hain zuzen ere, aurreko 1. baldintzan aipatutako sei hilabeteko edo urtebeteko epea amaitu eta hurrengo hiru hilabeteen barruan, eta zerga-administrazioari jakinarazi behar zaio, erregelamenduz horretarako finkatzen den epean. Kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatu behar zaien eragiketen kasuan, foru arau honetako 163 terdecies artikuluan aipatzen den abenduaren 31ko muga-egunetik aurrera zenbatuko da aldaketa egiteko hiru hilabeteko epea.

C) Zerga-oinarri txikitu ondoren, haren zenbatekoa ezin da berriro gehitu, nahiz eta subjektu pasiboak kontraprestazioaren kopuru osoa edo haren zati bat kobratu, salbu eragiketaren hartzaileak ez diharduenean enpresaburu edo profesional gisa. Kasu horretan, ulertuko da jasotako kopuruetan dagoeneko sartuta dagoela Balio Erantsiaren gaineko Zerga, jasotako kontraprestazio-zatiaren proportzio berean, hain zuzen ere.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa gorabehera, subjektu pasiboak atzera egiten badu erreklamazio judizialean edo, notario-errekerimendua bidali ondoren, zorra kobratzeko akordio batera iristen bada zordunarekin, errekerimendu horren ondorioz zein beste arrazoi batengatik, berriz ere aldatu beharko du zerga-oinarria. Kasu horretan, handitu egin beharko du, eta, horretarako, dagokion kuota jasanarazten duen zuzenketa-faktura eman beharko du, atzera egiten duenetik edo zorra kobratzeko akordioa lortzen denetik hilabete igaro baino lehen.

Bost. Zerga-oinarria aldatzeari buruz aurreko hiru eta lau ataletan ezartzen diren kasuetan honako erregela hauek aplikatu behar dira:

1. Ez da zerga-oinarria aldatuko, baldin eta honelako kredituak badira:

a) Berme erreala duten kredituak, bermatutako zatian.

b) Elkarrekiko berme-sozietateek edo kreditu-etxeek fidantzatutako kredituak, edo kreditu- edo kauzio-aseguruaren kontratu baten bidez estalitakoak, fidantzatutako edo bermatutako zatian.

c) Foru arau honetako 79. artikuluko bost atalean definitzen diren pertsona edo erakunde lotuen arteko kredituak.

d) Herri-erakundeek zordundutako edo fidantzatutako kredituak.

Letra honetan xedatutakoa ez da aplikatuko, baldin eta zergaoinarria foru arau honetako 80. artikuluko lau atalean ezarritakoaren arabera txikitzen bada erabat edo partzialki kobraezintzat jotzen diren kredituen kasuan. Hala ere, manu horretako 4. baldintza bete behar da, hots, agiri bidez frogatu behar da zorra ez dela ordaindu.

2. Era berean, ez da zerga-oinarria aldatuko, eragiketen hartzaileak zerga aplikatzen den lurraldean establezimendurik ez badu, ezta Kanarietan, Ceutan edo Melillan ere.

3. Halaber, foru arau honetako lau atalean jasotako zergaoinarriaren txikitzea ez da inoiz egingo konkurtso-adierazpenaren autoaren ondoren, sortzapena auto horren aurretik duten eragiketengatik jasanarazitako kuotei dagozkien kredituen kasuan.

4. Aldaketa hori egin aurretik egindako ordainketa partzialik badago, ulertuko da Balio Erantsiaren gaineko Zerga sartuta dagoela jasatako zenbatekoetan, ordaindutako kontraprestazioaren zatiaren proportzio berean egon ere.

5. Eragiketen hartzaileari dagozkion kenkarien zuzenketa egiten bada, foru arau honetako Bi zenbakiko 2. azpizenbakiko laugarren paragrafoarekin bat, zuzenketa horren araberako kreditua sortuko da Ogasunaren alde.

Zergapeko eragiketen hartzaileak ez badu izan zerga osorik kentzeko eskubidea, Foru Ogasunari zor izango dio kendu izan ezin duen zergari dagokion kuotaren zenbatekoa. Eragiketen hartzaileak enpresaburu edo profesional gisa jarduten ez badu, eta zor hori ordaindu ez duen heinean, aurreko Lau zenbakiko C) letran ezarritakoa aplikatuko da.

Sei. Kontraprestazioaren zenbatekoa ezaguna ez bada Zergaren sortzapenaren momentuan, subjektu pasiboak bera behin-behinean finkatu beharko du funtsa duten irizpideak aplikatuz. Hala ere, hura arteztu ahal izango du berau ezaguna denean.

Zazpi. Aurreko ataletan aipatuta dauden kasuetan, zerga-oinarriaren aldarazpena arauz ezartzen diren beharkizunak betetzearen baldintzaren pean egongo da.

### 81. artikulua. Zerga-oinarriaren zehaztapena.

Bat. Orohar, zerga-oinarria zuzeneko zenbatespen erregimenaren arabera zehaztuko da, Foru Arau honetan eta zerga-oinarrien zeharkako zenbatespen erregimenaren arau erregulatzaileetan ezarri direnez beste salbuespenik gabe.

Zeharkako zenbatespen erregimenaren aplikazioak subjektu pasiboak egiten dituen ondasun- eta zerbitzu-eskuraketen zenbatekoa eta hauei dagokien Zerga hartuko ditu.

Bi. Arau bidez, sektore edo jarduera ekonomikoetan eta zehazten diren mugen arabera, zerga-oinarriaren zehaztapenerako zenbatespen objektiboaren erregimena ezarri ahal izango da.

Erregimen hau inoiz ere ez da aplikatuko ondasun higiezinen emateetan, ez eta Foru Arau honen 9. artikuluaren 1. enbakiaren c) eta d) puntuetan eta 13. eta 17. artikuluetan eta 84. artikuluaren lehenengo atalaren 2. zenbakian aipatzen diren eragiketetan ere.

Hiru. Aitorpen edo likidazioak aurkezten ez badira, Foru Arau honen 168. artikuluan ofiziozko behin-behineko likidazioari buruz xedatutakoaren arabera ihardungo da.

## II. KAPITULUA
## ELKARTEBARNEKO ONDASUN-ESKURAKETAK

### 82. artikulua. Zerga-oinarria.

Bat. Elkarte barneko ondasun-eskuraketen zerga-oinarria aurreko kapituluan xedatutakoarekin bat etorriz zehaztuko da.

Zehazki, foru arau honetako 16. artikuluko 2. zenbakian aipatutako eskuraketetan, zerga-oinarria foru arau honetako 79. artikuluaren hirugarren atalean xedatu denaren arabera zehaztuko da.

Eskuratzaileak ondasunen bidalketa edo garraioaren abiapuntua den Estatu kidean zerga berezien itzulketa lortzen badu, bere zerga- egoera arau bidez zehaztuko den eran erregularizatuko da.

Bi. 71. artikuluaren 2. atalean aurrikusitakoa aplikagarri denean, zerga-oinarria ondasunen bidalketa edo garraioaren jomuga den estatu kidean kargatu ez diren Elkartebarneko eskuraketei dagokiena izango da.

## III. KAPITULUA
## INPORTAZIOAK

### 83. artikulua. Zerga-oinarria.

Bat. Arau orokorra. Ondasunen inportazioetan, zerga-oinarria aduanako balioari ondoko kontzeptu hauek gehitzean aterako da, baldin eta delako balioaren barnean ez badaude:

a) Zergaren aplikazio-lurraldetik kanpoko sortzapena duten zerga, eskubide, ordainarazpen eta gainerako kargak, eta bai inportazioa dela bide sortzen direnak ere, Balio Erantsiaren gaineko Zerga ezik.

b) Gastu osagarriak, hala nola, Elkartearen barruan lehenengo jomugara iritsi arte, ondasunen komisioak eta enbalaketa, garraio eta aseguru gastuak.

Garraio-agirian edo Elkartean ondasunak sartzea babesten duen beste edozein agiritan azaltzen dena joko da "lehenengo jomuga"tzat. Horrelako adierazkaririk ez balego, lehenengo jomuga Elkartearen barruan ondasunak eraskabetzen diren lehen tokia dela ulertuko litzateke.

Bi. Arau bereziak.

1. Konponketa-, transformakuntza-, moldaketa-langai edo enkarguzko langai izateko, Elkartetik kanpora aldi baterako esportatzen diren ondasunen berrinportazioen zerga-oinarria, aipatu lanen kontraprestazioa izango da, zein titulu honen lehenengo kapituluan bildurik dauden arauen arabera zehaztu baita.

   Aurreko atalaren a) eta b) puntuak aipatzen dituzten kontzeptuak ere zerga-oinarriaren barruan sartuko dira, baldin eta aurreko lerroaldean zehaztu den kontraprestazioaren barnean biltzen ez badira.

2. 19. artikuluaren 1., 2. eta 3. zenbakietan aipatu den inportazioen zerga-oinarriaren barnean sartuko da haiei doazkien garraiobideei lotzen zaizkien eragiketa guztien zenbatekoa, baldin eta aipatu eragiketak inportazio horiek egin aurretik burutzen eta Zergaren salbuespenaren onuradun badira.

3. Aduanakoaz beste biltegi-erregimena uzten duten ondasunen zerga-oinarria ondoko hau izango da:

a) Beste estatu kide edo gainontzeko herrietatiko ondasunei dagokienean, 82. artikuluaren arauak edo artikulu honen lehenengo atalekoak, hala denean, aipatu gordailuan burutzen den azken emateari doakiona hurrenez hurren aplikatzetik ateratzen dena.

b) Herri barrutikako ondasunei dagokienean, Zergatik salbuetsirik dauden ondasun horien azken emateari doakiona.

c) Aurreko puntuetan bildutako ondasun- erasketa edo transformakuntza prozesuen emaitza diren ondasunei dagokienean, puntuotako arauak aplikatzetik ateratzen diren zerga-oinarrien batura.

d) Kasu guztietan, inportazioa, Elkartebarneko eskuraketa edo, hala denean, ondasunen azken ematea burutu ondoren egiten den eta Zergatik salbuetsirik dauden zerbitzuei dagozkien kontraprestazioen zenbatekoa barnean bildu beharko du.

e) Aduanakoez besteko biltegi-erregimena uztearen izakizun guztietan, ondasun-inportazioagatik dela edo ondasun-inportazioari berdinetsitako eragiketarengatik dela, erregimen hori uzteagatik eskagarri den zerga bereziaren zerga-oinarrian sartuko da.

4. Foru Arau honen 19. artikuluaren 5. zenbakian aipatu den gainerako eragiketen zerga-oinarria Elkartebarneko azken ondasun- emate edo eskuraketaren kontraprestazioen eta emate edo eskuraketa horren ondoren egiten diren zerbitzuen batura izango da, denok ere Zergatik salbuetsirik daudela, honako titulu honen I. eta II. kapituluetan zehazten denaren arabera.

5. Informatika-ekoizkin normalizatuen inportazioetan, zerga-oinarria euskarriari eta honi erantsirik dauden programa edo informazioei dagokiena izango da.

Hiru. Foru Arau honen 80. artikuluan bildutako arauak aplikagarri izango dira, bidezko denean, inportazioen zerga-oinarriaren zehaztapenean.

Lau. Zerga-oinarriaren elementu zehaztaileak Espainiakoez beste moneta edo dibisetan finkatzen direnean, trukaneurria aduanako balioa kalkulatzeko Elkarteko indarreko xedapenekin bat etorriz zehaztuko da.

# VI. TITULUA
# SUBJEKTU PASIBOAK

## LEHENENGO KAPITULUA
## ONDASUN-EMATEAK ETA ZERBITZUGINTZAK

### 84. artikulua. Subjektu pasiboak.

Bat. Zergaren subjektu pasiboak honako hauek izango dira:

1.a. Enpresaburu edo profesional izanik, Zergapeko ondasunemateak edo zerbitzuak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak, hurrengo zenbakietan xedatutako kasuetan izan ezik.

2.a. Kargapeko eragiketak egiten zaizkien enpresaburu edo profesionalak, kasu hauetan:

a) Eragiketak Zergaren aplikazio-lurraldean finkaturik ez dauden pertsona edo erakundeek egiten dituztenean.

Hala ere, letra honetan xedatutakoa ez da aplikatuko ondoko kasu hauetan:

a') Zerbitzuaren hartzailea ere ez badago egoiliartuta Zergaren aplikazio-lurraldean; salbuespena: foru arau honetako 69. artikuluko lehenengo idatz-zatiko 1. zenbakiak aipatutako zerbitzuak.

b') Foru arau honetako 68. artikuluko hiru eta bost idatz-zatietan aipatzen diren ondasun emateetan.

c') Foru arau honetako 21. artikuluko 1. eta 2. zenbakietan edo 25. artikuluan ezarritakoaren arabera Zergatik salbuetsita dauden ondasun emateetan.

b) Landu gabeko urrea edo urrezko gai erdilanduak ematen direnean, baldin eta urrearen legea 325 milaren edo gehiago bada.

c) Eragiketa hauetan:

- Hauen emateak: industriako hondakin berriak, fundizioko zamarrak eta hondakinak, berreskuratutako hondakin eta material ferrikoak eta ez-ferrikoak eta haien aleazioak, eta metalak edo aleazioak dituzten industriako eskoriak, errautsak eta hondakinak.

- Aurreko puntuan aipatutako produktuak hautatzea, moztea, zatitzea eta zanpatzea.

- Paper, kartoi edo beirazko hondakinen emateak.

- Lehenengo puntuan aipatutako metal ez-ferrikoen (nikela osagai den konposatuak izan ezik) eraldakuntzaren, lantzearen edo fundizioaren emaitzako produktu erdilanduen emateak. Bereziki, produktu erdilandutzat hartuko dira lingoteak, blokeak, xaflak, barrak, bihia, granaila eta alanbregaia.

Nolanahi ere, Foru Arauaren eranskinean adierazitako materialen emateak ere aurrekoen artean sartutzat joko dira

d) Ondoko xedeetako bat duten zerbitzugintzak direnean: berotegi efektuko gasak emititzeko eskubideak, halako gasen emisiomurrizpen ziurtatuak eta gas horien murrizketa-unitateak; horiek guztiak berotegi efektuko gasak emititzeko eskubideen merkataritza araupetu duen martxoaren 9ko 1/2005 Legean eta Kiotoko Protokoloan ezarritako malgutasun-mekanismoetan parte hartzeko esparruan garatu duen uztailaren 20ko 1031/2007 Errege Dekretuan finkatu dira.

e) Ondasun higiezinen honako entrega hauen kasuan:

- Konkurtso-prozesu baten ondorioz egindako entregak.

- 20.Bat artikuluko 20. eta 22. paragrafoetan aipatzen diren entrega salbuetsiak, subjektu pasiboak salbuespenari uko egin dionean.

- Ondasun higiezinen gainean eratutako bermea exekutatuz egindako entregak; horrela, bada, bermea exekutatzen dela ulertuko da, higiezin bat eskualdatzen denean bermatutako zorra osorik edo partez azkentzearen truke, edo aipatutako zorra eskuratzaileak azkentzeko obligazioaren truke.

f) Obrak gauzatzen direneko kasuan, dela materialak emanez edo eman gabe, bai eta obrak egiteko langileak lagatzen direnean ere, sustatzailearen eta kontratistaren artean zuzenean formalizatutako kontratuen ondorioz; betiere, obren helburua lurrak urbanizatzea edo eraikinak eraikitzea edo birgaitzea bada.

Aurreko lerroaldean ezarritakoa aplikatzekoa izango da, era berean, operazioen hartzaileak kontratista nagusia edo beste azpikontratista batzuk —adierazitako baldintzen arabera— direnean.

g) Foru arau honetako eranskineko hamargarren zenbakian definitutako produktu hauen emateak direnean:

- Zilarra, platinoa eta paladioa, landugabe, hauts egoeran edo erdi landuta; haiekin berdinetsiko dira enpresaburu edo profesional eskuratzaileak eraldatzeko egindako jardueren emaitza diren metal horien emateak. Edonola ere, ondasun erabiliei, arte-objektuei, antzinateko objektuei eta bilduma-objektuei aplikatu beharreko araubide bereziaren aplikazio-eremuan sartuta ez dauden produktuak izan behar dira.

- Sakelako telefonoak.

- Bideo-jokoen kontsolak, ordenagailu eramangarriak eta tableta digitalak.

Azken bi paragrafoetan ezarritakoa bakarrik aplikatuko da hartzailea hauetako bat denean:

a') Objektu horiek birsaltzen dituen enpresaburua edo profesionala, ematearen zenbatekoa edozein dela ere.

b') Aurreko letran aipatutakoez bestelako enpresaburua edo profesionala, halako ondasunekin egin zaizkion emateen zenbateko osoa 10.000 eurotik gorakoa bada, Balio Erantsiaren gaineko Zerga sartu gabe. Emate guztiak faktura berean sartu beharko dira.

Aipatutako muga kalkulatzeko, emateak faktura batean baino gehiagotan aurkezten badira egindako emateen zenbateko osoa hartuko da kontuan, baldin eta egiaztatuta geratzen bada eragiketa bakarra dela eta eragiketa hori modu artifizialean banakatu dela, arau hau aplikatzea saihesteko.

Aurreko letretan aipatzen den enpresaburu edo profesional izaera eskuraketa egin baino lehen edo aldi berean egiaztatu beharko da, erregelamenduz ezarritako baldintzetan.

Ondasun horien emateen hartzaileak zergaren subjektu pasiboak badira, 2. azpizenbaki honetan ezarritakoaren arabera, emate horiek serie berezi baten bidez jaso beharko dira fakturan

3.a. Zergaren aplikazio-lurraldean egoiliartuta ez dauden enpresaburu edo profesionalek egindako kargapeko eragiketak (ondoren zehaztuko direnak) jasotzen dituzten pertsona juridikoak, ez badihardute enpresaburu edo profesional gisa:

a) Foru arau honetako 26. artikuluko hirugarren idatz-zatian aipatutako Batasunaren barruko ondasun eskuraketen ondoko emateak, baldin eta Espainiako Administrazioak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondoreetarako emandako identifikazio zenbakiaren berri eman badiete haiek egin dituzten enpresaburu edo profesionalei.

b) Foru arau honetako 69. eta 70. artikuluetan aipatutako zerbitzugintzak.

4.a. Aurreko zenbakietan xedatutakoa eragotzi gabe, gas- edo elektrizitate-emateak nahiz berokuntza- edo hozketa-sareen bitartez egindako bero- edo hotz-emateak jasotzen dituzten enpresaburuak edo profesionalak, bai eta enpresaburu edo profesional gisa jarduten ez duten pertsona juridikoak ere, baldin eta emate horiek Zergaren aplikazio-lurraldean egintzat jotzen badira, foru arau honen 68. artikuluko zazpigarren zenbakian ezarritakoaren arabera, eta baldin eta emateak lurralde horretan ezarrita ez dagoen

enpresaburu edo profesional batek egiten baditu eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako Espainiako administrazio batek ematen dion identifikazio-zenbakia jakinarazi badiote.

Bi. Foru arau honetan xedatutakoaren ondoreetarako, Zergaren aplikazio-lurraldean egoiliartutzat joko dira jarduera ekonomikoaren egoitza, zerga egoitza edo kargapeko ondasun emateak eta zerbitzuak egiteko erabiltzen den establezimendu iraunkorra bertan duten subjektu pasiboak.

Subjektu pasibo batek establezimendu iraunkorra ondasun emateak edo zerbitzuak egiteko erabiltzen duela pentsatuko da bertako ekoizpen-faktore materialak edo ekoizpeneko giza baliabideak ondasunak edo zerbitzuak egiteko antolatzen baditu.

Hiru. Subjektu pasibotzat hartzen dira jaraunspen banatugabeak, ondasun-erkidegoak eta nortasun juridikorik izan ez arren zergagai diren batasun ekonomikoa edo ondare banandu izaera duten gainontzeko entitateak, baldin eta Zergari lotzen zaizkion eragiketak burutzen badituzte.

## II. KAPITULUA
## ELKARTEBARNEKO ONDASUN-ESKURAKETAK

### 85. artikulua. Subjektu pasiboak.

Elkartebarneko ondasun-eskuraketetan Zergaren subjektu pasiboak eskuraketok burutzen dituztenak izango dira, Foru Arau honen 71. artikuluan aurrikusitakoaren arabera.

## III. KAPITULUA
## INPORTAZIOAK

### 86. artikulua. Subjektu pasiboak.

Bat. Inportazioak egiten dituztenak izango dira Zergaren subjektu pasiboak.

Bi. Aduanei buruzko legerian ezarritakoa betez gero, ondoko hauek hartuko dira inportatzailetzat:

1.a. Inportatzen diren ondasunen destinatariak (eskuratzaileak, lagapen-hartzaileak zein jabeak) edo ondasunen inportazioan diharduen kontsignatariak, beren izenean ari badira.

2.a. Bidaiariak Zergaren aplikazio-lurraldean sartzean aldean daramatzaten ondasunen inportatzaileak izango dira.

3.a. Aurreko zenbakietan biltzen ez diren kasuetan, ondasunen jabeak.

4.a. Foru arau honetako 19. artikuluan aipatutako ondasunen eskuratzaileak edo, hala denean, jabeak, errentariak edo pleitariak.

Hiru. Artikulu honetako lehenengo idatz-zatian xedatutakoa eragotzi gabe, foru arau honetako 27. artikuluko 12. zenbakiko inportazioen kasuan, baldin eta inportatzaileak zerga ordezkariaren bitartez badihardu, ordezkariak arauetan ezarritakoaren arabera inportazioak direla eta ezartzen diren betebehar materialak eta formalak bete beharko ditu.

## IV. KAPITULUA
## ZERGAREN ERANTZULEAK

### 87. artikulua. Zergaren erantzuleak.

Bat. Subjektu pasiboaren zerga-zorraren erantzule solidarioak dira erruzko edo dolozko ekintza edo alderauzketa baten bidez Zerga behar bezala jasanarazteari itzuri egiten dioten eragiketen jasotzaileak.

Ondore hauetarako, erantzukizunak bidezko zehapena ekarriko du.

Bi. Ondasun-inportazioetan, ondoko hauek ere Zergaren ordainketaren erantzule solidarioak izango dira:

1. Nazioarteko hitzarmenetan zehazten diren kasuetako elkarte bermatzaileak.

2. Renfe, nazioarteko hitzarmenak direla bide, gainontzekoen izenean diharduen kasuetan.

3. Norberaren izenean eta inportatzaileen kontura jarduten duten pertsona edo erakundeak.

Hiru. Zergaren ordainketaren sorospidezko erantzule izango dira beren komisio-emaileen izenean eta hauen kontura diharduten aduana agenteak.

Lau. Hirugarren eta laugarren ataletan ezarritako erantzukizunek ez dituzte ukitzen aduana-eremuetatik kanpo burutzen diren jarduketen ondorioz azaltzen diren tributu-zorrak.

Bost.

1. Kargapeko eragiketen destinatario diren enpresaburu edo profesionalak eragiketa horien zioz subjektu pasiboek ordaindu beharreko zerga kuoten erantzule subsidiario izango dira kasu honetan: eragiketa egiten duen enpresaburu edo profesionalak edo dena delako ondasun ematea edo zerbitzugintza eskuratu eta eman dutenetako batek uste duenean arrazoizkoa dela pentsatzea jasanarazitako edo jasanarazi beharreko zerga karga ez aitortu ez sartu ez dela egin ez egingo.

2. Honen ondoreetarako, kasu honetan pentsatuko da aurreko zenbakian aipatutako eragiketen destinatarioek uste izan behar dutela arrazoizkoa dela pentsatzea jasanarazitako edo jasanarazi beharreko zerga karga ez aitortu ez sartu ez dela egin ez egingo: horren ondorioz prezio nabariki anomaloa ordaindu badute. Prezio nabariki anomaloa da:

   a) Ondasunei eragiketa egin den inguruabarretan dagokiena edo ondasun berdinen beste eskuraketa batzuetan ordaindutakoa baino askoz merkeagoa dena.

   b) Ematea egin duenak eskuratzean ordaindutako prezioa baino askoz merkeagoa dena.

   Eragiketaren prezioa nabariki anomalotzat jotzeko, Zerga Administrazioak duen dokumentazioa eta destinatarioek emandakoa aztertuko du, eta, ahal denean, baita sektore ekonomiko berean egindako antz handiko beste eragiketa batzuk baloratuko ditu ondasunek eragiketa egin denean eduki duten merkatu-balio arrunta zenbatekotzeko.

   Zerga aplikatzeaz beste faktore ekonomiko batzuek eragindako prezioak ez dira nabariki anomalotzat joko.

3. Erantzukizun hau eskatzeko, Zerga Administrazioak frogatu behar du jasanarazitako edo jasanarazi beharreko zerga karga bat ez dela aitortu ez sartu.

4. Aurreko idatz-zatietan ezarritako betekizunak bete direla egiaztatutakoan, Zerga Administrazioak erantzukizuna gertatu dela adieraziko du, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 40. artikuluko 5. idatz-zatian xedatutakoarekin bat etorriz.

## V. KAPITULUA
## ZERGAREN JASANARAZPENA

### 88. artikulua. Zergaren jasanarazpena.

Bat. Subjektu pasiboek oso-osoan jasanaraziko diote Zergaren zenbatekoa kargatzen den eragiketa egiten zaionari, azken honek jasanarazpena Foru Arau honetan xedatzen denarekin bat datorren kasu guztietan jasan beharko duelarik, bi alderdien artean izan litezkeen hizpaketak gora-behera.

Destinatari ente publikoak dituzten eta Zergari loturik eta honetatik salbuetsirik ez dauden ondasun-emate eta zerbitzugintzetan, Zergaren subjektu pasiboek beren proposamen ekonomikoak azaltzean, ahozkoak izaki ere, haien barnean Balio Erantsiaren gaineko Zerga sartu dutela ulertuko da, zein, hala ere, bidezko denean, kobrantzarako aurkezten diren agirietan partida lokabe gisa jasanaraziko baita, kontratatu den zenbateko osoak, jasanarazten den tributuaren zainpeketaren ondoriozko gehikuntzarik izan gabe.

Bi. Zerga fakturaren bidez jasanarazi behar da, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintza eta betekizunen arabera.

Horretarako, jasanarazitako kuota eta zerga-oinarria bereiz izendatu behar dira, are prezioak Administrazioak ezarri baditu ere, eta aplikaturiko zerga-tasa adierazi behar da.

Atal honetako aurreko lerroaldeetan xedatutakotik salbu egongo dira erregelamendu bidez zehazten diren eragiketak.

Hiru. Dagokion faktura egin eta ematean jasanarazi behar da zerga..

Lau. Sortzapen egunetik urtebete igaroz gero, jasanarazpen-eskubidea galduko da.

Bost. Balio Erantsiaren gaineko Zergak kargatzen duen eragiketaren destinatariak ez dio aipatu Zergaren sortzapen unearen aurretik jasanarazpenari eutsi beharko.

Sei. Zergaren jasanarazpenari buruz sor daitezkeen hizka-mizkak, hala haren nondikakoari, nola zenbatekoari buruz, tributu izaerakotzat hartuko dira, ekonomi-administraziozko bidean jar daitezkeen erreklamazioen ondoreetarako.

### 89. artikulua. Jasanarazten diren zerga-kuoten zuzenketa.

Bat. Subjektu pasiboek jasaten dituzten zerga-kuoten zuzenketa egin beharko dute kuota horien zenbatekoa gaizki zehaztu denean edo, foru arau honetako 80. artikuluan xedatutakoaren arabera, zerga-oinarriaren aldaketa eragiten duten inguruabarrak gertatzen direnean.

Kuotak gaizki zehaztu izatearen kariak azaltzean edo aurreko lerroaldean aipatu diren gainerako inguruabarrak gertatzean, orduantxe egin beharko da zuzenketa, beti ere eragiketari dagokion zerga sortu zenetik edo, hala denean, aipatutako 80. artikuluan adierazi diren inguruabarrak gertutu zirenetik bost urte igaro ez badira.

Bi. Aurreko atalean xedatutakoa aginduzkoa izango da inolako kuotarik jasanarazi ez arren eragiketaren faktura egin bada.

Hiru. Aurreko ataletan xedatutakoa gorabehera, honako kasu hauetan ez da egin beharko jasanarazitako zerga-kuoten zuzenketarik:

1. Zuzenketa foru arau honetako 80. artikuluan bildutako kariek eragin ez dutenean, zuzenketaren ondorioz kuota jasanaraziak gehitzen direnean eta eragiketen hartzaileek enpresaburu edo profesional gisa ez dihardutenean, salbu eta zerga-tasen legezko igoera gertatzen bada; izan ere, kasu horretan, zerga-tasa berria indarrean jartzen den hilabetean eta hurrengoan egin ahal izango da zuzenketa.

2. Zerga-Administrazioak berak agerian jartzen duenean, likidazioen bidez, benetan sortu eta erasan ez diren kuotak handiagoak direla subjektu pasiboak aitortutakoak baino eta egiaztatzen bada, datu objektiboak erabiliz, subjektu pasibo horrek iruzur batean hartu zuela parte edo bazekiela edo jakin beharko zukeela –horretarako arrazoizko diligentzia bat erabiliz– berak egindako eragiketa iruzur baten parte zela.

Lau. Jasandako zerga-kuoten zuzenketa arau bidez ezarriko diren agiriak aurkeztuz egin beharko da.

Bost. Kuotak zuzentzeak hasiera batean jasanarazitakoak igotzea dakarrenean eta ez bada aldez aurretik errekerimendurik izan, subjektu pasiboak zuzentzeko autolikidazioa aurkeztu beharko du, eta autolikidazio horri Zergei buruzko Foru Arauko 26. eta 27. artikuluetan ezarritakoaren arabera dagozkion errekargua eta berandutze-interesak aplikatuko zaizkio.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, zuzenketa zerga-oinarria aldatzeko foru arau honen 80. artikuluan ezarritako arrazoietan oinarritzen denean, edo zuzenbideko oinarridun akats baten ondoriozkoa bada, subjektu pasiboak zuzenketa egin behar den aldiaren autolikidazioan sartu ahal izango du dagokion aldea.

Zuzenketak hasiera batean jasanarazitako kuoten murrizketa badakar, subjektu pasiboak honako aukera hauen artean hautatu ahal izango du:

a) Autolikidazioak zuzentzeko prozedura hastea Zerga Administrazioaren aurrean. Prozedura hori Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 118. artikuluko 2. zenbakian eta arau hori garatzeko araudian jasota dago.

b) Zerga egoera erregularizatzea zuzenketa egin behar den aldiari dagokion autolikidazioan edo hurrengoetan; gehienez ere, urtebetekoa izango da epe hori, zuzenketa egin behar zen unetik kontatzen hasita. Kasu horretan, subjektu pasiboak itzuli egin beharko dio operazioaren hartzaileari neurritik gora jasanarazitako kuoten zenbatekoa.

Baldin zergapeko operazioa baliorik gabe geratzen bada konkurtso-berrintegrazio baten ondorioz edo konkurtsoaren barruan egin diren aurkaratzeen ondorioz, subjektu pasiboak zuzendu egin beharko ditu hasiera batean jasanarazitako kuotak, alegia, kuotak aitortu ziren aldiari dagokion autolikidazioan jasanarazitakoak.

## VII. TITULUA
## ZERGA-TASA

### 90. artikulua. Zerga-tasa orokorra.

Bat. Aplikatuko den zerga-tasa % 21 izango da, hurrengo artikuluan xedatzen diren kasuetan izan ezik.

Bi. Eragiketa bakoitzean aplikagarri den zerga-tasa sortzapenaren unean indarrean dagoena izango da.

Hiru. Elkartetik kanpora aldi baterako esportatu eta konponketa-, transformakuntza-, moldaketa-langai edo lan-burutzapen edo beste ondasun batzuen erasgai izan ondorengo berrinportazioetan, aipatu eragiketei Zergaren aplikazio-lurraldean burutuak izan balira zegokiekeen zerga-tasa aplikatuko da.

Foru Arau honetako 23 eta 24. artikuluetan adierazten diren araubide edo egoerei loturik egon diren bitartean, zerbitzu salbuetsi soilen gai izan diren ondasunen inportazioei berdinetsitako eragiketetan, zerbitzu horiei, salbuetsirik egon ez izanez gero, zegokiekeen zerga-tasa aplikatuko da.

### 91. artikulua. Zerga-tasa txikituak

Bat.Honako jarduera hauei %10eko tasa aplikatuko zaie:

1. Ondoren adierazten diren ondasunen emateak, erkidego barruko ondasun-eskuraketak edo inportazioak:

    1. Espainiako Elikadura Kodean ezarritakoarekin eta berau garatzeko emandako xedapenekin bat etorriz, ezaugarri, aplikazio, osagai, prestaketa eta artapen egoera dela medio, jatorria dena dela, gizakien edo animalien elikadurarako ohiki eta egokiro erabil daitezkeen gaiak eta produktuak, edari alkoholdunak izan ezik.

        Edari alkoholduntzat jotzen da alkohol etilikoa eduki eta irenste bidez giza kontsumorako gai den likido oro.

        Zenbaki honi dagokionez, ez dira elikagaitzat hartuko, ez tabakoa, ez eman edo inportatzen diren egoera berean gizaki edo animalientzako kontsumigarri ez diren gaiak.

    2. Aurreko zenbakian aipatu diren gaiak era zuzenean edo beste jatorri batekoekin nahastuz ekoizteko ohiki eta egokiro erabiltzen diren animaliak, landareak eta gainerako gaiak.

        Zenbaki honetara bildu dira gizakiek edo animaliek jateko xedearekin gizentzen diren animaliak eta haiek edo aurreko lerroaldekoak ugaltzekoak.

    3. Honako ondasun hauek, berez dituzten ezaugarri objektiboak, ontziraketa, aurkezpena eta artapen-egoera direla eta, nekazaritza-, basogintza- edo abeltzaintza-jardueretarako zuzen-zuzenean, ohi edo egoki erabiltzeko gai direnean: animaliak edo landareak birsortzeko gai diren animalia edo landare jatorri hutsezko gaiak eta haziak; landare edo abere erabilerarako ongarriak, hondakin organikoak, zuzentzaileak eta zuzenketa-egileak, belar-pozoiak, pestizidak; lur-estaltze, tunel edo berotegiko laborantzarako plastikoak eta frutak batu aurretik babesteko paperezko poltsak.

    4. Gizakien edo animalien elikadurarako zein garaztatzeko egokiak diren urak, bai eta egoera solidoan daudenean ere.

    5. Albaitaritza-erabilerarako sendagaiak.

    6. Ondasun hauek:

        a) Nomenklatura Konbinatuko 30. kapituluan («Farmaziako produktuak») jasotako farmaziako produktuak, azken kontsumitzaileak zuzenean erabil ditzakeenak, baina baldin eta ez badira Bat.1 zenbaki honetako 5. azpizenbakian sartuta dauden produktuak eta artikulu honetako Bi.1 zenbakiko 3. azpizenbakian ezarritako zerga-tasa aplikatu ahal zaien produktuak.

        b) Konpresak, tanpoiak, slip-babesak, preserbatiboak eta medizinalak ez diren beste antisorgailu batzuk.

        c) Foru arau honetako eranskineko zortzigarren zenbakiarekin zerikusia duten ekipamendu medikuak, aparatuak eta tresneria, baldin eta horiek guztiak, beren ezaugarri objektiboak direla-eta, gabeziak arintzeko edo tratatzeko diseinatuta badaude, urritasun fisikoak, adimenekoak, intelektualak edo zentzumenetakoak

dituzten pertsonen erabilera esklusiborako, artikulu honetako Bi zenbakiko 1. azpizenbakian xedatutakoaren kalterik gabe.

Letra honetan ez dira sartzen ondasun horien osagarriak, ordezko piezak eta pieza aldagarriak.

7. Etxebizitza gisa erabili ahal diren eraikinak edo haien zatiak, garaje-plazak barne, gehienez bi unitate dituztenak, eta batera eskualdatzen diren eta haietan kokatuta dauden eranskinak.

   Foru arau honi dagokionez, ez dira etxebizitzen eranskintzat joko negozio-lokalak, nahiz eta eraikinekin edo etxebizitza gisa erabiltzeko diren beraien zatiekin batera eskualdatu.

   Ez dira etxebizitza gisa erabiltzeko egokitzat hartuko erraustekoak diren eraikinak, hain zuzen ere, foru arau honetako 20. Bat. 22.A) c) artikuluan aipatzen direnak.

8. Loreak, apaintzeko erabiltzen diren landare biziak, baita haziak, bulboak, kimuak eta halakoak lortzeko erabil daitezkeen landare- jatorri hutseko bestelako produktuak ere.

2. Honako zerbitzu-prestazio hauek:

   1. Bidaiarien eta haien fardelen garraioak.

   2. Ostalaritza-, kanpaketa- eta bainuetxe-zerbitzuak, jatetxekoak eta, oro har, hartzaileak aurretiaz agindurik gertatu arren ere, unean bertan kontsumitu beharreko jaki edo edarien hornidura.

      Aurreko lerroaldean ezartzen denetik salbuetsita geratuko dira ostalaritza-, ikuskizun-, diskoteka-, dantzaleku- eta barbakoa-zerbitzu mistoak eta antzeko beste batzuk.

   3. Nekazaritza, basogintza edo abeltzaintzazko ustiategien titularren alde, ustiategi horien jarduketarako beharrezkoak baitira, ondoren adierazten direnetarik egindakoak: landaketa, ereintza, txertaketa, ongarriketa, lugintza eta bilketa; produktuen enbalatzea eta egokitzapena, produktuen lehorketa, garbiketa, oskolak kentzea, zatiketa, siloratzea, biltegiratzea eta desinfektatzea barne; animalien hazkuntza, zaintza eta gizenketa; lantze-lurren nibelazioa, lurberdintzea edo zapaldatzea; laguntza teknikoa; landare eta animalia kaltegarriak ezabatzea eta landaketak eta lurrak lainoztatzea; drainatzea; zuhaitzen ebaketa, entresaka, ezpaltzea eta azal-kentzea eta basoen garbiketa; eta albaitaritza-zerbitzuak.

      Aurreko lerroaldean xedatzen dena ez da inoiz ere aplikatuko ondasunen erabilera- edo luperketa-lagapenekin edo -errentamenduekin.

      Halaber, zerga-tasa hau aplikatuko zaie nekazarien kooperatiboek beren bazkideei kooperatibaren jardueraren ondorioz eta sozietatearen helburua betetzeko asmoarekin egiten dizkien zerbitzuprestazioei, bazkideek kooperatibaren makinak erabiltzea barne.

   4. Bide publiko, parke eta lorategi publikoen garbiketa-zerbitzuak.

   5. Hondakinak bildu, biltegiratu, garraiatu, baloratu edo iraizteko zerbitzuak, estolda publikoak garbitzeko eta haietako arratoiak hiltzeko zerbitzuak, eta hondakin-urak bildu eta tratatzeko zerbitzuak.

      Aurreko lerroaldean bilduta daude hondakinak biltzeko ontzi normalizatuak laga, instalatu eta mantentzeko zerbitzuak.

Zenbaki honetan bildu dira, halaber, barneko edo itsasoko uretarako isurkinen bilketa- eta tratamendu-zerbitzuak.

6. Liburutegietarako, dokumentazio-artxibo eta –zentroetarako, museoetarako, arte-galerietarako eta pinakoteketarako sarrerak.

7. Foru arau honetako 20.Bat.8 artikuluan aipatzen diren zerbitzu- prestazioak, baldin eta haren arabera salbuetsita ez badaude eta ezin bazaie aplikatu artikulu honetako bi.2 zenbakiko 3. paragrafoan ezarritako karga-tasa.

8. Afizionatu mailako kirol-ikuskizunak.

9. Merkataritzako erakusketa eta azokak.

10. Etxebizitza-eraikinak edo haien atalak berriztatzeko eta konpontzeko egiten diren obrak, honako hauek betez gero:

   a) Hartzailea pertsona fisikoa izan behar da, ezin da aritu ez enpresaburu ez profesional gisa, eta etxebizitza beretzat erabili behar du.

      Aurreko lerroaldean xedatutakoa gorabehera, zenbaki honetan sartzen dira jabeen erkidegoei egiten zaizkien obrak.

   b) Obrak egiten diren etxebizitzaren eraikuntza- edo birgaitze- lanak obra berriak hasi baino bi urte lehenago amaituta egon behar dira.

   c) Obrak egiten dituen pertsonak ez du ekarri behar materialik obrak burutzeko; ekartzen baditu, haien kostua ezin da izan eragiketaren zerga-oinarriaren %40 baino gehiago.

11. Eraikinak edo haien elementuak, garaje-plazak barne (bi gehienez), eta haiekin batera doazen eranskinak etxebizitza gisa erabiltzeko errentatzea, erosteko aukerarekin.

12. Eraikinak, ondasun higiezinen multzoak edo multzo horien sektoreak —arkitekturari dagokionez bereizita baldin badaude— txandaka aprobetxatzeko eskubideak lagatzea, baldin eta higiezinak, gutxienez, hamar bizitegi baditu, halako zerbitzuen araudian ezarritakoaren arabera.

3. Honako eragiketa hauek:

   1. Sustatzaile eta kontratariaren artean zuzenean egiten diren obra-burutzapenak, materiala ekarrita zein ekarri gabe, baldin eta xedea batez ere etxebizitzak egongo diren eraikinak edo haien atalak (haien barnean diren lokal, eranskin, garaje, instalazio eta zerbitzu osagarriak barne) eraikitzea edo birgaitzea bada.

      Batez ere etxebizitzak egongo den eraikintzat hartuko dira eraikitzen den azaleraren % 50 horretarako duten etxebizitzak.

   2. Aurreko zenbakian aipaturiko eraikinetarako sukaldeeta komun- armairuak eta horma-armairuen salmentak (instalazioa barne), baldin eta eraikinen eraikuntzaren edo birgaitzearen sustatzailearekin zuzenean formalizaturiko kontratuen bidez egiten badira.

   3. Aurreko zenbakian aipaturiko eraikinetako edo eraikin ataletako jabeen erkidegoek eta kontratariek zuzenean egindako kontratuen ondoriozko obra-burutzapenak, materiala ekarrita zein ekarri gabe, baldin eta xedea eraikin osagarri izango diren garajeak eraikitzea bada eta erkidegoen lur edo lokaletan egiten badira eta jabe bakoitzari gehienez ere bi garaje-plaza adjudikatuko bazaizkio.

4. Arte-objektuen, antigoaleko objektuen eta bilduma-objektuen inportazioak, haien inportatzailea edozein dela ere, eta arteobjektuen emateak, pertsona hauek egindakoak badira:

   1.a. Egileek eurek edo haien eskubidedunek.

   2.a. Arau honetako 136. artikuluan zehazten diren arte-objektuen birsaltzaileak ez diren enpresaburuek edo profesionalek, baldin eta eskubidea badute ondasun bera eskuratzean edo inportatzean zuzenean jasan edo ordaindu duten zergari dagokion kenkari osoa egiteko.

5. Arte-objektuen Batasunaren barruko eskuratzeak, haien hornitzailea aurreko lau zenbakiko 1. eta 2. puntuetan aipatzen diren pertsonetako edozein bada.

Bi. Honako eragiketa hauei %4ko tasa aplikatuko zaie:

1. Ondoren adierazten diren ondasunen emateak, erkidego barruko ondasun-eskuraketak edo inportazioak:

   1. Honako produktu hauek:

      a) Ogi arrunta, ogi arrunteko ore izoztua eta ogi arrunt izoztua, ogi arrunta egiteko bakarrik erabiliak.

      b) Ogi bihur daitezkeen irinak.

      c) Edozein animaliak ekarritako honako esne motok: naturala, egiaztatua, pasteurizatua, bildua, gaingabetua, esterilizatua, UHT delakoa, lurrindua eta esne-hautsa.

      d) Gaztak.

      e) Arrautzak.

      f) Frutak, barazkiak, ortuariak, lekaleak, tuberkuluak eta laboreak, Elikadura Kodearekin eta berau garatzeko emandako xedapenekin bat etorririk produktu naturalen izaera dutenak.

   2. Publizitatea soilik edo nagusiki ez duten liburu, egunkari eta aldizkariak, eta bai ondasun hauekin batera prezio bakarrean ematen diren elementu osagarriak.

      Zenbaki honetan bilduta egongo dira liburu, egunkari edo aldizkari bat, pleguan edo jarraian, ondasun horien fotolitoa lortzea edo beren azaleztapena berehalako emaitza duten obra-burutzapenak.

      Ondore hauetarako, elementu osagarritzat joko dira liburu, egunkari edo aldizkariarekin unitate funtzionala eratu, haien edukia hobetu edo osatu eta eurekin saltzen diren magnetofoi-zintak, diskoak, bideokaseteak, eta antzeko beste soinu-euskarriak eta euskarri bideomagnetikoak, honako salbuespen hauekin:

      a) Obra musikalak soilik biltzen dituzten diskoak eta magnetofoi- zintak, beren merkatu-balioa handiagoa bada haiekin batera ematen den liburu, egunkari edo aldizkariarena baino.

      b) Pelikula zinematografikoak, telebista-saioak edo –serieak, fikziozkoak zein musikalak, biltzen dituzten bideokaseteak eta antzeko beste soinu-euskarriak eta euskarri bideomagnetikoak, beren merkatu-balioa handiagoa bada haiekin batera ematen den liburu, egunkari edo aldizkariarena baino.

c) Aurreko letretan adierazten diren euskarrietan nolanahiko bidetik grabaturiko produktu informatikoak, merkatuan modu independentean merkaturatzen diren programak edo aplikazioak nagusiki biltzen dituztenean.

Liburu, egunkari eta aldizkariek nagusiki publizitatea daukatela ulertuko da, baldin eta argitarazleari ematen dizkioten diru-sarreren %75etik gora kontzeptu horren bidez lortzen bada.

Zenbaki honetan bildutzat hartuko dira albumak, partiturak, mapak eta marrazketa-koadernoak, artikulu eta aparatu elektronikoak izan ezik.

3. Giza erabilerarako sendagaiak, bai eta forma galenikoak, formula magistralak eta prestakin ofizinalak ere.

4. Trafikoari, Ibilgailu motordunen zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onetsi duen 1990eko martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuko I. eranskineko 20. zenbakian (Ibilgailuen Araudi Orokorra onetsi duen 1998ko abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren II Aeranskinak emandako idazketan) azaldutako mugikortasun urrituko pertsonentzako ibilgailuak, bai eta desgaitasuna duten pertsonen erabilera esklusiborako gurpil-aulkiak ere.

Gurpil-aulkia behar duten pertsona desgaituak garraiatzeko erabiltzen diren autotaxi edo autoturismo bereziak, zuzenean edo moldaketa egin ondoren, bai eta gurpil-aulkian dabiltzan pertsona desgaituak garraiatzeko erabili ohi diren ibilgailu motordunak ere, moldatuak zein berariazkoak, gidaria nor den kontuan hartu gabe.

Aurreko paragrafoan azaldutako ibilgailuei zerga-tasa murriztua aplikatzeko, ezinbestekoa da eskuratzaileari, aurretik, horretarako eskubidea aitortzea eta azken horrek ibilgailua zertarako erabiliko den frogatzea.

Bi zenbaki honen ondorioetarako, desgaitasuna duten pertsonatzat hartuko dira %33ekoa edo handiagoa den desgaitasungradua duten pertsonak. Desgaitasun-gradua egiaztatzeko, Nagusien eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak edo kasuan kasuko autonomia-erkidegoko organo eskudunak emandako ziurtagiria edo ebazpena erabili behar da.

5. Desgaitasuna duten pertsonentzako protesiak, ortesiak eta barne-inplanteak.

6. Administrazioak babes ofizialeko araubide bereziko edo sustapen publikoko etxebizitza bezala sailkatutako etxebizitzak, haien ematea sustatzaileek eurek egiten badute, eraikin berean dauden eta batera eskualdatzen diren garaje eta eranskinak barne. Ondore horietarako, garaje-plazen kopurua ezin izango da bi unitatekoa baino handiagoa izan.

Sozietateen gaineko Zergaren araubide berezia aplikatzen duten erakundeek eskuratzen dituzten etxebizitzak, baldin eta gero haiek errentatuta lortzen dituzten errentei araubide berezi horretan etxebizitzen errentamenduaren ondoriozko errentetarako ezarritako hobaria aplikatu ahal bazaie.Horren ondoreetarako, erakunde eskuratzaileak horren berri jakinarazi behar dio subjektu pasiboari arauz ezarrita dagoen bezala eragiketak zerga-zorra sortarazi baino lehen.

2. Honako zerbitzu-prestazio hauek:

1. Artikulu honetako Bi.1 zenbakiko 4. azpizenbakiko lehenengo paragrafoan jasotzen diren ibilgailuak eta gurpil-aulkiak konpontzeko zerbitzuak eta desgaitasuna duten pertsonentzako autotaxien eta autoturismoen zein agindu bereko bigarren paragrafoak aipatzen dituen motor-ibilgailuen moldaketa zerbitzuak, haien gidaria nor den kontuan hartu gabe.

2. Eraikinak edo haien elementuak, garaje-plazak barne (bi gehienez), eta haiekin batera doazen eranskinak administrazio-sailkapenaren arabera araubide bereziko babes ofizialeko edo sustapen publikoko etxebizitza gisa erabiltzeko errentatzea, erosteko aukerarekin.

3. Telelaguntza-zerbitzua, etxez etxeko laguntza-zerbitzua, eguneko eta gaueko zentroen zerbitzuak eta egoitza-arreta (zerbitzuok, hain zuzen ere, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun- egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko 2006ko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko 15. artikuluko 1. paragrafoko b), c), d) eta e) letretan aipatzen dira), baldin eta zentroetan edo egoitzetan itundutako plazetan ematen badira, edo aipatutako legean ezarritakoaren arabera adjudikatutako kontratuen ondoriozko prezioak edo prezioaren %75 baino gehiago estaltzen duen zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa aplikatuta.

3. zenbaki honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko foru arau honetako 20.Bat.8 artikulua aplikatuta salbuetsita geratzen diren zerbitzuei.

Hiru. Halaber, artikulu honetako bat.1 zenbakian eta bi.1 zenbakian xedatutakoa berdin aplikatuko zaie foru arau honetako 11. artikuluan ezartzen denaren arabera zerbitzu-prestazioak diren obraburutzapenei, baldin eta haien berehalako emaitza bada ondasun bat lortzea zeinaren emateari aplikagarria zaion manu horietan aurrez ikusten diren tasa txikituetako bat.

Aurreko lerroaldeko edukia ez zaie aplikatuko artikulu honetako bat.3 zenbakian aipatzen diren obra-burutzapenei, baldin eta haien xedea babes ofizialeko araubide bereziko edo sustapen publikoko etxebizitzen eraikuntza edo birgaitzea bada.

# VIII. TITULUA
# KENKARIAK ETA ITZULKETAK

## LEHENENGO KAPITULUA
## KENKARIAK

### 92. artikulua. Tributu-kuota kengarriak.

Bat. Subjektu pasiboek herrialdearen barruan egiten dituzten zergapeko eragiketengatik sortzen diren Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotetatik hauek kendu ahal izango dituzte: lurralde berean sortuak izanik, zuzenean jasanarazi zaizkienak edo eragiketak jakin batzuei dagozkienak. Hauek dira eragiketok:

1.a. Zergaren beste subjektu pasiboren batek burutzen dituen ondasun- eta zerbitzu-emateak.

2.a. Ondasunen inportazioak.

3.a. Foru arau honetako 9. artikuluko 1. zenbakiko c) eta d) letretan, 84. artikuluko Bat zenbakiko 2. eta 4. azpizenbakietan eta 140 quinque artikuluan ageri diren ondasun- eta zerbitzu-emateak.

4.a. Foru arau honetako 13. artikuluko 1. zenbakian eta 16. artikuluan zehazten diren Batasunaren barruko ondasun-eskuraketak.

Bi. Aurreko lerroaldean ezarritako kenketa-eskubidea ez da bidezkoa izango, baldin eskuratu diren ondasun eta zerbitzuak Foru Arau honen 94. artikuluaren lehen atalean biltzen diren eragiketak burutzeko erabiltzen ez badira.

### 93. artikulua. Kenketaren beharkizun subjektiboak.

Bat. Zergaren subjektu pasiboak kenkari eskubideaz baliatu ahal izateko, enpresari edo profesional izan behar dira foru arau honetako 5. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz eta hasita izan behar dituzte euren enpresa edo lanbide jarduerei dagozkien ohiko ondasun-emateak edo zerbitzugintzak.

Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, enpresa edo lanbide jarduerei dagozkien ohiko ondasun-emateei edo zerbitzugintzei ekin aurretik jasandako edo ordaindutako kuotak foru arau honetako 111, 112 eta 113. artikuluetan xedatutakoaren arabera kendu ahal izango dira.

Bi. Halaber, Zergaren subjektu pasiboak kenkari eskubideaz baliatu ahal izango dira foru arau honetako 25. artikuluko lehen eta bigarren idatz-zatietan aipatutako garraiabideak noizean behin ematen dituztenean.

Hiru. Foru arau honetako IX. tituluan araupetutako araubide bereziak aplika dakizkiekeen arlo edo jardueretan, kenkari eskubideaz baliatzeko titulu hartan araubide berezi bakoitzerako ezarritako arauak bete behar dira.

Lau. Enpresa edo lanbide jardueretan erabiltzeko eskuratzen edo inportatzen ez diren ondasun edo zerbitzuengatik jasaten edo ordaintzen diren kuotek ez dute ekarriko inolako kenkaririk, nahiz eta gero ondasun edo zerbitzu horiek osorik zein zati batez jar-dueretarako erabili.

Bost. Zergapeko eragiketak eta, foru arau honetako 7. artikuluko 8. zenbakian ezarritakoa aplikatuta, zergapetuta ez dauden eragiketak batera egiten dituzten subjektu pasiboek aukera izango dute eragiketa batzuk eta besteak egiteko aldi berean erabilitako ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeagatik jasandako kuotak kentzeko; horretarako, zergapeko eragiketak garatzeko erabilitako ondasunei eta zerbitzuei dagozkien kuotak egozteko irizpide egoki eta homogeneo bat hartuko dute kontuan. Ondorio hauetarako, foru arau honetako 94. artikuluko Bat zenbakiko 2. azpizenbakian aipatzen diren eragiketak ere hor sartzen dira.

Irizpide horri denboran eutsi behar zaio, arrazoizko kausek eraginda aldatu behar denean izan ezik. Irizpide hori aplikatuta sortzen den kalkulua behin-behinean zehaztu ahal izango da, aurreko urte naturaleko datuak kontuan hartuta, urte bakoitzaren amaieran egin beharreko erregularizazioaren kalterik gabe.

Aurrekoa hala bada ere, ez dira kengarriak izango —ez eta proportzioan ere— foru arau honetako 7. artikuluko 8. zenbakian aipatzen diren zergapetu gabeko eragiketak egiteko soil-soilik erabili diren ondasun edo zerbitzuen eskuraketengatik edo inportazioengatik jasandako edo ordaindutako kuotak.

Zenbaki honetan ezarritako kenkariek foru arau honetako VIII. tituluko I. kapituluan ezarritako baldintzak eta betekizunak bete beharko dituzte, eta, bereziki, hainbanaketa-erregelari dagozkionak.

### 94. artikulua. Kenkariak egiteko eskubidea sorrarazten duten eragiketak.

Bat. Aurreko artikuluaren lehenengo atalak aipatu dituen subjektu pasiboek kendu ahal izango dituzte 92. artikuluan bildu diren Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak, baldin eta ondasun edo zerbitzuak, zeinen eskuraketa edo inportazioak kenkariak egiteko eskubidea zehazten baitute, subjektu pasiboak ondoko eragiketa hauek burutzean erabiltzen baldin baditu:

1. Zerga aplikatzen den gune-eremuan burutzen diren eragiketa hauek:

    a) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren menpeko eta hartatik salbuetsi gabeko ondasun-emateak eta zerbitzugintzak.

    b) Balioa ondasunen inportazioen zerga-oinarriaren barruan sarturik duten zerbitzugintzak, Foru Arau honen 83. artikuluan ezarritakoaren arabera.

c) Foru Arau honen 21., 22., 23., 24. eta 25. artikuluetan xedatutakoa dela bide, salbuesten diren eragiketak, eta bai atal honen 2. zenbakian aipatzen diren eragiketak burutzeko xedea ez duten gainontzeko Elkartetik ateko behin betiko ondasun-inportazioak ere.

d) Bidai agentziek egiten dituzten zerbitzuak, baldin eta Foru Arau honen 143. artikuluan ezartzen dena dela bide, Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsirik badaude.

2. Zergaren aplikazio-lurraldetik ate burutzen diren eragiketak, baldin eta, aipatu aplikazio-lurralde barruan eginez gero, kenkariak egiteko eskubideak sorrarazten baditu.

3. Aseguru, berraseguru eta kapitalizazio eragiketak eta hauei lotzen zaizkien zerbitzuak, eta bai banku-eta finantza- eragiketak ere, Foru Arau honen 20. artikuluaren lehenengo atalaren 16. eta 18. zenbakietan xedatutakoa dela bide, Zergaren aplikazio-lurraldean burutzen direnean, baldin eta zerbitzugintzon destinataria Elkartetik kanpoko establezimendua badu, edo aipatu eragiketak Elkartetik kanporako esportazioei zuzen loturik egon eta harako saltzen diren ondasunak igorri ondoren burutzen badira, eragiketok kontzertatu diren unea edozein dela ere.

   Aurreko lerroaldean xedatu denak ondoreak izan ditzan, enpresari edo profesionari izaera ez duten pertsona edo entitateak Elkartean ez-finkatutzat joko dira lehen aipatu lurraldean ohizko egoitza edo bigarren egoitzarik edo interes ekonomikoen zentrorik ez dutenean, eta lurralde horretan lan- edo administrazio- harremanetatik eratortzen den menpekotasuneko erregimeneko zerbitzurik egiten ez dutenean.

Bi. Aurreko artikuluaren bigarren atalean bildurik dauden subjektu pasiboek Foru Arau honen 25. artikuluaren bigarren atalean aipatu den ematearen gai izan daitezkeen garraiobideen eskuraketarengatik jasaten den edo ordaindu den Zerga kendu ahal izango dute, emate hori salbuetsita ez balego jasanarazi beharko litzatekeen Zergaren kuotaren zenbatekoa jo arte.

Hiru. Inoiz ere ez dira bidezkoak izango legez egoki diren kuoten zenbatekoetatik gorako kenketak, ez eta zuzenbidearen arabera sortzapena izan baino lehen egiten direnak ere.

**95. artikulua. Kenkariak egiteko eskubidearen mugak.**

Bat. Enpresari edo profesionariek ezin izango dituzte beren jarduerari, zuzen eta esklusiboki, lotzen ez zaizkien ondasun- eta zerbitzu- eskuraketa edo inportazioengatik jasaten edo ordaintzen diren kuotak kendu.

Bi. Ondoko hauek, besteak beste, ez dira enpresari- edo lanbide-jarduerari lotutzat joko:

1. Jarduera hori eta txandakako denboraldiez enpresari- edo lanbide-izaerarik ez duten beste batzuk egiteko erabiltzen diren ondasunak.

2. Enpresari- edo lanbide-jardueretarako eta beharrizan pribatuetarako aldi berean erabiltzen diren ondasun edo zerbitzuak.

3. Subjektu pasiboaren enpresari- edo lanbide-jardueraren kontabilitatean edo erregistro ofizialetan ez dauden ondasun eta eskubideak.

4. Subjektu pasiboak eskuratzen duen enpresari- edo lanbide-ondarearen barruan ez dauden ondasun eta eskubideak.

5. Enpresari edo profesionarien, hauen senitartekoen edo berauen menpeko langileen norbanakoei buruzko beharrizan pertsonalak betetzeko erabiltzen diren ondasunak, salbu eta enpresaren lokal edo instalazioetan zaintza eta segurtasunaz arduratzen diren langileei dohainik ostatu emateko xedea dutenak eta aipatu jardueraren zerbitzuko langilegoaren ekonomi eta gizarte-kultur zerbitzuetakoak.

Hiru. Aurreko ataletan xedatutakoa gora-behera, enpresa- edo lanbide-jardueraren garapenean erabiltzen diren inbertsioko ondasunak eskuratu, inportatu eta errentan eman edo beste titulu batengatik haien erabilera lagatzeak jasandako kuotak kendu ahalko dira erregela batzuen arabera. Erregela horiek honakook dira:

1.a. Inbertsioko ondasun horiek hurrengo erregelakoak ez izatea, ondasun horiek, aurrikusitakoaren arabera, funtsa duten irizpideekin bat etorririk enpresa- edo lanbide-jardueraren garapenean erabiltzen diren neurrian.

2.a. Ondasun horiek turismoko ibilgailu automobilak eta berauen atoiuntziak, ziklomotoreak eta motozikletak izatea. Horrelakorik gertatuz gero, horiek 100eko 50eko proportzioan egongo dira enpresa-edo lanbide-jardueraren garapenari lotuta.

Ondorio horietarako, turismoko ibilgailu automobil eta berauen atoiuntzi, ziklomotore eta motozikletatzat hartuko dira martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren Eraskinean horrelakotzat definitutakoak. Errege dekretu horren bitartez onetsia da Trafikoari, Motoredun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua. Era berean, horrelakotzat hartuko dira eraskin horretan ibilgailu misto bezala definitutakoak eta, edozein kasutan, mendirako ibilgailuak edo «jeep»erakoak.

Bigarren erregelan xedatutakoa gora-behera, jarraian aipatuko ditugun ibilgailuak 100eko 100eko proportzioan egongo dira enpresa- edo lanbide-jardueraren garapenari lotuta:

a) Merkatugaien garraioan erabilitako ibilgailu mistoak.

b) Kontraprestazioaren bitartez bidaiariak garraiatzeko zerbitzugintzan erabilitakoak.

c) Kontraprestazioaren bitartez gidariei edo pilotoei irakasteko zerbitzugintzan erabilitakoak.

d) Beraien fabrikatzaileek probak, entseiuak, erakuspenak edo salmenten sustapena egiteko erabilitakoak.

e) Merkataritzako ordezkarien edo agenteen joan-etorri profesionaletan erabilitakoak.

f) Jagoletza-zerbitzuetan erabilitakoak.

3.a. Aurreko erregeletan aipatuta dauden kenkariak erregularizatu beharko dira ondasunek enpresa- edo lanbide-jardueraren garapenean duten erabileraren benetako maila hasieran aplikatutakoaren ezberdina dela egiaztatzen denean.

Erregularizazio hori inbertsioko ondasunak erosteak jasandako kuotak kendu eta erregularizatzeko foru arau honen VIII. Tituluaren I. Kapituluan ezarritako prozedurara egokituko da. Horretarako, osotik kentzeko eskubidea sortzen duten eragiketen portzentaiaren ordez jarriko da enpresa- edo lanbide-jardueraren garapeneko erabilera maila erakusten duen portzentaia.

4.a. Enpresa- edo lanbide-jardueraren garapeneko erabilera maila subjektu pasiboak kreditatu beharko du zuzenbidean onartutako edozein frogabideren bitartez.

Ez da frogabide nahikoa izango subjektu pasiboak aurkeztutako aitorpen likidazioa, ezta beharrezko inbertsio-ondasunak enpresa- edo lanbide-jardueraren erregistro ofizialetan kontabilizatu edo sartzea ere.

5.a. Atal honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ezein proportziotan ez dira enpresa-edo lanbide-jarduera bati lotuta egongo artikulu honen bigarren atalaren 3. eta 4. zenbakietan ezarritako balizkoetan dauden ondasunak.

Lau. Era berean, aurreko atalean xedatutakoa aplikatuko zaie atal horretan aipatuta dauden ondasunekin zuzenean lotutako honako ondasun eta zerbitzuok erostearen- gatik edo inportatzearengatik jasandako edo ordaindutako kuotei:

1.a. Ondasun horietarako akzesorioak eta ordezteko piezak.

2.a. Erregaiak, karburagaiak, lubrifikatzaileak eta haiek ibiltzeko beharrezko diren energi produktuak.

3.a. Bidesaridun bideak erabiltzeko eta aparkatzeko zerbitzuak.

4.a. Beraiek berriro gaitzea, berriztatzea eta konpontzea.

**96. artikulua. Kenkariak egiteko eskubidearen baztertze eta murrizketak.**

Bat. Ezin ezein proportziotan kenduko dira honako ondasunok eta zerbitzuok eta berauen akzesorioak edo osagarriak eskuratu, autokontsumitu, inportatu, errentan hartu, transformatu, konpondu, artatu edo erabiltzearen ondorioz jasandako kuotak:

1.a. Bitxiak, edergarriak, harri bitxiak, perla naturalak eta landuak, eta urrez edo platinoz osorik edo partzialki egindako gauzakiak.

Zerga horren ondorioetarako, harri bitxitzat hartuko dira diamantea, errubia, zafiroa, esmeralda, aguamarina, opaloa eta turkesa.

2.a. ...

3.a. Elikagaiak, edariak eta tabakoa.

4.a. Ikuskizunak eta jolas-zerbitzuak.

5.a. Bezeroei, alokairupekoei edo gainontzeko pertsonei jaramon egiteko ondasun eta zerbitzuak.

Horrelakotzat honakook ez dira hartuko:

a) Doaneko erakusgaiak eta balio urriko publizitate-gauzakiak, foru arau honen 7. artikuluko 2. eta 4. zenbakietan zehaztutakoak.

b) Erabilera zuzenean edo transformazio bidez, kostubidez, eman edo lagatzen zaien ondasunak. Transformazio horren bidez bezeroei, alokairupekoei edo gainontzeko pertsonei jaramon egiteko ondasun bihurtuko lirateke.

6.a. Lekuz aldatzeko eta bidaiatzeko zerbitzuak, ostatuak eta lehengoratzeko zerbitzuak, berauen zenbatekoa zergari begira kendu ahal den gastutzakoa ez bada Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo Sozietateen gaineko Zergaren ondorioetarako.

Bi. Aurreko atalean xedatutakotik salbuetsita daude haietan aipatutako eta ondasun eta zerbitzu jakin batzuei lotutako eragiketen ondorioz jasandako kuotak. Ondasun eta zerbitzu horiek honakook dira:

1.a. Objektiboki hartuta industriako, merkataritzako edo nekazaritzako aplikaziokoak, aplikazio klinikokoak edo zientifikokoak diren ondasunak.

2.a. Erabilera kostubidez zuzenean edo transformazio bidez eman edo laga bakarrik egiten zaien ondasunak. Transformazio hori eragiketa horiek burutzeaz arduratu ohi diren enpresari edo profesionalek egingo lukete.

3.a. Eragiketa horiek burutzeaz arduratu ohi diren enpresari edo profesionalek egindakoak izateko jasotako zerbitzuak.

Hiru. Artikulu honetan eta aurrekoan ezarritako kenkariak ere foru arau honen VIII. tituluaren I. kapituluan ezarritako baldintzetara eta beharkizunetara egokituko dira, eta, zehazki, lain-erregelari dagozkionetara.

**97. artikulua. Kenketaren erazko beharkizunak.**

Bat. Kenkariak egiteko eskubidea eskubide horri buruzko frogagiria duten subjektu pasiboek baino ezin izango dute erabili.

Ondore horietarako, kenkariak egiteko eskubideari buruzko frogagiritzat jarraikoak soilik hartuko dira:

1.a. Ematea burutzen edo zerbitzua egiten duenak, bere kontura zein besterenean ari dela, luzatzen duen jatorrizko faktura, arauz ezarritako betekizunak betez gero.

2.a. Zergaren kargapeko Batasunaren barruko eskuraketa dakarren ematea egiten duenak emandako jatorriko faktura, baldin eta eskuraketa behar bezala agertarazi bada Foru Arauko 164. artikuluko lehenengo idatz-zatiko 6. zenbakian aipatutako aitorpen-likidazioan.

3.a. Inportazioetan, Administrazioak egindako likidazioa jasotzen duen agiria; eragiketa inportazioarekin berdinetsita badago, Zergaren kargaren ziozko kopurua jasotzen duen autolikidazioa.

4.a. Ondasuna eman duenak edo zerbitzua egin duenak (Zergaren subjektu pasiboa denak) emandako jatorrizko faktura edo eragiketaren kontabilitateko frogagiria, foru arau honetako 84. artikuluko lehenengo idatz-zatiko 2., 3. eta 4. zenbakietan eta 140 quinque artikuluan aipatutako kasuetan, baldin eta ematea edo zerbitzugintza behar bezala agertarazi bada foru arau honetako 164. artikuluko lehenengo idatz-zatiko 6. zenbakian aipatutako autolikidazioan.

Ondasuna eman duenak edo zerbitzua egin duenak Batasunean badauka egoitza, aurreko paragrafoan aipatutako jatorrizko fakturak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren sistema komunari buruzko 2006/112/CE Zuzentarauko 226. artikuluak ezarritako betekizunak bete behar ditu.

5.a. Foru arau honetako 134. artikuluko hirugarren idatz-zatian aipatutako nekazaritza-, basozaintza-, abeltzaintza- edo arrantza- ustiapenaren titularrak sinatzen duen jatorrizko ordainagiria.

Bi. Legez eta arauz ezarritako betekizun guzti-guztiak bete ezean, aurreko agiri horiek ez dute frogatuko kenkaria egiteko eskubidea, haiek zuzendu ezean. Kuotetan kenkaria aplikatzeko eskubidea zuzenketa-agiri baten bidez frogatzen bada, enpresariak edo profesionalak agiria jasotzen duen zergaldian soilik baliarazi ahal izango da, eta hurrengoetan baliaraztekotan foru arau honetako 100. artikuluan epea amaitu baino lehen egin behar da, 114. artikuluko bigarren idatz-zatian xedatutakoaren kalterik gabe.

Hiru. Inoiz ere ez da onartuko kenkariaren frogagiriaren arabera jasan edo, hala denean, ordaindu, eta berariaz eta banaka zainpetutako zerga-kuota baino gehiago kentzeko eskubidea.

Lau. Zenbait subjektu pasibok baltzuan eskuratzen dituen ondasunak direnean, eskuratzaile bakoitzak beraren zatiari dagokion heineko kenkaria aplikatu ahal izango du, baldin eta jatorrizko fakturan eta haren bikoizkin bakoitzean, argi eta banan-banan, eskuratzaile bakoitzari doakion zerga-oinarria eta kuota jasangarria zainpetzen badira.

**98. artikulua. Kenkariak egiteko eskubidearen sorrera.**

Bat. Kuota kengarriek sortzapena duten unean sortzen da kenkariak egiteko eskubidea, ondoko ataletan, aurrikusiko diren kasuetan ezik.

Bi. ...

Hiru. Foru Arau honen 5. artikuluaren lehenengo atalaren e) puntuan aipatu diren pertsonek burutzen dituzten garraiobide berrien emateetan, eragiketari doakion ematea gauzatzen den unean sortzen da kenkariak egiteko eskubidea.

Lau. Foru Arau honetako 135. artikuluko bigarren atalean aipatzen diren arte-objektu, antzinateko eta bilduma-objektuen eskuraketa edo inportazioa dela eta, jasandako edo ordaindutako kuoten kenkarirako eskubidea ondasun horien emateei dagokien Zergaren sortzapena gertatzen den unean sortuko da.

Bost. Ondasun eta zerbitzuak bidaia bat egiteko eskuratu edo inportatzen badira, ondasun-zerbitzuok —zuzenean— foru arau honetako 146. artikuluan aipatzen diren bidaiariaren onerako badira eta bidaia-agentzien araubide berezia aplikatu ezin zaion eragiketaren baterako erabiltzen badira (147. artikuluan ezarritakoarekin bat), bada, orduan, eskuraketa eta inportazio horiei dagokien zerga sortzen den unean sortuko da eragiketa horiengatik jasandako edo ordaindutako kuotak kentzeko eskubidea.

**99. artikulua. Kenkariak egiteko eskubidearen erabilera.**

Bat. Likidazioaldi bakoitzari dagozkion aitorpen-likidazioetan, subjektu pasiboek likidazioaldi horretan eta Zergaren aplikazio-lurraldean ondasun-emateak, eta Elkartebarneko ondasun-eskuraketa edo zerbitzugintzen ondorioz sortzen diren Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuoten guztirako zenbatekotik aipatu aldian jasaten diren kuota kengarrien guztirako kopurakina osoan kendu ahal izango dute.

Bi. Kenkariak eskuratzen diren ondasun eta zerbitzuen ustezko erabileraren arabera egin beharko dira, erabilera hau aldatzekotan, ondoren egingo litzatekeen zuzenketaren kalterik gabe. Hala ere, behar bezala frogatuz gero, subjektu pasiboari egoztezineko kariz eskuratu edo inportatu diren ondasunak deuseztu edo galduko balira, aipatu zuzenketa ezin izango litzateke eskatu.

Hiru. Titularrak kuota kengarriak jasan izan dituen likidazioaldiari dagokion autolikidazioan edo hurrengoetan baino ezin izango da gauzatu kenkarirako eskubidea, baldin eta eskubide hori sortzen denetik hasita lau urteko epea igaro ez bada.

Hala ere, konkurtso-deklarazioaren kasuan, aldez aurretik jasandako kuoten kenkarirako eskubidea (baldin eta kenkaria aplikatu gabe badute) kuota horiek jasan diren likidazio-aldiari dagokion autolikidazioan gauzatu beharko da.

Autolikidazio horietan ez direnean sartu aurreko lerrokadan aipatu diren jasandako kuota kengarriak, kuota horien kenkarirako eskubidea sortzen denetik hasita lau urte igaro ez badira, konkurtsopekoak edo, Konkurtsoari buruzko Legearen 86.3 artikuluan ezarritako kasuetan, konkurtso administrazioak kendu egin ahal izango ditu, jasan ziren aldiari dagokion autolikidazioan zuzenketa eginez.

Administrazioak errekerimendua egin duenean edo ikuskapenen bat izan denean, jasandako kuotak, zerga honetarako arauz ezarritako erregistro-liburuetan behar bezala kontabilizatutakoak, kengarriak izango dira dagozkion likidazioetan, baina kontabilizatu ez diren kuotak, berriz, kontabilizatu diren aldiari dagokion autolikidazioan edo hurrengoetan izango dira kengarriak. Dena dela, lehen lerrokadan aipatutako epea igaro ez bada bakarrik izango dira kengarriak kuota batzuk eta besteak.

Foru arau honen 5. artikuluko Bat atalaren e) letran aipatutako noizbehinkako salmenten kasuan, kenkaria aplikatzeko eskubidea dagozkion garraiobide berriak entregatzen diren aldiari dagokion aitorpenean baino ezin izango da gauzatu.

Lau. Kuota kengarriak jasan dituen enpresaburuak edo profesionalak faktura egokia edo kenkaria aplikatzeko eskubidea frogatzen duen agiria jasotzen duenean jasantzat joko dira.

Zergaren sortzapena faktura jaso ostean gertatzen bada, kuotak sortzen direnean jasantzat joko dira.

Foru arau honetako 98. artikuluko laugarren idatz-zatian aipatutako kasuetan, kuotak kenkaria aplikatzeko eskubidea sortu denean jasantzat joko dira.

Bost. Bidezko kenkarien zenbatekoak likidazio-aldi berean sortutako kuoten zenbatekoa gainditzen duenean, gaindikin hori hurrengo autolikidazioetan konpentsatu ahal izango da, baldin eta gaindikin hori ageri den autolikidazioa aurkeztu denetik lau urte igaro ez badira.

Hala ere, subjektu pasiboak bere alde ateratzen den saldoa itzultzea aukeratu ahal izango du, titulu honen II. kapituluan xedatutakoaren arabera bidezkoa denean, baina kasu horretan ezin izango du konpentsaziorik egin hurrengo autolikidazioetan, itzulketa gauzatu arte igarotako denbora edozein dela ere.

Konkurtso-deklarazioaren aurretik izandako zergapeko egitateekin loturiko autolikidazioan -arauz dago ezarrita-, konpentsatu beharreko saldo metatu guztiak, deklarazio horren aurreko likidazio- aldiei dagozkienak, aplikatu beharko dira.

### 100. artikulua. Kenkariak egiteko eskubidearen iraungipena.

Kenkariak egiteko eskubidea titularrak Foru Arau honen 99. artikuluan zehaztu diren epe eta zenbatekoen arabera erabili ez duenean iraungitzen da.

Hala ere, kenkaria egiteko eskubidearen bidezkotasuna edo kenkariaren zenbatekoa administrazio edo jurisdikzio bidez ebazteke dagoen hizka-mizkaren baten pentsura dagoenetan, eskubide hori ebazpena edo epaia tinkoak diren egunetik zenbatzen hasi eta bost urte igaro daitezenean iraungiko da.

### 101. artikulua. Kenkarietarako araubidea enpresa- edo lanbide-jardueraren arlo bereizietan.

Bat. Enpresa- edo lanbide-jardueraren sektore bereizietan ekonomia-jarduerak egiten dituzten subjektu pasiboek bereizita aplikatu beharko dute kenkarien araubidea, sektore bakoitzari dagokionez.

Hainbaketa bereziaren erregela bereizita aplikatu ahal izango zaio enpresa- edo lanbide-jardueraren sektore bereizietako bakoitzari; sektoreok foru arau honetako 9. artikuluko 1. zenbakiko c) letrako a’), c’) eta d’) azpiletretan xedatutakoaren arabera zehaztuko dira.

Foru arau honetako 9. artikuluko 1. zenbakiko c) letrako b’) azpiletran xedatutakoa aplikatuz zehaztutako jarduera-sektore bereiziei dagozkien kenkarien araubideak foru arau honetan araubide berezi errazturako, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezirako, inbertsio-urrearekin egiten diren eragiketen araubide berezirako eta baliokidetza-errekarguaren araubide berezirako ezarritakoak eraenduko ditu, kasu bakoitzean dagokionak.

Ondasunak edo zerbitzuak jarduera-sektore bereizi batzuetan batera erabiltzeko eskuratu edo inportatzen direnean, foru arau honetako 104. artikuluko Bi zenbakian eta hurrengoetan ezarritakoa aplikatuko da eskuraketa edo inportazio horietan jasandako kuotei begira aplikatu ahal den kenkariaren portzentajea zehazteko. Horretarako, sektore bereizietan egindako eragiketak konputatuko dira, eta kontuan hartuko da nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide berezian edo baliokidetza-errekarguko araubide berezian sartuta dauden eragiketek ez dutela sortzen kenkariak egiteko eskubiderik.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren salbuespen gisa, ez dira kontuan hartuko erakunde-taldearen jarduera-sektore bereizian egindako eragiketak. Halaber, eta paragrafo horretan ezarritakoa aplikatu ezin denean, ondasun eta zerbitzu horiek aldi berean erabiliko badira araubide berezi erraztua duten jardueretan eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubidea edo baliokidetzaerrekarguaren araubide bereziaren menpeko beste jarduera batzuetan, kenkariaren portzentajea %50 izango da araubide erraztuaren ondorioetarako, baldin eta afektazioa araubide berezietako biren menpeko jarduerekikoa bada, edo heren batekoa beste kasu batean.

Bi. Zerga-administrazioak subjektu pasiboaren enpresa- edo lanbide-jardueraren arlo bereizien amankomuneko kenkari-araubidea aplikatzea baimendu ahalko du. Arlo horiek arau honen 9. artikuluaren 1. zenbakiko c) letrako a’) letran xedatutakoa aplikatuta bakarrik zehaztuko dira.

Baimenak ez du ondoriorik izango amankomuneko kenkari-araubidearen aplikazioz kendu ahal diren kuoten kopurakin osoak arlo bereizi bakoitzari begirako kenkari-araubidea lokabe aplikatuz gerozkoa 100eko 20an gainditzen duen urtean.

Emandako baimenak indarrean iraungo du elkarren ondorengo urteetan, subjektu pasiboak bera ezeztatu edo berari uko egin arte.

Arauz ezarriko dira atal honetan aipatuta dauden baimenak egokitu behar diren beharkizunak eta prozedura.

**102. artikulua. Lainari buruzko araua.**

Bat. Lainaren erregela aplikatuko da, baldin eta subjektu pasiboak enpresa- edo lanbide-jarduera burutzeko batera burutzen baditu ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak, kenkarirako eskubidea sortzen dutenak, eta eskubide hori burutzeari bide ematen ez dioten izaera beretsuko beste eragiketa batzuk.

Bi. Aurreko atalean xedatutakoa gora-behera, subjektu pasiboek oso-osoan kendu ahal izango dituzte ondasun- eskuraketa edo inportazioetan edota zerbitzugintzetan jasaten diren kuotak, baldin eta Foru Arau honen 9. artikuluaren 1. zenbakiaren d) puntuan bildutako izakin eta autokontsumoak osatzen dituzten ondasunak gaitzat dauzkaten eta artikulu horren zenbaki bereko c) puntuan aipatzen diren autokontsumoak burutzeko erabiltzen badira.

**103. artikulua. Lain motak eta hauen aplikaziorako irizpideak.**

Bat. Lainari buruzko araua aplikatzeko bi modu izango dira: orokorra eta berezia.

Lain orokorrari buruzko araua hurrengo atalean azaltzen diren inguruabarrak gertatzen ez direnean aplikatuko da.

Bi. Lain bereziari buruzko araua ondoko kasu hauetan izango da aplikagarri:

1. Subjektu pasiboek delako arauaren aplikazioa aukeratzen dutenean, arau bidez zehazten diren epe eta eraren arabera.

2. Hainbanaketa orokorraren erregela urte natural batean aplikatuz kengarriak diren kuoten zenbateko osoa %10 handiagoa edo oraindik handiagoa bada hainbanaketa bereziaren erregela aplikatuz aterako litzatekeena baino.

**104. artikulua. Lain orokorra.**

Bat. Lain orokorraren erregela aplikatzen denean, likidazio-aldi bakoitzean jasandako Zerga bakarrik kendu ahalko da, hurrengo bigarren atalean xedatutakotik ateratzen den proportzioan.

Aurreko ahapaldian xedatutakoa aplikatzeko ez dira jasandako Zergan konputatuko foru arau honen 95. eta 96. artikuluetan xedatutakoaren arabera kendu ezin diren kuotak.

Bi. Aurreko atalean aipatuta dagoen kenkariaren portzentaia honako eragiketa hau eginez zehaztuko da: honakook agertzen diren frakzio batetik ateratzen dena bider ehun:

1.a. Zatikizunean, subjektu pasiboak bere enpresari- edo lanbide-ihardueranedo, hala denean, egoki den sektore berezian burutu eta kenkariak egiteko eskubidea sortzen duten ondasun-emateen eta zerbitzugintzen guztirako zenbatekoa, egutegiko urte bakoitzerako zehaztua.

2.a. Zatitzailean, subjektu pasiboak bere enpresari- edo lanbide-iharduean edo, hala denean, egoki den sektore berezian burutzen dituen ondasun-emateen eta zerbitzugintzen guztirako zenbatekoa, denboraldi bererako zehaztua, kenkariak egiteko eskubiderik sortzen ez dutenak ere barne.

Zergatik salbuetsirik dauden eta legezko ordainbide diren dibisak, banku-bileteak eta monetak lagatzeko eragiketetan, zatitzailean konputatu beharreko zenbatekoa aipatu ordainbideen birsalmentaren kontraprestazioari dagokiona izango da, hala denean jaso diren komisioen dirukopurua gehituz edo horien eskuraketa prezioa gutxituz edo, baldin eta azken hau ezin bada zehaztu, egun berean eskuratzen diren izaera bereko beste dibisa, bilete edo moneta batzuen prezioa gutxituz.

Finantza-entitateen karteran integraturik ez dauden ordaindukoak eta baloreak lagatzeko eragiketetan, zatitzailean konputatu beharreko zenbatekoa aipatu efektuen birsalmentaren kontraprestazioari dagokiona izango da, hala denean korritu eta komisio eskagarriak gehituz eta efektuon eskuraketa prezioa gutxituz.

Finantza-entitateen karteran integraturik dauden baloreak balira, lainaren zatitzailean egoki den denboraldirako korritu eskagarriak konputatu beharko lirateke, eta aipatu baloreon eskualdaketarik izango balitz, lorturiko gainbalioak ere.

Aurreko irizpideok aplikatuz ateratzen den kenkari-laina goiko unitatearen arabera borobilduko da.

Hiru. Kenkariaren ehunekoa zehazteko ez dira ondoko elementu hauek erlazioaren ezein aldetan konputatuko:

1. Zergaren aplikazio-lurraldetik kanpo kokaturik dauden establezimendu iraunkorretatik burutzen diren eragiketak.

2. Aurreko atalean aipatzen diren eragiketak zuzen kargatu dituzten Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak.

3. Subjektu pasiboak bere enpresari- edo lanbide-jardueran erabili dituen inbertsiorako ondasun-emateen eta esportazioen zenbatekoa.

4. Subjektu pasiboaren ohizko enpresari- edo lanbide-jardueran sartzen ez diren higigarriei buruzko eragiketak eta finantza-eragiketak.

   Beti ere joko da subjektu pasiboaren ohizko enpresari- edo lanbide-jardueratzat errentamenduari doakiona.

   Ondore hauetarako, Foru Arau honen 20. artikuluaren lehenengo atalaren 18. zenbakian deskribatu diren eragiketak finantza-eragiketatzat hartuko dira, salbuetsirik ez daudenak ere barne.

5. Foru Arau honen 7. artikuluan xedatu denaren arabera Zergari loturik ez dauden eragiketak.

6. Foru Arau honen 9. artikuluaren 1. zenbakiaren d) puntuan aipatu diren eragiketak.

Lau. Laina kalkulatzeko, eragiketen guztirako zenbatekotzat hartuko da hauei dagozkien kontraprestazioen batura, eragiketok Foru Arau honen 78. eta 79. artikuluetan xedatutakoaren arabera zehaztu eta Zergatik salbuetsirik edo hari loturik ez dauden eragiketei doakiena ere barne delarik.

Aurreko lerroaldean xedatu denak ondoreak izan ditzan, kontraprestazioa Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zerga-oinarria baino txikiagoa den eragiketetan, azken honen zenbatekoa konputatu beharko da haren ordez.

Beste estatu kide batzuetaranzko emateak edo behin betiko esportazioak direnean, eta kontraprestaziorik ezean, eragiketaren zenbatekotzat eman edo esportatu diren produktuen Zergaren aplikazio-lurraldearen barneko merkatuko balioa joko da..

Bost. Zergaren aplikazio-lurraldetik kanpo egiten diren lan-burutzapen eta zerbitzugintzetan, eragiketaren zenbatekotzat hartuko da Zergaren aplikazio-lurraldean jasaten den kostuaren zatiari dagokion kopuruari eragiketaren guztirako kostua zatikatzetik ateratzen den koefizienteari kontraprestazioaren guztirakoa biderkatuz ateratzen den emaitza.

Aurreko lerroaldean xedatu denaren ondoreetarako, enpresaren menpeko pertsonalaren gastuak ez dira konputatuko.

Sei. Aldi baterako egozketa burutzeko aplikagarri izango dira, aurreko zenbakietan bildu diren eragiketei dagokienez, Foru Arau honen IV. tituluan ezarri diren Zergaren sortzapenari buruzko arauak.

Hala ere, Foru Arau honen 21. artikuluan xedatutakoa dela bide, Zergatik salbuetsirik dauden esportazioak eta ondasunen gainontzeko behin betiko esportazioak, ondore hauetarako, burututzat emango dira aduanak kasuan kasuko irteera-eskabidea onartzen duen unean.

**105. artikulua. Lain orokorraren prozedura.**

Bat. Artikulu honen bigarren eta hirugarren ataletan xedatutakoa ezik, egutegiko urte bakoitzeko aplikatuko den behin-behineko kenkariaren portzentaia aurreko urterako behin betikotzat finkatzen dena izango da.

Bi. Aurreko atalean ezarritakoaz beste portzentaia baten aplikazioa eskatu ahal izango da hura nabarmen aldarazteko inguruabarrak gertatzen diren kasuetan.

Hiru. Enpresari- edo lanbide-jardueren ekitaldiaren edo, hala denean, jarduerok hasi aurretiko kenketa-erregimenari lotzen zaizkion subjektu pasiboen jardueraren sektore desberdinen ekitaldiaren lehenengo urteari aplikagarri zaion behin-behineko kenketa-portzentaia Administrazioak zehazten duena izango da, Foru Arau honen 111. artikuluaren bostgarren atalean ezartzen denarekin bat etorriz.

Enpresari- edo lanbide-jarduerak edo sektore desberdinetakoak hasi aurretiko kenketa-erregimena aplikagarria izan ez den kasuetan, jarduerok hasten diren egutegiko urtearen behin-behineko portzentaia Foru Arau honen 111. artikuluan ezartzen denaren antzeko eran finkatuko da.

Lau. Egutegiko urte bakoitzari dagokion Zergaren azken aitorpen-likidazioan subjektu pasiboak aipatu egutegiko urtean burutu dituen eragiketen arabera kalkulatuko du behin betiko kenkariaren laina eta behin-behineko kenkariei doakien araupeketa egingo du.

Bost. Enpresari- edo lanbide-jarduerak edo, hala denean, sektore desberdinetakoak egutegiko urte batean edo gehiagotan etenez gero, aipatu urte bakoitzean aplikatu beharreko behin-behineko kenkariaren portzentaia eragiketak burutu diren egutegiko azken hiru urteetakoei oso-osoan eta batera dagokiena izango da.

Sei. Kenkariaren portzentaia, artikulu honen aurreko ataletan xedatutakoaren arabera zehaztua, subjektu pasiboak ekitaldiari doakion egutegiko urtean jasaten duen kuoten baturari

aplikatuko zaio, Foru Arau honen 95. eta 96. artikuluetan ezarritakoa dela bide, kengarri ez diren kuotak ezik.

### 106. artikulua. Lain berezia.

Bat. Lain bereziaren kenkaria aplikatzeko eskubidea ondoko erregelei lotuko zaie:

1.a. Kenkari-eskubidea sortzen duten eragiketak burutzeko bakarrik erabilitako ondasunak edo zerbitzuak eskuratzean edo inportatzean jasandako zerga kuotak osorik ken daitezke.

2.a. Kenkari-eskubidea sortzen ez duten eragiketak burutzeko bakarrik erabilitako ondasunak edo zerbitzuak eskuratzean edo inportatzean jasandako zerga kuotak ezin dira kendu.

3.a. Kenkari-eskubidea sortzen duten eragiketak burutzeko zati batean erabilitako ondasunak edo zerbitzuak eskuratzean edo inportatzean jasandako zerga kuoten zati bat ken daiteke, hain zuzen ere guztirako zenbatekoari 104. artikuluko bigarren idatz-zatian eta hurrengoetan aipatutako ehunekoa aplikatzearen emaitzakoa.

Ehuneko hori aplikatzean foru arau honetako 105. artikuluan ezarritako prozedura-arauak bete behar dira.

Bi. Inoiz ere ez dira kengai izango Foru Arau honen 95. eta 96. artikuluetan xedatutakoa dela bide, kengarri ez diren kuotak.

### 107. artikulua. Inbertsio-ondasunengatiko kenkarien erregularizazioa.

Bat. Inbertsio-ondasunen eskuraketa edo inportazioarengatiko kuota kengarriak subjektu pasiboek eragiketok burutu urtearen osteko egutegiko lau urteetan zehar erregularizatu beharko dira.

Dena den, ondasunok benetan erabiltzea edo ihardunean jartzea haiek eskuratu edo inportatu ondoren gertatzen denean, erregularizazioa aipatu inguruabarrak jazotzen diren urtean eta hurrengo lau urteetan burutuko da.

Atal honetan adierazten diren erregularizazioak aipatu urte bakoitzari dagokion behin betiko kenkariaren portzentaiaren eta jasanarazpena jasaten den urtean nagusitzen denaren artean hamar puntutako aldea dagoenean baino ez dira egingo.

Bi. Halaber, aurreko atalak aipatzen duen erregularizazioa aplikatuko da subjektu pasiboek inbertsio-ondasunen eskuraketaren urtean kenkariak egiteko eskubidea sortzen duten eragiketak besterik burutu ez dituztenean edo, bestela, eskubide hori sortzen ez duten eragiketak, eta, ondoren, egoera hori aurreko atalean aurrikusten denaren arabera hurrengo urteetan aldatzen denean.

Hiru. Lurrak edo eraikinak direnetan, eskuraketaren ziozko kuota kengarriak dagokion eskuraketaren ondorengo bederatzi egutegi-urteen barruan erregularizatu beharko dira.

Hala ere, horien benetako erabilera edo iharduna eskuratu ostean hasten badira, erregularizazioa inguruabarrok gertatzen diren urtean eta hurrengo bederatzi egutegi-urteetan burutuko da.

Lau. Inbertsio-ondasunen eskuraketa edo inportazioa egin edo, hala denean, hauen benetako erabilera edo iharduna hasi ostean jasaten diren zerga-kuoten erregularizazioa, kuotok jasaten diren urtea amaitu orduko eta aipatu inguruabarrak gertatu diren egunetik aurrera eta ordutik igarotzen den urte bakoitzeko burutu beharko da.

Bost. Artikulu honetan xedatzen dena ez da aplikagarria izango Foru Arau honen 7. artikuluaren 1. zenbakian aipatzen diren eragiketetan, eskuratzailea berez eskualdatzailearen egoeran ordainezarririk geratzen dela.

Halakoetan, erregularizazioaldiko urtean eta aldi hori bukatzeko falta diren urteetan zehar, ondasunongatiko kenkarien erregularizazioa egiteko aplika daitekeen kenketa-laina eskuratzaileari doakiona izango da.

Sei. Inbertsio-ondasunak subjektu pasiboari egoztezineko eta behar bezala frogatuzko kariz galdu edo behin betiko deuseztatuko balira, aipatu inguruabarra gertatu osteko urteetan ezin izango litzateke inolako erregularizaziorik burutu.

Zazpi. Inbertsio-ondasunengatiko kenkarien erregularizazioaren emaitza diren sarrerak edo, hala denean, kenkari osagarriak haiei dagokien egutegiko urteko likidazioaldiaren aitorpen-likidazioan burutu beharko dira, laugarren atalean aipatu dena gertatzen denean ezik, kasu horretan jasanarazten diren kuotak jasan urte berean burutu beharko baitira.

**108. artikulua. Inbertsio-ondasun kontzeptua.**

Bat. Zerga honek ondoreak izan ditzan, inbertsio-ondasuntzat joko dira izaeraz eta ihardunez lan-tresna edo ustiabide gisa urtebetetik gorako denboraldi batez erabiltzekoak diren gauzazko ondasunak, higigarriak, abereak edo higiezinak.

Bi. Ez dira inbertsio-ondasuntzat joko:

1. Subjektu pasiboak erabil ditzakeen inbertsio-ondasunak konpontzeko eskuratzen diren aldagailuak eta osagarriak.
2. Bestelako inbertsio-ondasunak konpontzeko lan-burutzapenak.
3. Ontzi eta enbalaketak, nahiz eta birrerabilgai izan.
4. Subjektu pasiboek edo menpeko pertsonalak erabiltzen dituzten arropak.
5. 3.005,06 euroko eskuraketa-baliotik beherako beste edozein ondasun.

**109. artikulua. Inbertsio-ondasunengatiko kenkarien erregularizazioa egiteko prozedura.**

Foru Arau honen 107. artikuluan aipatu den kenkari-erregularizazioa honako modu honetara egingo da:

1. Behin erregularizazioa egin behar den urte bakoitzean behin betiko aplikagarri den kenketa-portzentaia jakinez gero, kuoten jasanarazpena kontuan hartzen den urtean jasaten bada bidezko izango litzatekeen kenkari-zenbatekoa zehaztuko da.
2. Aipatu zenbatekoa jasanarazpena gauzatu den urtean burutu den kenkariaren dirukopurutik kendu beharko da.
3. Alde positibo edo negatiboa zati bost egingo da edo, lur edo eraikinak badira, zati hamar, eta ateratzen den zatidura egin beharreko sarreraren edo kenkariaren zenbatekoa izango da.

**110. artikulua. Erregularizazioaldiko inbertsio-ondasunen emateak.**

Bat. Erregularizazioaldian zehar inbertsio-ondasunen emateak gertatuz gero, aipatu aldi horretan igarotzeko den denborarako erregularizazio bakarra burutuko da.

Horretarako, ondoko arau hauek aplikatuko dira:

1. Baldin eta ematea Zergapekoa izan eta hartatik salbuetsirik ez badago, inbertsio-ondasuna kenkariak egiteko eskubidea emate hori burutu den urte osoan zehar eta hurrengoetan erregularizazioaldia ahitu arte sortzen duten eragiketak burutzeko baino ez dela erabili ulertuko da.

   Dena den, ez da kengarria izango aurreko lerroaldea aplikatuz ateratzen den dirukopuruaren eta ondasunaren ematearengatik sortzen den zenbatekoaren arteko aldea.

2. Baldin eta ematea Zergapekoa izan ez eta hartatik salbuetsirik badago, inbertsio-ondasuna emate hori burutu den urte osoan zehar eta hurrengoetan erregularizazioaldia ahitu arte kenkariak egiteko eskubiderik sortzen ez duten eragiketak burutzeko baino ez dela erabili ulertuko da.

   Aurreko atalean ezarri den araua aplikagarria izango da, baldin eta subjektu pasiboak, Foru Arau honen 95. eta 96. artikuluetan ezarritakoaren arabera eta inguruabarrok gertatzen diren urte osoan eta erregularizazioaldia amaitu bitarteko urteetan, inbertsio-ondasunak kenkariak egiteko eskubidearen muga, baztertze edo murrizketen aplikazioa eragiten duten xedeetarako erabiltzen baditu.

   Arau honen lehenengo lerroaldean aurrikusten denetik salbuetsirik daude kenkariak egiteko eskubidea sortzen duten eta zergapekoak ez diren inbertsio-ondasunen emateak, zeinei lehenengo araua aplikatu beharko baitzaie. Kasu honi dagokionez, bidezko diren kenkariek ezin gainditu izango dute izaera bereko ondasun-emateen gaineko zerga-tasa Elkarteko beste estatu kide bati esportatu edo bidaltzen zaizkion ondasunen barne-balioari aplikatuz aterako litzatekeen kuota.

Bi. Artikulu honek aipatzen duen erregularizazioa, aurreko urteetan lainari buruzko araua aplikagarria izan ez bada ere, egin beharko da.

Hiru. Artikulu honetan xedatutakoa aplikagarria izango da inbertsio-ondasunak subjektu pasiboak erabili baino lehen eskualdatzen direnean ere.

Lau. Artikulu honetan xedatutakoa ez da inoiz ere aplikagarria izango Foru Arau honen 7. artikuluaren 1. zenbakian aipatzen diren eragiketetan.

**111. artikulua. Enpresa edo lanbide jarduerei dagozkien ohiko ondasun-emateei edo zerbitzugintzei ekin aurretik jasandako edo ordaindutako kuoten kenkariak.**

Bat. Lehen enpresa edo lanbide jarduerarik egin ez eta enpresa edo lanbide jarduerak egiteko ondasunak edo zerbitzuak eskuratzeagatik edo inportatzeagatik enpresari edo profesional bihurtzen direnek eragiketa horietan jarduerei dagozkien ondasun-emateak edo zerbitzugintzak egiten hasi aurretik jasandako edo ordaindutako kuotak kendu ahal izango dituzte, artikulu honetan eta 112. eta 113. artikuluetan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Halaber, aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko zaie lehendik ere egiten dituzten jardueren arabera enpresari edo profesional izanik haietatik bereiz egongo den arlo bateko enpresa edo lanbide jarduera bati ekiten diotenei.

Bi. Aurreko idatz-zatian aipatutako kenkariak egiteko, enpresariak edo profesionalak Administrazioari proposatzen dion portzentajea aplikatuko da; hala ere, gerta liteke Administrazioak berak beste bat finkatzea enpresa edo lanbide jardueren ezaugarriak aintzat harturik, eta holakoetan Administrazioarena aplikatuko da.

Kenkariok behin-behinekoak izango dira eta foru arau honetako 112. eta 113. artikuluetan ezarritakoaren arabera erregularizatuko dira.

Hiru. Enpresariek eta profesionalek artikulu honetan ezarritakoa dela bide ken daitezkeen kuotak itzultzeko eskatu ahal izango dute, foru arau honetako 115. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lau. Foru arau honetan ezarritakoa dela bide merkataritzako jarduerari ekiten dioten unetik bertatik baliokidetzaren errekarguaren araubide berezian egon behar diren enpresariek ezin baliatu izango dituzte artikulu honetan aipatutako kenkariak araubide horretako jardueren zioz.

Bost. Artikulu honetan aipatutako kenkariak baliatu dituzten enpresari edo profesionalek ezin heldu izango die nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziari kenkaria dakarten kuotak jasatea ed ordaintzea eraginez eskuratu diren ondasun eta zerbitzuak erabili diren jardueren zioz jarduera horietan izan diren ondasun-emateak edo zerbitzugintzak egin direnetik egutegiko hirugarren urtea amaitu arte.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzeak araubide bereziari uko egiteak dituen ondore eurak izango ditu.

Sei. Artikulu honetan eta foru arau honetako 112. eta 113. artikuluetan xedatutakoaren ondoreetarako, enpresa edo lanbide jardueretarako ondasun-emateak edo zerbitzugintzak egin diren lehen urtea enpresaria edo profesionalak eragiketok egiten hasi dena izango da, baldin eta jarduerok uztailaren 1a baino lehen hasi badira; bestela, hurrengo urtea izango da.

**112. artikulua. Enpresa edo lanbide jarduerei dagozkien ohiko ondasun-emateei edo zerbitzugintzei ekin aurretik jasandako edo ordaindutako kuoten kenkarien erregularizazioa.**

Bat. Foru arau honetako 111. artikuluan aipatutako behin-behineko kenkariak erregularizatzeko, enpresa edo lanbide jardueretan egin diren ondasun-emateak edo zerbitzugintzak egin diren egutegiko lehen lau urteetako epealdiari oro har dagokion behin betiko portzentajea aplikatuz erregularizatuko dira.

Bi. Aurreko idatz-zatian aipatutako behin betiko ehunekoa foru arau honetako 104. artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztuko da. Hori dela eta, aurrean aipatutako epealdian egindako eragiketa guztiak konputatuko dira.

Hiru. Artikulu honetako kenkariak honela erregularizatuko dira:

1.a. Enpresa edo lanbide jarduerei dagozkien ohiko ondasun-emateei edo zerbitzugintzei ekin aurretik jasandako edo ordaindutako kuotei aplikatu beharreko behin betiko kenkari-portzentajea zein den jakinez gero, haren araberako kenkariaren zenbatekoa kalkulatuko da.

2.a. Zenbateko hori foru arau honetako 111. artikuluan xedatutakoaren arabera egindako behin-behineko kenkarien baturaren guztirako kopurutik kenduko da.

3.a. Diferentzia, positiboa zein negatiboa, egin beharreko sarreraren edo kenkari osagarriaren zenbatekoa izango da.

**113. artikulua. Enpresa edo lanbide jarduerei dagozkien ohiko ondasun-emateei edo zerbitzugintzei ekin aurretik jasandako inbertsio-ondasunen kuoten erregularizazio.**

Bat. Foru arau honetako 111. artikuluan aipatutako inbertsio-ondasunak eskuratu edo inportatzeagatik jasandako edo ordaindutako kuotei dagozkien behin-behineko kenkariak aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera erregularizatu ondoren foru arau honetako 107. artikuluan ezarritakoaren arabera erregularizatu behar dira erregularizazioaldiko urteetan zehar.

Bi. Artikulu honetan ezarritako erregularizazioak egiteko, foru arau honetako 109. artikuluko 2. zenbakian xedatutakoaren ondoreetarako jasanarazpena gertatu den urtean egindako kenkaria izango da foru arau honetako 112. artikuluko lehen idatz-zatian ezarritakoa dela bide behin betiko aplika daitekeen kenkari-portzentajea aplikatuz sortzen dena.

Hiru. Artikulu honetan aipatutako inbertsio-ondasunak erregularizazioaldia amaitu aurretik ematen badira, foru arau honetako 110. artikuluko erregelak aplikatuko dira, 111. eta 112. artikuluetan eta artikulu honetako aurreko idatz-zatietan ezarritakoaren kalterik gabe.

**114. artikulua. Kenkarien zuzenketa.**

Bat. Subjektu pasiboek egindako kenkariak zuzendu ahal izango dituzte, aurretiaz agindeirik egon ez bada, kenkari horien zenbatekoa makur zehaztu denean edo jasandako kuoten zenbatekoa foru arau honetako 89. artikuluan xedatutakoaren arabera zuzendua izan denean.

Kenkarien zuzenketa nahitaezkoa izango da horrek hasieran egindako kenkariaren gutxipena erakartzen duenean.

Bi. Hasieran jasandako kuoten zenbatekoa aurretiaz zuzentzeak erakarritako kenkarien zuzenketa honelaxe egingo da:

1. Zuzenketak, berez, hasieran egindako kenkarien kuoten zenbatekoa gehitzea erakartzen duenean, subjektu pasiboak kenkari horietarako eskubidea duela egiaztatzen duen agiria, hasieran jasandako kuotak zuzenduz, jasotzen duen zergaldiari dagokion aitorpen-likidazioan egin ahal izango da; bestela hurrengo aitorpen-likidazioetan, beti ere eragiketa sortu denetik edo, hala denean, eragiketaren zerga-oinarriaren aldaketa eragin duten inguruabarrak gertatu direnetik bost urte igaro ez badira.

   Aurrekoa gorabehera, hala ere, hasieran jasandako kuoten zuzenketa foru honetako 80. artikuluan ezarritako karietariko bat ez den beste batek eragindakoa denean, subjektu pasiboak kenkari horietarako eskubidea duela, kuota horiek zuzenduz, egiaztatzen duen agiria luzatu denetik urtebete igaro bada ezin izango da kenkarien zuzenketarik egin.

2. Zuzenketak hasiera batean kendutako kuoten zenbatekoa murriztea dakarrenean, subjektu pasiboak zuzentzeko autolikidazioa aurkeztu beharko du, eta autolikidazio horri Zergei buruko Foru Arauko 26. eta 27. artikuluetan ezarritakoaren arabera dagozkion errekargua eta berandutze-interesak aplikatuko zaizkio.

   Foru arau honen 80.Hiru artikuluan ezarritako kasua denean, zuzenketa, jasandako kuoten kenkarirako eskubidea gauzatu zen aldiari dagokion autolikidazioan egin beharko da, eta ez dira errekargua eta berandutze-interesak aplikatuko.

   Baldin zergapeko operazioa baliorik gabe geratzen bada konkurtso-berrintegrazio baten ondorioz edo konkurtsoaren barruan egin diren aurkaratzeen ondorioz, eta hasierako eroslea edo eskuratzailea ere konkurtso-egoeran badago, zuzendu egin beharko ditu autolikidazioan hasiera batean kendutako kuotak, alegia, jasandako kuotak kentzeko eskubidea baliatu zen aldiko autolikidazioan kendutakoak, errekargurik edo berandutze-interesik aplikatu beharrik gabe.

   Hala ere, zuzenketa zuzenbideko oinarridun akats baten ondoriozkoa edo foru arau honen 80. artikuluko gainerako arrazoien ondoriozkoa bada, subjektu pasiboak kenkarirako eskubidea justifikatzen duen agirian egin beharko da zuzenketa, alegia, hasiera batean jasandako kuotak zuzentzen dituen zerga-aldiari dagokion autolikidazioan.

## II. KAPITULUA
## BERRESKURAPENAK

**115. artikulua. Itzulketa kasu orokorrak.**

Bat. Subjektu pasibo batek likidazioaldi batean sortzen diren kenkariak foru arau honetako 99. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera aplikatu ezin baditu, sortutako kuotak gainditzen

dituztelako, abenduaren 31n bere alde eduki duen saldoa itzultzeko eska dezake urteko azken likidazioaldiaren autolikidazioan.

Bi. Hala ere, foru arau honetako 116. artikuluan aipatutako subjektu pasiboek likidazioaldi bakoitza amaitzen denean daukaten aldeko saldoa itzultzeko eskatu ahal izango dute.

Hiru. Artikulu honetan eta hurrengoan aipatutako kasuetan, Administrazioak, egoki denean, behin-behineko likidazioa egingo du zergaren itzulketa eskatzeko autolikidazioa aurkezteko ezarritako epealdia amaitu ondoko sei hiletan. Hala ere, autolikidazioa ezarritako epealdiaz kanpo aurkezten bada, sei hilabeteak aurkezten denetik aurrera zenbatuko dira.

Autolikidazioaren emaitza, edo behin-behineko likidazioarena, diru kopuru bat itzuli beharra bada, Zerga Administrazioak ofizioz itzuliko du. Hala ere, gero bidezko likidazioak egin ahal izango dira, behin-behinekoak zein behin-betikoak.

Itzulketarako prozedura Bizkaiko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorrean eta hura garatu duen araudian autolikidazioek eragiten dituzten itzulketa prozeduretarako ezarritakoa izango da.

Behin-behineko likidazioa idatz-zati honetako lehenengo paragrafoan ezarritako epealdian egin ezean, Zerga Administrazioak ofizioz itzuliko du eskatutako kopuru osoa. Hala ere, gero bidezko likidazioak egin ahal izango dira, behinbehinekoak edo behin betikoak.

Idatz-zatiko honetako lehenengo paragrafoan ezarritako epealdian itzulketa ordaintzeko agindurik ematen ez bada Zerga Administrazioari egotzi ahal zaion arrazoi batengatik, itzultzeko dagoen kopuruari Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 26.3. artikuluan aipatutako berandutza korritua aplikatuko zaio aipatutako epealdia amaitzen den egunaren biharamunetik itzulketa jasotzeko eskubidea aintzatesten duen erabakia hartzen den egunera arte. Subjektu pasiboak ez du edukiko berandutza korritua ordaintzeko eskatu beharrik.

Arauz zehaztuko da zein prozedurarekin egingo den idatz-zati honetan aipatutako ofiziozko itzulketa eta nola ordainduko den.

**116. artikulua. Iltzulketa eskaerak likidazioaldiaren amaieran.**

Bat. Subjektu pasiboek likidazioaldi bakoitza amaitzen denean daukaten aldeko saldoa itzultzeko eskatu ahal izango dute, arauz ezartzen diren baldintzei, betekizunei eta prozedurari lotuta. Prozedura hau hautatzen duten subjektu pasiboen likidazioaldiak egutegiko hilak izango dira, eragiketen bolumena gorabehera.

Bi. Foru arau honetako 15. artikuluko bigarren idatzzatian aipatutako kasuetan, Zergaren aplikazio lurraldean ondasunak inportatzen dituen pertsona juridikoak inportazioaren kuota berreskuratu ahal izango du, baldin eta frogatzen badu ondasunak Batasuneko beste estatu batera bidali edo garraiatu dituela eta bertan Zerga ordaindu duela.

**117. artikulua. Bidaiari-erregimeneko esportatzaileentzako itzulketak.**

Bat. Foru Arau honen 21. artikuluaren 2. zenbakian araupetu den bidaiari-erregimenean, ondasun-eskuraketetan jasaten diren kuoten itzulketa arau bidez ezar daitezkeen beharkizunei eta prozedurari lotuko zaie.

Bi. Aurreko atalean aipatzen den kuota-itzulketa bidezkoa izango da baliokidetasun-errekarguaren erregimen berezia aplika dakiekeen subjektu pasiboek burutzen dituzten salmenten kasuan ere.

Hiru. Honako artikulu honetan araupetzen den kuota-itzulketa entitate laguntzaileen bidez ere egin ahal izango da, arau bidez zehazten diren baldintzen arabera.

**117 bis artikulua. Zergaren aplikazio-lurraldean, Kanariar Uharteetan, Ceutan eta Melillan finkatutako enpresaburuek edo profesionalek Batasunean egindako eragiketengatik**

**(zergaren aplikazio-lurraldean egindakoengatik izan ezik) jasandako kuotak itzultzeko eskabideak.**

Zergaren aplikazio-lurraldean, Kanariar Uharteetan, Ceutan eta Melillan finkatutako enpresaburuek eta profesionalek Batasunean egindako ondasun edo zerbitzuen eskuraketengatik eta inportazioengatik jasandako kuotak itzultzeko eskatuko dute (zergaren aplikazio- lurraldean egindakoen ondoriozko kuotak ez dira itzuliko); horretarako, eskabidea aurkeztu behar dute, Zerga Administrazioak berariaz jarritako formularioak erabilita.

Eskabide horiek jasotzeko eta izapidetzeko prozedura arau bidez finkatuko da.

**118. artikulua. Itzulketen bermeak.**

Tributu-administrazioak kapitulu honetan araupetzen diren balizkoetan behar beste berme ematea eskatu ahal izango die subjektu pasiboei.

## III KAPITULUA
## ZERGAREN APLIKAZIO-LURRALDEAN EZARRITA EZ DAUDEN ENPRESABURU ETA PROFESIONALENTZAKO ITZULKETAK

**119. artikulua. Zergaren aplikazio-lurraldean ezarrita ez egon arren Batasunean, Kanarietan, Ceutan edo Melillan establezimendua duten enpresaburu eta profesionalentzako itzulketen araubide berezia**

Bat. Zergaren aplikazio-lurraldean ezarrita ez egon arren Batasunean, Kanarietan, Ceutan edo Melillan establezimendua duten enpresaburuek eta profesionalek lurralde horretan egindako ondasun eta zerbitzuen eskuraketa eta inportazioengatik jasandako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak itzultzeko eskatu ahal izango dute, artikulu honetan ezarritakoaren arabera eta arau bidez ezarriko diren epealdiei eta prozedurari atxikita.

Horren ondoreetarako, Zergaren aplikazio-lurraldean establezimendu iraunkorra eduki arren eskabidean aipatutako aldian bertan ez ondasun ematerik ez zerbitzurik egin ez duten enpresaburuak eta profesionalak ez dira hartuko lurralde hartan ezarritzat.

Bi. resaburu eta profesionalek ondokoak bete behar dituzte eskabidearen epealdian:

1.a. Establezimendua eduki behar dute Batasunean, Kanarietan, Ceutan edo Melillan.

2.a. Zergaren aplikazio-lurraldean ezin dute egin ondoren adieraziko direnez beste kargapeko ondasun emate zein zerbitzugintzarik:

a) Foru arau honetako 84. artikuluko lehenengo idatz-zatiko 2, 3 eta 4. zenbakietan xedatutakoaren arabera Zergaren subjektu pasiboak hartzaile diren ondasun emateak eta zerbitzugintzak.

b) Foru arau honetako 21, 23, 24 eta 64. artikuluetan xedatutakoaren arabera Zergatik salbuetsita dauden garraio-zerbitzuak eta beraien zerbitzu osagarriak.

3.a. Ezin dute jaso foru arau honetako 84. artikuluko 2. eta 4. zenbakietan xedatutakoaren arabera subjektu pasibo ez diren ondasun ematerik, ez zerbitzurik.

4.a. Foru arau honetako VIII. tituluko I. kapituluan kenkaria aplikatzeko ezarritako betekizun eta muga guztiak bete behar dituzte, batez ere 95. eta 96. artikuluetan ezarritakoak, bai eta artikulu honetan ezarritakoak ere.

5.a. Zergaren aplikazio-lurraldean eskuratu edo inportatutako ondasunak edo jasotako zerbitzuak honelako eragiketak egiteko erabili behar dituzte: ezarrita dauden Batasuneko estatuko indarreko arautegiaren arabera kenkaria (bertako kenkari-ehunekoarekin) aplikatzeko eskubidea sortzen duten eragiketak.

Itzulketa eskabidea aurkeztu ondoren kenkari-ehunekoa erregularizatzen bada, eskatzaileak kenkariaren zenbatekoa zuzendu behar du nahitaez, eta jasotako soberako kopurua itzuli beharko du arau bidez ezarriko den prozeduraren bitartez.

Itzuli beharreko kopurua kalkulatzeko foru arau honetako 106. artikuluko irizpideak erabiliko dira. Horren ondoreetarako, enpresaburuak edo profesionalak kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen dioten ondasunak edo zerbitzuak zertan erabili dituen hartuko da kontuan, lehenbizi egoiliar den estatuko arautegiaren arabera eta gero foru arau honetan xedatutakoaren arabera.

6.a. Itzulketa eskabidea baliabide elektronikoen bidez aurkeztu behar dute egoiliartuta dauden Batasuneko estatuak berariaz ezarritako atari elektronikoa erabilita.

Hiru. Artikulu honetako bigarren idatz-zatiko 5. zenbakian ezarritakoa Kanarietan, Ceutan edo Melillan ezarritako enpresaburu eta profesionalei ere aplikatuko zaie, eta aplikatu ere lurralde bakoitzean indarrean dauden kontsumoaren gaineko zeharkako zergen berezko ezaugarrien arabera.

Lau. Itzultzeko eskatzen den kopurua ez bada epealdiaren araberako gutxieneko zenbatekoa baino gehiago (arau bidez zehaztuko da nola kalkulatu), eskabidea ez da onartuko.

Bost. Itzulketa eskabideen epealdia aurreko urtea edo hiruhilekoa izan behar da.

Hala ere, kasu batean eskabidearen epealdia hiruhilekoa baino laburragoa izan daiteke: egutegiko urtearen saldoa denean.

Sei. Arau bidez ezarritako epealdian itzulketa ordaintzeko agindurik ematen ez bada Zerga Administrazioari egotzi ahal zaion arrazoi batengatik, itzultzeko dagoen kopuruari indarrean dagoen legerian ezarritako berandutza korritua aplikatuko zaio (ez da egongo eskatu beharrik).

Hala ere, eskatzaileak ez badie arau bidez ezarritako epealdian erantzuten informazio gehiago emateko agindeiei, ez da sortuko berandutza korriturik.

Eta, halaber, ez da berandutza korriturik sortuko harik eta, arau bidez ezarritako kasuetan, eskabidean aipatzen diren fakturen edo inportazio agirien kopia elektronikoak aurkeztu arte.

Zazpi. Zerga Administrazioak informazio gehiago eskatu ahal izango die eskatzaileei, ezarrita dauden Batasuneko estatuko Zerga Administrazioari edo hirugarren batzuei, eta aurkezteko itzulketa eskubideak bidezkoak diren ebazteko eta, batez ere, itzuli beharreko kopurua artikulu honetan eta beraren arau garapenean ezarritakoaren arabera behar bezala zehazteko behar diren frogagiriak.

Itzulketa bat egin ondoren egiaztatzen bada ez zela bidezkoa izan dirua itzultzea, artikulu honetan edo beraren arau garapenean ezarritako betekizunak eta mugak bete ez direlako edo datu faltsuak edo okerrak emanez lortu delako, Zerga Administrazioak itzulitako dirua eta sortutako berandutza korrituak berreskuratuko ditu, eta gerta liteke zehapena ere ezartzea bidezko espedientea instruitu ondoren (honek ez ditu eragozten Zergaren bilketan elkarri laguntzeaz ezarritako xedapenak).

Borondatezko epealdian eskatzaileak Zergaren kuota, zehapena edo sortutako berandutza korrituak ordaintzen ez baditu, indarreko legerian ezarritako kautelazko neurriak aplikatu ahal izango dira.

**119 bis artikulua. Ez Zergaren aplikazio-lurraldean, ez Batasunean, ez Kanarietan, ez Ceutan, ez Melillan establezimendurik ez duten enpresaburu eta profesional batzuentzako itzulketen araubide berezia.**

Foru arau honetako 119. artikuluan ezarritako baldintzak eta mugak betez gero, ez Zergaren aplikazio-lurraldean, ez Batasunean, ez Kanarietan, ez Ceutan, ez Melillan establezimendurik ez duten enpresaburuek eta profesionalek lurralde horretan egindako ondasun eta zerbitzuen

eskuraketengatik eta inportazioengatik jasandako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak itzultzeko eskatu ahal izango dute, ondoren ezarritakoari lotuta eta arau bidez ezarriko den prozedurari atxikita:

1.a. Lehenbizi eskatzaileek Zergaren aplikazio-lurraldeko egoiliarra den ordezkaria izendatu behar dute; hark erazko betebeharrak edo prozedurakoak bete beharko ditu eta erantzukizun solidarioa edukiko du bidegabeko itzulketa gertatuz gero. Herri Ogasunak behar besteko kauzioa eskatuko ahal izango dio ordezkariari.

2.a. Eskatzaileen egoitza Zergaren aplikazio-lurraldean, Kanarietan, Ceutan edo Melillan establezimendua duten enpresaburu eta profesionalen aldeko elkarrekikotasuna aintzatetsita duen estatu batean egon behar da.

3.a. Aurreko azpizenbakian xedatutakoaren salbuespen gisa, artikulu honetan aipatzen diren lekuetan establezimendurik ez duten enpresaburuek eta profesionalek ondasunen inportazioen nahiz ondasun eta zerbitzuen eskuraketen ondorioz jasandako zergaren kuoten itzulketa lortu ahal izango dute, eragiketa horien xedea honako hau bada:

- Establezimendurik ez duen enpresaburuak edo profesionalak zergaren aplikazio-lurraldean eskuratutako edo inportatutako txantiloi, molde eta ekipoen hornidura, lurralde horretan ezarrita dagoen enpresaburu edo profesional bati emango bazaizkio eta azken horrek, bere aldetik, ezarrita ez dagoen enpresaburu edo profesional bati EBtik kanpo bidali edo garraiatuko zaizkion ondasunak fabrikatzeko erabiliko baditu, betiere, ondasunen fabrikazioa amaitzen denean, ezarrita ez dagoen enpresaburuari edo profesionalari bidaltzen bazaizkio edo suntsitu egiten badira.

- Zergaren aplikazio-lurraldean egiten diren feria, kongresu eta erakusketa komertzial edo profesionaletara joatearekin lotura duten sarrera-, ostalaritza-, sukaldaritza- eta garraiozerbitzuak.

Aurreko paragrafoan aipatutako tratamenduaren elkarrekikotasuna administrazio eskudunaren ebazpen baten bidez aintzatetsiko da.

# IX. TITULUA
# ERREGIMEN BEREZIAK

## LEHENENGO KAPITULUA
## ARAU OROKORRAK

### 120. artikulua. Arau orokorrak.

Bat. Hauek dira Balio Erantsiaren gaineko Zergan dauden araubide bereziak:

1. Araubide erraztua.

2. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia.

3. Ondasun erabili, arte-objektu, antzinateko objektu eta bilduma- objektuen araubide berezia.

4. Inbertsio-urrearekin egiten diren eragiketei aplikatu beharreko araubide berezia.

5. Bidaia-agentzien araubide berezia.

6. Baliokidetasun-errekarguaren araubide berezia.

7. Telekomunikazio-, irrati- eta telebista-zerbitzuei nahiz baliabide elektronikoen bidez egiten diren zerbitzuei aplikatu beharreko araubide bereziak.

8. Erakunde-taldeen araubide berezia.

9. Kutxa-irizpidearen araubide berezia.

Bi. Titulu honetan araupetutako araubide bereziak borondatezkoak izango dira, aurreko idatz-zatiko 4., 5. eta 6. zenbakietan ageri direnak izan ezik, foru arau honetako 140 ter artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

Hiru. Ondasun erabili, arte-objektu, antzinateko objektu eta bilduma-objektuen araubide berezia Zergari loturik egon beharra ekarri duten jardueren hasierari buruzko aitorpena, foru arau honetako 164. artikuluko lehenengo idatz-zatiko 1. zenbakian ezarritakoa, aurkeztu duten subjektu pasiboei soilik aplikatuko zaie.

Lau. Araubide berezi erraztua eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia subjektu pasiboek arauz zehaztutako epean eta eran berariaz uko egin ezean aplikatuko dira.

Ondasun erabili, arte-objektu, antzinateko objektu eta bilduma-objektuen araubide berezia beti subjektu pasiboek berariaz uko egin ezean aplikatuko da; eragiketa bakoitzerako egin dakioke uko araubide horri, eta Administrazioari berariaz jakinarazi gabe.

Bost. Telekomunikazio-, irrati- eta telebista-zerbitzuei nahiz baliabide elektronikoen bidez egiten diren zerbitzuei aplikatu beharreko araubide bereziak aplikatuko zaizkie foru arau honetako 163 noniesdecies eta 163 duovicies artikuluetan ezarritako aitorpenak aurkeztu dituzten operadoreei.

### 121. artikulua. Eragiketa kopuruaren zehaztapena.

Bat. Foru arau honetan xedatutakoak ondoreak izan ditzan, eragiketen bolumena subjektu pasiboak egutegiko urtean zehar egindako ondasun-emateen eta zerbitzu-prestazioen zenbateko osoa izango da, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kenduta, bai eta, hala denean, baliokidetza-errekargua eta goranzko konpentsazioa ere.

Enpresa edo lanbide bateko ondare osoa edo zati bat eskualdatzen denean, subjektu pasiboak konputatu beharreko eragiketen bolumena egutegiko aurreko urtean egindako eragiketei epealdi berean eskualdatzaileak egin dituen eragiketatik eskualdatutako ondareari dagokion zatia gehituz sortzen den kopurua da.

Bi. Eragiketak egindakotzat hartuko dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren sortzapena gertatzen edo, hala denean, gertatua denean.

Hiru. Eragiketen kopurua zehazteko honakook ez dira kontutan hartuko:

1.a. Ondasun higiezinen lantzean behingo emateak.

2.a. Foru arau honen 108. artikuluan xedatutakoarekin bat etorririk eskualdatzaileari begira inbertsioko ondasun bezala kalifikatutako ondasunen emateak.

3.a. Foru arau honen 20. artikuluaren lehenengo ataleko 18. zenbakian aipatutako finantza-eragiketak, salbuespenik ez dutenak barne, ohikoak ez badira subjektu pasiboaren enpresa- edo lanbide-jardueran.

## II. KAPITULUA
## ERREGIMEN ERRAZTUA

### 122. artikulua. Erregimen erraztua.

Bat. Araubide erraztua Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko gaineko Zergan errentak eratxikitzeko araubidean dauden pertsona fisikoei eta erakundeei aplikatuko zaie, baldin eta berauek jarduerak garatzen badituzte eta hura araupetzen duten arauetan ezarritako

beharkizunak biltzen badituzte. Hala ere, araubide sinpletu honi uko egin diezaiokete, arauz ezartzen den eran.

Bi. Jarraikoak araubide errazturik salbu daude:

1.a. Araubide erraztuan sartuta ez dauden beste ekonomi jarduera batzuk egiten dituzten enpresariak edo profesionalak, jarduera horiengatik nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide bereziei edo baliokidetza-errekarguari helduta daudenak izan ezik. Hala ere, enpresariak edo profesionalak arauz zehazten diren beste jarduera batzuk egiteak ez du ekarriko hura araubide berezi erraztutik kanpo geratzerik.

2.a. Jarraiko inguruabarretako batean dauden enpresariak edo profesionalak, arauz zehazten denaren arabera:

- Aurreko urteko sarreren bolumena jarraiko zenbateko hauek baino handiagoa izatea:

- Enpresa- edo lanbide- jarduera guztiak bat eginda, 450.000 euro urtean.

- Nekazaritzako, basozaintzako eta abeltzaintzako jarduera guztiak (Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak zehazten dituenak) bat eginda, 300.000 euro urtean.

Aurre-aurreko urtean zehar jardueraren bati ekin bazaio, jarduera horretako sarreren kopurua urte osorako hartuko da.

Zenbaki honetan ezarritako ondoreetarako, sarreren bolumenean aipatutako jarduera guztietan lortutako sarrera guztiak zenbatuko dira; ez dira konputatuko ez diru-laguntza arruntak, ez kapitalekoak, ez kalteordainak, ezta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zioz eragiketari ezarritako karga ere.

3.a. Enpresa. edo lanbide- jarduera guztietarako egin dituzten ondasun- eta zerbitzu-eskuraketengatik eta inportazioengatik, ibilgetuko elementuenak salbu utzita, aurreko urtean 300.000 euro baino gehiago (BEZ kanpo) ordaindu dituzten enpresariak edo profesionalak.

Aurre-aurreko urtean jarduera bat hasi bada, eskuraketa eta inportazioen kopurua urtekoratu egingo da.

4.a. Egiten dituzten jardueretako batengatik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboaren araubidetik bazter geratu diren edo hari uko egin dioten enpresariak edo profesionalak.

Hiru. Araubide erraztuari uko eginez gero, gutxienez hiru urtean egongo da indarrean, arauz ezartzen den bezala.

**123. artikulua. Erregimen erraztuaren edukina.**

Bat.

A) Araubide erraztuaren menpeko enpresariek edo profesionalek zehaztuko dute, araubide berezi hori aplika dakiokeen jarduera bakoitzari dagokionean, Balio Erantsiaren gaineko Zergarengatik sartu beharreko kuoten zenbatekoa, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak ezartzen dituen prozeduraren, indizeen, moduluen eta gainerako parametroen bidez.

Aurreko paragrafoan adierazitako sartu beharreko kuoten zenbatekotik araubide bereziari heldutako jarduerari lotutako ondasun edo zerbitzuei dagozkien eragiketa arrunten zioz jasandako edo ordaindutako kuoten zenbatekoa kendu ahal izango da,

foru arau honetako VIII. tituluko I. kapituluan ezarritakoarekin bat etorriz. Hala ere, haien kenketan jarraiko erregela hauek aplikatuko dira:

a) Joan-etorri edo bidaien, ostalaritza eta jatetxearen zerbitzuen zioz jasandako kuotak ezin kendu izango dira, baldin eta enpresariek edo profesionalek jarduera lokal jakin baten egiten badute. Ondore hauetarako, lokal jakina zeinahi eraikin izango da, jendea ezin sar daitekeen biltegiak, aparkalekuak eta gordailutegiak izan ezik.

b) Jasandako edo ordaindutako kuotak jasantzat edo ordaindutzat jo behar diren urteko azken zergaldiko autolikidazioan soilik kendu ahal izango dira; beraz, jarraiko urteetan zerga-ordain-ketan aplikatu beharreko araubidea gorabehera, ezin kendu izangodira geroagoko zergaldi batean.

c) Enpresariak edo profesionalak ondasun eta zerbitzuak eskuratu edo inportatzen baditu araubide honi heldutako jarduera batzuetan batera erabiltzeko, orduan jarduera bakoitzean kendu behar den kuota ondasun eta eskubideak benetan erabiltzearen lainekoa izango da. Prozedura hori ezin aplikatu bada, orduan jarduerei hainbana egotziko zaie.

d) Foru arau honetako 130. artikuluko nekazaritzako konpentsazioak ere kendu ahal izango dira, hau da, enpresariek edo profesionalek ondasun edota eskubideak eskuratzeagatik nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziaren menpean dauden enpresariei ordaindutakoak.

e) Orobat, enpresariek edo profesionalek eskubidea izango dute araubide bereziaren xede dituzten jardueretan idatz-zati honetako lehenengo paragrafoan aipatutako sortutako kuotaren zenbatekoaren %1 kentzeko frogatzen gaitz diren jasandako kuoten zioz.

B) Aurreko letran xedatutakoa aplikatzearen emaitzako zenbatekoari jarraiko eragiketengatik sortutako kuotak gehituko zaizkio:

1.a. Batasun barruko ondasun-eskuraketak.

2.a. Foru arau honetako 84. artikuluko lehenengo idatz-zatiko 2. zenbakian aipatutako eragiketak.

3.a. Aktibo finko materialen emateak eta aktibo finko inmaterialen eskualdaketak.

C) Aurreko bi letretan ezarritakoa aplikatzearen emaitzako kopurutik aktibo finkoak eskuratu edo inportatzeko jasandako edo ordaindutako kuoten zenbatekoa kenduko da; aktibo finkotzat hartuko dira ibilgetuko elementuak eta, bereziki, erosteko aukerako finantza-errentamenduko kontratua dela bide baliatzen direnak, aukera loteslea izan zein ez.

Kenkaria aplikatzeko eskubidea arauz ezartzen denaren arabera baliaraziko da.

D) Enpresariak edo profesionalak araubide berezi honi heltzeko zio izan diren jardueretan erabiltzeko diren ondasunen inportazioen likidazioa ondasunen inportazioen likidaziorako ezarritako arau orokorren arabera egingo da.

Bi. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zeharkako zenbatespenean kontutan hartuko dira, bereziki, araubide sinpleturako ezarritako indizeak, moduluak eta gainerako parametroak, azken araubide horri uko egin dioten subjektu pasiboei dagokienean.

Hiru. Aurreko lehenengo atalean aipatuta dauden indizeak edo moduluak aldera utzi edo aizundu dituzten subjektu pasiboek araubide sinpletuaren aplikaziotik ateratzen diren zerga-kuota osoak ordaindu beharko dituzte, bidezko diren zehapenak eta berandutza-korrituak kontutan harturik.

Lau. Arauz araupetuko da araubide sinpletu hori, eta zehaztuko dira beronen menpeko subjektu pasiboek bete beharko dituzten era- eta erregistro-beharkizunak.

Bost. Sinpletutako araubide bereziaren menpeko subjektu pasiboak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren menpeko beste enpresa- edo lanbide-jarduera batzuk egiten baditu, araubide bereziaren menpeko jarduerak ekonomi jardueraren arlo bereiziarenak izango dira.

## III. KAPITULUA
## NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA ETA ARRANTZAREN ERREGIMEN BEREZIA

### 124. artikulua. Aplikazio-eremu subjektiboa.

Bat. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia nekazaritza, basozaintza, abeltzaintza edo arrantzako ustiategien titularrei aplikatuko zaie, baldin eta kapitulu honetan adierazitako betekizunak betetzen badituzte eta araubide horri uko egiten ez badiote erregelamenduz ezarritakoaren arabera. Araubide berezi honen ondorioetarako, honako hauek ez dira basozaintza, abeltzaintza edo arrantzako ustiategien titulartzat hartuko:

a) Finken edo ustiategien jabeak, ustiategi horiek errentamenduan edo apartzerian edo beste edozein forma erabilita lagatzen dituztenean, baita beren finka edo ustiategietan dauden pinuen erretxinaren aprobetxamendua lagatzen dutenean ere.

b) Abeltzaintza abelazkuntza integratuaren araubidean ustiatzen dutenak.

Bi. Jarraikoak nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezitik at daude:

1.a. Merkataritzako sozietateak.

2.a. Kooperatiba sozietateak eta transformakuntzarako nekazaritza-sozietateak.

3.a. Aurre-aurreko urtean, arauz finkatutako zenbatekotik gorako eragiketa kopurua izan duten enpresariak edo profesionalak.

4.a. Egiten dituzten ekonomi jardueretako batengatik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboaren araubideari uko egin dioten enpresariak edo profesionalak.

5.a. Araubide erraztuaren aplikazioari uko egin dioten enpresariak edo profesionalak.

6.a. Enpresa. edo lanbide- jarduera guztietarako egin dituzten ondasun- eta zerbitzu-eskuraketengtatik eta inportazioengatik, ibilgetuko elementuenak salbu utzita, aurreko urtean 300.000 euro baino gehiago (BEZ kanpo) ordaindu dituzten enpresariak edo profesionalak.

Aurre-aurreko urtean jarduera bat hasi bada, eskuraketa eta inportazioen kopurua urtekoratu egingo da.

Hiru. Aurreko idatz-zatiko 3. eta 6. zenbakietan ezarritako ondasun edo zerbitzuen eskuraketa edo inportazioen eragiketa kopuruaren muga gainditu izanagatik araubide berezi honetatik at geratu diren enpresariak edo profesionalak, baldin eta hurrengo urteetan muga hori gainditzen ez badute, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziari loturik geratuko dira, uko egin ezean.

Lau. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziari uko eginez gero, ukoa hiru urtean egongo da indarrean gutxienez, arauz ezartzen den bezala.

### 125. artikulua. Nekazaritza-, basogintza-, abeltzaintza- edo arrantza-ustiapen kontzeptua.

Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide berezia aplikatu ahalko zaie nekazaritza-, baso-, abeltzaintza- edo arrantza-ustiapenei, baldin eta berauek soroetatik

zuzenean lortzen badute gainontzekoei eskualdatzeko natura-, landare- edo abere-produkturik; baita foru arau honen 127. artikuluan aipatuta dauden ustiapen horien zerbitzu osagarriei ere.

**126. artikulua. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen berezitik ateko jarduera ekonomikoak.**

Bat. Kapitulu honetan araupetutako araubide berezia ezin izango zaie aplikatu nekazaritza-, baso-, abeltzaintza- edo arrantza-ustiapenei, baldin eta ustiategietan lortutako natur produktuak ustiategiaren titularrak helburu batzuekin erabiltzen baditu. Helburu horiek honakook dira:

1.a. Produktu horiek gero eskualdatzeko zuzenean edo gainontzekoen bitartez transformatzea, lantzea edo manufakturatzea.

Jarduera bat transformaziotzat hartuko da, baldin eta hura burutzeko manuzkoa bada Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren tarifen industri jarduerei dagokien epigrafe bateko alta.

2.a. Produktu horiek gainontzekoei eskuratutako beste produktu batzuekin nahasirik merkaturatzea, nahiz eta horiek izaera berekoak edo bertsukoak izan, azken horiek haiek kontserbatze hutsa ez badute helburu.

3.a. Nekazaritza-, baso-, abeltzaintza- edo arrantza-ustiategia dagoen tokitik kanpo kokatuta dauden establezimendu finkoetan etengabe merkaturatzea.

4.a. Subjektu pasiboak nekazaritza-, baso-, abeltzaintza- edo arrantza-ustiapenaren ezberdinak diren beste enpresa- edo lanbide-jarduera batzuk egiten dituen establezimenduetan merkaturatzea.

Bi. Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide berezia jarduera batzuei ezin aplikatuko zaie. Jarduera horiek honakook dira:

1.a. Kirol- edo josteta-ustiapen zinegetikoak.

2.a. Itsas-arrantza.

3.a. Abeltzaintza lokabea.

Ondorio horietarako, abeltzaintza lokabetzat hartuko da Ekonomi Jardueren gaineko Zergan horrelakotzat definitutakoa, eta subjektu pasiboak zuzenean ustiatutako abeltzaintza-jarduera multzoari dagokio.

4.a. Foru arau honetako 127. artikuluan ezarritako zerbitzuen ezberdinak diren zerbitzuak egitea.

**127. artikulua. Araubide berezian sartutako zerbitzu osagarriak.**

Bat. Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide berezian sartutakotzat hartuko dira araubide berezi hori aplika dakiekeen ustiapenen zerbitzu osagarriak, ustiategien titularrek ustiategiotan erabilitako bitarteko arrunten bidez gainontzekoei egiten dizkietenak, baldin eta zerbitzu horiek destinatarien nekazaritza-, baso-, abeltzaintza- edo arrantza-produkzioak egiteko lagungarri badira.

Bi. Aurreko atalean xedatutakoa ez da aplikatuko, baldin eta, aurre-aurreko urtean, egindako zerbitzu osagarri guztien zenbatekoa kapitulu honetan araupetutako araubide berezia aplika dakiekeen nekazaritza-, baso-, abeltzaintza- edo arrantza-ustiategi nagusietako eragiketen kopuru osoaren 100eko 20koa baino handiagoa bada.

**128. artikulua. Enpresa- edo lanbide-jardueraren arlo bereizietan ekonomi jarduerak egitea.**

Kapitulu honetan araupetutako araubide berezia hartu ahalko dute berau aplika dakiekeen nekazaritza-, baso-, abeltzaintza- eta arrantza-ustiategien titularrek, nahiz eta beste enpresa- edo lanbide-jarduera batzuk egin.

Kasu horretan, araubide bereziak bertan sartuta dauden jarduerei begira bakarrik izango ditu ondorioak, eta jarduera horiek beti hartuko dira subjektu pasiboaren ekonomi jardueraren arlo bereiziko jardueratzat.

**129. artikulua. Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide bereziaren menpeko subjektu pasiboen betebeharrak.**

Bat. Araubide berezia duten subjektu pasiboek, bertan sartutako jarduerei dagokienean, ez dute Zerga likidatu, jasan edo ordaindu behar. Gainera, orokorrean, ez dituzte foru arau honen X. eta XI. Tituluetan ezarritako betebeharrak bete behar: foru arau honen 164. artikuluaren lehenengo ataleko 1., 2. eta 3. zenbakietan daudenak eta erregistratu eta kontabilizatzekoak baino ez. Betebeharrok arauz zehaztuko dira.

Era berean, aurreko erregela aplikatuko zaie ondasun higiezinen ezberdinak diren inbertsioko ondasunen emateei. Ondasunok jarduera horietan bakarrik erabiliak dira.

Bi. Aurreko atalean xedatutakotik honako eragiketok salbuetsiko dira:

1.a. Ondasunen inportazioak.

2.a. Ondasunen erkidego barruko eskurapenak.

3.a. Foru arau honen 84. artikuluaren lehenengo ataleko 2. zenbakian aipatuta dauden eragiketak.

Hiru. Araubide berezi horri eutsita dauden enpresariek, beste arlo bereizi batzuetan jarduerarik eginez gero, behar bezala eduki eta gorde beharko dituzte arauz zehazten diren liburu eta agiriak.

**130. artikulua. Kenkarien eta konpentsazioen araubidea.**

Bat. Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide bereziaren menpeko subjektu pasiboek ezin kenduko dituzte eginak izan zaizkien zerbitzuengatik edo ondasunak eskuratu edo inportatzearengatik jasandako edo ordaindutako kuotak, ondasun edo zerbitzuok araubide berezi hau aplika dakiekeen jarduerak burutzeko erabiliak badira.

Foru arau honen VIII. Tituluaren I. Kapituluan xedatutakoaren ondorioetarako, kontutan hartuko denez, kentzeko eskubiderik ez dute sortuko araubide berezi hau aplika dakiekeen jarduerak garatzeko burututako eragiketek.

Bi. Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide bereziaren menpeko enpresariek goranzko konpentsazio bat jasotzeko eskubidea izango dute eginak izan zaizkien zerbitzuengatik edo ondasunak eskuratu edo inportatzearengatik jasandako edo ordaindutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotengatik, ondasun edo zerbitzuok araubide berezi hori aplika dakiekeen jarduerak burutzeko erabiliak badira.

Konpentsazioa jasotzeko eskubidea hurrengo atalean aipatuta dauden eragiketak egiten diren unean sortuko da..

Hiru. Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide berezia aplika dakiekeen ustiategien enpresari titularrek artikulu honetan aipatutako konpentsazioa jasotzeko eskubidea izango dute honako eragiketok egiten dituztenean:

1.a. Ustiategi horietan lortutako natur produktuak beste enpresari edo profesional batzuei ematea, berdin delarik zein den haiek finkatuta dauden lurraldea. Honako emateok salbuetsita daude:

a) Zerga aplikatzen den lurraldean araubide berezi honi eutsita dauden eta produktu horiek araubide berezi hori aplika dakiekeen jarduerak burutzeko erabiltzen dituzten enpresariei egindakoak.

b) Zerga aplikatzen den lurraldean Zergaren menpean ez dauden eragiketak bakarrik egiten dituzten enpresari edo profesionalei egindakoak. Eragiketa horiek foru arau honen 94. artikuluaren lehenengo ataleko eragiketen ezberdinak dira.

2.a. Foru arau honen 25. artikuluan aipatuta dauden emateak, ustiategi horietan lortutako natur produktuenak, eskuratzailea pertsona juridikoa bada, enpresari edo profesional bezala jarduten ez badu eta, destinoa den Estatuan, foru arau honen 14. artikuluan dauden irizpideen arabera ezarritako loturarik ezak bera ukitzen ez badu.

3.a. Foru arau honen 127. artikuluan dauden zerbitzuen prestazioak, edozein delarik haien destinatariak finkatuta dauden lurraldea, destinatariak ez badaude sartuta araubide berezi honetan Zergaren leku-eremuan.

Lau. Artikulu honen bigarren eta hirugarren ataletan xedatutakoa ez da aplikatuko, baldin eta nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide bereziaren menpeko subjektu pasiboek natur produkturik eman edo esportatzen badute araubide berezi hori ezin aplika dakiekeen jarduerak garatzeko. Hala ere, kontutan hartuko da haiek foru arau honen VIII. Tituluan ezarritako kenkarietarako duten eskubidea.

Bost. Artikulu honetako hiru zenbakian aipaturiko goranzko konpentsazioaren zenbatekoa kalkulatzeko, jarraian adierazten diren ehunekoetatik dagokiona aplikatu behar zaio zenbaki horretan adierazitako ekoizkin edo zerbitzuen salmenta-prezioari. Ehunekook hauek dira:

1. Nekazaritza eta basogintzako ustiapenetan lortzen diren ekoizkin naturalen emateetan eta ustiapen horien zerbitzu osagarrietan, %12.

2. Abeltzaintza eta arrantzako ustiapenetan lortzen diren ekoizkin naturalen emateetan eta ustiapen horien zerbitzu osagarrietan, %10,5.

Prezio horiek zehazteko, ez dira zenbatuko eragiketa horiek kargatzen dituzten zeharkako zergak, ezta eskuratzaileari bereiz kargatutako gastu osagarri zein gehigarriak ere (adib.: komisioak, enbalajeak, garraio-kostuak, garraioak, aseguruak, finantza-gastuak, etab.).

Diru-konpentsaziorik gabe egindako eragiketetan, emandako ekoizkinek edo egindako zerbitzuek merkatuan duten balioari aplikatuko zaizkio ehuneko horiek.

Eragiketa bakoitzean aplikatu beharreko ehunekoa hau da: konpentsazioa jasotzeko eskubidea sortzen den unean indarrean dagoena.

**131. artikulua. Konpentsazioak itzuli behar dituztenak.**

Foru Arau honen 130. artikuluan aipatzen diren konpentsazioen itzulketa ondoko hauek egingo dute:

1. Herri-ogasunak; beste estatu kide batera esportatu, saldu edo garraiatzeko diren ondasunen emateei eta Zergaren aplikazio-lurraldetik kanpo finkaturik dauden destinatariei egiten zaizkien eta erregimen bereziaren barnean bildurik dauden zerbitzuei doakienean.

2. Aurreko zenbakian aipatzen direnez beste emate batzuetarako diren ondasunen eskuratzaileak, eta Zergaren aplikazio-lurraldean finkaturik dagoen eta erregimen bereziaren barnean bildurik dauden zerbitzuen destinatariak.

**132. artikulua. Errekurtsoak.**

Erregimen berezi honi dagozkion konpentsazioei buruz gerta daitezkeen hizka-mizkak, bai nondikakoari eta bai zenbatekoari doakienean, tributu-izaerakotzat hartuko dira, bidezko izan daitezkeen ekonomia-administraziozko erreklamazioak eginez gero.

**133. artikulua. Konpentsazioen behar ez bezalako itzulketa.**

Behar ez bezala jasotako konpentsazioak Foru Ogasunean berriro sartu behar ditu haien jasotzaileak. Hala ere, kontutan hartuko dira eskatu ahal zaizkion gainerako betebehar eta erantzukizunak.

**134. artikulua. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen bereziari dagozkion konpentsazioen kenketa.**

Bat. Foru Arau honen 130. artikuluan aipatzen diren konpentsazioak ordaindu dituzten subjektu pasiboek, Foru Arau honen kuota jasan kengarriei buruzko VIII. tituluan xedatzen dena aplikatuz burutzen diren eragiketengatik sortu diren kuoten kopurutik aipatu konpentsazioon zenbatekoa kendu ahal izango dute.

Bi. Aurreko atalean xedatu denetik salbuetsirik daude baliokidetasun-errekarguaren erregimen berezia aplikagarri duten subjektu pasiboak, aipatu erregimen bereziaren babespean merkaturatzekoak diren berezko ekoizkinen eskuraketei dagokienez.

Hiru. Artikulu honetan xedatzen den eskubidea erabiltzeko, subjektu pasiboek berek jaulkitako agiriaren jabe izan beharko dute, arau bidez zehazten den era eta beharkizunen arabera.

**134 bis artikulua. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia aplikatzen hastea eta aplikatzeari uztea.**

Bat. Nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza edo arrantzaren arloko jarduera baten zerga-ordainketan Zergaren araubide orokorrari utzi eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziari heltzen bazaio, jarduera horren titularra den enpresariak edo profesionalak jarraikoak egin behar ditu:

1.a. Zerga-ordainketako araubidea aldatzen den egunerako lortuta eta eman gabe dituen produktu naturalen etorkizuneko emateari dagokion konpentsazioaren zenbatekoa sartu behar du. Konpentsazio hori foru arau honetako 130. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatuko da; kalkuluaren oinarria behin-behinean finkatzeko, oinarritutako irizpideak aplikatuko dira, eta gero, zenbatekoa ezagututakoan, zuzendu egin ahal izango da.

2.a. Ondasunei dagozkion kenkariak zuzendu, inbertitutako ondasunei eta jardueran edo ustiapenean osorik edo partzialki kontsumitu edo erabili ez diren zerbitzuei dagozkienak izan ezik.

Idatz-zati honetan ezarritako betebeharrak betetzeko, enpresariak edo profesionalak inbentarioa sortu beharko du eta araubide berezia aplikatzeari uzten dionean aurkeztu. Inbentarioa aurkezteko eta kopurua sartzeko arauz ezartzen diren betekizunak eta baldintzak bete beharko ditu.

Bi. Nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza edo arrantzaren arloko jarduera baten zerga-ordainketan nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziari utzi eta Zergaren araubide orokorrari heltzen bazaio, jarduera horren titularra den enpresariak edo profesionalak jarraikoak egiteko eskubidea izango du:

1.a. Jarduerari lotutako ondasunek araubide berezia aplikatzeari uzten zaion egunean duten balioari, Balio Erantsiaren gaineko Zerga sartu gabe, egun horretan indarrean dauden zerga horren tasak aplikatuz sortzen den kuota kendu. Ondore hauetarako, jarraian azalduko direnak ez dira kontuan hartuko:

a) Inbertsio-ondasunak; foru arau honetako 108. artikuluan definitu dira.

b) Jarduera oso-osorik edo partzialaki erabili edo kontsumitu diren ondasunak eta zerbitzuak.

2.a. Ustiategietan zerga-ordainketako araubidea aldatu aurretik sortu eta eman ez diren produktu naturalengatik foru arau honetako 130. artikuluan ezarritako oroharreko konpentsazioa kendu.

Idatz-zati honetan ezarritako eskubideak baliarazteko, enpresariak edo profesionalak inbentarioa sortu beharko du eta araubide orokorra aplikatzeari uzten dionean aurkeztu. Inbentarioa aurkezteko eta eskubide hauek baliarazteko arauz ezartzen diren betekizunak eta baldintzak bete beharko ditu.

Hiru. Inbertsio-ondasunak eskuratu edo inportatzeko jasandako edo ordaindutako kuoten kenkariak erregularizatzeko, jarduera araubide berezi honetan dagoen epealdian edo epealdietan aplikatu beharreko kenkari-lainketaren zenbatekoa zero izango da.

## IV. KAPITULUA
## ONDASUN ERABILI, ARTE-OBJEKTU, ANTZINATEKO OBJEKTU ETA BILDUMA-OBJEKTUEN ARAUBIDE BEREZIA

### 135. artikulua. Ondasun erabili, arte-objektu, antzinateko eta bilduma-objektuen erregimen berezia.

Bat. Ondasun erabilien edo arte-objektu, antzinateko objektu edo bilduma-objektutzat jotzen diren ondasun higigarrien birsaltzaile diren subjektu pasiboek kapitulu honetan zehazturiko araubide berezia aplikatuko dute honako ondasun-emate hauetan:

1. Ondasun erabili, arte-objektu, antzinateko objektu edo bilduma- objektuen emateak, baldin eta birsaltzaileak honako hauei erosi badizkie:

   a) Enpresaburu edo profesionala ez den pertsona bat.

   b) Ondasunaren bidalketa edo garraioa abiatzen den Estatu kidean Zergaren frankizia-erregimena duen enpresaburu edo profesional bat, baldin eta ondasun hori inbertsio-ondasuna bada enpresaburu edo profesional horrentzat .

   c) Enpresaburu edo profesional bat, baldin eta ematea zergatik salbuetsita badago, foru arau honetako 20. artikuluaren bat zenbakiko 24 edo 25. paragrafoetan xedatzen dena aplikatuz.

   d) Beste subjektu pasibo birsaltzaile bat, baldin eta birsaltzaile horrek ondasun erabili, arte-objektu, antzinateko objektu edo bilduma- objektuen araubide berezia aplikatu badio berak egindako emateari.

2. Subjektu pasibo birsailtzaileak berak inportaturiko arteobjektu, antzinateko objektu edo bilduma-objektuen emateak.

3. Enpresaburu edo profesionalei erositako arte-objektuen emateak, baldin eta eragiketa horiei aplikagarria izan bazaie arau honetako 91. artikuluko bat ataleko 4. eta 5. zenbakietan ezartzen den zerga-tasa murriztua.

Bi. Aurreko atalean xedatutakoa gora-behera, subjektu pasibo birsaltzaileek Zergaren erregimen orokorra aplikatu ahal izango diote bertan adierazitako eragiketetako edozeini, horrela eginez gero, birsalmentaren gai izandako ondasunen eskuraketan edo inportazioan jasan edo ordaindutako Zergaren kuotak kentzeko eskubidea izango duela, Foru Arau honetako VIII. Tituluan ezarritako arauei atxekiz.

Hiru. 13. artikuluko 2. zenbakian zehaztutako garraiobide berrien emateei ezin izango zaie ezarri kapitulu honetan araupetutako araubide berezia emate horiek foru arau honetako 25. ataleko bat, bi eta hirugarren ataletan ezarritako baldintzetan egin direnean.

**136. artikulua. Ondasun erabili, arte-objektu, antzinateko eta bilduma-objektuen eta subjektu pasibo birsailtzailearen kontzeptua.**

1. Foru Arau honetan xedatzen denaren ondorioetarako:

1.a. Ondasun erabilitzat hartuko dira erabilera iraunkorrekoak izan eta, lehenago beste inork erabiliak izanda, euren xede zeha-tzetarako berriz ere erabilgarriak diren gauzazko ondasun higigarriak.

Ez dira ondasun erabiltzat hartuko:

a) Berreskuraketako materialak, ontziak, enbalaketak, urrea, platinoa eta harribitxiak.

b) Subjektu pasibo eskualdatzaileak berak edo bere konkura erabiliak, berriztatuak edo eraldatuak izandako ondasunak.

Kapitulu honetan ezartzen denaren ondorioetarako, berriztaketa iritziko zaie ondasunen jatorrizko ezaugarriei eusteko xedea izan dezaten eragiketei, hauen kostua ondasunen eskuraketa preziotik gorakoa denean.

2.a. Arte-objektutzat hartuko dira ondorengoak:

a) Koadroak, kolaiak eta antzerako koadro txikiak, pinturak eta marrazkiak, artegileak oso-osorik eskuz eginak, honako hauek salbu: arkitektura eta ingeniaritza planoak eta gainerako industri, merkatal, topografiazko eta antzerako marrazkiak, eskuz apaindutako artikulu manufakturatuak, antzerki dekoratu, estudio hondo edo antzerako erabilpideetarako pintaturiko oihalak (NC 9701 kodea).

b) Berrehun aletarainoko jatorrizko grabatu, estanpa eta litografiak, zuri-beltzez nahiz kolorez, artegileak oso-osorik eskuz egindako plantxa batetik edo batzuetatik zuzenean datozenak, erabilitako teknika dena dela, baliabide mekaniko edo fotomekanikoak izan ezik (NC 9702 00 00 kodea).

c) Edozein materiazko jatorrizko eskulturak eta estatuak, baldin eta artegileak oso-osorik eginak badira; eskulturen hustuketak, gintza zortzi aletarainokoa eta artegileak edo bere eskubidedunek kontrolatua delarik (NC 9703 00 00 kodea).

d) Tapizak (NC 5805 00 00 kodea) eta horma-oihalak (NC 6304 00 00 kodea), artegileek egindako jatorrizko kartoien oinarrian eskuz ehunduak, bakoitzeko zortzi ale baino gehiago ez egotearen baldintzapean.

e) Keramikazko ale bakarrak, artegileak oso-osorik eginak eta berak sinatuak.

f) Kobre gaineko esmalteak, oso-osorik eskuz eginak, zenbatgarrendutako zortzi aleko mugaz eta artegilearen edo lantegiaren sinadura eraman behar dutela, bisuteria, zilargintza eta bitxigintzazko artikuluak ezik.

g) Artegileak hartu eta egileak errebelatu eta inprimatutako argazkiak, sinatu eta zenbatgarrenduak, guztira hogeita hamar aleko mugaz, formatoak eta euskarriak direnak direla.

3.a. Bilduma-objektutzat hartuko dira ondorengoak:

a) Posta seiluak, tinbre fiskalak, posta ikurrak, lehen eguneko gutunazalak, artikulu frankeatuak eta antzerakoak, obliteratuak, edo legezko erabilerarik ez duten eta izango ez duten obliteratugabeak (NC 9704 00 00 kodea).

b) Zoologia, botanika, mineralogia edo anatomia arloetako bildumak eta bildumetarako banakoak, edo historia, arkeologia, paleontologia, etnografia edo numismatika arloetako interesik dutenak (NC 9705 00 00 kodea).

4.a. Antzinatekotzat hartuko dira ehun urte baino gehiago izan eta arte edo bilduma-objektuak ez direnak (NC 9706 00 00 kodea).

5.a. Ondasunen birsaltzailetzat hartuko da aurreko zenbakietan bilduta egon eta, gero birsaltzeko asmoz, eskuratu edo inportatuak izan diren ondasunen emateak ohiz egiten dituen enpresaria.

Birsaltzaile iritziko zaio, orobat, aurreko lerroaldean aipatzen diren ondasunen enkante publikoan salmenta-antolatzaileari, salmenta-komisiozko kontratu baten indarrez bere izenean dihardueneán.

2. Araubide berezi hau ez zaio inolaz ere aplikatuko Foru Arauaren 140. artikuluan definitutako inbertsio-urreari.

**137. artikulua. Zerga-oinarria.**

Bat. Ondasun erabil, arte lan, antzinako gauza eta bilduma gaien araubide berezia ezartzen zaien ondasun-emateen zerga-oinarria subjektu pasibo birsaltzaileak eragiketa bakoitzari ezarritako mozkin marjina izango da, marjen horri dagokion Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotan gutxituz.

Ondore horietarako, ondasunaren salmenta prezioaren eta erosketa prezioaren arteko tartea joko da mozkin marjentzat.

Salmenta prezioa transmisioaren kontraprestazioaren guztizko zenbatekoak, foru arau honetako 78 eta 79. artikuluetan ezarritakoaren arabera zehaztuko denak, gehi eragiketa kargatu duen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak osatuko dute.

Salmenta prezioa, ostera, eskualdatutako ondasunaren eskuraketari dagokion kontraprestazioaren guztizko zenbatekoak, foru arau honetako 78, 79 eta 82. artikuluetan xedatutakoaren arabera zehaztuko denak, gehi eragiketa kargatu duen kasuaren kasuko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoak osatuko dute

Subjektu pasibo birsaltzaileak inportatutako ondasun erabil, arte lan, antzinako gauza eta bilduma gaiak eskualdatzen direnean, mozkin marjenaren zenbatekoa kalkulatzeko, ondasunaren zenbatekoaren zerga-oinarria, foru arau honetako 83. artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztuko dena, gehi inportazioa kargatu duen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota joko da salmenta preziotzat.

Bi. Subjektu pasibo birsaltzaileek beraiek hautatu ahal izango dute likidazioaldi bakoitzerako zerga-oinarria, horretarako mozkin osoaren marjena marjen horri dagokion Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotan gutxitu egingo dutelarik.

Likidazioaldi bakoitzean egin izandako ondasun-emate guztien salmenta prezioaren eta erosketa prezioaren arteko tartea joko da mozkin marjen osotzat. Horretara, aurreko atalean araubide bereziari lotutako eragiketa bakoitzaren mozkin marjena kalkulatzeko ezarri den era erabiliz zehaztuko dira prezio horiek.

Zerga-oinarria zehazteko modalitate hau ezartzean honako erregelok bete beharko dira:

1.a. Mozkin osoaren marjinaren modalitatea hurrengo ondasunei bakarrik ezarri ahal izango zaie:

a) Filatelia edo numismatikaren arloetako interesa duten zigilu, efektu tinbredun, bilete eta monetei:

b) Disko, zinta magnetiko eta soinu edo irudizko bestelako euskarriei.

c) Liburu, aldizkari eta bestelako argitalpenei.

Zerga-administrazioak, hala ere, arestian aipatutako ondasunez ez bestelakoen zerga-oinarria zehazteko mozkin osoaren marjenaren modalitatea ezartzeko baimena eman ahal izango du, horretarako interesatuak aurretik eskatzen badu, beraz baimenerako baldintzak jarriko ditu eta baimena eragin zuten inguruabarrak gertatzen ez direnean berriro atzera bota ahal izango du.

2.a. Aukera hori arau bidez zehaztuko den eran egingo da eta aukerari uko egin artean izango ditu ondoreak eta, gutxienez, hurrengo berezko urtea amaitu artean. Aukera hori eskatu duen subjektu pasibo birsaltzaileak aukeraren ezarraldian zehar egin dituen ondasunei doazkien emate guztiei, modalitate horren arabera, dagokien zerga-oinarria zehaztu beharko dute, baina emate horiei ezin izango zaie ezarri zergaren araubide orokorra.

3.a. Likidazioaldi bati dagokion mozkin marjen osoa negatiboa izanez gero, aldi horretako zerga-oinarria zero izango da eta marjen hori hurrengo aldiko erosketen zenbatekoari gehituko zaio.

4.a. Zerga-oinarria zehazteko modalitate hau aukeratu duten subjektu pasibo birsaltzaileek beren izakinen urteko erregularizazioa egin beharko dute, horretarako urte bakoitzeko amaierako eta hasierako saldoen arteko tartea kalkulatu beharko delarik eta dagoen tartea, positiboa izanez gero, azken aldiko salmenten zenbatekoari gehitu beharko zaio eta, negatiboa izanez gero, aldi bereko erosketen zenbatekoari.

5.a. Ondasunak foru arau honetako 21, 22, 23 edo 24. artikuluak ezarriz, salbuetsita dauden emateen xedea direnean, subjektu pasiboak aldiaren barruko erosketen zenbateko osotik ondasun horien erosketa prezioa gutxitu beharko du. Erosketa prezio hori zein den jakiterik ez dagoenean, birsaltzaileak eskuratu zituenean ondasunek merkatuan zuten balioa erabili ahal izango da.

Aldi berean, subjektu pasiboak ez du konputatuko aipatutako salbuetsitako emateen zenbatekoa aldiaren barruko salmenten artean.

6.a. Laugarren erregelan aipatu den erregularizazioaren ondoreetarako, zerga-oinarria zehazteko modalitate hau ezartzen hasi edo ezartzeari uzten den kasuetan, subjektu pasiboak hasiera edo uzte datan dituen izakinen inbentarioa egin beharko du, bertan ondasunen erosketa prezioa edo, hori ezean, ondasunak eskuraketa datan zuen balioa, agertaraziz.

### 138. artikulua. Zergaren jasanarazpena.

Erregimen berezi hau aplikagarri zaien eragiketak dokumentatzen dituzten fakturetan, subjektu pasiboek ez dute jasanarazitako kuota bereiz jartzerik izango, kuota hau eragiketaren guztizko prezioan sartutzat jotzen dela.

Ondasun erabili, arte-objektu, antzinateko edo bilduma-objektuen eskuratzaileek jasandako kuotak ez dira kengarriak izango subjektu pasibo birsailtzaileeek Kapitulu honetan araupetzen den erregimen berezia aplikatuz eskualdatu dizkietenean.

### 139. artikulua. Kenkariak.

Subjektu pasibo birsailtzaileek ez dute ondasunen eskuraketa edo inportazioaren zioz jasandako edo ordaindutako Zergaren kuotak kentzerik izango, eurek berriz ondasun horiek erregimen berezi honen menpeko emateen bitartez eskualdatzen dituztenean.

## V. KAPITULUA
## INBERTSIO-URREAREN ARAUBIDE BEREZIA

### 140. artikulua. Inbertsio-urrea.

Foru arau honetan ezarritako ondoreetarako, ondokoak hartuko dira inbertsio-urretzat:

1.a. Legea 995 milarenekoa edo handiagoa duten urrezko lingote edo xaflak, baldin eta beraien pisua bat badator Foru Arauaren eranskineko bederatzigarren idatz-zatian xedatutakoarekin.

2.a. Ondoko betekizunak betetzen dituzten urrezko txanponak:

a) Legea 900 milarenekoa edo handiagoa izatea.

b) 1800az geroztik eginak izatea.

c) Jatorrizko herrialdean legezko erabilerako moneta izatea edo izana.

d) Merkaturatu direnean prezioa duten urrearen merkatuko balioaren %80 baino handiagoa ez izana.

Nolanahi ere, «Europako Elkarteen Aldizkari Ofizialean» urte bakoitzeko abenduaren 1a baino lehen argitaratzen den C saileko zerrendan ageri diren urrezko txanponek aurreko betekizunak betetzen dituztela ulertuko da. Ulertuko da txanpon horiek inber-tsio-urretzat jotzeko behar diren betekizunak betetzen dituztela aipatu zerrenda argitaratzen den urtearen jarraiko egutegiko urtean eta jarraikoetan, aipatu zerrendan aldaketarik egon ezean.

### 140 bis artikulua. Salbuespenak.

Bat. Ondoko eragiketak Zergatik salbuetsita daude:

1.a. Inbertsio-urrearen emateak, Batasun barruko eskuraketak eta inportazioak. Halaber, emate diren aldetik, salbuetsita daude maileguak eta finantza-trukeko eragiketak, bai eta etorkizuneko edo epeko kontratuetatik datozen eragiketak ere, baldin eta haien xedea inbertsio-urrea bada eta urrearen gaineko baliatze-ahala eskualdatzea badakarte.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa ez zaie aplikatuko:

a) Inbertsio-urrea xede duten zerbitzugintzei, artikulu honetako 2. zenbakian xedatutakoaren kalterik gabe.

b) Inbertsio-urrearen Batasun barruko eskuraketei, urrea ematen duen enpresariak jatorrizko estatutuan halako emateetarako ezarritako araubide bereziko Zergaren salbuespenari uko egin badio.

2.a. Aurreko 1. zenbakian ezarritakoaren arabera salbuetsita dauden eragiketetan egiten diren bitartekaritza-zerbitzuei, besteren izenean eta kontura egiten direnean.

Bi. Baldin eta emate bati manu honetan araupetutako salbuespena eta foru arau honetako 25. artikuluan ezarria aplikatu ahal bazaizkio, manu honetan araupetutakoa aplikatuko zaio, 140 ter artikuluko bat idatz-zatian xedatutakoaren arabera berariaz uko egin ezean.

### 140 ter artikulua. Salbuespenari uko egitea.

Bat. Foru arau honetako 140 bis artikuluko bat idatz-zatiko 1. zenbakian aipaturiko inbertsio-urrearen emateei aplika dakiokeen salbuespenari uko egin ahal izango dio formalki eskuratzaileak; horretarako arauz zehazturiko erari eta betekizunei lotu beharko zaie eta ondoko baldintzak bete beharko ditu:

1.a. Bere ohiko jarduera inbertsio-urrea ekoiztea edo inbertsiokoa ez den urrea inbertsio-urre bihurtzea izatea, baldin eta ematearen xedea aipatu jardueren emaitzako inbertsio-urrea bada.

2.a. Enpresaria edo profesionala izan behar du eta enpresa edo profesional jardueretan aritu behar du.

Bi. Foru arau honetako 140 bis artikuluko bat idatz-zatiko 2. zenbakian aipaturiko bitartekaritza-zerbitzuei aplikatu ahal zaien salbuespenari uko egin ahal izango zaio, baldin eta bitartekaritza-zerbitzuaren hartzailea enpresaria edo profesionala bada eta enpresa edo profesional jarduerak egiten aritzen bada, arauz ezarritako eran eta arauzko betekizunekin, eta bitartekaritza-zerbitzuaren xede den inbertsio-urrearen emateari aplikatu ahal zaion salbuespenari uko egiten badio.

**140 cuater artikulua. Kenkariak.**

Bat. Foru arau honen 92. artikuluan ageri diren Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak ezin kendu izango dira eskuratuz edo inportatuz kuotak sortzen edo jasanarazten dituzten ondasunak edo zerbitzuak foru arau honetako 140 bis artikuluan xedatutakoaren arabera salbuetsita dauden inbertsio-urrearen emateetarako erabiltzen diren heinean.

Bi. Aurreko idatz-zatian xedatutakoaren salbuespen gisa, bertan aipaturiko inbertsio-urrearen emateek ondoko kuotak kentzeko eskubidea sortuko dute:

1.a. Urrea eskuratzean jasandako kuotak, hura hornitu duenak 140 ter artikuluko bat idatz-zatian araupetutako salbuespenari uko egin dionean.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa aplikatuko zaie Batasun barruan egiten diren inbertsio-urrearen eskuraketei ere, baldin eta urrea ematen duen enpresariak jatorrizko estatutuan halako emateetarako ezarritako araubide berezian uko egin badio Zergaren salbuespenari.

2.a. Urrea eskuratu edo inportatzeagatik jasan edo ordaindutako kuotak, baldin eta hura eskuratu edo inportatzean inbertsio-urretzat ezin hartu bada eta salbuetsitako ematea egin duenak edo zergadunak berak inbertsio-urre bihurtu badu.

3.a. Urrearen itxura, pisua edo legea aldatzeagatik jasaten direnak.

Hiru. Halaber, aurreko bat idatz-zatian xedatutakoaren salbuespen gisa, baldin eta enpresari edo profesional batek inbertsio-urrea zuzenean edo eraldakuntzaren bidez lortzen badu eta Zergatik salbuetsirik ematen badu, emate horrek urrearen ekoizpen edo eraldakuntzarekin loturiko ondasun eta zerbitzuak eskuratu edo inportatzeagatik jasan edo ordaindutako kuotak kentzeko eskubidea sortuko du.

**140 quinque artikulua. Subjektu pasiboa.**

140 ter artikuluan aipaturiko salbuespenari uko egitearen zioz kargatzen diren inbertsio-urrearen emateengatik Zergaren subjektu pasiboa izango da kargaturiko eragiketa egiten duen enpresari edo profesionala.

**140 sexies artikulua. Fakturak gorde beharra.**

Inbertsio-urrea xede duten eragiketak egiten dituzten enpresariek eta profesionalek eragiketa horien fakturak bost urtean gutxienez gorde behar dituzte, bai eta haien erregistroak ere.

## VI. KAPITULUA
## BIDAIA-AGENTZIEN ARAUBIDE BEREZIA

### 141. artikulua. Bidaia-agentzien araubide berezia.

Bat.Honako kasu hauetan aplikatuko da bidaia-agentzien araubide berezia:

1. Bidaia-agentziek egindako eragiketen kasuan, agentziok bidaiariei dagokienez beren izenean badihardute eta bidaia egiteko beste enpresaburu edo profesional batzuek emandako ondasunak edo zerbitzuak erabiltzen badituztez .

   Araubide berezi honen ondorioetarako, bidaiatzat hartuko dira ostatu- eta garraio-zerbitzuak, batera, bereizita edo —hala denean—, osagarri diren beste zerbitzu batzuekin batera ematen direnean.

2. Turismo-zirkuituen antolatzaileek eta edozein enpresaburuik edo profesionalek egiten dituzten eragiketen kasuan, baldin eta aurreko zenbakian adierazitako inguruabarrak gertatzen badira.

Bi. Bidaia-agentzien araubide berezia ez da aplikatuko bidaia egiteko garraio- edo ostalaritza-baliabide propioak bakarrik erabiliz egiten diren eragiketen kasuan.

Bidaia egiteko baliabide propioak zein beste batzuenak erabili badira, beste batzuen bitartekoak erabiliz emandako zerbitzuei baino ez zaie aplikatuko araubide berezia.

### 142. artikulua. Zergaren jasanarazpena.

Araubide berezi hau aplikatzen den eragiketetan, subjektu pasiboak ez dira behartuta egongo jasanarazitako kuota fakturan bereiz jartzera, eta kuota hori eragiketaren prezioan sartuta dagoela ulertu beharko da, hala denean.

### 143. artikulua. Salbuespenak.

Zergatik salbuetsirik egongo dira bidaia-agentzien araubide bereziaren pean dauden subjektu pasiboek egiten dituzten zerbitzuak, baldin eta EBtik kanpo egiten badira bidaiarien onurarako eskuratu eta bidaia egiteko erabiltzen diren ondasun- edo zerbitzu-emateak.

Baldin eta ondasunak edo zerbitzuak partez baino ez badira ematen EBko lurraldean, bakarrik egongo da salbuetsita bidaia-agentziak lurralde horretatik kanpo egiten duen zerbitzuari dagokion zatia.

### 144. artikulua. Zerga-egitatea egiten den tokia.

Zerbitzu-emate bakartzat hartuko dira agentziek bidaia egin behar duen pertsona bakoitzarentzat egiten dituzten eragiketak, nahiz eta bidaia beraren barruan ondasun- edo zerbitzu-emate bat baino gehiago eskaini.

Zerbitzua agentziak bere jarduera ekonomikoaren egoitza ezarrita duen lekuan edo eragiketa egin duen establezimendu iraunkorrean eman dela ulertuko da.

### 145. artikulua. Zerga-oinarria.

Bat.Zerga-oinarria bidaia-agentziaren marjina gordina izango da.

Ondorio horietarako, agentziaren marjina gordintzat zenbateko bi hauen arteko aldea hartuko da: batetik, bezeroari kargatzen zaion kantitate osoa —eragiketa hori kargatzen duen Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpo dela—; bestetik, beste enpresaburu edo profesional batzuek egindako ondasun- edo zerbitzu-emateen benetako zenbatekoa —zergak barne—, baldin eta agentziak bidaia egiteko eskuratzen baditu ondasun-zerbitzu horiek eta bidaiarien zuzeneko onurarako badira.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzeko, agentziak bidaia egiteko eskuratzen dituen zerbitzutzat hartuko dira, besteak beste, beste bidaia-agentzia batzuek helburu hori betetzeko ematen dituzten zerbitzuak, salbu eta handizkarien bidaia antolatuen salmentan agentzia txikizkariek haien izenean eta kontura egiten dituzten bitartekaritza-zerbitzuak.

Agentziaren marjina gordina zehazteko, ez dira konputatuko ez foru arau honetako 143. artikuluan xedatutakoa dela bide zergatik salbuetsita dauden eragiketei dagozkien kopuru edo zenbatekoak, ez eta eragiketa horiek egiteko erabiltzen diren zerbitzu edo ondasunei dagozkienak ere.

Bi. Besteak beste, honako zerbitzu hauek ez dira hartuko bidaia bat egiteko emandako zerbitzutzat:

1. Atzerriko moneta salerosteko edo trukatzeko eragiketak.

2. Agentziak egiten dituen telefono-, telex- eta posta-gastuak eta antzeko beste gastu batzuk.

### 146. artikulua. Kenkariak.

Araubide berezi hau aplikatzen zaien agentziek foru arau honetako VIII. tituluan ezartzen denaren arabera egin ahal izango dituzte kenkariak.

Hala ere, ezin izango dute kendu bidaia egiteko eskuratutako ondasun eta zerbitzuetan jasandako zerga, baldin eta ondasun-zerbitzuok bidaiariaren zuzeneko onurarako badira.

### 147. artikulua. Araubide berezia aplikatzen ez den kasua.

Foru arau honetako 141. artikuluan ezarritakoaren salbuespen gisa, subjektu pasiboek aukera izango dute —erregelamenduz ezarritako moduan— kapitulu honetako araubide berezia ez aplikatzeko. Horren ordez, zerga honen araubide orokorra aplikatu ahal izango dute, eragiketaz eragiketa, egiten dituzten zerbitzuetan, baldin eta zerbitzuon hartzaileak arau honetako VIII. tituluan ezarritakoaren arabera Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kenkarirako edo itzulketarako eskubidea duten enpresaburuak edo profesionalak badira.

## VII. KAPITULUA
## MERKATARITZA TXIKIZKARIAREN ERREGIMEN BEREZIAK

## 1. ZATIA

### 148. artikulua. Baliokidetasun-errekarguaren araubide berezia.

Bat. Baliokidetasun-errekarguaren araubide berezia Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan errenta-eratxikipeneko araubideko pertsona fisiko edo erakundeak diren txikizkako merkatariei aplikatuko zaie, arauz ezarritako arlo ekonomikoetan aritzen direnean eta arauzko betekizunak betetzen dituztenean.

Bi. Baldin eta araubide berezi hau aplikatu ahal zaion subjektu pasiboak Balio Erantsiaren gaineko Zergari loturiko beste enpresa edo profesional batzuk egiten baditu, araubide berezi honen menpeko txikizkako merkataritza jarduera ekonomikoez besteko arlotzat hartuko da.

Hiru. Arau bidez araubide berezi honetatik kanpo dauden gai edo ekoizkinak zehaztu ahal izango dira.

### 149. artikulua. Merkatari txikizkariaren kontzeptua.

Bat. Foru Arau honen ondoreetarako, merkatari txikizkaritzat joko dira ondoko beharkizun guztiak betetzen dituzten subjektu pasiboak:

1. Ondasun higigarrien eta abereen ohizko emateak merkatariek beren kabuz edo gainontzekoen bidez burutzea, haiekin inolako fabrikazio, gertaketa edo eskulangintzako prozesurik egin gabe.

   Ez dira merkatari txikizkaritzat hartuko, hauek transformatzen dituzten ekoizkinei dagokienez, beren jarduerako ekoizkinekin, beren kabuz edo gainontzekoen bidez, aurreko lerroaldean aipatu prozesuren bat egiten duten merkatariak; halaber, antzeko izaera edo bestelako izaera duten beste ekoizkin batzuk halakotzat hartuko dira, baldin eta merkaturatzean eskuratzean zeuden egoera berean badaude.

2. Aipatu ondasunengatik Gizarte Segurantzari, horren entitate kudeatzaile edo laguntzaileei, edo enpresari edo profesionari ez direnei aurreko urtean zehar egindako emateei dagozkien kontraprestazioen baturak aipatu ondasunen emateen guztirakoaren % 80a gainditu izana.

   Aurreko lerroaldean zehazten den beharkizuna ez zaie aplikatuko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga araupetzen duten arauen menpeko merkatari txikizkari diren subjektu pasiboei, baldin eta subjektu pasibo horiek inguruabar hauetakoren bat betetzen badute:

   a) Aipatu lerroaldean izendatzen den portzentaia kalkulatu ezin izatea aurreko urtean merkararitzako jarduerarik ez egiteagatik.

   b) Aplikagarri izan dakiela eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboko metodoaren zeinu, indize edo moduluen modalitateari uko egin ez izana.

Bi. Merkatari txikizkari izatea galtzearen ondoreetarako, transformakuntzatzat hartzen ez diren prozesu edo eragiketak arau bidez zehaztuko dira.

## 2. ZATIA

### 150. artikulua. Zerga-oinarrien zehaztapen proportzionalari buruzko erregimen berezia.

...

### 151. artikulua. Zerga-oinarriak proportzioz zehazteko araubide berezitiko bazterketak.

...

### 152. artikulua. Zerga-oinarrien zehaztapen proportzionalari buruzko erregimen bereziaren edukina.

...

## 3. ZATIA

### 153. artikulua. Baliokidetasun-errekarguari buruzko erregimen berezia.

...

### 154. artikulua. Baliokidetasun-errekarguari buruzko erregimen bereziaren edukina.

Bat. Erregimen berezi hau aplikagarri duten merkatari txikizkariei eska dakiekeen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ordainarazpena, beraien hornitzaileek egiten dituzten baliokidetasun-errekarguaren jasanarazpena dela bide gauzatuko da.

Atal honetan xedatzen dena Elkartebarnean eskuratzen diren ondasunei dagokien Zerga likidatzeko eta ordaintzeko betebeharraren kalterik gabe dela ulertuko da, baita ere Foru Arau

honen 84. artikuluaren lehenengo atalaren 2. zenbakian aipatzen diren eragiketei dagokienaren kalterik gabe ere.

Bi. Araubide berezi honen peko subjektu pasiboek ez diote zergarik likidatu eta ordaindu beharko Foru Ogasunari, eragiketa hauek direla eta: batetik, subjektuok egiten dituzten merkataritza- eragiketak direla eta, eragiketa horiei araubide berezi hau aplikatu ahal bazaie; bestetik, jarduera horietan bakarrik erabilitako ondasun edo eskubideen eskualdatzeak direla eta. Kanpo geratzen dira ondasun higiezinen emateak, zergapean baitaude (ez daude salbuetsita); beraz, sortutako zerga-kuotak jasan, likidatu eta sartu beharko ditu eskualdatzaileak.

Era berean, ez dira kengarriak izango eskuratu edo inportatutako edozein ondasun mota dela-eta edo eman zaizkien zerbitzuak direla-eta jasandako kuotak, baldin eta ondasun edo zerbitzuok araubide berezi hau aplika dakiekeen jarduerak burutzeko erabiltzen badira.

Inbertsio-ondasunen ondoriozko kenkariak erregularizatzeko, zero izango da subjektu pasiboak araubide berezi honen pean dauden bitartean jarduera ekonomikoaren sektore bereizi honetan aplika daitekeen kenkariaren hainbanatzea. Ezin izango da egin foru arau honetako 110. artikuluan aipatzen den erregulazioa, baldin eta eskualdatutako inbertsio-ondasunak bakarrik erabiltzen badira araubide berezi honen peko jarduerak egiteko.

Hiru. Erregimen berezi honi heltzen dioten merkatari txikizkariek beren bezeroei jasanaraziko dieten kuota, beraiek gauzatzen dituzten aipatu tributuaren zamapeko salmenta eta gainerako eragiketei dagokien zerga-oinarriari Zergaren zerga-tasa aplikatuz ateratzen dena izango da, eta inolaz ere ezin izango dute gehitu aipatu portzentaia baliokidetasun-errkarguaren zenbatekoan.

**155. artikulua. Baliokidetasun-errekarguaren erregimen bereziari lotzen zaizkion jarduerei ekitea edo uztea.**

Baliokidetasun-errekarguaren erregimen bereziari lotzen zaizkion jarduerei ekitea edo uztea suertatuz gero, ondorengo arauak aplikatuko dira:

1. Jarduerari ekiten zaionean, inbentarioan bilduta dauden izakinen eskuraketaren balioari, Balio Erantsiaren gaineko Zerga ate dela, aipatu Zergaren tasak eta jarduerari ekiten zaion egunean indarrean dauden baliokidetasun-errekarguarena gehituz ateratzen den kantitatearen likidazioa eta sarrera egin behar dute subjektu pasiboek.

   Aurreko lerroaldean xedaturik dagoena ez da aplikatuko, Balio Erantsiaren gaineko Zergapean ez dagoen enpresa-ondare baten eskualdaketa osoa edo partziala dela bide, izakinak erregimen berezi horren pean dagoen beste merkatari bati erosten zaizkionean, Foru Arau honen 7. artikuluaren 1. zenbaki dela bide.

2. Foru Arau honen 149. artikuluan aurrikusirik dauden beharkizunak gertatzen ez direlako jarduerari uzten zaionean, subjektu pasiboek uztearen egunean inbentarioan jasotzen diren izakinen eskuraketa-balioari, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta baliokidetasun-errekargua bazterturik, aipatu zergaren tasak eta egun berean indarrean dauden errekarguak gehitzetik ateratzen den kuota kendu ahal izango diote.

   Uztea baliokidetasun-errekarguaren erregimen bereziari lotzen ez zaizkion merkatarien Zergapeko ez diren enpresa-ondareen eskualdaketa osoaren edo partzialaren ondorioz suertatuz gero, eskuratzaileek, eskualdaketa egiten den egunean indarreko Zergaren tasei aipatu egunean dauden izakinek merkatuko balioari gehituz eratortzen den kuota kendu ahal izango diote.

3. Aurreko bi erregeletan xedatutakoa ondoreak izan ditzan, subjektu pasiboek beren izakinen inbentarioak egin beharko dituzte, arau bidez zehazten den eran, erregimen honen aplikazioan hasiera eguna eta uztearena zeintzuk diren aipatuz.

**156. artikulua. Baliokidetasun-errekargua.**

Baliokidetasun-errekargua, Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotuta eta hartatik salbuetsita ez dauden ondoko eragiketetan eskatuko da:

1. Enpresariek merkataritza-elkarteak ez diren merkatari txikizkariei egiten dizkieten ondasun higigarri edo abereen emateetan.

2. Aurreko zenbakian aipatzen diren merkatariek egiten dituzten ondasunen inportazioak edo Elkartebarneko eskuraketak.

3. Aipatu merkatariek Foru Arau honen 84. artikuluaren lehenengo atalaren 2. zenbakian aipatzen diren ondasunen eskuraketak burutzen dituztenean.

**157. artikulua. Noiz den ezinezkoa baliokidetasun-errekargua aplikatzea.**

Aurreko artikuluan xedatu denetik ate daude ondoko eragiketak:

1. Baliokidetasun-errekarguaren erregimen bereziaren menpean ez daudela arau bidez zehazten den eran benetakotzen duten merkatariei egiten zaizkien emateak.

2. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen bereziari lotzen zaizkion subjektu pasiboen emateak, aipatu erregimen berezia araupetzen duten arauei atxekita.

3. Edozein izaeratako ondasun-emateak, eta Elkartebarneko eskuraketa eta inportazio, baldin eta eskuratzaileak salerosteko xederik ez badu.

4. Aurreko zenbakian aipatu diren eragiketak, baliokidetasun-errekarguaren erregimen berezia aplikatzetik salbuetsita dauden artikuluei dagozkienak.

**158. artikulua. Baliokidetasun-errekarguaren subjektu pasiboak.**

Ondoko hauek daude baliokidetasun-errekargua ordaintzera beharturik:

1. Zergaren menpeko emateak burutzen dituzten Zergaren subjektu pasiboak.

2. Elkartebarnean ondasunen eskuraketak edo inportazioak burutzean erregimen berezi honi lotzen zaizkion merkatariak berak, bai eta Foru Arau honen 84. artikuluaren lehenengo atalaren 2. zenbakian ohartematen diren balizkoetan ere.

**159. artikulua. Baliokidetasun-errekarguaren jasanarazpena.**

Aurreko artikuluaren 1. zenbakian aipatu diren subjektu pasiboak beharturik daude kasuan kasuko eskuratzaileen gaineko baliokidetasun-errekarguaren jasanarazpena Foru Arau honen 88. artikuluan ezartzen den eran ordaintzera.

**160. artikulua. Zerga-oinarria.**

Baliokidetasun-errekarguaren zerga-oinarria Balio Erantsiaren gaineko Zergarako ateratzen den bera izango da.

**161. artikulua. Tasak.**

Baliokidetasun-errekarguaren tasak hauexek izango dira:

1. Oro har, %5,2.

2. Foru arau honetako 91. artikuluaren lehen atalean ezarritako zerga-tasa ezarri ahal zaien ondasun-emateetarako, %1,4.

3. Foru arau honetako 91. artikuluaren bigarren atalean ezarritako zerga-tasa ezarri ahal zaien ondasun-emateetarako, %0,5.

4. Tabako Lanen gaineko Zerga Berezia ezarri behar zaien ondasun-emateetarako, %1,75.

**162. artikulua. Likidazioa eta sarrera.**

Baliokidetasun-errekarguaren likidazioa eta sarrera bide batez burutuko da Balio Erantsiaren gaineko Zergarekin eta aipatu Zergaren ordainarazpenerako finkatu diren arau berei lotuko zaizkie.

**163. artikulua. Baliokidetasun-errekarguaren erregimen bereziarekiko lotura benetakotu beharra.**

Merkataritzako sozietateak izan ez eta txikizkako salmenta-eragiketak burutu ohi dituzten pertsona edo entitateak derrigortuta daude beren hornitzaileei edo, hala dagokienean, Aduanari benetakotzera, baliokidetasun-errekarguaren erregimen bereziari loturik dauden ala ez, burutzen dituzten ondasunen eskuraketa edo inportazioei dagokienez.

## VIII. KAPITULUA
## BIDE ELEKTRONIKOEN BITARTEZ EGITEN DIREN ZERBITZUEN ARAUBIDE BEREZIA

**163 bis artikulua. Ezarpen-eremua eta definizioak.**

…

**163 ter artikulua. Erazko betebeharrak.**

…

**163 quater artikulua. Jasandako kuotak kentzeko eskubidea.**

…

## IX. KAPITULUA
## ERAKUNDE TALDEEN ARAUBIDE BEREZIA

**163 quinquies artikulua. Erakunde taldeen araubide bereziaren betekizun subjektiboak.**

Bat. Erakunde-talde bateko kide diren enpresaburuek edo profesionalek aplikatu ahal izango dute erakunde-taldeen araubide berezia. Erakunde nagusi batek eta haren mendeko erakundeek osatzen dituzte erakunde-taldeak; erakundeok harreman estuak izan behar dituzte euren artean —erregelamenduz ezarritako eran—, finantzen, ekonomiaren eta antolamenduaren arloetan, eta beharrezkoa da haien guztien jarduera ekonomikoaren egoitzak edo establezimendu iraunkorrak zergaren aplikazio-lurraldean egotea.

Enpresaburu edo profesional batek, aldi berean, ezin izango du parte hartu erakunde-talde batean baino gehiagotan.

Bi. Erakunde nagusitzat joko da honako baldintza hauek betetzen dituena:

a) Nortasun juridiko propioa izan behar du. Hala ere, zerga aplikatu behar den lurraldean kokatutako establezimendu iraunkorrak erakunde nagusitzat hartu ahal izango dira, partaidetzak establezimendu horiei atxikita dituzten erakundeekiko, betiere zenbaki honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzen badira.

b) Taldeko erakundeen gaineko benetako kontrola izan behar du, eta, horretarako, beharrezkoa da %50etik gorako zuzeneko edo zeharkako partaidetza izatea erakundeon kapitalean edo boto-eskubideetan.

c) Partaidetza hori urte natural osoan mantendu behar du.

d) Erakunde nagusia ezin da izan establezimendua zergaren aplikazio-lurraldean daukan eta erakunde nagusitzat jotzeko betekizunak betetzen dituen beste erakunde baten mendekoa.

Aurreko Bat zenbakian ezarritakoa gorabehera, enpresaburu edo profesional gisa jarduten ez duten merkataritza-sozietateak ere erakunde nagusitzat jo ahal izango dira, aurreko baldintzak betetzen badituzte.

Hiru. Ondoko enpresaburu eta profesionalak erakunde nagusi baten menpekotzat hartuko dira: egoitza Zerga aplikatzen den lurraldean dutela, erakunde nagusiak aurreko idatz-zatiko b) eta c) letretan ezarritako betekizunak betetzen dituen partaidetza duten erakundeak. Zerga aplikatzen den lurraldean dauden establezimendu iraunkorrak inolaz ere ezin dira izan berez menpeko erakunde.

Lau. Erakunde bati aurreko bigarren idatz-zatiko b) letran zehaztutakoa bezalako partaidetza erosten bazaio, erakunde taldean sartuko da eskuraketaren ondoko egutegiko urtean. Menpeko erakundea sortu berria bada, eratzen den unean bertan sartuko da erakunde taldean, horretarako behar diren gaineko betekizunak betez gero.

Bost. Menpeko erakunde batek izaera hori galtzen badu, taldetik kanpora geratuko da: kanporaketak gertatzen den likidazioaldian izango ditu ondoreak.

**163 sexies artikulua. Erakunde taldeen araubide berezia aplikatzeko baldintzak.**

Bat. Erakunde taldeen araubide berezia aplikatzeko, aurreko artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituzten erakunde guztiek banaka erabaki behar dute aplikatzea. Araubide bereziaren hautapenak hiru urte iraungo du gutxienez, baldin eta hura aplikatzeko betekizun guztiak betetzen badira, eta indarraldia luzatutzat joko da uko egin ezean. Uko egiteko, foru arau honetako 163 nonies artikuluko laugarren idatz-zatiko lehen puntuan ezarritakoa bete behar da.Ukoak hiru urte iraungo du gutxienez, eta prozedura berarekin egin behar da. Nolanahi ere, taldeak araubide berezia aplikatzeko ezinbestekoa da erakunde nagusiak aplikatzea.

Bi. Aurreko idatz-zatian aipatutako erabakiak erakundeen administrazio kontseiluek hartu behar dituzte, edo antzeko eginkizuna duen organoak, araubide berezia aplikatzekoa den egutegiko urtea hasi baino lehen.

Hiru. Taldeari atxikitzen zaion erakunde batek araubide berezi hau aplikatzea erabakitzen badu, aurreko idatz-zatietan ezarritako guztia bete beharko du araubidea aplikatzen zaion egutegiko lehen urtea hasi baino lehen.

Lau. Artikulu honetako lehenengo bi idatz-zatietan aipatutako erabakia garaiz eta behar bezala hartzen ez duten erakundeek ezin aplikatu izango dute erakunde taldeen araubide berezia; aitzitik, honek ez du eragotziko taldeko gainerakoek aplikatzea.

Bost. Erakunde taldeak 163 octies artikuluko lehenengo idatz-zatian eta hirugarrenean xedatutakoa aplikatzea hauta dezake. Hala egiten badu, 163 nonies artikuluko laugarren idatz-zatiko 3. betebeharra bete beharko du.

Hautapenak araubide berezia aplikatzen duten taldeko erakunde guztiei eragingo die; artikulu honetako bigarren idatz-zatian xedatutakoarekin bat etorriz egin behar da.

Foru arau honetako 163 octies artikuluko lehenengo idatz-zatian aipatutako eragiketei dagokienez, hautapen honek berekin ekarriko du 20. artikuluko lehenengo idatz-zatian araupetutako salbuespenei uko egin ahal izatea; hala ere, horrek ez du eragotziko erakunde taldeen araubide berezia aplikatzen duten erakundeek egiten dituzten eragiketak salbuestea, bidezko denean. Ahalmen hau arauz ezartzen diren betekizun, muga eta baldintza guztiei lotuta baliatuko da.

**163 septies artikulua. Erakunde taldeen araubide berezia aplikatzeko eskubidea galtzea eragiten duten gertaerak.**

Bat. Kapitulu honetan araupetutako araubide berezia aplikatzeari utzi beharko zaio kasu hauetan:

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 51. artikuluan ezarritakoaren arabera zeharkako zenbatespenaren metodoa aplikatu beharra dakarten inguruabarretako bat gertatzen denean.

2. Foru arau honetako 163 nonies artikuluko laugarren idatzzatiko 3. betebeharra, informazio-sistema sortu eta artatu beharra, betetzen ez denean.

   Aurreko arrazoietako batengatik kapitulu honetan araupetutako araubide berezia ez aplikatzeak ez du eragotziko foru arau honetako 163 nonies artikuluko zazpigarren idatz-zatian ezarritako zehapenak ezartzea, bidezko denean.

Bi. Aurreko idatz-zatian ezarritako zerbait gertatzen bada, dena delakoa gertatzen den likidazio-aldian utziko zaio erakunde taldeen araubide berezia aplikatzeari, eta aurrerantzean ez da aplikatuko. Ordutik aurrera taldeko erakunde guztiek bete beharko dituzte foru arau honetan ezarritako betebehar guztiak.

Hiru. Taldeko erakunde bat likidazio-aldi bat amaitutakoan konkurtsoan edo likidazio-prozesuan badago, araubide berezitik kanpo geratuko da aldi horretatik aurrera. Nolanahi ere, taldeko gainerako erakundeek araubide berezia aplikatzen jarraitu ahal izango dute, berariazko betekizunak betez gero.

**163 octies artikulua. Erakunde taldeen araubide bereziaren edukia.**

Bat. Foru arau honetako 163 sexies artikuluko bosgarren idatzzatian ezarritako hautapena eginez gero, kapitulu honetan araupetutako araubide berezia aplikatzen duen talde bateko erakunde batzuen artean Zerga aplikatzen den lurraldean egiten diren ondasun emateen eta zerbitzugintzen zerga oinarria hauen kostua izango da: haiek egiteko zuzenean edo zeharka eta osorik zein partzialki erabilitako ondasunak eta zerbitzuak, hain zuzen ere Zergaren karga jasanarazi edo ordainarazi dutenak. Erabili diren ondasunak inbertsiokoak izanez gero, haien kostua oso-osorik egotzi behar da ondasunei dagozkien kuotak erregularizatzeko foru arau honetako 107. artikuluko lehen eta hirugarren idatz-zatietan ezarritako aldian.

Hala ere, foru arau honetako 101 - 119 bitarteko artikuluetan eta 121. artikuluan xedatutakoaren ondoreetarako, eragiketak 78 eta 79. artikuluen arabera baloratuko dira.

Bi. Taldeko erakundeek taldetik kanpoko erakundeekin egiten dituen eragiketetan Zergari buruzko arau orokorrei lotuta jardungo du; honelako eragiketetan erakunde taldeen araubideak ez du inolako ondorerik izango.

Hiru. Foru arau honetako 163 sexies artikuluko Bost zenbakian ezarritako aukera baliatzen denean, artikulu honetako Bat zenbakian aipatzen diren eragiketek jarduera-sektore bereizi bat osatuko dute, eta ulertuko da sektore horri afektatuta geratzen direla eragiketa horiek egiteko zuzen edo zeharka eta osorik edo partez erabilitako ondasunak eta zerbitzuak, haiengatik benetan jasan eta ordaindu bada zerga.

Enpresaburu edo profesionalek osorik kendu ahal izango dituzte eragiketa horiek egiteko zuzen edo zeharka eta osorik edo partez erabilitako ondasun eta zerbitzuen eskuraketak direla-eta jasan edo ordaindutako kuotak, baldin eta foru arau honetako 94. artikuluaren arabera kenketarako eskubidea sortzen duten eragiketak egiteko erabiltzen badituzte ondasun eta zerbitzu horiek. Kenketa aplikatzeko, kontuan hartuko da zer erabilera aurrez ikusten den aipatutako ondasun eta zerbitzuetarako; dena den, erabilera aldatuz gero zuzendu ahal izango da kenketa hori.

Lau. Erakunde taldeko enpresaburu edo profesional bakoitzaren kuota kengarrien zenbatekoa foru arau honetako VIII. tituluko I. kapituluan eta aurreko idatz-zatian ezarritako erregela bereziak aplikatutako kalkulatuko da.Kenkari hauek banaka aplikatuko ditu erakunde taldeen araubide bereziari heldutako enpresaburu eta profesional bakoitzak.

Haietako bakoitzaren kuota kengarrien zenbatekoa zehaztutakoan, beraiek baliatu behar dute kenkaria aplikatzeko eskubidea, nork bere aldetik, aurrean aipatutako VII. tituluko I. kapituluan.

Hala ere, baldin eta enpresaburu edo profesional batek banako autolikidazioetako baten ondorioz konpentsatu beharreko saldoa erakunde taldeko autolikidazio erantsi batean sartzen badu, zenbateko hori ezin konpentsatu izango da ondoko epealdi bateko banako autolikidazioan. Honetan ez du inolako eraginik izango geroago erakunde taldeen araubide berezia aplikatu ahal izateak.

Bost. Baldin eta talde bateko erakunde batek egindako eragiketei foru arau honetan araupetutako beste araubide berezietako bat aplikatu ahal bazaie, eragiketa horiei araubide horren arabera dagozkien kenkariak aplikatuko zaizkie.

**163 nonies artikulua. Erakunde taldeen araubide bereziko betebehar zehatzak.**

Bat. Erakunde taldeen araubide berezia aplikatzen duten erakundeek kapitulu honetan ezarritako zerga betebeharrak edukiko dituzte.

Bi. Talde erakunde nagusia izango da taldearen ordezkaria Zerga Administrazioaren aurrean. Ordezkaritza horretan ari dela, erakunde nagusiak erakunde taldeen araubide berezian ezarritako zerga betebehar guztiak bete behar ditu, bai materialak bai erazkoak.

Hiru. Bai erakunde nagusiak bai haren menpeko erakundeek foru arau honetako 164. artikuluan ezarritako betebeharrak bete behar dituzte, salbuespen honekin: zerga zorraren ordainketa edo konpentsazioaren edo itzulketaren eskabidea; kasu hauetan, hain zuzen, hurrengo idatz-zatiko 2. betebeharra bete behar dute.

Lau. Erakunde nagusiak berezko betebeharrak ez ezik ondokoak ere bete behar ditu, arauz ezartzen diren baldintzei, betekizunei eta prozedurari lotuta:

1. Zerga Administrazioari informazio hau ematea:

    a) Eskatutako betekizunak betetzen direla, beharrezko akordioak egin direla eta foru arau honetako 163 quinquies eta sexies artikuluetan aipatutako araubide berezia aplikatzea hautatu dela. Informazioa araubide berezia aplikatuko den egutegiko urtearen aurreko abenduan aurkeztu behar da.

    b) Araubide berezia aplikatuko duten taldeko erakundeen zerrenda; beharrezkoa izanez gero, aurreko urteko osaeran aldaketaren bat eragin duten erakundeak identifikatu behar dira. Egutegiko urte bateko informazioa aurreko urteko abenduan jakinarazi behar da.

    c) Araubide bereziari uko egin zaiola; honen berri ondoreak sortuko dituen egutegiko urtearen aurreko abenduan eman behar da, bai araubide berezia aplikatzen duten erakunde guztiek egiten badie uko, bai erakunde bakar batek egiten badio.

    d) Foru arau honetako 163 sexies.bost artikuluan ezarritakoa hautatu dela; honen berri ondoreak sortuko dituen egutegiko urtearen aurreko abenduan eman behar da.

2. Erakunde taldearen aldizkako autolikidazio agregatuak aurkeztea; hala denean, zerga zorra sartu behar da edo bidezko konpentsazioa edo itzulketa eskatu.

    Autolikidazio agregatuetan erakunde taldeen araubide berezia aplikatzen duten erakundeen banako autolikidazio indibidualen emaitzak sartu behar dira.

Erakunde taldeen araubide berezia aplikatzen duten erakunde guztien aldizkako banako autolikidazioak aurkezten direnean aurkeztu behar dira erakunde taldearen aldizkako autolikidazio agregatuak.

Erakunde taldeen araubide berezia aplikatzen duten erakundeen likidazioaldia egutegiko hila izango da, eragiketen bolumena gorabehera.

Likidazioaldi batean erakunde taldeen araubide berezia aplikatzen duten erakundeei itzuli beharreko saldoen guztirako zenbatekoa likidazioaldi horretan erakunde taldeen araubide berezia aplikatzen duten gainerako erakundeek sarrera gisa jaso beharreko saldoen zenbatekoa baino gehiago bada, gaindikina itzultzeko eska daiteke, baina ezinbestekoa da gehiegizko kopurua sortu duten banako autolikidazioak aurkeztu direnetik lau urte pasatu gabe izatea. Itzulketa foru arau honetako 115. artikuluko hirugarren idatz-zatian xedatutakoarekin bat etorriz egingo da. Hori egiten bada, itzuli beharreko saldoak ez dira konpentsatuko ondoko autolikidazio agregatuetan, itzulketa gauzatu arte igarotzen den denbora gorabehera.

Erakunde taldeen araubide berezia aplikatzeari uzten bazaio eta taldeko erakundeei itzuli edo konpentsatu beharreko kopuruak geratzen badira, kopuruok araubide berezia aplikatzen den egutegiko azken urteko eragiketen bolumenaren proportzioan egotziko zaizkie erakundeei, foru arau honetako 121. artikuluan xedatutakoa aplikatuta.

3. Informazio sistema analitikoa edukitzea; sistemaren oinarriak foru arau honetako 163 octies.Bat artikuluan aipatutako eragiketak egiteko zuzenean zein zeharka, guztiz edo partzialki, erabilitako ondasun eta zerbitzuen egozketarako zentzuzko irizpideak izan behar dira. Sistemak ondasunen eta zerbitzuen erabilera islatu behar du, taldetik kanpoko azken aplikaziora arte.

Informazio sistemak egozketarako erabilitako irizpideak justifikatzen dituen memoria jaso behar du. Irizpideak homogeneoak izan behar dira taldeko erakunde guztientzat eta araubide berezia aplikatzen den bitartean mantendu behar dira; salbuespena: zentzuzko arrazoiak direla medio alda daitezke, baina arrazoiak memorian bertan azaldu behar dira.

Informazio sistemak Zergaren preskripzioaldian iraun behar du.

Bost. Taldeko erakunderen batek banako autolikidazio bat ezorduan aurkezten badu, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 27. artikuluan ezarritakoaren arabera bidezko diren errekarguak eta korrituak aplikatuko zaizkio. Honetan ez du inolako eraginik izango banako autolikidazioaren saldoa erakunde taldearen autolikidazio erantsi batean sartu izanak.

Erakunde talde batek ezorduan aurkezten badu bere autolikidazio erantsia, haren emaitzari Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 27. artikuluan ezarritako errekarguak aplikatuko zaizkio; ordainketa erakunde nagusiak egin beharko du.

Sei. Erakunde taldeen araubide berezia aplikatzen duten erakundeek solidario gisa erantzungo diote araubide bereziaren ondoriozko zerga zorraren ordainketari.

Zazpi. Laugarren idatz-zatiko 3. betebeharrean ezarritako informazio sistema ez edukitzea edo ez gordetzea erakunde nagusiaren zergen arloko arau-haustea izango da. Arau-hauste horren zehapena isuna izango da, eta beraren zenbatekoa taldearen eragiketa bolumenaren %2.

Laugarren idatz-zatiko 3. betebeharrean ezarritako informazio sistemako daturen bat oker egotea edo falta izatea erakunde nagusiaren zergen arloko arau-haustea izango da. Zehapena isuna izango da, eta beraren zenbatekoa hirugarrenei eskuratutako ondasun eta zerbitzuetatik oker dagoen edo falta den informazioari dagozkionen %10.

Aurreko bi paragrafoetan ezarritako zehapenei txikipen hau aplikatuko zaie: Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 193. artikuluan ezarritako ordainketaren ziozko txikipena.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 185. artikuluko 3. idatz-zatian xedatutakoaren arabera, aurreko bi paragrafoetan ezarritako zehapenak bateragarriak izango dira foru arau bereko 196, 198, 199 eta 200. artikuluak aplikatzearen ondoriozkoekin. Idatz-zati honetan ezarritako zehapenek eragotzi egingo dute aurrean aipatutako foru arauko 191. artikuluko lehenengo idatz-zatiko c) letran aurreikusitako mailakatze- irizpidea aplikatzea, hain zuzen ere artikulu honetako laugarren idatz-zatiko 3. betebeharrean ezarritako informazio sistema ez edukitzeari eta ez gordetzeari dagokiena.

Erakunde taldeen araubide bereziko betebehar zehatzak bete ezean, arau-hauslea taldeko erakunde nagusia izango da. Erakunde taldeen araubide berezia aplikatzen duten taldeko gainerako erakundeek solidario gisa erantzungo diote zehapenen ordainketari.

Erakunde taldeen araubide berezia aplikatzen duten erakundeak euren zerga betebeharrak ez betetzearen ondoriozko arauhausteen erantzule izango dira.

Zortzi. Erakunde taldeen araubide berezia aplikatzen duten erakundeek euren betebeharrak behar bezala bete dituztenez egiaztatzeko jarduketarik eginez gero, jarduketok erakunde nagusiarekin egingo dira, taldearen ordezkaria den aldetik. Halaber, jarduketa hauek menpeko erakundeekin ere egin daitezke; erakunde hauek jaramon egin beharko diote Zerga Administrazioari.

Erakunde talde bateko erakunde batekin egiaztapen edo ikerketa jarduketarik egiten bada, Zergaren preskripzio-epearen konputua taldeko erakunde guztientzat etengo da erakunde nagusiak formalki haien berri duen unean.

Araubide berezi honetako egiaztapenen ondoriozko aktak eta likidazioak erakunde nagusiari egingo zaizkio.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 146. artikuluko lehenengo idatz-zatiko a) letran ezarritakoaren ondoreetarako, araubide berezi hau aplikatzen den kasuetan hamabi hilabete gehiago luzatu ahal izango da egiaztapen eta ikerketarako epea.

## X. KAPITULUA.
## KUTXA-IRIZPIDEAREN ARAUBIDE BEREZIA.

### 163 decies artikulua. Araubidea aplikatzeko baldintza subjektiboak.

Bat.Urte naturalean 2.000.000 eurotik beherako eragiketa-bolumena duten zerga honen subjektu pasiboek aplikatu ahal izango dute kutxa-irizpidearen araubide berezia.

Bi. Subjektu pasiboak aurreko urte naturalean hasi baditu enpresa-jarduerak edo jarduera profesionalak, urte osoari dagokion eragiketa-bolumena kalkulatuko da.

Hiru. Subjektu pasiboak ez baditu aurreko urte naturalean hasi enpresa-jarduerak edo jarduera profesionalak, uneko urte naturalean aplikatu ahal izango du araubide berezia.

Lau. Aurreko zenbakietan ezarritakoari dagokionez, subjektu pasiboak egindako eragiketa-bolumena zehazteko, Balio Erantsiaren gaineko Zerga sortzen denean joko dira egindakotzat eragiketok, edo, bestela, eragiketoi ezin izan bazitzaien aplikatu kutxa-irizpidearen araubide berezia, zerga horren sortzapena gertatu zenean.

Bost. Subjektu pasiboek ezin izango dute kutxa-irizpidearen araubidea aplikatu urte naturalean hartzaile berari eskudirutan kobrantzak egin dizkiotenean eta kobrantza horiek erregelamenduz ezarritako zenbatekoa gainditzen dutenean.

### 163 undecies artikulua. Kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatzeko baldintzak.

Aurreko artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten subjektu pasiboek aplikatu ahal izango dute kutxa-irizpidearen araubide berezia, erregelamenduz ezarritakoaren arabera hura aplikatzea aukeratzen dutenean. Aukera hori luzatu egingo da hari uko egiten ez bazaio. Uko egiteko, erregelamenduz ezarritakoa bete behar da. Uko egiteak 3 urteko balioa izango du, gutxienez.

### 163 duodecies artikulua. Araubidea aplikatzeko baldintza objektiboak.

Bat.163 decies artikuluan aipatzen diren subjektu pasiboek zerga aplikatu behar den lurraldean egindakotzat jotzen diren eragiketetan aplikatu ahal izango dute kutxa-irizpidearen araubide berezia.

Kutxa-irizpidearen araubide berezia subjektu pasiboak egindako eragiketa guztiei aplikatuko zaie, artikulu honen hurrengo zenbakian ezarritakoaren kalterik gabe.

Bi. Kutxa-irizpidearen araubide berezitik kanpo daude eragiketa hauek:

a) Araubide hauetako baten menpe daudenak: araubide erraztua; nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide berezia; baliokidetasun-errekarguarena; inbertsio-urrearena; bide elektronikoen bidez emandako zerbitzuei aplikatu ahal zaiena eta erakunde-taldeena.

b) Foru arau honetako 21, 22, 23, 24 eta 25. artikuluetan aipatzen diren ondasun-emate salbuetsiak.

c) Batasunaren barruko ondasun-eskuraketak.

d) Zergaren subjektu pasiboa eragiketa egiten zaion enpresaburua edo profesionala denean, foru arau honetako 84. artikuluaren Bat zenbakiko 2, 3 eta 4. puntuetan ezarritakoaren arabera.

e) Inportazioak eta inportazioen pareko eragiketak.

f) Foru arau honetako 9.1 eta 12. artikuluetan aipatzen direnak.

### 163 terdecies artikulua. Kutxa-irizpidearen araubide bereziaren edukia.

Bat.Araubide berezi hau aplikatu ahal zaien eragiketetan, prezioa osorik edo zati batean kobratzen denean gertatuko da zergaren sortzapena, benetan jasotako zenbatekoengatik, edo, bestela, prezioa ez bada kobratu, eragiketa egin den urtearen hurrengo urteko abenduaren 31n sortuko da.

Horretarako, eragiketaren prezioa noiz kobratu den (osorik edo zati bat) egiaztatu beharko da.

Bi. Araubide berezi hau aplikatu ahal zaien eragiketetan, faktura egin eta ematen denean jasanarazi behar da zerga, baina eragiketaren sortzapenaren unean joko da egindakotzat, sortzapen hori aurreko zenbakian xedatutakoaren arabera zehazten dela.

Hiru. Araubide berezi hau aplikatu ahal duten subjektu pasiboek foru arau honetako VIII. tituluan ezarritakoaren arabera egin ahal izango dituzte kenkariak, berezitasun hauekin:

a) Araubide berezi hau aukeratzen duten subjektu pasiboen kasuan, prezioa osorik edo zati batean ordaintzen denean sortuko da jasandako kuoten kenkariak egiteko eskubidea, benetan ordaindutako zenbatekoengatik, edo, bestela, ordainketa egin ez bada, eragiketa egin den urtearen hurrengo urteko abenduaren 31n.

   Aurrekoa hala aplikatuko da, zerga-egitatea egindakotzat jotzen den unea kontuan hartu gabe.

Horretarako, eragiketaren prezioa noiz ordaindu den (osorik edo zati bat) egiaztatu beharko da.

b) Jasandako kuotei kenkaria aplikatzeko eskubidea sortu den likidazio-aldiari dagokion autolikidazioan edo hurrengo aldietakoetan baino ezin izango da erabili kenkarirako eskubidea, baldin eta eskubide hori sortzen denetik hasita lau urte igaro ez badira.

c) Titularrak ez badu jasandako kuoten kenkarirako eskubidea aurreko letran ezarritako epean erabiltzen, eskubide hori iraungi egingo da.

Lau. Erregelamendu bidez ezarriko dira araubide berezi hau aplikatzen duten subjektu pasiboei dagozkien betebehar formalak.

**163 quaterdecies artikulua. Kutxa-irizpidearen araubide bereziari uko egitearen edo araubidetik kanpo geratzearen ondorioak.**

Kutxa-irizpidearen araubidea aplikatzeari uko egiten bazaio edo subjektu pasiboa araubide horretatik kanpo geratzen bada, araubide horren arauak mantenduko dira haren indarraldian egindako eragiketei dagokienez, aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera.

**163 quinquiesdecies artikulua. Kutxa-irizpidearen araubide bereziaren eraginpeko eragiketak.**

Bat.Kutxa-irizpidearen araubide berezia aukeratu ez duten baina araubide horretan sartutako eragiketen hartzaile diren subjektu pasiboen kenkarirako eskubidea, eragiketa horiengatik jasandako kuotei dagokienez, eragiketen prezioa osorik edo zati batean ordaintzen denean sortuko da, benetan ordaindutako zenbatekoengatik, edo, bestela, ordainketa egin ez bada, eragiketa egin den urtearen hurrengo urteko abenduaren 31n.

Aurrekoa zerga-egitatea egindakotzat jotzen den unea kontuan hartu gabe aplikatu ahal izango da.

Horretarako, eragiketaren prezioa noiz ordaindu den (osorik edo zati bat) egiaztatu beharko da.

Erregelamendu bidez ezarriko dira zer betebehar formal dagozkien kutxa-irizpidearen araubide bereziaren eraginpeko eragiketen hartzaile diren subjektu pasiboei.

Bi. Kutxa-irizpidearen araubide berezia aukeratu duten subjektu pasiboek zerga-oinarria aldatzen badute, foru arau honetako 80. artikuluko Lau zenbakian aipatzen denarekin bat, araubide berezia aukeratu duen subjektu pasibo zordunak jasandako kuoten kenkaria egiteko eskubidea sortuko da, aldatutako eragiketei dagokienez, baldin eta zerga-oinarriaren aldaketa egiten denean oraindik kenkaria egin gabe badago.

**163 sexidescies artikulua. Konkurtso-adierazpenari buruzko autoaren ondorioak.**

Kutxa-irizpidearen araubide berezia aukeratu duen subjektu pasiboaren edo haren eragiketen hartzaile den subjektu pasiboaren konkurtsoa adierazten bada, ondorio hauek sortuko dira konkurtso-adierazpenari buruzko autoaren datan:

a) Kutxa-irizpidearen araubide berezia aukeratu duen subjektu pasiboak jasanarazitako kuoten sortzapena gertatuko da, data horretan sortzapena oraindik gertatu gabe bazegoen.

b) Kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatu zaien eragiketen hartzaile izan den subjektu pasiboak eragiketa horiengatik jasandako kuoten kenkaria egiteko eskubidea sortuko da, eragiketak oraindik ordaindu gabe badaude eta data horretan 163 terdecies.Hiru.a) artikuluan ezarritako epea igaro ez bada.

c) Kutxa-irizpidearen araubide berezia aukeratu duen konkurtsopeko subjektu pasiboak jasandako kuoten kenkaria egiteko eskubidea sortuko da, araubide berezi horretan sartuta ez dauden eragiketei dagokienez, eragiketa horien hartzaile izan bada, oraindik ordaindu

gabe badaude eta data horretan 163 terdecies.Hiru.a) artikuluan ezarritako epea igaro ez bada.

Konkurtsoan sartuta dagoen subjektu pasiboak berak sortutako kuotak aitortu beharko ditu, eta aurreko letretan aipatu diren jasandako kuoten kenkaria erabili beharko du konkurtso-adierazpena baino lehenagoko zerga-egitateei erregelamenduz dagokien autolikidazioan. Halaber, subjektu pasiboak data horretara arte kenkaria aplikatu gabe zuten jasandako kuotak aitortu beharko ditu autolikidazio horretan.

## XI. KAPITULUA
## TELEKOMUNIKAZIO-, IRRATI- ETA TELEBISTA-ZERBITZUEI NAHIZ BALIABIDE ELEKTRONIKOEN BIDEZ EGITEN DIREN ZERBITZUEI APLIKATU BEHARREKO ARAUBIDE BEREZIAK

### 1. ATALA
### XEDAPEN ERKIDEAK

#### 163 septiesdecies artikulua. Definizioak eta kanpoan uzteko arrazoiak.

Bat.Kapitulu honetan xedatzen dena betetzeko, honako definizio hauek hartu behar dira kontuan:

a) «Telekomunikazio-zerbitzuak»: foru arau honetako 69. artikuluko Hiru zenbakiko 3. azpizenbakian aipatzen diren zerbitzuak dira.

b) «Zerbitzu elektronikoak edo baliabide elektronikoen bidez egiten direnak»: foru arau honetako 69. artikuluko Hiru zenbakiko 4. azpizenbakian aipatzen diren zerbitzuak dira.

c) «Irrati- eta telebista-zerbitzuak»: foru arau honetako 69. artikuluko Hiru zenbakiko 5. azpizenbakian aipatzen diren zerbitzuak dira.

d) «Kontsumoko estatu kidea»: foru arau honetako 70. artikuluko Bat zenbakiko 4. eta 8. azpizenbakietan xedatutakoarekin bat (edo beste estatu kide batzuen legerian dauden baliokideekin bat) telekomunikazio-, irrati- eta telebista-zerbitzuak nahiz zerbitzu elektronikoak egintzat jotzen diren estatu kidea da.

e) «Telekomunikazio-, irrati- eta telebista-zerbitzuei nahiz zerbitzu elektronikoei aplikatu beharreko araubide berezien aldizkako autolikidazioa»: kontsumoko estatu kide bakoitzean zerga dela-eta zenbat ordaindu behar den jakiteko beharrezko informazioa jasotzen duen likidazioa.

Bi. Ondoren zehazten diren inguruabar guztiak arrazoi izango dira zerbitzuak araubide bereziez kanpo uzteko:

a) Araubide berezi hauen pean egiten diren eragiketei uzteko adierazpena aurkeztea.

b) Enpresaburu edo profesionalen eragiketak —araubide berezi hauen barne daudenak— amaitu direla uste izateko egitateak egotea.

c) Ez betetzea araubide berezi hauei heltzeko beharrezko baldintzak.

d) Behin eta berriz ez betetzea araubide berezi hauei buruzko arautegiak ezartzen dituen betebeharrak.

Kanpo uzteko erabakia araubide berezi hauetako bakoitzerako zehazten den identifikazioko estatu kideak baino ezin du hartu.

Hiru. Aurreko zenbakian ezarritakoa gorabehera, enpresaburu edo profesionalek borondatezko baja eskatu ahal izango dute araubide berezi hauetan.

Lau. Erregelamenduz ezarriko dira kapitulu honetan xedatutakoa garatu nahiz aplikatzeko beharrezko xedapenak.

## 2. ATALA
## TELEKOMUNIKAZIO-, IRRATI- ETA TELEBISTA-ZERBITZUEI NAHIZ BALIABIDE ELEKTRONIKOEN BIDEZ EGITEN DIREN ZERBITZUEI APLIKATU BEHARREKO ARAUBIDE BEREZIA, ZERBITZUOK EBN EZARRITA EZ DAUDEN ENPRESABURU EDO PROFESIONALEK EMATEN DITUZTENEAN

### 163 octiesdecies artikulua. Aplikazio-eremua.

Bat.EBn ezarrita ez dauden enpresaburu edo profesionalek 2. atal honetan xedatutako araubideari heldu ahal izango diote, baldin eta enpresaburuak edo profesionalak izan ez arren halakotzat diharduten hartzaileei ematen badizkiete telekomunikazio-, irratieta telebista-zerbitzuak nahiz zerbitzu elektronikoak eta hartzaile horiek EBn establezimendua badaukate edo helbidea edo egoitza bertan badaukate.

Foru arau honetako 70. artikuluko Bat zenbakiko 4. eta 8. azpizenbakietan xedatutakoarekin bat (edo beste estatu kide batzuetako legerian dauden arau baliokideekin bat) EBn egintzat hartu behar diren zerbitzu-emate guztiei aplikatuko zaie araubide berezia.

Bi. Atal honetan xedatzen dena betetzeko, honako definizio hauek hartu behar dira kontuan:

a) «EBn ezarrita ez dagoen enpresaburu edo profesionala»: halakotzat jotzeko, pertsona horrek jarduera ekonomikoaren egoitza EBtik kanpo izan behar du, ezin du eduki establezimendu iraunkorrik EBko lurraldean, eta, beste arrazoi bat tarteko, ez du zertan EBn identifikatuta egon behar, foru honetako 164. artikuluko Bat zenbakiko 2. azpizenbakian xedatutakoarekin bata (edo beste estatu kide batzuetako legerian dauden arau baliokideekin bat).

b) «Identifikazioko estatu kidea»: EBn ezarrita ez dauden enpresaburu edo profesionalek EBko lurraldean enpresaburu edo profesional gisa egingo duten jardueraren hasierari buruzko adierazpena egiteko aukeratutako estatu kidea.

### 163 noniesdecies artikulua. Betebehar formalak.

Bat.Baldin eta EBn ezarrita ez dauden enpresaburu edo profesionalek Espainia hautatzen badute identifikazioko estatu kide gisa, betebehar hauek izango dituzte:

a) Araubide berezi honen peko eragiketak hasi, aldatu edo uzteko adierazpena egin beharko dute. Bide elektronikoak erabiliz aurkeztuko da adierazpen hori.

   EBn ezarrita ez dauden enpresaburu edo profesionalek zergapeko jarduerak hasiko dituztela jakinarazteko egingo duten adierazpenean, honako identifikazio-datu hauek adieraziko dituzte: izenabizenak, posta-helbidea, helbide elektronikoa, jarduerarako erabiliko dituzten Interneteko helbide elektrikoak (hala denean), jardueraren egoitza duten hirugarren lurraldeko zerga-administrazioaren aurrean identifikatzeko zenbakia eta adierazpen bat, non azalduko duten ez daudela identifikatuta EBko beste estatu kide batean Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako. Halaber, informazio horri buruzko edozein aldaketaren berri eman beharko dute EBn ezarrita ez dauden enpresaburu edo profesionalek.

   Kanariar Uharteetan, Ceutan edo Melillan establezimendua daukaten enpresaburu edo profesionalen kasuan, honako datu hauek eman beharko dituzte zergapeko jarduerak hasiko dituztela jakinarazten dutenean: izen-abizenak, posta-helbidea, helbide elektronikoa, jarduerarako erabiliko dituzten Interneteko helbide elektrikoak eta Espainiako Zerga Administrazioak emango dien identifikazio fiskaleko zenbakia.

   Araubide honen ondorioetarako, Zerga Administrazioak banakako zenbaki baten bidez identifikatuko ditu EBn ezarrita ez dauden enpresaburuak edo profesionalak.

Zerga Administrazioak bide elektronikoak erabiliz jakinaraziko dio EBn ezarrita ez dauden enpresaburuetako edo profesionaletako bakoitzari zer identifikazio-zenbaki esleitu dion.

b) Hiruhileko bakoitzean, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidazio bat aurkeztu beharko dute, bide elektronikoak erabiliz, kontuan hartu gabe telekomunikazio-, irrati- eta telebista-zerbitzurik edo zerbitzu elektronikorik eman duten ala ez. Aitorpena ezin izango da negatiboa izan, eta aitorpenari dagokion epea amaitu eta hogei egunen barruan aurkeztu beharko da.

Autolikidazioan, Zerga Administrazioak aurreko a) letrarekin bat jakinarazitako identifikazio-zenbakiaz gainera, honako hauek ere adieraziko dira: zerga sortu den kontsumoko estatu kide bakoitzeko, autolikidazioari dagokion epean emandako telekomunikazio-, irrati- eta telebista-zerbitzuen nahiz zerbitzu elektronikoen balio osoa—kanpo utzirik eragiketa zergapetzen duen Balio Erantsiaren gaineko Zerga—; estatu kide bakoitzari dagokion zerga-kopuru globala —zerga-tasen arabera banakatua—, eta zenbateko osoa, hau da, aurreko guztien batura, zeina Espainian sartu behar den.

Baldin eta eragiketen kontraprestazioaren zenbatekoa euroa ez den beste moneta batean zehaztu bada, likidazio-epeko azken egunari dagokion kanbio-tasa balioduna aplikatuko da zenbateko hori eurotan jartzeko. Europako Banku Zentralak egun horretarako argitaratutako kanbio-tasak erabiliko dira kanbioa egiteko, edo, egun horretan tasarik agitaratu ez bada, hurrengo egunekoak.

Aurkeztutako autolikidazioen zifretan aldaketarik egitekotan, hiru urte egongo dira, gehienez, hasierako autolikidazioa aurkeztu behar zen unetik aurrera; horretarako, autolikidazioak eta aitorpen osagarriak zuzentzeko prozedurak erabiliko dira. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 53/2005 Foru Arauko 118. artikuluko 2. zenbakian eta 119. artikuluetan jasotzen dira prozedurok, hurrenez hurren. Hala ere, kontsumoko estatu kideak epe hori amaitu ondoren ere onartu ahal izango ditu zuzenketak, estatu horretako zergei buruzko arautegi nazionalean xedatutakoarekin bat.

c) Autolikidazio bakoitzari dagokion zenbatekoaren sarrera egin beharko dute, adierazita zehazki zer autolikidaziori dagokion. Zenbatekoa eurotan sartuko da Zerga Administrazioak aukeratutako banku-kontuan, autolikidazioa aurkezteko epearen barruan.

Zenbatekoen sarrera egin ondoren aldaketaren bat egin nahi bada eta horrek zergaren kopuru gehigarriak sartzea badakar, orduan, kopuruok zehazki zer autolikidaziori dagozkion adierazi beharko da, ezin izango baitira gehitu edo sartu ondorengo autolikidazio batean.

d) Araubide berezi hauen peko eragiketen erregistro bat mantendu beharko dute. Kontsumoko estatu kideko zerga-administrazioak aurreko b) letrako aitorpena zuzena den egiaztatu ahal izateko behar besteko zehaztasunaz eraman behar da erregistro hori.

Identifikazioko estatu kidearen zein kontsumoko estatu kidearen esku egongo da erregistroa, eta EBn ezarrita ez dauden enpresaburuak edo profesionalak behartuta egongo dira estatu horietako zerga-administrazioen eskura jartzera, administrazio horiek bide elektronikoen bidez eskatu ondoren.

EBn ezarrita ez dauden enpresaburu edo profesionalek hamar urtez gorde beharko dute erregistroa, eragiketa egin zen urtearen amaieratik aurrera.

e) Eragiketen hartzaileek zergaren aplikazio-lurraldean badaukate beren ohiko egoitza, etxebizitza edo establezimendua, faktura egin eta eman beharko dute, erregelamenduz ezarritakoaren araberakoa.

Bi. Baldin eta EBn ezarrita ez dauden enpresaburu edo profesionalek Espainia ez den Europar Batasuneko beste estatu kide bat hautatzen badute araubide berezi honen hasierako adierazpena aurkezteko eta enpresaburu edo profesional egiten dituzten eragiketak foru arau honetako 70. artikuluko Bat zenbakiko 4. eta 8. azpizenbakietan xedatutakoaren arabera zergaren aplikazio-lurraldean egintzat jo behar badira, Bat zenbakian aipatzen den autolikidazioa identifikazioko estatu kidean aurkezten duten unean ordaindu beharko dute eragiket horiei dagokien zerga.

Gainera, EBn ezarrita ez dauden enpresaburu edo profesionalek Bat zenbakian ezartzen diren gainerako betebeharrak bete beharko dituzte identifikazioko estatu kidean, batez ere zenbaki horretako d) letran ezarritakoak.

Hiru. Ogasun eta Finantzen foru diputatuak atal honetan ezartzen dena garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emango ditu.

**163 vicies artikulua. Jasandako kuoten kenkarirako eskubidea.**

Bat.EBn ezarrita ez dauden enpresaburu edo profesionalek araubide berezi hau aukeratzen badute, ezin izango dute kenkaririk egin foru arau honetako 163 noniesdecies artikuluko Bat zenbakiko b) letrako likidazioan, araubide honetan aipatzen diren telekomunikazio-, irrati- eta telebista-zerbitzuak nahiz zerbitzu elektronikoak emateko eskuratu edo inportatu dituzten ondasun edo zerbitzuei aplikatu beharreko arauekin bat jasandako kuotak direlaeta,.

Aurrekoa gorabehera, araubide berezi hau aukeratu duten enpresaburu edo profesionalek eskubidea izango dute Balio Erantsiaren gaineko Zerga dela-eta jasan dituzten kuotak itzul dakizkien, baldin eta telekomunikazio-, irrati- eta telebista-zerbitzuak nahiz zerbitzu elektronikoak emateko erabiltzen diren ondasun edo zerbitzuen eskuraketa edo inportazioak kontsumoko estatu kidean egintzat jotzen badira. Itzulketa egiteko, kontsumoko estatu kideak Kontseiluaren 1986ko azaroaren 17ko 86/560/EEE Direktibak xedatzen duena garatzeko (2006ko azaroaren 28ko 2006/112/EE Direktibako 368. artikuluan jasotzen den moduan) onartu duen arautegian ezarritako prozedurari jarraituko zaio. Establezimendua Kanariar Uharteetan, Ceutan edo Melillan duten enpresaburuen edo profesionalen kasuan, foru arau honetako 117 bis artikuluan ezartzen den prozedurari jarraituko diote jasandako kuotak itzul dakizkiela eskatzeko (zergaren aplikazio-lurraldean egindakoak izan ezik).

Bi. Foru arau honetako 119. artikuluko Bi zenbakiko 2. azpizenbakian xedatutakoa gorabehera, Espainia bada kontsumoko estatu kidea, EBn ezarrita ez dauden enpresaburu edo profesionalek araubide berezi hau aukeratzen badute, eskubidea izango dute Balio Erantsiaren gaineko Zerga dela-eta zergaren aplikaziolurraldean egintzat jo behar diren ondasun eta zerbitzuen eskuraketa edo inportazioen ondorioz jasan dituzten kuotak itzul dakizkien, betiere ondasun eta zerbitzuok araubide berezi honetako telekomunikazio-, irrati- eta telebista-zerbitzuak nahiz zerbitzu elektronikoak emateko badira. Foru arau honetako 119 bis artikuluan ezarritako prozedurari jarraituko zaio eskubide hori erabili ahal izateko.

Ondorio horietarako, ez da eskatuko onartuta egon dadila zergaren aplikazio-lurraldean establezimendua daukaten enpresaburu edo profesionalen aldeko tratu-elkarrekikotasuna. Artikulu honetan xedatutakoari heltzen dioten enpresaburu edo profesionalek ez dute zertan ordezkaririk izendatu itzulketak eskatzeko Zerga Administrazioaren aurrean.

Kanariar Uharteetan, Ceutan edo Melillan establezimendua daukaten enpresaburu edo profesionalen kasuan, foru arau honetako 119. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituko diote Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak itzultzeko eskubidea baliatzeko.

## 3. ATALA
## TELEKOMUNIKAZIO-, IRRATI- ETA TELEBISTA-ZERBITZUEI NAHIZ BALIABIDE ELEKTRONIKOEN BIDEZ EMATEN DIREN ZERBITZUEI APLIKATU BEHARREKO ARAUBIDE BEREZIA, ZERBITZUOK EBN EZARRITA DAUDEN BAINA KONTSUMOKO ESTATU KIDEAN EZARRITA EZ DAUDEN ENPRESABURU EDO PROFESIONALEK EMATEN DITUZTENEAN

### 163 unvicies artikulua. Aplikazio-eremua.

Bat.EBn establezimendua badaukate ere kontsumoko estatu kidean ez daukaten enpresaburu edo profesionalek heldu ahal izango diote araubide honi, baldin eta enpresaburu edo profesionalak izan ez arren halakotzat dihardutem hartzaileei ematen badizkiete telekomunikazio-, irrati- eta telebista-zerbitzuak nahiz zerbitzu elektronikoak eta hartzaile horiek estatu kide batean badaukate ohiko bizilekua, egoitza edo establezimendua.

Foru arau honetako 70. artikuluko Bat zenbakiko 4. eta 8. azpizenbakietan xedatutakoarekin bat (edo beste estatu kide batzuetako legerian dauden arau baliokideekin bat) EBn egintzat jo behar diren zerbitzu-emate guztiei aplikatuko zaie araubide berezia, baldin eta zerbitzuok ematen diren estatu kidea ez bada araubide berezi hau aukeratu duen enpresaburuak edo profesionalak jarduera ekonomikoaren egoitza edo establezimendu iraunkor bat ezarrita daukan estatu kidea.

Bi. Atal honetan xedatzen dena betetzeko, honako definizio hauek hartu behar dira kontuan:

a) «Kontsumoko estatu kidean establezimendurik ez daukan enpresaburua edo profesionala»: jarduera ekonomikoaren egoitza edo establezimendu iraunkor bat EBko lurraldean ezarrita daukan enpresaburua edo profesionala baina kontsumoko estatu kidean egoitzarik edo establezimendu iraunkorrik ez daukana.

b) «Identifikazioko estatu kidea»: enpresaburuak edo profesionalak jarduera ekonomikoaren egoitza ezarrita daukan estatu kidea da. Enpresaburu edo profesionalek jarduera ekonomikoaren egoitza EBn ez badaukate, kontuan hartuko da zer estatu kidetan daukaten establezimendu iraunkorra, eta, establezimendu iraunkor bat baino gehiago badaukate estatu kide batzuetan, enpresaburu edo profesionalek establezimendu iraunkorrak dauzkaten estatu kideen artetik aukeratzen dutena hartuko da kontuan. Azken kasuan, estatu kide dela-eta egindako aukerak lotetsi egingo du enpresaburua edo profesionala, aukera hori ezeztatzen ez duen bitartean. Dena den, aukera horrek hiru urte naturaleko balioa izango du, gutxienez, hautaketa egin den urte naturala barne.

Hiru. Atal honetan xedatutakoa betetzeko, Espainia identifikazioko estatu kidetzat hartuko da honako kasu hauetan:

a) Beti, jarduera ekonomikoaren egoitza zergaren aplikaziolurraldean daukaten enpresaburu edo profesionalen kasuan, eta jarduera ekonomikoaren egoitza EBko lurraldean ez badaukate ere zergaren aplikazio-lurraldean bakarrik establezimendu iraunkor bat edo batzuk dauzkatenen kasuan.

b) Jarduera ekonomikoaren egoitza EBko lurraldean ez badaukate ere zergaren aplikazio-lurraldean eta beste estatu kideren batean establezimendu iraunkor bat baino gehiago daukaten enpresaburu edo profesionalen kasuan, baldin eta Espainia aukeratu badute identifikazioko estatu kide gisa.

### 163 duovicies artikulua. Betebehar formalak.

Bat.Espainia identifikazioko estatu kidea denean, telekomunikazio-, irrati- eta telebista-zerbitzuak nahiz zerbitzu elektronikoak (araubide berezi honen pekoak) beste estatu kide batean ematen dituzten enpresaburu edo profesionalek betebehar hauek izango dituzte:

a) Araubide berezi honen peko eragiketak hasteko, aldatzeko edo uzteko adierazpena egin beharko dute. Bide elektronikoak erabiliz aurkeztuko da adierazpen hori.

b) Hiruhileko bakoitzean, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidazio bat aurkeztu beharko dute, bide elektronikoak erabiliz, kontuan hartu gabe telekomunikazio-, irrati- eta telebista-zerbitzurik edo zerbitzu elektronikorik eman duten ala ez. Autolikidazioa ezin izango da negatiboa izan, eta autolikidazioko epea amaitu eta hogei egunen barruan aurkeztu beharko da.

   Autolikidazioan, Zerga Administrazioak aurreko a) letrarekin bat jakinarazitako identifikazio-zenbakiaz gainera, honako hauek ere adieraziko dira: zerga sortu den kontsumoko estatu kide bakoitzeko, autolikidazioari dagokion epean emandako telekomunikazio-, irrati- eta telebista-zerbitzuen nahiz zerbitzu elektronikoen balio osoa—kanpo utzirik eragiketa zergapetzen duen Balio Erantsiaren gaineko Zerga—; estatu kide bakoitzari dagokion zerga-kopuru globala —zerga-tasen arabera banakatua—, eta zenbateko osoa, hau da, aurreko guztien batura, zeina Espainian sartu behar den.

   Enpresaburuek edo profesionalek Espainia ez den beste estatu batzuetan establezimendu iraunkor bat edo batzuk dauzkatenean eta araubide berezi honen peko zerbitzuak estatu haietatik ematen dituztenean, autolikidazioan aurreko paragrafoko informazioa sartu beharko dute establezimendu iraunkor bakoitzeko. Horrez gainera, establezimendua identifikatzeko, zergaren banakako identifikazio- zenbakia edo erreferentzia fiskaleko zenbakia adieraziko da. Aurkezten den informazio guztia kontsumoko estatu kide bakoitzaren arabera banakatu behar da.

   Baldin eta eragiketen kontraprestazioaren zenbatekoa euroa ez den beste moneta batean zehaztu bada, likidazio-epeko azken egunari dagokion baliozko kanbio-tasa aplikatuko da zenbateko hori eurotan jartzeko. Europako Banku Zentralak egun horretarako argitaratutako kanbio-tasak erabiliko dira, edo, egun horretan tasik argitaratu ez bada, hurrengo egunekoak.

   Aurkeztutako autolikidazioen zifretan aldaketarik egin behar bada, hiru urte egongo dira, gehienez, hasierako autolikidazioa aurkeztu behar zen unetik aurrera; eta, horretarako, autolikidazioak eta aitorpen osagarriak zuzentzeko prozedurak erabiliko dira. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 53/2005 Foru Arauko 118.2 eta 119. artikuluetan jasotzen dira prozedurok, hurrenez hurren. Hala ere, kontsumoko estatu kideak epe hori amaitu ondoren ere onartu ahal izango ditu zuzenketak, estatu horretako zergei buruzko arautegi nazionalean xedatutakoarekin bat.

c) Autolikidazio bakoitzari dagokion zenbatekoaren sarrera egin beharko dute, adierazita zehazki zer autolikidaziori dagokion. Zenbatekoa eurotan sartuko da Zerga Administrazioak aukeratutako banku-kontuan, autolikidazioa aurkezteko epearen barruan.

   Zenbatekoak sartu ondoren aldaketaren bat egin nahi bada eta horren ondorioz zergaren kopuru gehigarriak sartzen badira, orduan, kopuruok zehazki zer autolikidaziori dagozkion adierazi beharko da, ezin izango baitira gehitu edo sartu ondorengo autolikidazio batean.

d) Araubide berezi hauen peko eragiketen erregistro bat mantendu beharko dute. Kontsumoko estatu kideko zerga-administrazioak aurreko b) letrako autolikidazioa zuzena den egiaztatu ahal izateko behar besteko zehaztasunaz eraman behar da erregistroa.

   Identifikazioko estatu kidearen zein kontsumoko estatu kidearen esku egongo da erregistro hori, eta enpresaburuak edo profesionalak behartuta egongo dira estatu horietako zerga-administrazioen eskura jartzera, administrazioek bide elektronikoen bidez eskatu ondoren.

Enpresaburu edo profesionalek hamar urtez mantenduko dute erregistroa, eragiketa egin zen urtearen amaieratik aurrera.

Bi. Espainia identifikazioko estatu kide aukeratzen duten enpresaburu edo profesionalek Espainian bakarrik aurkeztu beharko dituzte autolikidazioak, eta, hala denean, araubide berezi honen barruan kontsumoko estatu kide guztietan egindako eragiketa guztiei dagokien zergaren zenbatekoa sartuko dute.

Hiru. Ogasun eta Finantzen foru diputatuak atal honetako ezartzen dena garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emango ditu.

**163 tervicies artikulua. Jasandako kuoten kenkarirako eskubidea.**

Bat.Araubide berezi hau aukeratzen duten enpresaburu edo profesionalek ezin izango dute deduzitu kopururik, telekomunikazio-, irrati- eta telebista-zerbitzuak nahiz zerbitzu elektronikoak emateko ondasunak edo zerbitzuak eskuratu edo inportatzeko aplikatu beharreko arauekin bat jasandako kuotak direla eta, foru arau honetako 163 duovicies artikuluko Bat zenbakiko b) letrako likidazioan.

Aurrekoa hala bada ere, araubide berezi hau aukeratu duten enpresaburu edo profesionalek kontsumoko estatu kidean araubide honen peko eragiketekin batera egiten badituzte estatu kide horretan erregistratu beharra eta autolikidazioak aurkeztu beharra dakarten beste eragiketa batzuk, orduan, aukera izango dute aplikatu beharreko arauen arabera kontsumoko estatu kidean egintzat jotako ondasun- edo zerbitzu-eskuraketa eta -inportazioak direlaeta jasandako kuotak deduzitzeko, baldin eta eragiketok telekomunikazio-, irrati- eta telebista-zerbitzuak nahiz zerbitzu elektronikoak emateko badira. Dedukzioa estatu kide horretan aurkeztu behar dituzten zerga- autolikidazioen bidez egingo da.

Bi. Aurreko zenbakian ezarritakoa gorabehera, araubide hau aukeratu duten enpresaburu edo profesionalek eskubidea izango dute Balio Erantsiaren gaineko Zerga dela-eta jasan dituzten kuotak itzul dakizkien, baldin eta telekomunikazio-, irrati- eta telebistazerbitzuak nahiz zerbitzu elektronikoak emateko ondasun- edo zerbitzu-eskuraketak edo -inportazioak kontsumoko estatu kidean egintzat jotzen badira. Itzulketa egiteko, kontsumoko estatu kideak Kontseiluaren 2008ko otsailaren 12ko azaroaren 17ko 2F008/9/EE Direktibak xedatzen duena garatzeko (2006ko azaroaren 28ko 2006/112/EE Direktibako 369 undecies artikuluan jasotzen den moduan) onartu duen arautegian ezarritako prozedurari jarraituko zaio. Establezimendua zergaren aplikazio-lurraldean daukaten enpresaburu edo profesionalen kasuan, foru arau honetako 117 bis artikuluan ezartzen den prozedurari jarraituko diote jasandako kuotak itzul dakizkiela eskatzeko (zergaren aplikazio-lurraldean egindakoak izan ezik).

Hiru. Espainia identifikazioko estatu kidea bada, zergaren araubide orokorrarekin bat deduzitu ahal izango dira, dagozkion autolikidazioen bidez, zergaren aplikazio-lurraldean egintzat jo behar diren eta telekomunikazio-, irrati- eta telebista-zerbitzuak nahiz zerbitzu elektronikoak emateko diren ondasun- eta zerbitzu-eskuraketen edo -inportazioen ondorioz jasan diren kuotak, alde batera utzirik zerbitzuoi aplikatu dakiekeen edo ez atal honetan ezarritako araubide berezia.

Lau. Foru arau honetako 119. artikuluko Bi zenbakiko 2. azpizenbakian xedatutakoa gorabehera, Espainia kontsumoko estatu kidea bada, EBn establezimendua daukaten enpresaburu edo profesionalek, araubide berezi hau aukeratzen badute, eskubidea izango dute Balio Erantsiaren gaineko Zerga dela-eta zergaren aplikaziolurraldean egintzat jo behar diren ondasun- eta zerbitzu-eskuraketen edo -inportazioen ondorioz jasan dituzten kuotak itzul dakizkien, betiere ondasun eta zerbitzuok araubide berezi honetako telekomunikazio-, irrati- eta telebista-zerbitzuak nahiz zerbitzu elektronikoak emateko badira. Foru arau honetako 119. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituko zaio eskubide hori erabili ahal izateko.

**163 quatervicies artikulua. Telekomunikazio-, irrati- eta telebista- zerbitzuei nahiz zerbitzu elektronikoei aplikatu beharreko araubidea, establezimendua zergaren aplikazio-eremuan daukaten enpresaburu edo profesionalek zerbitzuok bertan ematen dituztenean.**

Atal honetan ezarritako araubide berezia ez zaie aplikatuko zergaren aplikazio-eremuan egiten diren telekomunikazio-, irrati- eta telebista-zerbitzuei nahiz zerbitzu elektronikoei, baldin eta establezimendua bertan daukaten enpresaburu edo profesionalek ematen badituzte. Zergaren araubide orokorra aplikatuko zaie zerbitzu- emate horiei.

## X. TITULUA
## SUBJEKTU PASIBOEN BETEBEHARRAK

### 164. artikulua. Subjektu pasiboen betebeharrak.

Bat. Aurreko tituluan ezarri denaren kalterik gabe, Zergaren subjektu pasiboek, arau bidez zehazten diren beharkizun, muga eta baldintzei egokituz, ondoko hauek bete beharko dituzte:

1.a. Zergari loturik egotea eragiten duten jardueren hasiera, aldarazpen eta uzteari buruzko aitorpenak aurkeztu.

2.a. Identifikazio fiskaleko zenbakia eskatu Administrazioari eta jakitera eman, eta ezartzen diren balizkoetan benetakotu.

3.a. Beren eragiketen faktura eman, arauz ezartzen denari lotuz.

4.a. Kontabilitatea eta ezartzen diren erregistroak erregelamenduz ezarritakoaren arabera eraman, Merkataritzako Kodean eta kontabilitateari buruzko gainerako arauetan xedaturik dagoena gorabehera.

5.a. Aldizka edo Administrazioak eskatzen dienean, gainontzeko pertsonekin burutzen dituzten eragiketa ekonomikoen berri eman.

6.a. Behar diren aitorpen-likidazioak aurkeztu eta horren araberako Zergaren zenbatekoa ordaindu.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, subjektu pasiboek urteko laburpen-aitorpena aurkeztu behar dute.

Foru arau honetako 13. artikuluko 2. zenbakiko balizkoetan, garraiobidea behin betiko matrikulatzeko zerga-zorra ordaindu dela frogatu behar da.

7.a. Foru arau honetan ezarritako betebeharrak bete daitezen, ordezkari bat izendatu, baldin eta Erkidegoan egoiliarturik ez dauden subjektu pasiboak badira, Kanarietan, Zeutan edo Melillakoak, edo Erkidegokoen antzeko elkarri laguntzeko bitartekoak dituen estatu batekoak izan ezik.

Bi. Enpresaburuek edo profesionalek egindako eragiketengatik faktura egin eta emateko beharra haien bezeroek zein gainerakoek bete dezakete, erregelamendu bidez ezartzen den bezala, eta horretan haien izenean eta kontura jardungo dute beti.

Betebehar hori enpresaburuaren edo profesionalaren bezero batek beteko badu, alderdiek aldez aurretik hala adostu behar dute. Halaber, bermatu behar da enpresaburuak edo profesionalak onartu egiten dituela bezeroak beraren izenean eta kontura ematen dituen faktura guzti-guztiak.

Enpresaburu edo profesional batek edo haren bezero batek edo hirugarren batek beraren izenean eta kontura egindako fakturak edozein bitarteko erabiliz egin daitezke, paperean edo formatu elektronikoan, baina, azken kasu horretan, hartzaileak adierazi behar du ados dagoela horrelako fakturak jasotzearekin.

Fakturak —hala paperekoak, nola elektronikoak— hauek bermatu behar ditu: Faktura benetakoa dela eta faktura horren edukia osorik mantenduko dela eta irakurri ahal izango dela, faktura egiten den egunetik bertatik eta faktura hori gordetzen den epe guztian zehar.

Erregelamendu bidez zehaztuko da zer betekizun bete behar diren fakturak egin, eman eta gordetzeari dagokionez..

Hiru. Aurreko idatz-zatietan ezarritakoa aplikatuko zaie Zergaren subjektu pasiboa ez izaki beraren ondoreetarako enpresari edo profesional direnei ere; betekizunak, mugak eta baldintzak arau bidez zehaztuko dira.

Lau. Enpresariaren, profesionalaren edo subjektu pasiboaren zerga-egoera egiaztatzeko beharrezkoa dela uste izanez gero, Zerga Administrazioak Zergaren ezarpen-lurraldean egindako ondasun-emateen edo zerbitzugintzen fakturak eta lurralde horretan egoliartutako enpresariek, profesionalek edo subjektu pasiboek jasotako fakturak gaztelaniara edo beste hizkuntza ofizial batera itzultzeko eska dezake.

**165. artikulua. Fakturaketa arloko arau bereziak.**

Bat. Jasotzen diren fakturak, kontabilitateko frogagiriak eta emandako fakturen kopiak Zergaren preskripzio-aldian gorde behar dira, are baliabide elektronikoak erabilita ere. Betebehar hau subjektu pasiboaren izenean eta beraren kontura ari den gainontzeko batek bete dezake.

Aurreko paragrafoan aipatutako agiriak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak jasan edo ordaindu beharra ekarri duten eskuraketei badagozkie eta haien kenkaria erregularizatzen ari bada, kuoten erregularizazio-aldian eta hurrengo lau urteetan gorde behar dira.

Idatz-zati honetan ezarritako betebeharrak betetzeko betekizunak arau bidez zehaztuko dira.

Bi. Aurreko idatz-zatian fakturak eta agiriak gorde beharraz ezarritakoa betetzeko beste modu batzuk ezar daitezke arau bidez, enpresaburuen edo profesionalen jarduerak ez eragozteko.

Hiru. Subjektu pasiboak baliabide elektronikoen bidez gordetzen baditu aurreko idatz-zatian aipatutako agiriak, fakturak on line eskuratzeko eta kargatu eta erabiltzeko modua eman behar dio Zerga Administrazioari.Aurrekoa beti bete behar da, agiriak gordetzen diren tokia gorabehera.

**166. artikulua. Kontabilitate-betebeharrak.**

Bat. Kontabilitateak ondoko hauek doitasunez zehazteko bidea eman behar du:

1. Subjektu pasiboak bere bezeroei jasanarazten dien Balio Erantsiaren gaineko Zergaren guztirako zenbatekoa.

2. Subjektu pasiboak jasaten duen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren guztirako zenbatekoa.

Bi. Subjektu pasiboek beren enpresa- edo lanbide-jarduerak egitean burutzen dituzten eragiketa guztiak kontabilizatu edo jaso beharko dira Zergaren likidazio eta ordainketarako ezartzen diren epeen barruan.

Hiru. Ogasun eta Finantzen Foru Diputatuak zenbait enpresa- edo lanbide-sektoreren erregistro-betebeharrak alda edo molda daitezela xedatu ahal izango du.

# XI. TITULUA
# ZERGAREN KUDEAKETA

### 167. artikulua. Zergaren likidazioa.

Bat. Hurrengo paragrafoan xedatutako kasuan izan ezik, subjektu pasiboek Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezartzen dituen tokian, eran, epeetan eta inprimakietan zehaztu eta sartu behar dute zerga-zorra

Bi. Ondasun-inportazioetan, aduana-legediak arantzeleskubideetarako ezarritako moduan egingo da zergaren likidazioa. Inportazioetan, erregelamenduz ezarriko da nola egin kuoten bilketa zein sarrera. Halaber, aukera egongo da zehazteko zer baldintza eskatu behar zaizkien subjektu pasiboei kuota horiek Administrazioak egindako likidazio-agiria jasotzen duten epeari dagokion autolikidazioan sartu ahal izateko.

Hiru. Honako hauek foru-aldundi honetan baino ez dute aurkeztu behar autolikidazioa:

1.a. Zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan duten subjektu pasiboek, aurreko urteko eragiketen zenbateko osoa 7 milioi eurotik gorakoa izan ez denean, eragiketak egiten diren lekua edozein dela ere.

2.a. Aurreko urteko eragiketen zenbateko osoa 7 milioi eurotik gorakoa izan duten subjektu pasiboek, haien zerga-egoitza non dagoen aintzat hartu gabe, baldin eta eragiketa guztiak Bizkaiko Lurralde Historikoan egin badituzte

3.a. Zerga-egoitza Bizkaian duten subjektu pasiboek, eragiketak non egiten dituzten eta eragiketon zenbateko ekonomikoa kontuan hartu gabe, honako jarduera hauei dagokienez:

a) Nekazaritza, basogintza, abeltzaintza edo arrantzako ustiategiek edo arrantzontzi-armadoreek egindako ekoizkin-emateak, ekoizkinak naturalak baldin badira, eraldatzeko prozesurik jasan ez baldin badute eta ustiategien edo armadoreen landaketa, ustiapen edo harrapaketetatik baldin badatoz zuzenean.

b) Garraio-zerbitzuak, baita etxez aldatzeko zerbitzuak, atoi-zerbitzuak eta garabi-zerbitzuak ere

c) Garraiobideak alokatzea

4.a. Garraiobide berrien Batasun barruko eskuratzeen ziozko Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordaindu beharretik erabat salbuetsita dauden edo zerga horren pean ez dauden norbanakoek edo pertsonek edo erakundeek, baldin eta garraiobide horiek behin betiko matrikulatzen badira Bizkaiko Lurralde Historikoan.

5.a. Aurreko zenbakian ezarritakoa gorabehera, zergaren kenkari osorako edo partzialerako eskubidea sortarazten ez duten eragiketak soilik egiten dituzten subjektu pasiboek eta enpresari edo profesional ez diharduten pertsona juridikoek, aukeragatik edo foru arau honen 4. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako zenbateko-muga gainditu izanagatik zerga honen pean dauden Batasun barruko ondasun-eskuratzeak direla eta, zerga-egoitza Bizkaian baldin badute.

6.a. Araubide erraztuan, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian eta baliokidetasun-errekarguko araubidean Batasun barruko ondasun-eskuratzeak egiten dituzten subjektu pasiboek, haien zerga-egoitza Bizkaian baldin badago.

Lau. Autolikidazioa aurkeztu behar dute foru-aldundi honetan eta baita subjektu pasiboek jarduten duten beste lurraldeetako zerga-administrazioetan ere, aurreko urteko eragiketen zenbatekoa 7 milioi eurotik gorakoa izan bada eta Bizkaian eta beste lurralde zenbaitetan ere jarduten dutenean. Ondorio horietarako, honako erregela hauek hartuko dira kontuan:

1.a. Subjektu pasiboak lurralde batean baino gehiagotan jarduten badu eta eragiketen zenbatekoagatik administrazio bati baino gehiagori ordaindu behar badio zerga, Zergaren likidazioaren emaitza administrazio eskudunei egotziko zaie, subjektu pasiboak egutegiko urtean lurralde bakoitzean egindako ondasun-emate eta zerbitzuengatik -zergapekoengatik zein kenkarirako eskubidea sortzen dutenengatik-lortutako kontraprestazioen kopuruaren arabera, Balio Erantsiaren gaineko Zerga alde batera utzita

2.a. Egutegiko urte bakoitzean behin-behinekoz aplikatu behar diren proportzioak aurreko urteko eragiketen arabera zehaztuko dira.

Jarduera hasten den lehenengo egutegiko urteko likidazio-aldietan aplikatzekoa den behin-behineko proportzioa subjektu pasiboak ezarriko du, lurralde bakoitzean aurrez ikusten dituen eragiketen arabera; nolanahi ere, ekitaldiaren amaieran erregularizazioa egingo du.

Aurreko lerroaldean ezarritakoa gorabehera, bestelako behin-behineko proportzioa aplika daiteke honako kasu hauetan

a) Bat-egiteetan, zatiketetan eta aktiboak emateko eragiketetan.

b) Lurralde erkidean edo foru lurraldean jardueraren bat hasi, utzi, zabaldu eta murrizten denean, baldin eta 2. erregela honetako lehen lerroaldean zehaztutako irizpidearen arabera kalkulatutako proportzioa nabarmen aldatzea badakar.

Betiere, aldaketa nabarmena dela uste izango da lurraldeetako edozeini aplikatu beharreko proportzioa ehuneko 15 edo gehiago aldatzen denean.

Bestelako proportzioa aplikatu ahal izateko, subjektu pasiboak, proportzio hori aplikatu aurretik, Ekonomia Itunaren III. kapituluko 2. atalean jasotzen den Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeari jakinarazi beharko dio, zerga lurralde erkideko edo foru lurraldeko administrazioei ordaindu behar zaienean. Zerga foru administrazioei soilik ordaindu behar bazaie, subjektu pasiboari dagokionez ikuskapenerako eskumena duen administrazioari egin behar zaio jakinarazpena.

3.a. Subjektu pasiboak, egutegiko urte bakoitzeko Zergaren gainean egindako azken autolikidazioan, behin betiko proportzioak kalkulatuko ditu -epe horretan egindako eragiketen arabera-, eta aurreko likidazio-aldietan administrazio bakoitzarekin egindako aitorpenak erregularizatuko ditu

4.a. Subjektu pasibo horiek aurkeztuko dituzten autolikidazioetan beti jaso behar dira zein diren aplikagarriak diren proportzioak eta zein den, proportzio horien ondorioz, administrazio bakoitzari dagokion kuota.

Bost. Batasun barruko emateen eta eskuratzeen laburpen-aitorpenak subjektu pasiboari egiaztapenak eta ikerketak egiteko eskumena daukan zerga-administrazioan aurkeztu beharko dira.

Sei. Zergaren ikuskapena honako irizpide hauen arabera egingo da:

1. Honako kasu hauetan, lurralde historiko honetako Zerga Ikuskatzailetzak egingo du ikuskapena:

a) Subjektu pasiboek Foru Aldundi honi bakarrik tributatu behar diotenean.

b) Subjektu pasiboek zerga-egoitza Bizkaian dutenean eta zerga hori dela-eta lurralde desberdinetan egindako eragiketen arabera tributatzen dutenean; nolanahi ere, eragiketak lurralde erkidean eginez gero elkarlana egon daiteke Estatuko Administrazioarekin, eta Bizkaiko ikuskaritzaren jarduketek ondorioak izango ditu

administrazio eskudun guztietan, administrazio bakoitzari dagokion zerga-proportzioa zehazteak barne.

Aurreko lerroaldean ezarritakoa gorabehera, subjektu pasiboak aurreko ekitaldian eragiketen %75 edo gehiago lurralde erkidean egin badu, zehaztutako lotura-puntuen arabera, eskumena Estatuko Administrazioarena izango da, foru-aldundi honen laguntzaren kalterik gabe. Ikuskapen-lan horien ondorioz, zorren bat ordaindu edo kopururen bat itzuli behar dela agertzen bada, eta zor edo kopuru hori hainbat administraziori badagokio, Bizkaiko administrazioak kobratu edo itzuliko du; administrazioek elkarri egin beharreko konpentsazioen kalterik gabe. Ikuskapen-organoek euren jardunaren emaitzen berri emango diete ukitutako gainerako administrazioei.

c) Subjektu pasiboaren zerga-egoitza Araban edo Gipuzkoan egonez gero, ikuskapena kasu hauetan abiaraziko da: zergadunaren eragiketa bolumena, aurreko ekitaldian, 7 milioi euro baino gehiago izan bada eta ekitaldi horretako eragiketa bolumenaren %75 gutxienez lurralde erkidean egin ez badu eta, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak Bizkaian egin baditu (edo Bizkaian eta zerga-egoitzarik ez duen beste lurralde historiko batean egin baditu, haien eragiketa bolumenaren proportziorik handiena Bizkaian egin badu).

2. Ikuskapen-jarduketak beste administrazio batek eginez gero, egintzat joko dira, Bizkaiko Foru Aldundiak egiaztapenaren eta ikerketaren arloan dauzkan ahalmenak gorabehera, eta Aldundiaren jarduketek ez dute edukiko ondorio ekonomikorik zergadunentzat administrazio eskudunetako organoen jarduketen ondoriozko behin betiko likidazioei dagokienez.

3. Administrazio eskudunak egiaztapenetan ezarritako proportzioak subjektu pasiboak ere bete beharko ditu, likidatutako betebeharren inguruan, egiaztapen horien ondoren administrazioek behin betiko erabakitzen dituztenen kalterik gabe.

Zazpi. Erakunde taldeen araubide bereziaren barruan dauden erakundeek aurreko paragrafoetan jasotako arauak aplikatuko dituzte zerga ordaintzeko, honako berezitasun hauekin:

Lehenengo.Erakunde nagusia lurralde historiko honetako ikuskapen-organoen mende badago, mendeko erakundeak ez dira taldean sartutzat joko, baldin eta azken erakunde horien ikuskapena, aurreko sei paragrafoan jasotzen diren erregelen arabera, lurralde erkideko ikuskapen-organoei badagokie.

Bigarren. Erakunde taldearen barruan dauden erakundeek, foru arau honetan aipatzen diren arau orokorren arabera, banako zerga-ordainketaren araubiderako ezarritako aitorpena aurkeztu beharko dute. Aitorpen horretan Zerga arautzen duten arauak banaka aplikatuta sortzen diren zenbatekoak agertu beharko dira, eta, hala badagokio, erakunde taldearen araubide bereziarenak ere sartuko dituzte.

Taldearen barruan dagoen erakunde bakoitzak banaka kalkulatuko du Administrazio bakoitzari egotzi ahal zaion aitorpenaren emaitza; horretarako, artikulu honetan eta foru arau honetako 2.bis artikuluan ezartzen diren gainerako arauak aplikatu beharko ditu.

Hirugarren. Erakunde taldearen autolikidazio erantsietan zenbatu beharreko zenbatekoak dira aurreko erregelaren arabera kalkulatutako emaitzetatik foru-aldundi bakoitzari edo Estatuko Administrazioari dagozkion emaitza guztien batuketa, eta ezin izango dira erantsi beste zerga-administrazio batzuei dagozkien kopuruak.

Laugarren. Erakunde nagusien betebehar zehatzak taldea osatzen duten erakundeek eragiketak egiten dituzten lurraldeetako zerga-administrazioen aurrean bete beharko dira.

Zortzi. Zerga-betebeharrak betetzen direla bermatzeko egokiak diren bermeak arauz zehaztuko dira

### 167 bis artikulua. Behin-behineko likidazioa.

Zerga-kudeaketako organoek behin-behineko likidazioa igorri ahal izango dute Zergei buruzko martxoaren 26ko 3/1986 Foru Arau Orokorraren 123. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, are hurrengo artikuluetan adierazitako balizkoetan ere.

### 168. artikulua. Ofiziozko behin-behineko likidazioa.

Bat. Subjektu pasiboari epearen barruan burutzen ez duen aitorpen-likidazioa egin dezan Tributu-administrazioaren agindeiaren berri ematen zaionez gero hogeita hamar egun igarotzen badira, hari dagokion Balio Erantsiaren gaineko Zergaren behin-behineko likidazioa burutzeko prozedurari ekin diezaioke Tributu-administrazioak, baldin eta aipatu epealdian bete ez duena zuzendu edo betebeharrik ez daukala behar bezala benetakotzen ez badu.

Bi. Ofiziozko behin-behineko likidazioa, Tributu-administrazioak eduki eta ondoreetarako adierazgarriak diren datu, aurrerakin, zeinu, indize, modulu eta gainerakoetan oinarriturik, eta arau bidez zehazten den prozedurari lotuz burutuko da.

Hiru. Artikulu honetan araupetzen diren behin-behineko likidazioak, behin berauen berri emanez gero, berehala betearaztekoak dira, legez haien aurka jar daitezkeen erreklamazioen kalterik gabe.

Lau. Artikulu honen aurreko ataletan ezarri denaren kalterik gabe, subjektu pasiboen ondorengo tributu-egoera egiaztatu ahal izango du Administrazioak, Tributuei buruzko Foru Arau Orokorrean xedaturik dagoenaren arabera bidezko diren likidazioak eginez.

## XII. TITULUA
## ORDAINKETAREN ETENDURA

### 169. artikulua. Ordainketaren etendura.

Bat. Foru Aldundiak, Ogasun eta Finantzen Foru Diputatuaren eskariz, Zergaren ordainarazpenaren etendura agin dezake ondasun-emateei zuzenean loturik dauden zerbitzu edo ondasunak eskuratzen direnean, baldin eta ondasunak beste estatu kide batentzat edo esportatzeko badira, arau bidez zehazten diren eskakizunak betetzen dituzten sektore eta jardueratan.

Bi. Ordainketaren etenduraren erregimenari heltzen dioten zerbitzu edo ondasunen eskuratzaileak behartuta daude beren hornitzaileek sartu ez dituzten kuoten ordainketa egitera, arau bidez zehazten diren era eta epeen barruan, baldin eta aipatu etendura bidezkotzen duten eragiketen burutzapena benetakotzen ez badute. Atal honetan xedatzen dena dela bide, sartzen diren kuotak inoiz ere ez dira kengarri izango.

Hiru. Artikulu honetan xedatzen dena aplikatzeko Foru Aldundiak zenbatezko mugak ezar ditzake.

## XIII. TITULUA
## URRATZEAK ETA ZEHAPENAK

### 170. artikulua. Urratzeak.

Bat. Honako titulu honetan xedatzen denaren kalterik gabe, zerga honen tributu-urratzeak Tributuei buruzko Foru Arau Orokorrean eta aplikazio orokorreko gainontzeko arauetan ezartzen denaren arabera kalifikatu eta zehatuko dira

Bi. Tributuen arloko arau-hausteak izango dira:

1.a. Baliokidetasun-errekarguaren araubide berezira bildutako subjektu pasiboek ondasunak eskuratzea eta dagozkion fakturetan berariaz kontsignatuta ez azaltzea baliokidetasun-

errekargua, salbu eta eskuratzaileak administrazioari horren berri eman dionean erregelamenduz ezarritako eran.

2.a. Erruzko edo dolozko ekintza edo ez-egitearen bidez zergaren jasanarazpen desegokia lortzea, baldin eta jasanarazten zaionak ez badauka eskubiderik jasandako kuotak kenkari gisa osorik aplikatzeko.

Operazio horien hartzaile diren pertsona edo entitateak arauhausleak izango dira, baldin eta aurreko zenbakian aipatutako ekintza edo ez-egiteen erantzule badira.

3.a. Zergaren subjektu pasiboak ez direnek zergapeko kuoten bidegabeko jasanarazpena egitea fakturan, eta kuota horiek ez ordaintzea.

4.a. Dagokion aldiagatik aurkeztu beharreko autolikidazioan kopuru jakin batzuk ez kontsignatzea, hain zuzen ere, foru arau honen 84.Bat artikuluaren 2., 3. eta 4. zenbakiekin, 85. artikuluarekin edo 140 quinque artikuluarekin bat etorriz operazioen hartzailea kopuru horien subjektu pasibo denean.

5.a. Foru arau honen 19.Bost artikuluan araututako operazioei dagozkien autolikidazioak ez aurkeztea edo behar ez bezala aurkeztea, edo osorik ez aurkeztea.

6.a. Foru arau honetako 84. artikuluko Bat zenbakiko 2. azpizenbakiko e) letran aipatzen diren eragiketen hartzaileek erregelamenduz ezarritakoaren arabera epe barruan ez jakinaraztea edo behar bezala ez jakinaraztea eragiketa horiek egiten dituzten enpresaburu edo profesionalei eragiketa horiei dagokienez enpresaburu edo profesional gisa dihardutela.

7.a. Foru arau honetako 84. artikuluko Bat zenbakiko 2. azpizenbakiko f) letran aipatzen diren eragiketen hartzaileek erregelamenduz ezarritakoaren arabera epe barruan ez jakinaraztea edo behar bezala ez jakinaraztea eragiketa horiek egiten dituzten enpresaburuei edo profesionalei honako inguruabar hauek:

Eragiketa horiei dagokienez, enpresaburu edo profesional gisa dihardutela.

Eragiketa horiek lursailak urbanizatzeko edo eraikinak eraiki edo birgaitzeko prozesu baten barruan egiten direla.

8.a. Foru arau honetako 167. artikuluko Bi zenbakiko bigarren paragrafoko subjektu pasiboek autolikidazioan ez kontsignatzea Administrazioak likidatutako inportazio-eragiketei dagozkien zergakuotak, edo behar bezala edo osorik ez kontsignatzea.

### 171. artikulua. Zehapenak.

Bat. Aurreko artikuluko Bat atalean jasotako arau-hausteak arau hauen arabera zigortuko dira:

1.a. Bi ataleko 1. zenbakian ezarritakoen kasuan, isun proportzionala, jasanarazi behar izango zen baliokidetasun-errekarguari dagokion zenbatekoaren ehuneko 50ekoa, eta gutxieneko zenbatekoa, baliokidetasun-errekargua jasanarazi gabe egindako eskuratze bakoitzeko, 30 eurokoa izango da.

2.a. Bi ataleko 2. zenbakian ezarritakoen kasuan, isun proportzionala, behar ez bezala lortutako etekinaren ehuneko 50ekoa.

3.a. Bi ataleko 3. zenbakian ezarritakoaren kasuan, isun proportzionala, behar ez bezala jasanarazitako kuoten ehuneko 100ekoa; gutxieneko isuna 300 euro izango da, arau-haustedun faktura bakoitzeko.

4.a. Bi ataleko 4. zenbakian ezarritakoen kasuan, isun proportzionala, autolikidazioan kontsignatu ez diren operazioei dagokien kuotaren ehuneko 10ekoa.

5.a. Bi ataleko 5. zenbakian ezarritakoen kasuan, isun proportzionala, autolikidazioetan kontsignatu ez diren edo behar ez bezala kontsignatu diren edo osorik kontsignatu ez diren operazioei dagozkien kuoten ehuneko 10ekoa. Hala ere, aduanaz bestelako gordailu-araubidea uzteari dagozkion autolikidazioak direnean, isun proportzionala jarriko da, kontsignatu ez diren edo behar ez bezala kontsignatu diren edo osorik kontsignatu ez diren operazioei dagozkien kuoten ehuneko 10ekoa, baldin eta autolikidazioan aitortutako kuoten zenbatekoa, guztira, aldi horretan benetan sortutakoena baino txikiagoa bada.

6.a. Bi zenbakiko 6. eta 7. azpizenbakietan ezarritakoaren kasuan, isun proportzionala, jakinarazi beharra egonda ere jakinarazi ez diren emateei eta eragiketei dagozkien kuoten %1ekoa; 300 euro, gutxienez, eta 10.000 euro, gehienez.

7.a. Bi zenbakiko 8. azpizenbakian ezarritakoen kasuan, isun proportzionala, autolikidazioan kontsignatu ez diren eragiketak direlaeta aduanek egindako likidazioei dagozkien kuoten %1ekoa.

Bi. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko 192. artikuluan ezartzen dena aplikatuko zaie artikulu honetako Bat zenbakiko 4., 5. eta 7. azpizenbakietan xedatzen dena betez jartzen diren zehapenei.

Hiru. Artikulu honetako 1. idatz-zatiko lehen hiru arauetan xedatutakoaren arabera ezartzen diren zehapenei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 193. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.

Lau. Zerga-onurak lortzeko eskubidearen galera dakarren zehapena ez zaie aplikatuko foru arau honetan eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko gainontzekoetan ezarritako salbuespenei.».

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

### Lehenengoa. Zerga berezien aipamenak.

Foru arau honetan zerga bereziez egiten diren aipamenak Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legeko 2. artikuluan Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziei buruzkoak direla ulertu behar da.

Hala ere, foru arau honetan xedatutakoaren ondoreetarako, Batasuneko lurralde-eremuko sare baten bitartez edo hari konektatutako sare baten bitartez emandako elektrizitatea eta gas naturala ez dira zerga berezien kargapeko ondasunak.»

### Bigarrena.

Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Ekonomi Itunea onartzen duen maiatzaren 13ko 12/1981 Legearen indarreko 27.2 artikuluan xedatzen dena betez, Estatuko Administrazioak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruz eman ditzan xedapenak aplikagarri izango dira Bizkaiko Lurralde Historikoan bertan adierazten den indarrean sartzeko egunetik aurrera, Bizkaiko Lurralde Historikoaren arautegira agian moldatu behar izatearen kaltetan gabe.

Aurreko lerroaldean adierazten denetik salbuesten dira sarrera-epeei eta aitorpen-ereduei buruzko xedapenak, hauek beti ere Bizkaiko Lurralde Historikoaren eskudun organoek eman ditzaten xedapenak izango bait dituzte arau.

### Hirugarrena. Aduana agenteen bidez eta, aduana administrazioak behar bezala gaituta, euren izenean eta inportatzaileen kontura diharduten pertsona edo erakundeen bidez ondasunak inportatzen direnean Balio Erantsiaren gaineko Zerga itzultzea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondoreetarako, ondasunak aduana agenteen bidez eta, aduana administrazioak behar bezala gaituta, euren izenean eta inportatzaileen kontura

diharduten pertsona edo erakundeen bidez inportatzen direnean eta horiek zerga horren ziozko kopurua inportatzailearen kontura ordaintzen dutenean, jarraiko arau hauek aplikatuko dira:

1. Inportazioaren zioz ordaindutako kuotetan kenkaria aplikatzeko eskubidearen frogagiria zerga-zorra ordaindu delako frogagiria bera izango da; bertan agertarazi behar da aduana agenteak edo bere izenean eta inportatzailearen kontura aritu den pertsonak edo erakundeak onartu duela bezeroak zerga-zorra itzuli diola.

   Aduana agenteek eta euren izenean eta inportatzaileen kontura diharduten pertsonek edo erakundeek erregela honetan aipatutako agiria atxiki ahal izango dute zerga-kuota itzuli arte.

2. Kuota itzultzeko eskubidea sortu zenetik urtebeteko epealdian inportazioaren zioz sortutako zerga-zorra oso-osorik kentzeko eskubidea duen inportatzaileak ordaintzen ez badu aduana agenteak edo bere izenean eta inportatzailearen kontura aritu den pertsonak edo erakundeak inportazioaren zioz ordaindutako kuota, hark edo pertsona edo erakunde horrek hurrengo hiru hiletan aduanari itzul diezaiotela eskatu ahal izango dio, arauz zehaztuko diren baldintzak eta beharkizunak betez.

   Aduana agenteak edo bere izenean eta inportatzailearen kontura aritu den pertsonak edo erakundeak dirua itzultzeko eskabidearekin batera zerga-zorra ordaindu duela frogatzen duen agiria aurkeztu behar du; hori itzulketa edo kenkarirako eskubidea baliarazteko ondorerik gabe, baliogabeturik, geratuko da.

3. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 87. artikuluko bigarren idatz-zatiko 3. zenbakian eta hirugaren idatz-zatian xedatutako erantzukizun balizkoak ezin aplikatu izango dira aurreko 2. erregelan aipatutako kasuetan.

**Laugarrena. Nahitaezko betearazpeneko prozedura administratibo eta judizialak.**

Nahitaezko betearazpeneko prozedura administratibo eta judizialetan, zerga honen ondorioetarako enpresaburu edo profesionalak diren esleipendunek honako hau egiteko ahalmena izango dute, subjektu pasiboaren izenean eta kontura, prozedura horietan gertatzen diren zerga honen peko ondasun-emate eta zerbitzu-prestazioei dagokienez:

1. Eragiketa dokumentatzeko faktura egitea.

2. Foru arau honetako 20. artikuluko bi atalean jasotzen diren salbuespenei uko egitea, hala badagokio.

3. Egiten den fakturan zergaren kuota jasanaraztea, dagokion autolikidazioa aurkeztea eta ateratzen den zerga ordaintzea, salbu eta ondasun-emate eta zerbitzu-prestazioetan, baldin eta eragiketa horien subjektu pasiboa haien hartzailea bada arau honetako 84.bat.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Erregelamendu bidez zehaztuko da zer baldintza eta beharkizun bete behar diren ahalmen horiek baliatzeko.

**Bostgarrena.**

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 20. artikuluko lehenengo idatz-zatiko 1. zenbakian ageri den salbuespena posta zerbitzu unibertsala agindu zaienek gainontzekoen izenean eta haien kontura frankeatzeko inpresioen edo irarketen bidez egiten dituzten posta bidalketen frankeoei ere aplikatuko zaie.

**Seigarren. Babeserako erakunde-sistema bat eratzen duten enpresariei eta profesionalei aplika dakiekeen erakunde taldearen araubide berezia.**

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren IX. tituluaren IX. kapituluan araututako erakunde taldearen araubide berezia, inbertsio-koefizienteei,

norberaren baliabideei eta finantza bitartekarien informazio betebeharrei buruzko maiatzaren 25eko 13/1985 Legearen 8. artikuluko 3. idatz-zatiko d) letran xedatutako baldintzetan babeserako erakunde-sistema bat osatzen duten enpresari eta profesionalek aplikatu ahalko dute.

Ondorio horietarako, batetik, negoziorako politikak eta estrategiak, eta bestetik, babeserako erakunde-sistemaren barneko babesaren eta arriskuen kudeaketaren mailak eta neurriak izaera loteslearekin zehazten dituen erakunde zentrala joko da nagusitzat.

Mendekotzat joko dira babeserako erakunde-sistema horren kide diren erakundeak, bai eta bertan euren kapitalaren 100eko 50 baino gehiagoko parte hartze zuzena edo zeharkakoa dutenek ere.

Erakunde nagusia eta haren mendekoak zerga aplikatzen den lurraldean ezarri beharko dira.

Araubide berezia aplikatzeko aukera egongo da Espainiako Bankuak egiaztatu eta hiru hilabeteko epean, maiatzaren 25eko 12/1985 Legearen 8. artikuluko 3. idatz-zatiko d) letran adierazi bezala.

Hala eta guztiz ere, Espainiako Bankuak xedapen gehigarri hau indarrean sartu baino lehen egiaztatu balu, araubide berezia aplikatzeko aukera xedapena indarrean sartu eta sei hilabeteko epean egongo da.

Aukera burutu ondoren, araubide bereziak ondorioak izango ditu zerga administrazioari aukera horren berri ematen zaion datari dagokion zerga ordaintzeko epeaz geroztik.

Idatz-zati honek hizpide dituen erakunde taldeei ez zaizkie aplikatuko Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 163 quinquies artikuluan ezarritako baldintzak.

### Zazpigarrena. Baloreen eskualdaketa.

Baloreen eskualdaketen tributazio-araubidea 2012ko abenduaren 4ko 6/2012 Foru Dekretu Arauemailearen artikulu bakarrean ezarritakoa izango da. Foru dekretu arauemaile horren bidez, baloreen eskualdaketek Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan zein Balio Erantsiaren gaineko Zergan izango duten tratamendua ezartzen da.

### Zortzigarrena. Banku-fundazioak entitate-taldeetan sartzea.

Honako entitate hauek hartu ahal izango dira foru arau honetako IX. tituluko IX. kapituluan araututako entitate-talde bateko mendeko entitatetzat: aurrezki-kutxei eta banku-fundazioei buruzko Legeko 43. artikuluko 1. zenbakian adierazitako banku-fundazioak, baldin eta enpresariak edo profesionalak badira eta zergaren aplikazio-lurraldean ezarrita badaude, eta fundazioek -zuzenean edo zeharka- kapitalaren %50 baino partaidetza handiagoa duten entitateak.

Aurrezki-kutxei eta banku-fundazioei buruzko Legeko 43. artikuluko 1. zenbakian adierazitakoa izango da kreditu-entitate nagusia, ondorio hauetarako taldearen jardueraren politikak eta estrategiak eta barruko kontrola eta kudeaketa modu loteslean erabakitzen dituena.

### Zortzigarrena (sic) .Arau-aipamenak.

Foru arau honetan ageri diren «Elkartea», «Elkarteko» «Europako Elkartea», «Europako Elkarteak», «CEE», «Batasuna» eta «EB» terminoek —aurreko horiek guztiek—Europar Batasunari egiten diote erreferentzia.»

# XEDAPEN IRAGANKORRAK

**Lehenengoa. Kanaria irletatik, Ceutatik eta Melillatik datozen bidaiariei buruzko frankiziak.**

1991.eko ekainaren 26ko 91/1911/CEE araudiaren 6. artikuluan aipatzen den epealdi iragankorrean, seiehun ecuren pezetako kopuru baliokidearen frankizia-mugek Kanaria irletatik, Ceuta eta Melillatiko bidaiariek daramatzen ondasunen inportazioetan iraun egingo dute eta bai, aipatu lurraldeetatiko hamabost urtetik beherako bidaiariei doakienez, ehun eta berrogeita hamar ecuren pezetako kopuru baliokidearen mugek ere.

**Bigarrena. Funtsean nazioarteko itsas nabigazioan diharduten untziei buruzko salbuespenak.**

Salbuespen hauek aplika daitezen, Foru Arau honen 22. artikuluaren lehen atalaren hirugarren eta bigarren lerroaldean eta 27. artikuluaren 2. zenbakian ezarri diren epealdien barruan, manu horietan ere finkaturik dauden ibilbideak 1992.eko abenduaren 31rako buruturik dituzten untziak nazioarteko itsas nabigazioari lotutzat hartuko dira.

Egun horretan ibilbide horiek, adierazi diren epealdietan, burutzeke dituzten untziak nazioarteko itsas nabigazioari lotutzat hartuko dira, Foru Arau honen xedapenen arabera haiek burutu ostean.

**Hirugarrena. Funtsean nazioarteko aire nabigazioan diharduten aireuntziei buruzko salbuespenak.**

Salbuespen hauek aplika daitezen, Foru Arau honen 22. artikuluaren lehen atalaren hirugarren eta bigarren lerroaldean, eta 27. artikuluaren 2. zenbakian ezarri diren epealdien barruan, manu horietan ere finkaturik dauden ibilbideak 1992.eko abenduaren 31rako buruturik dituzten aireuntziak nazioarteko aire nabigazioari lotutzat hartuko dira.

Egun horretan ibilbide horiek, adierazi diren epealdietan, burutzeke dituzten aireuntzien jabe diren konpainiak ez dira nazioarteko aire nabigazioari lotutzat hartuko, Foru Arau honen xedapenen arabera haiek burutu ostean.

**Laugarrena. Jasanarazten diren zerga-kuota eta kenketen zuzenketak.**

Jasanarazten diren zerga-kuotak eta egiten diren kenketak zuzentzeko Foru Arau honek ezartzen dituen baldintzak Zerga indarrean jarri aurretik berau sorrarazi duten eragiketetan aplikatuko dira, baldin eta preskripzio epea igaro ez bada.

**Bostgarrena. Autokontsumoetan erabiltzen diren eskuraketen kenketa.**

Foru Arau honen 102. artikuluaren bigarren atalean aipatzen diren autokontsumoak xede dituzten ondasun edo zerbitzuen eskuraketengatik jasaten diren kuotak aipatu autokontsumoen sortzapena 1992.eko abenduaren 31tik aurrera gauzatzen denean baino ezin kendu ahal izango dira.

**Seigarrena. Jarduera hasi aurretiko kenketak.**

Enpresa-jarduerak hasi aurretik jasaten diren kuotetan kenkariak egiteko prozedura Foru Arauak ezartzen duenera moldatuko da, baldin eta jarduera hori Foru Arau hau indarrean jarri baino lehenago hasten bada.

111. artikuluaren lehenengo atalaren lehenengo lerroaldean ezarri den epealdia bukatzen denean, subjektu pasiboek atal beraren bigarren lerroaldean aipatu den luzapena eskatu beharko dute 1993.eko martxoaren 31 baino lehen.

## Zazpigarrena. Jarduerari ekin aurretik burutzen diren kenkarien erregularizazioa.

Enpresari- edo lanbide-jarduerei edo, hala denean, jardueraren sektore ezberdindu bati ekin aurretik jasaten diren kuotetako kenkarien gaineko Foru Arau hau indarrean jartzen denean aribideko erregularizazioa 1992.eko abenduaren 31n indarrean dagoen arautegiaren arabera burutuko da.

Enpresari- edo lanbide-jarduerei edo, hala denean, jardueraren sektore ezberdindu bati 1993ko urtarrilaren lehenaz gero ekiten zaionean, aldez aurretik egiten diren kenkarien erregularizazioa Foru Arau honen 112. eta 113. artikuluetan bildurik dauden arauen arabera gauzatuko da.

## Zortzigarrena. Erregimen berezietako uko eta aukerak.

Erregimen berezietan aurrikusirik dauden ukoak eta aukerak ondorerik gabe geratuko dira berauek babestu zituen arautegiaren arabera, baldin eta 1993ko urtarrilaren lehenaz aurretik egiten badira.

## Bederatzigarrena. Erregimen etengarrietako edo salbuetsirik dauden aldeetako merkataritzako gaiak.

1992.eko abenduaren 31n, Foru Arau honen 23. eta 24. artikuluek, hurrenez hurren, aipatzen dituzten aldeetan edo erregimenen itzalpean dauden Elkarteko merkataritzako gaiak, adierazitako egoeretan dirauten bitartean, 1993.eko urtarrilaren 1a baino lehen aplikagarri diren xedapenei lotuta geratuko dira.

## Hamargarrena. Inportazioei berdinetsitako eragiketak.

Foru Arau honen 23 eta 24. artikuluetan, hurrenez hurren, aipatzen diren aldeetatik irtetea edo erregimenak uztea inportazioei berdinetsitako eragiketak izango dira, baldin eta 1992ko abenduaren 31z gero gertatu eta 1993ko urtarrilaren lehenaz aurretik egoera horietan zeuden merkatalgaiei badagozkie.

Alabaina, ez da ondasun-inportaziorik egongo ondoko kasuotan:

1. Ondasunak ondoren Elkartetik kanpora bidali edo garraiatu daitezenean.

2. Garraiobideez besteko ondasunak izan, aurretik aldibaterako inportazio-erregimenean egon eta egoera hau ondoren jatorrizko Estatu kidera bidali edo garraiatuak izateko uzten dutenean.

3. Aurretik aldibaterako inportazio-erregimenean dauden garraiobideak izan eta ondoko bi baldintzetako edozein betetzen bada:

   a) Lehenengo erabilera-data 1985eko urtarrilaren lehenaz aurretikoa izatea..

   b) Inportazioaren zioz sortarazitako Zerga 150,25 eurotik beherakoa izatea.

## Hamaikagarrena. Zerga-tasak.

Bidaiari eta berauen fardelen aire eta itsasoko garraio zerbitzuek jatorria edo destinoa Baleareak irletan duten garraioenak izan ezik, 1997an zehar 100eko 16ko zerga-tasa ordainduko dute zerga honen zioz..

## Hamaikagarren xedapen iragankorra. Ondasun erabili, arteobjektu, antzinateko objektu edo bilduma-objektuen araubide berezia.

Ondasun erabilien edo ondasun higigarrien birsaltzaile diren subjektu pasiboek —foru arau honetako 136.1.5 artikuluan aipatzen dira subjektuok—, ondasun erabili, arte-objektu, antzinateko objektu edo bilduma-objektuen araubide berezia aplikatu ahal izango dute haiek egiten dituzten ondasun-emateetan, baldin eta ondasunok saldu dizkieten enpresaburu edo

profesionalak ez badira foru arau honetako 136. artikuluan aipatzen diren birsaltzaileak eta egindako erosketa hori zergaren tasa txikituetako bat aplikatu bazaio.

### Hamabigarrena. Sortzapena zenbait garraiobideren emateetan.

Garraiobide-emateetako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren sortzapena, lehenengo matrikulazioa 1993ko urtarrilaren lehenaz aurretik gertatu eta data horretatik aurrera zenbait garraiobideren gaineko Zerga Bereziari loturik egon bada, 1992ko abenduaren 31n gertatuko da emate horiei dagokien esku jartzea 1993ko urtarrilaren lehenaz geroztik gertatzen bada..

## AZKEN XEDAPENAK

### Lehenengoa.

Honako Foru Araua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadin egunean bertan jarriko da indarrea.

### Bigarrena.

Apirilaren 16ko 8/1986 Foru Arauaren bidez sortarazitako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araudizko arauek indarrean jarraituko dute Foru Arau honetako manuen edo bere garapenerako arauen aurka egon ez daitezenean.

### Hirugarrena.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Araua erabiliz Balio Erantsiaren gaineko Zergaren arauei honako aldarazpen hauek egin ahal izango zaizkie:

1. Zergaren eta baliokidetasun-errekarguaren tasen zehaztapena.

2. Foru Arauean ezartzen diren portzentaia finkoak eta zenbatezko mugak.

3. Zergaren salbuespenak.

4. Foru Arau honek araupetzen dituen prozedurako eta eraentzako aspektuak.

5. Europako Ekonomi Elkartean onetsi diren armonizazio fiskaleko arauek eskatzen dituzten gainontzeko moldaketak.

## ERANSKINA

Foru Arau honetan xedaturik dagoenak ondoreak izan ditzan:

Lehenengo. Untzitzat Aduana Arantzeleko 89.01, 89.02, 89.03, 89.04 eta 89.06.10 partidetan bildurik daudenak hartuko dira.

Bigarren. Aireuntzitzat Aduana Arantzeleko 88.02 partidan bildurik dauden aerodinoak hartuko dira, baldin eta propultsio-makina batez funtzionatzen badute.

Hirugarren. Hornidura-gaitzat untzi barruko hornigaiak, erregaiak, labangaiak eta erabilera teknikorako gainontzeko olioak eta untzi barruko ekoizkin osagarriak hartuko dira.

Eta:

a) Untzi barruko hornigaitzat tripulazioaren eta pasaiarien kontsumorako soilik diren ekoizkinak joko dira.

b) Erregai, labangai eta erabilera teknikorako gainontzeko oliotzat, propultsio-makinek erretzen dituzten gaiak edo untzi barruko gainontzeko makina eta tresnen funtzionamendurakoak joko dira.

c) Untzi barruko ekoizkin osagarritzat, erabilerarako kontsumorakoak direnak, garraiatzen diren animalien elikadurarakoak eta untzi barruan garraiatzen diren merkataritzako gaiak artatu, tratatu eta gertatzeko erabiltzen diren kontsumigarriak joko dira.

Laugarren. Erregaien biltzontzi arruntzat untzi barruko makina, tresna eta propultsio-organoei zuzenean lotuta daudenak hartuko dira.

Bostgarren. Aduanazkoez beste gordailu araubidea.

Bat. Araubidearen definizioa

a) Zerga Bereziei atxikitako ondasunei dagokienez, hurrengo fabrikazio kasuotan aplikatzen den suspentsio erregimena aplikatuko da aduanetakoa ez den gordailu erregimen bezala: fabrika edo gordailu fiskaletan fabrikazio zerga bereziei atxikitako produktuak fabrikatu, eraldatu edo edukitzean, aipatu produktuak establezimendu horien artean zirkulatzean eta produktu horiek fabrika edo gordailu fiskal batera eramateko asmoz inportatzean erabilitakoa.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa Batasuneko lurralde-eremuko sare baten bitartez edo hari konektatutako sare baten bitartez emandako gas naturalari ere aplikatuko zaio.

b) Gainerako ondasunei doakienez, aduanakoa beste gordailu araubidea jatorria dela eta aduanako gordailu araubidetik baztertutako ondasunei aplikatu beharreko araubide etengarria izango da; gainerakoan aduanako araubide horretako arauak beteko dira.

Finantzazkoak ez diren aktibotan oinarritutako etorkizuneko eta aukerako merkatu ofizialetan negoziatzen diren ondasunak, ondasun horiek eskuratzailearen eskuetan jartzen ez diren bitartean, araubide honen barruan sartuko dira.

b) paragrafoan aipatutako aduanakoa ez beste gordailu araubidea ez zaie aplikatuko enpresari edo profesional gisa ari ez diren pertsonei ematen zaizkien ondasunei, zergarik gabeko dendetarako ondasunak salbu utzita.

Bi. Foru arau honetako 19. artikuluko 5 zenbakian, bigarren lerroaldean, xedatutako kasuetako zerga honen ziozko likidazioa.

...

Seigarren. Foru arau honetako 19. artikuluko 5 zenbakian, bigarren lerroaldean, xedatutako kasuetako zerga honen ziozko likidazioa.

Foru Arau honetako 19. artikuluko 5. zenbakian, bigarren lerroaldean, xedatutako kasuetako zerga honen ziozko likidazioa hurrengo arauon arabera egingo da:

1.a. Ondasunek 23 eta 24. artikuluetan adierazten diren guneetatik irten edo araubideak uzten badituzte, aurretiaz gune horietan sartu edo aipatu araubideei lotuta egoteagatik salbuespena izan duten eragiketei dagokien zergaren ziozko likidazioa egin beharko dute, hurren arauon arabera:

a) Ondasunak aurretiaz behin edo behin baino gehiagotan eman izan badira, zerga salbuespenaz baliaturik egindako azken emateari dagokiona da sartu behar den zerga.

b) Ondasun horiek, guneetan sartu izanagatik edo aipatu araubideei lotuta egoteagatik, Europako Elkartearen barruko eskuraketa salbuetsiaren xede izan badira eta ondoren emate salbuetsiaren gai izan ez badira, zerga salbuespenaz baliatu ez izanez gero eragiketa hari dagokiena da sartu behar den zerga.

c) Ondasunok aurreko a) edo b) letretan aipatuak baino geroago egindako eragiketa salbuetsien gai izan badira edo eragiketa haiek egin ez badira, sartu beharreko zerga, letra horietan xedatzen denaren ondoriozkoa gehi geroagoko eragiketa salbuetsi horiei zegokiekeena izango da.

d) Ondasunok, aduanakoez bestelako gordailu araubideari lotu izanagatik, inportazio salbuetsiaren gai izan eta inportazio hori baino geroagoko eragiketa salbuetsien gai izan badira, sartu beharreko zerga, aipatu inportazioari salbuespenaz baliatu ez izanez gero zegokiokeena gehi aipatu eragiketa salbuetsiei dagokiena izango da.

2.a. Guneetatik irteteari edo aipatu araubideak uzteari dagozkien kuoten likidazioa eta sarrera egi behar dituen pertsona une horretan ondasunon jabea dena izango da, eta, subjektu pasiboa izateaz gain, foru arau honetako 167. artikuluko bat atalean aipatu eragiketei dagokien aitorpen-likidazioa aurkeztu beharko du.

Aipatu kuotak sartu behar dituenak haien kenkaria erabili egin ahal izango du foru arau honetako 84. artikuluko bat atalean, 2 zenbakian, xedatutako kasuetarako ezarritakoaren arabera.

Zergaren aplikazio lurraldean egoitzarik ez duten enpresari edo profesionariek, zenbaki honetan xedatzen denaren arabera zergaren subjektu pasibo gertatu direnean, kari honen ziozko likidazioa egin zaien kuotetarako kenkaria lortu ahal izango dute lurralde horretan ezarritako baldintza beretan eta era berean.

3.a. Manu honetan aipatzen diren gune edo gordailuen titularrak dagokien zerga zorraren ordainketaren erantzule solidarioak izango dira, seigarren atal honetako aurreko zenbakietan xedatzen denaren arabera, zergaren ezarpen eremuaren barruan egoitzarik ez duten enpresari edo profesionarien ordezkari fiskal gisa badihardute zein ez.

Zazpigarren. Urtzeko zarramarrak eta hondakinak, burdinarenak edo altzairuarenak, burdinazko edo altzairuzko txatarrarenak edo txatar-totxoenak, burdinazkoak ez diren metalen zarramarrak eta hondakinak eta haien aleazioenak, metalak eta berauen aleazioak dituzten industriako hondarrak, errautsak eta hondakinak.

Aduanen Arantzeleko partida hauetan ageri direnak izango dira urtzeko burdina edo altzairuaren zarramarrak eta hondakinak, burdinazko edo altzairuzko txatarraren edo txatar-totxoen hondakinak, burdinazkoak ez diren metalen zarramarrak eta hondakinak eta haien aleazioenak, metalak eta berauen aleazioak dituzten industriako hondarrak, errautsak eta hondakinak:

| NCE kod. | Merkatugaiaren izeneztapena |
|---|---|
| 7204 | Burdina edo altzairua urtzearen ondoriozko zarramarrak eta hondakinak (txatarra eta totxoak) |

Burdinazko metalen zarramarrek eta hondakinek honakook hartuak dituzte barnean:

a) Burdina edo altzairua urtzeko mekanizatuan eta fabrikazioan lortutako zarramarrak. Mekanizaketa horretan sartuta daude torneaketak, limaketak, kamusketak, totxoenak, palankatxoenak, barrenak edo perfilenak.

b) Burdina eta altzairua urtzeko manufakturak, hainbat arrazoirengatik horrela ezin erabil daitezkeenak, eta haien hondakinak, beraien zati edo pìeza batzuk berriro erabili ahal badira ere.

Zergati horiek honakook dira: haustura, mozketak, ahuldura eta abar.

Ez dira sartuko dauden bezala edo konpondu ostean lehen erabiltzen zirenerako erabili ahal diren produktuak.

Txatarraren totxoak burdina edo altzairu oso aleatuzkoak izan ohi dira, lazki iraziak, berriro urtutako zarramarra eta hondakin garbietatik lortuak (amolaketa-hautsak edo torneaketa garbiak). Haien gainazala zimurtsua eta irregularra da.

| NCE kod. | Merkatugaiaren izeneztapena |
|---|---|
| 7402 | Errefinatu gabeko kobrea; errefinatze-lanetarako kobrezko anodoak. |
| 7403 | Kobre errefinatua: katodoak eta katodo atalak. |
| 7404 | Kobrezko zarramarrak eta hondakinak. |
| 7407 | Kobrezko barrak eta perfilak. |
| 7408.11.00 | Kobre errefinatuzko alanbrea, zeharkako ebakidura 6 mm baino handiagoa duena. |
| 7408.19.10 | Kobre errefinatuzko alanbrea, zeharkako ebakidura 5 mm baino handiagoa eta 6 mm baino txikiagoa duena. |
| 7502 | Nikela. |
| 7503 | Nikelezko zarramarrak eta hondakinak. |
| 7602 | Aluminiozko zarramarrak eta hondakinak. |
| 7601 | Aluminioa, gordinik. |
| 7602 | Aluminiozko zarramarrak eta hondakinak. |
| 7605.11 | Aleaziorik gabeko aluminiozko alanbrea. |
| 7605.21 | Aluminio aleatuzko alanbrea. |
| 7801 | Beruna. |
| 7802 | Berunezko zarramarrak eta hondakinak. |
| 7901 | Zinka. |
| 7902 | Zinkezko zarramarrak eta hondakinak (kalamina). |
| 8001 | Eztainua. |
| 8002 | Eztainuzko zarramarrak eta hondakinak. |
| 2618 | Siderurgiako hondar pikortatuak (hondar-harea). |
| 2619 | Hondarrak (pikortatuak izan ezik), irabiaketak eta siderurgiako gainerako zarramarrak. |
| 2620 | Metala edo metal-konposatuak dituzten errautsak eta hondakinak (siderurgiakoak izan ezik). |
| 47.07 | Paperezko edo kartoizko zarramarrak eta hondakinak. Paperezko edo kartoizko zarramarrek honakook hartuak dituzte barnean: karraskaketak, ebakinak, orri apurtuak, aldizkari zaharrak eta argitalpenak, makulaturak eta moldiztegiko probak eta antzeko gaiak. Era berean, definizioaren barruan daude birziklatzeko paperezko edo kartoizko manufaktura zaharrak. |
| 70.01 | Beirazko zarramarrak eta hondakinak. Beirazko zarramarra eta hondakinek barnean hartuak dituzte beirakigintzako hondakinak eta beirakien erabilerarengatik edo kontsumoarengatik sortuak. Ertz ebakitzaileak dituzte ezaugarri.<br>Berreskuratutako berunezko bateriak. |

Zortzigarren. Foru arau honetako 91. artikuluko Bat zenbakiko 1.6 azpizenbakiko c) letran aipatutako ondasunen zerrenda.

- Betaurreko zein ukipen-lente graduatuak eta haiek erabili, kontserbatu eta mantentzeko behar diren produktuak.

- Ziztatzeko gailuak, glukosa maila automatikoki irakurtzeko gailuak, intsulina jartzeko gailuak eta diabetesa norberak kontrolatzeko eta tratatzeko gainerako aparatuak.

- Gorputz zetonikoak eta odol-koagulazioa norberak kontrolatzeko gailuak, eta desgaitasuna dakarten beste gaixotasun batzuk norberak kontrolatzekoak, adibidez, morfinaren eta botika onkologikoen infusio-sistemak.

- Gernua biltzeko poltsak, inkontinentzia-xurgagailuak eta gernu-inkontinentzia eta inkontinentzia fekalerako beste sistema batzuk, irrigazio-sistemak barne.

- Protesiak, ortesiak, ortoprotesiak eta inplante kirurgikoak eta, bereziki, 2006ko irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuan jasotakoak. Dekretu horren bidez, Estatuko Osasun Sistema osorako zerbitzu erkideen zorroa eta zerbitzuok eguneratzeko prozedura ezartzen dira, osagaiak eta osagarriak barne.

- Trakeotomia- eta laringektomia-kanulak.

- Aulki terapeutikoak, gurpil-aulkiak eta haietan erabiltzeko eskaren aurkako kuxinak eta arnesak, makuluak, eskorgak eta desgaitasuna duten pertsonak mugitzeko garabiak.

- Igotze-plataformak, gurpil-aulkietarako igogailuak, aulkiak eskaileretara egokitzeko gailuak, arrapala eramangarriak eta nor bere kabuz altxatzeko barra autosostengatzaileak.

- Barne lesioak edo malformazioak murrizteko aparailuak eta tresnak, adibidez, barrabil-babesak eta barizeak konprimitzeko arropa.

- Etxeko dialisia egiteko eta arnasketa-tratamendurako aparatuak

- Akats edo desgaitasun bat konpentsatzeko mediku-ekipamenduak, aparatuak eta gainerako tresnak, ikusmen- eta entzumen-urritasuna duten pertsonek bakarrik erabiltzeko diseinatuak.

- Urritasun fisikoa, mentala, intelektuala edo sentsoriala duten pertsonek bakarrik erabiltzeko diseinatutako honako laguntza-produktu hauek:

  - Janzten eta eranzten laguntzeko produktuak: oinetako-janztekoak eta eranztekoak, lurrera iritsi ahal izateko kirtena dutenak, arropa leku batean eskegitzeko pertxak, kakoak eta hagatxoak.

  - Komunean laguntzeko produktuak: komunontzirako goratzekoak, beso-euskarriak eta bizkarrak.

  - Nork bere burua garbitu, bainatu eta dutxatzen laguntzeko produktuak: kirten bereziak dituzten eskuilak eta esponjak, bainu edo dutxarako aulkiak, bainuontzi-oholak, aulkiak, bainuontziaren luzera edo sakonera murrizteko laguntza-produktuak eta heldulekuak.

  - Informazio- eta komunikazio-teknologia berriak erabiltzeko laguntza-produktuak: mugimendu zefaliko edo okular bidezko saguak, kontraste handiko teklatuak, betikara bidezko sakagailuak, mugitzeko desgaitasun larria duten pertsonek gailua ahots bidez erabiltzeko eta idatzi ahal izateko softwarea.

- Mugitzeko desgaitasuna duten pertsonek objektuei heldu eta eragiteko laguntza-produktuak eta gailuak: heltzeko pintza luzeak eta heltzea egokitzeko gailuak.

- Estimulagailu funtzionalak.

Bederatzigarren. Urrezko lingote edo xaflen pisua, inbertsio-urretzat jotzearen ondoreetarako.

Foru arau honen ondoreetarako inbertsio-urretzat hartuko dira legea 995 milarenekoa edo handiagoa duten urrezko lingote edo xaflak, baldin eta lingote-merkatuetan onartzen diren formetan ondoko pisu hauetako batekoak badira:

12,5 kilogramo

Kilogramo 1

500 gramo

250 gramo.

100 gramo

50 gramo

20 gramo

10 gramo.

5 gramo

2,5 gramo

2 gramo

100 ontza

10 ontza.

5 ontza

Ontza 1

0,5 ontza

0,25 ontza

10 tael

5 tael

Tael 1

10 tola.

Hamargarren. Zilar-, platino- eta paladio-emateak, zein telefono mugikor, bideo-jokoen kontsola, ordenagailu eramangarri eta tableta digitalen emateak.

| Kod. NCE | Salgaiaren izena |
| --- | --- |

| | |
|---|---|
| 7106 10 00 | Zilar-hautsa |
| 7106 91 00 | Zilar gordina |
| 7106 92 00 | Zilar erdi-landua |
| 7110 11 00 | Platino gordina edo platino-hautsa |
| 711019 | Platinoa. Gainerakoak |
| 7110 21 00 | Paladio gordina edo paladio-hautsa |
| 7110 29 00 | Paladioa. Gainerakoak |
| 851712 | Telefono mugikorrak eta hari gabeko beste sare batzuetakoak. Telefono mugikorrei dagokienez, bakarrik |
| 950450 | Bideo-jokoen kontsolak eta bideo-jokoen makinak, 950430 azpipartidakoak izan ezik. Bideo-jokoen kontsolei dagokienez, bakarrik |
| 847130 | Datuak tratatzeko edo prozesatzeko makina automatiko eramangarriak, 10 kilogramotik beherakoak, gutxienez prozesatzeko unitate zentral bat, teklatu bat eta pantaila bat dituztenak |

Ordenagailu eramangarriei eta tableta digitalei dagokienez, bakarrik.